

3/1996 Foru Araua, ekainaren 26koa, Sozietateen gaineko Zergari buruzkoa (BAO Uztailaren 11koa)

Bizkaiko Batzar Nagusiek, 1996.eko ekainaren 26ko osoko bilkuran, Sozietateen Zergari Buruzko 96/3. Foru Araua onetsi dutela eta nik neuk aldarrikatu eta argitara dadin agintzen dudala jakinarazten dut, aplikatu zaien beharra duten hiritar, norbanako eta agintari guztiek zaindu eta zainaraz dezaten.

Bilbon, 1996.eko uztailaren 3an.

Ahaldun Nagusia,

JOSU BERGARA ETXEBARRIA

Sozietateen Zergari buruzko ekainaren 26ko 96/3. Foru Araua

HITZAURREA

Foru arau honek Zergaren transformakuntza sakona dakar, besteak beste, merkataritzako legeriaren eraldaketagatik, Pertsona Fisikoen Zergaren eraldaketagatik, ekonomianazioartekotu delako eta horrek mugez handiko fluxuak dakartzalako, eta azken eraldaketa osoa egin zitzaionetik ia hogeigarren urtera jasaten ari den arauen barreiadura dela eta.

Hala, zerga oinarria kontabilitateko emaitzara hurbildu da; zergak, pertsona fisikoek erakunde juridikoetan duten partaidetzaren bidez lortutako kapitalaren errenten iturrian atxikipenerako mekanismo legez jarduten duela bereganatu da; eta, ondorioz, ezarpen bikoitza irazitako metodoak hobetu dira; badago nazioarteko zerga gardentasuna esaten zaiona; nazioarteko ezarpen bikoitza eragozteko metodoak hobetu dira, bai eta araubide berezien gehiengo legezko gorputz bakarrean sartu ere (kooperatibak eta irabazteko asmorik ez duten erakundeak salbu, ezaugarri bereziak baitituzte). Horrenbestez, lehen aipatutako helburuok foru arau honek betearaziko ditu.

Hala ere, helburu generiko hauetaz gain, foru arau honek beste batzuk jasotzen ditu, zenbait alditan lehentasunezkoztat agertu direnak; honako hauek dira, laburbilduz:

- Enpresen zerga-ordainketaren maila egoki eta konpetitiboa bermatzea.
- Enpresa jardueraren alde batzuen zerga-zigorra eragozte.
- Enpresen egitura eta kapitalizazioa sendotzea.
- Enpresen ekimen berrien agerpena suspertzea.
- Enpresen kanpo elkarlehia funtsez hobetzea.
- Aurrezkoa enpresen ekimenetarantz bideratzea.
- Zerga pizgarri erako neurriak egituraren aldetiko urritasunak agertzen direnerako mugatzea.
- Enpresa txiki eta ertainentzat zerga-eremu egokiagoa eta aldekoagoa garatzea.

- Nazioarteko zergen arabera, kanpoko kapitala bertan ugariagoa izan dadin, behar diren aldeak eraldatzea.

Helburuok lortzeko funtsezko alde bi hartu dira kontutan; batetik, 12/1981 Legeak, maiatzaren 13koak, onetsi zuen Ekonomi Itunari buruzko 3 eta 4. artikuluko artikuluetan, hurrenez hurren, ezarritako printzipio orokorrei eta harmonizazio fiskalaren printzipioei zor zaien begirunea, eta horregatik foru arau honek araubide erkideko lurralderako indarrean den Sozietateen gaineko Zergari buruzko Legeak duen eskemaren antzekoa aurkezten du eta, bestetik, gure Lurralde Historikoko ekonomiaren ezaugarri bereziak, neurri eraberritzaileak behar baititu eta, zergatik esan ez, neurri ausartak eta ekonomia hau dinamizatzeko gauza izango direnak, eta etorkizunak gure enpresei ekarri behar dizkien erronken aurrez aurre elkarlehian ari izateko baldintzetan jartzen lagunduko dion tresna emateko gauza ere izango direnak.

Hona hemen neurri ezagun batzuk: errenten kategoria ezberdinak alde batera uztea, subjektu pasiboaren irudia hobeto zehaztea, gutxieneko zerga-ordainketa ezabatzea, sozietate gardenek zerga hau ordaintzea, ibilgetu materialaren elementuen eskualdaketan lortzen diren irabaziak berriz inbertitzean salbuespen-sistemaren ordean geroramendu-sistema ezartzea, edo horietan den moneta-errentaren zatia zuzentzea; baina horien ondoan foru arau honek baditu beste zenbait neurri aipatu beharrekoak berauen garrantzia dela eta: guztiak; berauen berritasuna dela eta, berriz: eurentariko batzuk.

- a) Merkataritza fondoa eta beste aktibo ezmaterial batzuk 5 urtetik 10era bitarteko epealdian amortizatzeko aukera izatea, hori merkataritzako legeriarekin bat eginago baitago. Halaber, finantza-merkataritzako fondoa esaten zaiona amortizatzea ere onartzen da.
- b) Orain arte egon den moduko ibilgetuaren elementuen amortizazio taula soil eta eskuzabalari eustea.
- c) Galeren lorpenaz geroztik, ondorengo eta segidako 15 urteetako epealdian galerok konpentsatzeko aukera izatea.
- d) Egoitza atzerrian duten erakundeengandik hartzen diren mozkinetako dibidendu eta partaidetzarako salbuespen-metodoa ezartzea, erakunde horien partaidetza adierazkorrak edukitzen direnean, hau da: partaidetzok 100eko 5etik gorakoak eta urtebeteko ukantzan direnean.
- e) Orokorki, kuota aski ez denean, 15 urteko epealdia ezartzea ezarpen ekonomiko bikoitza eragozteko metodoa ezartzeko, salbuespen- metodora gehiago hurbilduz.
- f) Zergaren tasa orokorra 100eko 32,5era beheratzea.
- g) Zerga oinarrian txikipena erastea oinarri likidagarria lortzeko, hots: 100eko 90eko, 75eko, 50eko eta 25eko txikipena, hurrenez hurren, sortu berri diren enpresen jardueraren lehenengo lau ekitaldietan, beharkizun batzuk betetzen dituztenean.
- h) Enpresa-inbertsioa piztea, aktibo finko material berrietan egiten diren inbertsioen ziozko kenkaria ezarriz.
- i) Gure ekonomiarako lehentasunezko hartzen diren jarduera zehatz batzuk piztea, hala, honako jardueretan egiten diren inbertsioen ziozko kenkaria izango da: ikerketan eta garapenean, ingurugiroaren hobekuntzan eta artapenean, esportazio jardueretan, liburu eta ikusentzunezkoen edizioan, enpresako langileen lanbide-heziketarako eta enplegu-sorkuntzarako gastuetan.
- j) Enpresen finantzaketa hobetzeko pizgarriak sartzeta. Norbere finantzaketa: ekoizpenezko inbertsioetarako erreserba izeneko erreserba berezira egiten diren zuzkiduren ziozko kenkaria ezartzea. Besteren finantzaketa: errenta aldakorreko baloreen eskuraketaren ziozko kenkaria ezartzea.

- k) Bilboko Burtsaren jarduera dinamizatzea, horretan kotizatzen duten baloreetan inbertsioak materializatzen direnean, kenkari-portzentaia handiagoa ezarriz: Bilboko Burtsan kotizatzen iruten duten enpresentzat, hiru ekitalditan ezarri beharreko karga tasari 100eko 25eko gutxipena egitea eta balore-artezkariak diren sozietateei 100eko 20ko tasa ezartzea.
- l) Enpresa txiki eta ertainak indartzea, eurentzako araubide berezia ezarriz, txikiei amortizazio askatasuna, eta ertainei 1,5eko amortizazio indizea ezartzeko aukera emango diena. Gainera, salbuespen metodoa ezartzen da geroramenduko orokorraren ordean, ibilgetuaren elementuen besterenganaketan lortu diren gainbalioetarako, 300.506,0550 milioi pezeta euroko zifratik gorakoak ez direnean.
- m) Zuzendaritza, koordinazio eta finantza zentroak izeneko irudi berria sartzeari; horien berezitasuna euren jarduerak eratorritako gastuen arabera zerga ordaintzean datza.
- n) Itsas araubide berezia ezartzea, merkataritzako zein arrantzako untziei ezarri ahal izango zaiena; funtsean, geroramenduko metodo orokorraren ordean berrinbertsioaren ziozko salbuespen-metodoa ezartzeko aukeran datza, baita aipatutako untzien eskualdaketa lortu diren errentak zergaren oinarrian ez sartzeari ere, eskuratzailerak berriak erosteko zatiketarako destinatzen dituenentzat.

Azkenez, adierazi behar, hartutako konpromisoarekin bat, foru arau honek mandatu bat erasten duela, indarrean jartzen denetik hasita ondorengo lau hilabeteetako epealdian, Bizkaiko Foru Aldundiaren Gobernu Kontseiluak 1996ko abenduaren 31ko Ibilgetu Materialaren Elementuetarako Balantzeen Egunerapenari buruzko Foru Araua Batzar Nagusiei bidal diezaien, hauek onets dezaten.

I. TITULUA

ZERGAREN IZAERA ETA EZARPEN EREMUA

1. artikulua. Izaera

- 1. Sozietateen gaineko Zerga zuzeneko eta pertsonala da, sozietateen eta bestelako erakunde juridikoen errenta foru arau honetan ezartzen denaren arabera zergapetzen duena.
- 2. Espainiako lurraldeko egoiliar ez diren subjektu pasiboek zerga hau ordainarazteko, foru arau honetako XI. izenburuan zerga ordaintzeko betebeharrak pertsonalaz ageri diren arauak beteko dira.

2. artikulua. Ezarpen subjektiboaren eremua, Zergaren ordainarazpena eta zerga-egoitza

- 1. Foru arau honetan xedatutakoa ondoren azalduko diren subjektu pasiboek aplikatuko zaie:
 - a) Zerga egoitza Bizkaian daukatenei, baina honako bi baldintza hauek betetzen dituztenak izan ezik:
 - Haien eragiketa bolumena 7 milioi eurotik gorakoa izan bada aurreko ekitaldian.
 - Aurreko ekitaldi horretako eragiketa bolumenaren 100eko 75 edo gehiago lurralde erkidean egin badute, edo, bestela, Euskal Autonomia Erkidegoan egindako eragiketa guztiak beste bi lurralde historikoetako batean egin badituzte.
 - b) Zerga-egoitza Araban edo Gipuzkoan daukatenei, honako baldintza hauek betetzen badira:
 - Aurreko ekitaldiko eragiketen bolumena 7 milioi eurotik gorakoa izan bada.
 - Aurreko ekitaldiko eragiketen bolumenaren %75 edo gehiago ez bada egin lurralde erkidean.

- Aurreko ekitaldian EAEn egindako eragiketa guztiak Bizkaian egin badira.
- c) Zerga-egoitza lurralde erkidean daukatenei, honako hiru baldintza hauek betetzen badira:
 - Aurreko ekitaldiko eragiketen bolumena 7 milioi eurotik gorakoa izan bada.
 - Eragiketa guztiak EAEn egin badira.
 - Bizkaian beste lurralde historiko bakoitzean baino eragiketa bolumen handiagoa gauzatuz gero.
- 2. Foru Arau honetan ezarritakoa aplikatuko zaie ekonomia intereseko elkarteei eta aldi baterako elkartzen diren enpresa taldeei, kide guztiak edozein lurralde historikoren foru-araudiari loturik baldin badaude eta elkarte horiek zerga-egoitza Bizkaian badute; lurralde erkidegoan dagoenean, Bizkaian beste edozein lurralde historikotan baino eragiketen bolumen handiagoa burutzen badute.

Erakunde horiek lurralde desberdinetan burututako eragiketen kopuruaren dagokion zatia eragiketen proportzioa zehazteko.

- 3. Foru arau honetan araupetutako zerga-taldeen zerga-araubidea aurreko 1. atalean xedatutakoarekin bat etorri den nagusi den sozietatea foru arau hau aplikatu ahal zaioneko sozietate-taldeei aplikatuko zaie, baldin eta mendeko sozietatei lurralde historikoetarik edozeinetako Sozietateen gaineko Zergaren araubidea aplikatu ahal bazaie.

Ondore hauetarako, araubide erkidegoen menpe dauden sozietateak zerga taldetik kanpo daude.

- 4. Zergaren ordainarazpena Bizkaiko Foru Aldundiari dagokio:
 - a) Esklusiboan, subjektu pasiboak bere zerga egoitza Bizkaiko Lurralde Historikoan badu eta, horretaz gain, aurreko ekitaldiko eragiketa-kopuru osoa 6 milioi eurotik gorakoa izan ez bada.
 - b) Ekitaldian zehar Bizkaian burututako eragiketen proportzioan, aurreko ekitaldiko eragiketen bolumena 6 milioi eurotik gorakoa izan bada.
- 5. Talde fiskalek Bizkaiko Foru Aldundiari lurralde horretan egindako eragiketen bolumenaren arabera ordainduko diote zergengatik.

Ondore horietarako, Bizkaian egindako eragiketen bolumena taldeko sozietate bakoitzak taldea desegin aurreretik bertan egin dituen eragiketa guztien batura izango da.

- 6. Subjektu pasiboak lurralde jakin batean jarduten duela esan daiteke, hurrengo artikuluan ezarritako irizpideen arabera lurralde horretan ondasunak eman edo zerbitzuak egiten baditu.

Ondasun-emate eta zerbitzu-egitetzat joko dira Balio Erantsiaren gaineko Zerga araupetzen duen legerian halakotzat definituta dauden eragiketak.

- 7. Eragiketen bolumena honakoa da: ekitaldian zehar subjektu pasiboak bere jardueran ondasunak eman ez eta zerbitzugintzan lortutako kontraprestazioen zenbateko osoa, Balio Erantsiaren gaineko Zerga eta behar denean, Baliokidetzaren Errekargua kenduta.

Ekitaldian lurralde bakoitzean burututako eragiketen bolumenaren proportzioa hurrengo artikulua arauak aplikatuz zehaztuko da eta bi dezimaleko portzentajea biribilduko da.

Aurreko ekitaldia urte osokoa ez bada izan, ekitaldi horretako eragiketak urte osora heldu arte biderkatu eta horren emaitza izango da eragiketen bolumena.

8. Jardueraren hastapenetan, lehen ekitaldiko eragiketen bolumenari lotuko zaio eta ekitaldia batekoa baino gutxiagokoa bada, eragiketak urte osora heldu arte biderkatu eta horren emaitza izango da eragiketen bolumena. Harik eta ekitaldi horretako eragiketen bolumena eta eragiketak non egin diren jakin arte, subjektu pasiboak jarduera hastapenetako ekitaldirako aurreikusten dituenak hartuko dira aintzat, ondore guztietarako.
9. Subjektu pasiboen zerga egoitza beren sozietate-egoitza izango da, bertan euren administrazio-kudeaketa eta negozioen zuzendaritza benetan zentralizatuta badago. Osterantzean, zerga-egoitza kudeaketa edo zuzendaritza hori egiten den lekua izango da.

Zerga-egoitza zehazterik ez dagoenean, aurreko irizpideen arabera, erakundeek zerga-egoitza Bizkaian dutela ulertuko da, ibilgetuaren baliorik handiena Euskal Herrian izanda, baldin eta Bizkaian beste bi lurralde historikoetariko edozeinetan baino ibilgetuaren baliorik handiagoa badu.

10. Bestelakorik frogatzen ez bada, ulertuko da pertsona juridikoen zerga-egoitzaren aldaketarik ez dela izan, aurreko urtean edo hurrengoan ez aktibo bihurtu edo jarduerarik utziz gero.

2 bis. artikulua. Eragiketak burutzen diren tokia.

Bizkaian burututzat joko dira ondokoak:

1. Ondasun-emateak.

- A) Gauzazko ondasun higigarrien emateak Bizkaiko Lurralde Historikotik jartzen direnean eskuratzailaren esku.

Ondasunak eskuratzailaren esku jartzeko garraiatu behar izanez gero, bidalketa edo garraioa hasterakoan ondasunak Bizkaian badaude. Erregela honek honako salbuespenok ditu:

- a) Ematea egiten duenak transformaturiko ondasunak badira, baldin eta emandako ondasunen azken transformazio-prozesua Bizkaian egin bada.
- b) Industri elementu diren emateak Bizkaitik kanpo badira, prestaketa- eta fabrikazio-lanak lurralde horretan egin badira eta instalazio edo muntaketaren kostua kontraprestazioaren %15etik gorakoa ez bada.

Horrekin loturik, Bizkaian industri elementu diren emateak ez dira lurralde horretan egizat hartuko prestaketa- eta fabrikazio-lanak lurralde horretatik kanpo egin badira eta instalazio edo muntaketaren kostua kontraprestazioaren %15etik gorakoa ez bada.

- B) Argindarraren ekoizleek egindako emateak, horren sorkuntza-zentruak Bizkaiko Lurralde Historikoan badaude.
- C) Ondasun higiezinaren emateak, emandako Bizkaian badaude.

2. Zerbitzugintzak.

- A) Zerbitzugintza Bizkaitik egiten bada.
- B) Aurreko letran xedatutakotik salbuetsita daude ondasun higiezinekin zerikusi zuzena duen zerbitzugintzak, ondasunak Bizkaian kokaturik badaude, Bizkaian egintzat joko baitira.

- C) Halaber, salbuetsita daude aseguru eta birkapitalizazioko eragiketak; horietarako irailaren 16ko Aseguru Sarien gaineko Zergari buruzko 2/1997 Foru Dekretu Arauemailearen 5. artikuluan ageri diren arauak aplikatuko dira.
3. Aurreko 1 eta 2 zenbakietan xedatutakoa gorabehera, jarraian zehaztuko diren eragiketak Bizkaian egintzat joko dira, horien subjektu pasiboak zerga-egoitza Bizkaiko Lurralde Historikoan duenean:
- A) Nekazaritza, basogintza, abeltzaintza edo arrantzako ustiategiek eta arrainuntzi-jabeek beren laborantza, ustiapen edo harrapaketatik zuzenean etorri eta transformazio-prozesurik jasan gabe egiten dituzten produktu naturalen emateak.
- B) Garraio-zerbitzuak, etxe-aldaketa, atoi eta garabikoak barne.
- C) Garraibideen errentamenduak.
4. Artikulu honetako irizpideen arabera atzerrian egintzat jotzen diren eragiketak Bizkaiko Zerga Administrazioari eratzekiko zaizkio, gainontzeko eragiketen proportzio berdinean.
5. Balio Erantsiaren gaineko Zerga arautzen duen legedian halakotzat hartzen diren ondasun emate eta zerbitzugintzarik egiten ez duten entitateek Bizkaiko Foru Aldundiari ordaindu diote zergengatik, lurralde horretan baldin badute zerga-egoitza.»

3. artikulua. Itunak eta hitzarmenak.

Aurreko artikuluan ezarritakoa espainiar barne antolamenduaren parte izatera etorri diren itun eta hitzarmenetan xedatutakoaren kalterik gabe ulertuko da.

II. TITULUA ZERGA EGITATEA

4. artikulua. Zerga egitatea.

1. Zerga egitatea subjektu pasiboak errenta lortzea izango da, horren iturri edo jatorria edozein dela.
2. Interes ekonomikoko elkarte espainiar eta europarren, eta enpresen aldi baterako batasunen araubide berezian, errenta lorpena esatean subjektu pasiboari araubide horren mendeko erakundeen zerga oinarriak, mozkinak, galerak egozteak ulertuko da.

Nazioarteko zerga gardentasunaren araubidean errenta lorpen esatean erakunde ez-egoileak lortutako errenta positiboan zerga oinarria sartzea eragiten duten ingurumariak betetzea ulertuko da.

5. artikulua. Errenten zenbatespena.

Ondasun eta eskubideen lagapenak, beren modalitate ezberdinetan, zergaren subjektu pasiboaren kontabilitatik ateratzen den zenbatekoan ordainduak direla uste izango da. Kontabilitatearen irregulartasunak direla eta, kontabilitate horrek ez balu argi adieraziko subjektu pasiboaren ondasun egoera, ordainketa hori merkatuko balio normalaren arabera zenbatuko litzateke, aurkakoaren frogarik ez bada.

6. artikulua. Errenten eratzikipena.

1. Zergen Foru Arau Orokorraren 33. artikulua hizpide dituen sozietate zibilei, nortasun juridikoa izan zein ez, datzaten herentzietan, ondasun erkidegoei, eta gainerako erakundeek dagozkien errentak, baita jasandako konturako ordainketa eta atxikipenak ere, bazkide, jaraunse, erkide zein partaideei esleituko zaizkie, hurrenez hurren, Pertsona Fisikoen

Errentaren gaineko Zergaren abenduaren 21eko 10/1998 Foru Arauaren VI. Kapituluaren 2. Atalean ezarritakoaren arabera.

2. Errenten eratzikipenerako araubidea ez zaie ezarriko zerga hau ordaintzen duten transformakuntzarako nekazaritza-sozietateei.
3. Errenten eratzikipenerako araubidean dauden erakundeek ez dute zerga hau ordainduko.

III. TITULUA SUBJEKTU PASIBOA

7. artikulua. Subjektu pasiboak.

1. Zergaren subjektu pasiboak honako hauek izango dira:
 - a) Pertsona juridikoak, foru arau honen aurreko 6. artikulua. artikuluan ezarritakoaren arabera, errenten eratzikipenaren araubidean zerga ordaintzen duten sozietate zibilak izan ezik.
 - b) Inbertsio-fondoak, 46/1984 Legeak, abenduaren 26koak, Talde-Inbertsioko Erakundeak araupetzen dituenak erregulatuak.
 - c) Enpresen aldi baterako batasunak, 18/1982 Legeak, maiatzaren 26koak, Enpresen Aldi baterako Elkarte eta Batasunen eta Lurraldeko Industri Garapenerako Sozietateen zerga araubideari buruzkoak, araupetzen dituenak.
 - d) Kapital-arriskuko fondoak, kapital-arriskuko erakundeak eta haiek sozietate kudeatzaileak araupetu dituen azaroaren 24ko 25/2005 Legean araupetuak.
 - e) Pentsio-fondoak, 8/1987 Legeak, ekainaren 8koak, Pentsio Plan eta Fondoei buruzkoak araupetzen dituenak.
 - f) Hipoteka-merkatuaren araupeketako fondoak, 2/1981 Legeak, martxoaren 25ekoak, Hipoteka-Merkatuaren Araupeketari buruzkoak, erregulatzen dituenak.
 - g) Hipoteka-titulazioko fondoak, 19/1992 Legeak, uztailaren 7koak, Higiezineta Inbertsioetako Sozietate eta Fondoei eta Hipoteka-Titulazioko Fondoei buruzkoak araupetzen dituenak.
 - h) 3/1994 Legeak, apirilaren 14koak, Kredituari buruzko Espainiar Legeriaren Banku Koordinaziorako Bigarren Zuzentarauarekiko Moldaketari eta finantza sistemari dagozkion beste aldarazpenei buruzkoak, bosgarren xedapen gehigarriaren 2.ean aipatzen dituen aktiboen titulazio-fondoak.
 - i) Foru arau honen VIII. tituluaren IX. kapituluan araupetzen den araubidearen arabera zerga ordaintzen duten sozietate-taldeak.
 - j) Inbertsio bermeko fondoak, Balore Merkatuari buruzko uztailaren 28ko 24/1988 Legean araupetutakoak.
 - k) Banku-aktiboen funtsak; funts horiek Kreditu-erakundeak berregituratu eta desegiteari buruzko 2012ko azaroaren 14ko 9/2012 Legearen hamargarren xedapen gehigarrian aipatzen dira.
2. Zerga honen subjektu pasiboak, honako foru arauan, laburki eta bereiztu gabe sozietate edo erakunde izenaz deituko dira.

8. artikulua. Zerga ordaintzeko norbere betebeharreko subjektu pasiboak.

1. Foru arau honen 2. artikulua. artikulua aipaturako espainiar lurraldean egoitza duten erakundeak Bizkaiko Foru Aldundiari Zerga ordaintzeko norbere betebeharrak lotuko ditu.
2. Zerga ordaintzeko norbere betebeharra duten subjektu pasiboak lortzen duten errentaren osotasunaren zioz zergapetuak izango dira, non ekoitzi den berdin dela eta ordaintzailearen egoitza edozein dela.
3. Entitateen egoitza Espainiako lurraldean dagoela joko da baldintza hauetako bat betetzen dutenean:
 - a) Espainiako legeen arabera eratuta egotea.
 - b) Sozietatearen helbidea Espainian izatea.
 - c) Benetako zuzendaritzaren egoitza Espainiako lurraldean izatea.

Ondorio horietarako, ulertuko da entitate baten benetako zuzendaritzaren egoitza Espainiako lurraldean dagoela bere jardura guztiak lurralde horretan zuzendu eta kontrolatzen direnean.

Zerga Administrazioak zilegi izango du pentsatzea tributazio eza dagoen herrialde edo lurralde batean, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arauaren hamargarren xedapen gehigarrian definitutakoaren arabera, kokaturako entitate batek, edo paradisu fiskaltzat kalifikatutakoetan kokaturakoak, Espainiako lurraldean duela bere egoitza, baldin eta bere aktibo nagusiak, zuzenean zein zeharka, Espainiako lurraldean kokaturako ondasunek edo lurralde horretan bete edo erabiltzen diren eskubideek eratzen badituzte edo bere jardura nagusia bertan egiten bada, non eta entitate horrek ez duen frogatzen zuzendaritza eta benetako kudeaketa herrialde edo lurralde horretan gertatzen direla, eratu eta jarduteko arrazoiak ekonomiko baliogabeak dituela, eta funtsezko arrazoi enpresarialak baloreen edo bestelako aktiboen kudeaketa hutsetik haratago doazela.

9. artikulua. Salbuespenak.

Zergatik salbuetsita daude gongo dira:

- a) Lurraldeko herri administrazioak.
- b) Lurraldeko herri administrazioen organismo autonomidunak.
- c) Aurreko b) letran aipaturako antzeko lurraldeko herri administrazioen zuzenbide publikoko erakundeak.
- d) Apirilaren 14ko 6/1997 Legearen bederatzigarren eta 1. idatz-zatia hamargarren xedapen erantsietan aipaturako antzeko lurraldeko herri administrazioen gainerako herri organismoak.
- e) Gizarte Segurantzaren kudeaketaren ardura duten herri erakundeak.
- f) Eusko Ikaskuntza-Sociedad de Estudios Vascos, Euskaltzaindia-Real Academia de la Lengua Vasca, eta Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País-Euskal Herriaren Adiskideen Elkarteak.
- g) Gordailu bermeko fondoak eta inbertsio bermeko fondoak.
- h) Portu aginpideak.

IV. TITULUA ZERGA OINARRIA

10. artikulua. Zerga oinarriaren kontzeptua eta zehaztapena.

1. Zerga oinarria, zergaldiko errentaren zenbatekoa da, beharrezkoa denean, aurreko zergaldietako zerga oinarri negatiboen konpentsazioaz gutxitua.
2. Zerga oinarria zuzeneko zenbatespenaren araubidearen arabera zehaztuko da, edo zenbatespen objektiboaren araubidearen arabera foru arau honetan hala mxe datzen de kasuetan, eta zeharkako zenbatespenekoaren arabera Zergei buruzko Foru Arau Orokorrean xedatutakoarekin bat etorritz.
3. Zenbatespen zuzeneko araubidean zerga oinarria honela kalkulatu ko da: foru arau honetan ezartzen diren manuak ezarriz, Merkataritzako Kodean, zehaztopen horri buruzko gainerako legeetan eta arau horiek garatzeko ematen diren xedapenetan ezarritako arauen arabera zehaztutako kontabilitateko emaitza zuzenduz.
4. Zenbatespen objektiboaren araubidean zerga oinarria osorik edo partzialki zehaztu ahal izango da foru arau honetan ezarritako jarduera arloen zeinu, indize edo moduluak aplikatuz.

11. artikulua. Balio-zuzenketak: amortizazioak.

1. Ibilgetu materialaren, ibilgetu ukiezinaren zein ibilgetukoinbertsioen amortizazioen barruan elementuok jardunbide, erabilera, luperketa edo zaharkiduragatik izaten duten benetako balio galerari dagozkion kopuruak kengarriak izango dira.
2. Ibilgetu materialaren eta ibilgetuko inbertsioen balio-galera honelako hauetan joko da benetakotzat :
 - a) Arau bidez onesten diren amortizazio- koefizienteak eta metodoak aplikatzearen emaitza denean.

Sozietateen gaineko Zergari buruzko ekainaren 26ko 3/1996 Foru Araua aldatu duen abenduaren 30eko 1/2005 Foru Dekretu Arauemaileko xedapen iragankorrean hauxe xedatu da.

Sozietateen gaineko Zergari buruzko martxoaren 26ko 3/1996 Foru Arauko 11. artikuluko 2. idatz-zatiko a) letran aipatutako amortizazio-koefiziente berriak arau bidez onetsi bitartean, hura ondoreak sortzen hasi aurretik indarrean zeudenak aplikatuko dira, hain zuzen ere inbertsioa eta jarduera ekonomikoak bultzatzeko presazko neurriei buruzko ekainaren 24ko 5/1993 Foru Arauko xedapen gehigarri bakarrean bildutakoak. Zergei buruzko arautegian amortizazio-taulak aipatzen direnean, testua aurreko koefiziente horiez ari dela ulertu behar da."

Hauexek dira inbertsioa eta jarduera ekonomikoak bultzatzeko presazko neurriei buruzko ekainaren 24ko 5/1993 Foru Arauko xedapen gehigarri bakarrean bildutako koefizienteak:

Ondare elementuak	Urteko gehieneko koefizientea	Epealdiko urteak, gehienez
Etxe-gela eta bulegorako, merkataritzako erabilerarako edota zerbitzuetarako eraikinak	3	50
Industri erabilerarako eraikinak eta pabiloiak	5	30
Instalazioak	15	10
Beste erabilera batzuetarako makineria	15	10
Beste erabilera batzuetarako makineria	10	15
Ontziak eta aireontziak	10	15
Autobusak, kamioiak, furgonetak eta antzekoak	20	8
Turismo-ibilgailuak	20	8
Molde, eredu, trokel eta gargarak	33	5

Lanabesak eta erremintak	30	5
Altzariak	15	10
Informatika-ekipoak	25	6
Zehaztu gabeko beste elementu batzuk	50	3
Zehaztu gabeko beste elementu batzuk	10	15

- b) Subjektu pasiboak adierazi eta Zerga Administrazioak onet-sitako plan baten arabera denean.
- c) Subjektu pasiboak balio-galeraren zenbatekoa frogatzen duenean.
3. Arau bidez erregela bereziak ezarri ahal izango dira amortizazioa kalkulatzeko.
4. Honako hauek askatasunez amortiza daitezke:
- a) Ibilgetu materialaren zein ukiezinaren elementuak, haien balio unitarioa 600 eurotik gorakoa ez bada.
- b) Lan-sozietate anonimoen edo erantzukizun mugatukolan-sozietateen ibilgetu materialeko eta ibilgetuko inbertsioetako elementuak, sozietateon jarduerari lotuak, sozietateek kalifikazio hori lortu zuten egunetik aurrerako lehenengo bost urteetan eskuratu badira.
- c) Meatzaritza-aktiboak, foru arau honen 105. artikulua kezkartzen duen arabera.
- d) Ibilgetu materialaren eta ukiezinaren elementuak, eraikinak izan ezik, ikerketa eta garapen jarduerari lotuta badaude.
- Eraikinak zati berdinetan amortizatu ahal izango dira, hamar urtean zehar, eraikinok ikerketa eta garapen jarduerari loturik dauden zatian.
- e) Ibilgetu ukiezin moduan aktibatu diren ikerketa eta garapen gastuak, amortizazio askatasuna duten elementuen amortizazioak salbu.
- f) Nekazaritza-ustategiak modernizatzeari buruzko uztailaren 4ko 19/1995 Legean xedatutakoaren arabera lehen-tasuneko elkarte-ustategiaren kalifikazioa duten erakundeek ibilgetu materialeko edo ukiezinako elementuak, baldin eta elementuok erakundea lehentasuneko ustategizat jo zutenetik aurrerako lehenengo bost urteetan eskuratu baziren.
- g) Ibilgetu materialeko elementu berriak, enpresaren jarduerak duen eragin kutsakorra txikitu eta zuzentzeari zuzenean loturik badaude.
- h) Lurzoru kutsatuak garbitzearekin zuzenean lotuta dauden ibilgetu materialeko eta ukiezinako elementuak, Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde ofizialek onetsi dituzten proiektuetarako badira.

Subjektu pasiboak eskatu behar du g) eta h) idatz-zatietan aipatzen den amortizazio askatasuna aplikatzea, eta Zerga Administrazioak onetsi beharko du, gai horretan eskudunak diren organoek txostena egin ondoren.

Amortizazio askatasunerako erabilitako kopuruek, paragrafo honetan jasotzen diren horiek, zergaoinarria gehituko dute askatasun hori eduki duten elementuak amortizatu, eskualdatu edo, halabada gorkio, jaregin egiten direnean.

5. Aktiboen erabilera aktiboen erosi edo lagapena berritzeko aukerarekin lagatzen bada, aukera bat edo bestea erabiltzeari buruzko zentzuzko zalantzarik ez dagoela ulertuko da baldin eta, beste batzuen artean, aukera hori erabiltzeko ordaindu behar den zenbatekoa

txikiagoa bada aktiboaren balioari aktibo horri lagapenak dirauen artean dagozkion gehieneko amortizazio kuoten batura kenduz gero lortzen den zenbatekoabaino: eragiketa hori finantza-errentamendutzat joko da.

Finantza-errentamenduko kontratuetan, erosteko aukera jasozein ez, amortizazio kuotei dagokien zenbatekoa kengarria izangoda erakunde lagapen-hartzailearentzat, baldin eta kuota horiek, aurreko 1. paragrafoaren ezartzen denaren arabera, lagatako aktibo badiagozkie.

Finantza karga osoa finantza-errentamenduaren epe osoa zeharbanatuko da, sortzapen printzipioaren arabera.

Aktibo hori, aurretik, lagapen-hartzaileak eskualdatu badiu lagatzaileari, orduan eragiketa hori finantziario metodotzat joko da eta lagatzaileak eskualdaketa aurreko baldintza berberetan eta balioberaren gainean jarraituko du aktibo horren amortizazioa.

Paragrafo honetan aipatzen diren aktiboentzat ere amortizazio askatasuna egongo da, aurreko paragrafoan ezartzen diren kasuetan.

6. Bizitza baliagarri definitua duen ibilgetu ukiezina amortizatzeko zuzkidurak kengarriak izango dira, eta horretarako gehieneko muga, urtean, zuzkidura horien bosten bat izango da. Kengarriak izateko, baina, honako baldintza hauek bete behar dira:

- a) Ibilgetua kostu bidezko eskuratze baten bitartez agerian jarri izana.
- b) Erakunde eskuratzailea eta eskualdatzailea ez izatea sozietate-talde bereko kide, Merkataritza Kodearen 42. artikuluan ezartzen diren irizpideen arabera, erakunde egoitza eta urteko kontu bateratuak egiteko betebeharrak gorabehera. Erakunde biak talde bereko kide badira, erakunde eskualdatzaileak ibilgetua pertsona edo erakunde ezlotuei erosteko ordaindu zuen eskuraketa prezioarengainean egingo da kenkaria.

Dena dela, ibilgetu ukiezineko elementuaren bizitza baliagarri definitua bost urte baino gutxiago bada, bizitza horri dagokion amortizazioaren zuzkidura izango da kengarria.

Aurreko a) eta b) paragrafoetan jasotzen diren baldintzak betetzen ez dituzten ibilgetu ukiezinen amortizaziorako zuzkidurak kengarriak izango dira, baldin eta ibilgetu horren galera itzulezin batidagozkiola frogatzen bada.

Aplikazio informatikoak amortizatzeko bost eta hamar urte bitarteko epearen barruan egiten diren zuzkidura linealak kengarriak izango dira.

12. artikulua. Balio-zuzenketak: ondare-elementuen balioa narriatzeak eragindako galera.

1. Argitalpen-fondoak, fondo fonografikoak eta ikus-entzunezkoak narriatzeak eragindako galerak kengarriak izango dira ekoizpen jardura horiek egiten dituzten erakundeentzat, behin ekoizpenak merkatuan jarri zirenetik bi urte igaro eta gero. Epe hori amaitu aurretik ere kengarriak izango lirarteke, narriatzea frogatuz gero.
2. Zordunek izan ditzaketen kaudimen-gabezien ondorioz kredituak narriatu direla eta kredituok izan ditzaketen galerak ere kengarriak izango dira, baldin eta, zergaren sortzapenaren unean honako hauetakoren bat suertatuz gero:

- a) Betebeharraren muga egunetik sei hilabeteko epea igaroz gero.
- b) Zorduna konkurtsoan dagoela adieraziz gero.
- c) Zorduna edo, zordun hori erakunde izatekotan, haren administratzaile edo ordezkarietako bat ondasunak ostentzeagatik delitua dela eta prozesatuta egonez gero.

- d) Betebeharrak judizio bidez erreklamatzuz gero, edo betebeharrak horiek kobratzea prozedura judizial baten edo arbitraje-prozedura baten ebazpenaren menpe egonez gero.
3. Ondoren aipatuko diren kredituei dagozkien galerak ez dira kengarriak izango, kredituok beren izatearen edo zenbatekoaren gaineko arbitraje-prozedura edo prozedura judizial baten barruandaudenean izan ezik:
- a) Zuzenbide publikoko erakundeek zordundakoak edo fidantzan emanikoei dagozkienak.
 - b) Kreditu-erakundeek edo elkarrekiko berme-sozietateek fidantzan emanikoei dagozkienak.
 - c) Eskubide erreal, jabaria erreserbatzeko itun eta atxikitzeko eskubidearen bidez bermatutakoei dagozkienak, bermea bera galtzean edo balioa galtzen duenean izan ezik.
 - d) Kreditu-aseguru edo gaude kontratuaren bidez bermatutakoei dagozkienak.
 - e) Beren-beregiko berritu edo luzatu direnei dagozkienak.
4. Ez dira kengarriak izango hartzekodunarekin lotuta dauden pertsonak edo erakundeek izan ditzaketen kaudimen-gabezien ondorioz kredituen narriatzeak eragindako galerak, judizio bidez aitortutako kaudimen-gabezietan salbu. Horrekin batera, bezero eta zordunen kaudimen-gabezia arriskuaren zenbatespen orokorretan oinarritutako zuzkidurak ere ez dira kengarriak izango.
5. Finantza-erakundeek dagokienez, Espainiako Bankuak arlo horretan duen arautegia aplikatuko zaie, Bizkaiko Foru Aldundiak bereziki zehazten duenean izan ezik. Arau bidez ezarri ahalizango dira zordunak, zordun talde bati eragiten dioten inguruabarren arabera, kaudimengabetzat jotzeko baldintzak.
6. Merkatu arautuan kotizatzen ez duten erakundeek kapitaleko partaidetza edo halako merkatu batean kotizatu arren taldeko edo talde anitzeko sozietateen edo sozietate elkartuen (merkataritza legerian zehaztutakoaren arabera) kapitala ordezkatzeko duten baloreen narriaturaren ondoriozko galeraren ziozko kenkariaren zenbatekoa ezin da izan ekitaldi hasierako funts propioetako partaidetzaren balioaren eta itxierakoaren arteko diferentzia baino gehiago, ekitaldian egindako ekarpenak eta ekarpen itzulketak.

Aipatutako diferentzia kalkulatzeko ekitaldiaren itxierako balioak hartuko dira aintzat, baldin eta organo eskudunak formulatu edo onetsitako balantzeetan jasotzen badira.

Aurreko paragrafoetan xedatutakoa gorabehera, aipatutako erakundeek kapitaleko partaidetza %5etik gorakoa bada, kenkariaren zenbatekoa ezin da izan partaidetzak erosteko prezioaren eta partaidetutako erakundearen ondare garbiaren arteko diferentzia baino gehiago, partaidetzaren proportzioan eta balorazio-egunean dauden gainbalio tazituekin zuzenduta. Balio hori kalkulatzeko, eta enpresak partaidetzarik badauka beste batean, kontuan eduki behar da urteko kontu bateratuetan jasotzen den ondare garbia, Merkataritza Kodean eta garatu duten arauetan ezarritako irizpideak aplikatuta.

Egoitza zerga paradisutzat jotzen diren lurralde edo herrialdeetan daukaten erakundeetako partaidetzaren narriaturagatik galerekin ez dute kenkaririk sortuko, ondoko kasuetan izan ezik: erakundeak bere kontuak partaidetzaren titularrak den erakundearen kontuekin bateratzen baditu (Merkataritzaren Kodeko 42. artikulua aplikatuta) edo egoitza Europar Batasuneko estatu batean badauka eta subjektu pasiboak frogatzen badu eratzeko eta jarduteko arrazoi ekonomiko baliozkoak izan direla eta enpresa jarduerak egiten dituela.

7. Kengarriak izango dira merkatu arautuetan kotizatzeko onartuta dauden zorra ordezkatzeko duten baloreen narriatzeak eraginda sortzen diren galerak. Kenkari horrek, dena dela, muga bat izango du: subjektu pasiboak dituen balore horiek guztiek, merkatu horietan kotizatzeko

onartuta daudenek, zergaldian jasandako galera orokorra; eta azken hori kalkulatzeko kontuan hartuko dira balio-aldaketa positibo zein negatiboak.

Ez dira kengarriak izango berreskuraketa-balio zehatza duten baloreen narriatzeak eraginda sortzen diren galerak, baldin eta balore horiek merkatu arautuetan kotizatzeke onartuta badaude edo paradisu fiskaltzat hartzen diren herrialde edo lurraldeetan kokatzen diren merkatu arautuetan kotizatzeke onartuta badaude.

8. Aurreko 6.paragrafoko hirugarren lerrokadan aipatzen diren partaidetzak eskuratzen direnean, partaidetzaren eskuraketa prezioaren eta erakunde partaidetuak eskuraketa datan duen ondaregarbiaren arteko diferentzia, eskuratzailleak daukan partaidetzaren arabera, erakundearen ondasun-eskubideei egotziko zaie. Horretarako, Merkataritza Kodearen 46.artikuluaren eta hura garatzeko gainerako arauetan ezartzen den integrazio orokorreko metodoa aplikatuz. Diferentzia horretatik egotzi ez den zatia, berriz, zerga-oinarritik kendu ahal izango da, betiere haren zenbatekoaren bostenaizango da urteko gehieneko mugarekin, diferentzia hori foru arau honetako hogeita zazpigarren xedapen iragankorreko kenkariaren oinarrian sartu denean izan ezik, aplikatzekoa den kontabilitateko araudian ezartzen dena gorabehera.

Diferentzia hori kengarria izatea eta artikulu honetako 6.paragrafoan aipatutako narriatzeak eraginda sortzen diren galerak, halakorik badago, bateragarriak dira.

Erosi diren partaidetzei dagokien erakundea, hau da, partaidetua, bere aldetik, beste erakunde baten partaide bada, kontuan hartu behar dira Merkataritza Kodean eta hura garatzeko arauetan jasotzen diren irizpideak aplikatuz prestatu diren urteko kontubateratuetatik ateratzen den ondare garbia eta ondasun-eskubideak hartu behar dira kontuan.

Egoitza lurralde espainiarrean ez duten erakundeen fondo pro-pioetako partaidetza ordezkatzeko duten baloreen kasuan, paragrafo honetan xedatzen dena aplikatzeko beharrezkoa izango da balore horien ondoriozko errentak, foru arau honetako 19.artikuluaren arautzen denaren arabera, zerga-oinarrian ez sartzeko aukera egotea.

Merkatu arautu baten bidez eskuratu ez diren partaidetzen kasuan, paragrafo honetan xedatzen dena beti aplikatuko da, baldin eta partaidetza eskuratu duen erakundea ez badago pertsona edo erakunde eskuratzailleari dagokionez Merkataritza Kodearen 42.artikuluaren zehazten den kasuetakoren batean.

Aurreko lerrokadan aipatu behar izan ez zaio ezarriko pertsona edo erakunde eskualdatzailleak partaidetza eskuratzeko ordaindutako prezioari, eskualdatzailleak, aldi berean, berari dagokionez Merkataritza Kodearen 42.artikuluaren xedatutako kasuetakobatean ere ez dauden pertsona edo erakundeak eskuratu badie.

Paragrafo honetan ezartzen denarekin bat kendu diren zenbatekoek zerga-oinarria handituko dute paragrafo honetan aipatzen diren diferentziaren ondorioz sortzen diren narriatzeak eragindako galerak badaude edo partaidetzak eskualdatzen badira, eta ezingo da, inola ere, foru arau honetako 19.artikuluaren ezartzen dena erabili.

Partaidetzak eskualdatzearen ondorioz sortzen diren errentek foru arau honetako 22.artikuluaren aparteko mozkinen berrinbertsiorako zehazten denari heldzen badiote, paragrafo honetan ezartzen denaren arabera kendu diren kopuruak ez dira izango zerga-oinarrian sartuko ez diren errenten parte.

9. Merkataritza-fondoei dagokien ibilgetu ukiezinaren jatorrizko eskuraketa prezioa kengarria izango da, eta horretarako gehieneko muga, urtean, zenbateko horren bosten bat izango da, betiere honakobaldintza hauek betetzen badira:
 - a) Ibilgetua kostu bidezko eskuratzeko baten bitartez agerian jarri izana.

- b) Erakunde eskuratzailerak eta eskualdatzailerak ez izatea sozietate-talde bereko kide, Merkataritza Kodearen 42.artikuluaren ezartzen diren irizpideen arabera, erakundearen egoitza eta urteko kontu bateratuak egiteko betebeharrak gorabehera. Erakunde biko talde bereko kide badira, kerkaria erakunde eskualdatzailerak merkataritza-fondoak eskuratzeko ordaindu duen prezioaren gainean egingo da, lotuta ez dauden pertsoneri edo erakundeeri erosi dienean.
- c) Erreserba xedaezin bat zuzkitu izana, merkataritzakolegeriak ezartzen duenaren arabera. Erreserba hori zuzkitu ezin bada, orduan, kerkaria erabili ahal izateko, erreserba hori hurrengo ekitaldietako lehenengo mozkinen kargura zuzkitu beharko da.

Aurreko a) eta b) idatz-zatietan zehazten diren baldintzak betetzen ez badira, merkataritza-fondoaren balioak izan duen narriatzea dela-eta sortzen diren galeren artean kredita daitezkeenak soilik izango dira kengarriak.

Paragrafo honetan zehazten den kerkaria erabiltzeko, aurrekolerrokadan arautzen dena erabiltzeko izan ezik, ez da bete behargalera-irabazien kontuan egozte.

Paragrafo honetan xedatzen dena-ren arabera kendu diren zenbatekoek zerga-oinarria handituko dutemerkataritza-fondoaren narriatzeak eragindako galerak badaudeedo fondo hori eskualdatzen bada.

- 10. Aurreko paragrafoa a) eta b) idatz-zatietako baldintzak betetzen direnean, bizitza baliagarri mugagabea duen ibilgetu ukiezina kengarria izango da, eta horretarako gehieneko muga, urtean, zenbateko horren bosten bat izango da.

Bestela, bizitza baliagarri mugagabea duen ibilgetu ukiezinaren balioak izan duen narriatzea dela-eta sortzen diren galeren artean kredita daitezkeenak soilik izango dira kengarriak.

Paragrafo honetan zehazten den kerkaria erabiltzeko, aurreko lerrokadan arautzen dena erabiltzeko izan ezik, ez da bete behargalera-irabazien kontuan egozte.

Paragrafo honetan xedatzen dena-ren arabera kendu diren zenbatekoek zerga-oinarria handituko dute aktibo ukiezinaren narriatzeak eragindako galerak badaude edo aktibo hori eskualdatzen bada.

13 artikulua. Hornidurak.

- 1. Honako gastu hauek ez dira kengarriak izango:

- a) Betebehar inplizitu edo isilekoen ondoriozkoak.
- b) Langileentzako epe luzerako ordainsariei dagozkienak. Hala ere, kengarriak izango dira azaroaren 29ko 1/2002 Legegintzako Errege Dekretuak onetsitako Pentsio Plan eta Funtsei buruzko Legearen Testu Bateginean araupetutako pentsio planen sustatzaileen ekarpenak, bai eta bazkide babesleek borondatezko gizarte aurreikuspeneko erakundeetara egiten dituzten ekarpenak eta enpresen gizarte aurreikuspeneko planetara egiten direnak ere. Ekarpenerak horiek partaide, aseguru edo bazkide oso edo arunt bakoitzari egotziko zaizkio berari dagokion heinean, aparteko kasuetan Pentsio Plan eta Funtsei buruzko Legearen Testu Bategineko 5.3.c) artikuluan ezarritakoa aplikatuz pentsio planetara egiten direnak izan ezik. Era berean, kengarriak izango dira pentsio planen antzeko gertakizunen estaldurarako kontribuzioak, honako beharkizunok betetzen badituzte:
 - a) Prestazioak lotzen zaizkien pertsoneri egotzi behar zaizkie zergen ondoretarako.
 - b) Etorkizuneko prestazioak hartzeko eskubidea era ezeztazinean eskualdatu behar da.

c) Ekarpenteko baliabideen titulartasuna eta kudeaketa eskualdatu behar dira.

Halaber, kengarriak izango dira laneko pentsio funtsen jarduerak eta gainikuspena araupetu dituen Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2003ko ekainaren 3ko 2003/41/CE Zuzentarauan ezarritako enpresa sustatzaileek egiten dituzten kontribuzioak, baldin eta aurreko a'), b') eta c') letretan araupetutako betekizunak betetzen badira eta Pentsio Plan eta Funtsei buruzko Legearen Testu Bategineko 8.6. artikuluan ezarritako gertakizunak estaltzen badira.

- c) Kontratuak betetzeko kostuei dagozkienak, kontratuotatik jasoko bide diren onura ekonomikoak baino handiagoak badira.
 - d) Berregituraketen ondoriozkoak, legezko edo kontratuzkobetebeharrei, eta ez soilik isilekoei, lotutakoak direnean izan ezik.
 - e) Erosketen itzulketa-arriskuari dagozkionak.
 - f) Pertsonal-gastuak, langileei ordaintzeko formula gisa era-bili diren ondare tresnetan oinarritutako ordaintak badira, bai dirutan ordaintzen direnak, bai eta tresna horiekemanez gauzatzen direnak ere.
2. Ingurumen jardueri dagozkien gastuak kengarriak izango dira, baldin eta subjektu pasiboak proposatu eta Zerga Administrazioak onetsitako plan bati badagozkie.
 3. Aurreko paragrafo bien arabera zergan kengarriak izan ez diren gastuak hornidura hori bere helbururako erabiltzen den zergaldiko zerga-oinarrian sartuko dira.
 4. Aseguru erakundeek egindako hornikuntza teknikoaren gastuak kengarriak, baina muga honekin: arau aplikagarrietan ezarritako gutxieneko zenbatekoa. Aurreko mugarekin, zerga oinarriaren kalkuluan kengarria izango da ekitaldian egonkokortze erreserbarako egindako zuzkiduraren zenbatekoa, nahiz eta galeren eta irabazien kontuan sartu ez. Erreserbako diru kopururen bat erabili bada, erabili den zergaldiko zerga oinarrian integratu behar da.

Primen narriaduraren ziozko zuzketak eta kobratzeko dauden kuotak ezin dira bateratu, saldo beretarako, zordunen kaudimengabezien ondoriozko kreditu narriadurek eragindako galerekin.

5. Elkarrekiko berme-sozietateek hornidura teknikoak direla-eta galera-irabazien kontuaren kargura egindako gastuak kengarriak izango dira, fondo horrek Elkarrekiko Berme Sozietateen Araubide Juridikoari buruzko martxoaren 11ko 1/1994 Legeko 9. artikuluan zehazten den nahitaezko gutxieneko zenbatekoa erdietsi arte. Nahitaezko zenbatekoak gainditzen dituzten zuzkiduren %75 izango da kengarria.

Ez dira zerga-oinarrian sartuko herri-administrazioek elkarrekiko berme-sozietateei emandako dirulaguntzak, ezta diru-laguntzahoretatik eratorritako errentak ere, baldin eta bai batzuk eta bai besteak hornidura teknikoaren fondorako erabiltzen badira. Paragrafo honetan ezarritakoa birfidantzamenduko sozietateei ere aplikatuko zaie, Elkarrekiko Berme Sozietateen Araubide Juridikoari buruzko 1/1994 Legeko 11. artikuluan ezartzen denaren arabera nahitaez haien helburu soziala osatu behar duten jardueri dagokienez.

6. Konponketa- eta berrikusketa-bermeen ondoriozko arriskuei dagozkien gastuak kengarriak izango dira, horniduraren saldoa zehazteko beharrezkoa den zenbateraino. Baina saldo hori ez da izan behar eragiketa baten emaitza baino handiagoa; eragiketahonako hau da: zergaldiaren amaieran berme biziduna duten salmentei portzentaje bat aplikatuko zaie, zergaldian eta aurreko zergaldi bietan dauden bermeei aurre egiteko egindako gastuen etazergaldiotan egindako bermedun salmenten arteko proportzioa, hainzuzen ere.

Aurreko lerrokadan xedatutakoa salmenten itzulketen ondorioz sortzen diren gainerako gastuen estaldurarako zuzkidurei ere aplikatuko zaie.

Erakunde sortu berriak, jarduera berriak hasten dituzten erakundeak edo beren jarduerak hiru ekitaldi igaro gabe berriz hasten dituzten erakundeak baleude, paragrafo honen lehenengo lerrokadan finkatutako portzentajea izango da erakundeak eragiketakegin dituen ekitaldiari edo ekitaldiei egozgarriak zaizkien gastueneta sarreraren artean dagoen proportzioa.

7. Ez dira kengarriak izango kengarriak ez diren horniduren balioak eguneratzearen ondorioz sortzen diren doikuntzek eragindako finantza gastuak.

14. artikulua. Gastu kenezinak.

1. Ez dira zergetatik ken litezkeen gastutzat hartuko honako hauek:

- a) Norbere fondoan ordainketa direnak.
- b) Sozietateen gaineko Zerga kontabilizazioak eratorriak. Ez dira sarreratzat hartuko kontabilizazio horretatik datozenak.
- c) Zigor eta administrazio-isun eta zehapenak, premiamendu- errekarquak, eta aitorpen-likidazioa eta autolikidazioak epeaz kanpo aurkezteagatik jasotzen diren errekarquak.
- d) Jokoko galerak.
- e) Dohaintzak eta eskuzabaltasunak.

Honako gastu hauek ez dira letra honetan sartuko: bezero edo hornitzaileekiko harreman publikoengatik gastuak, ezta usadio eta ohituren arabera enpresako langileei dagokienez egiten direnak ere, ezta, zuzenean edo zeharbidetik, ondasunen salmenta eta zerbitzuen prestazioa sustatzekoak ere, ezta sarrerekin zerikusirik dutenak ere. Horrek ez du eragotziko hurrengo zenbakian, 2.ean, xedatzen dena.

- f) Pentsio Plan eta Fondoei buruzko Legearen Testu Bateginaren eta Borondatezko Gizarte Aurreikuspenarako Erakundearen araubide fiskala arautzen duten foru arauen xede diren gertakizunen berdin-berdinak edo haien antzekoak diren gertakizunen estaldurarako hornidura edo barne-fondoetarako zuzkidurak.
- g) Arau bidez, beren izaera dela eta, paradisu fiskaltzat hartzen diren herri edo lurraldeetan egoitza duten pertsona edo erakundeekin, zuzenean edo zeharbizidez, egindako eragiketei dagozkien zerbitzu-gastuak, edo paradisu fiskal horietan egoitza duten pertsona edo erakundeekin bitartez ordaintzen direnak, subjektu pasiboak sortuak benetan egindako eragiketa edo transakzio bati erantzuten diola frogatu ezik.

Nazioarteko zerga gardentasunaren araubidea, foru arau honetan araupetzen dena, ez zaie ezarri behar zergetatik kenezintzat jotzen diren gastuei dagozkien errentei.

- h) 2012ko urriaren 29ko 7/2012 Legearen 7. artikuluan eskudiruzko ordainketez xedatzen dena hausten duten eragiketetatik eratorritako gastuak. Lege horrek aurrekontuen araudia aldatu eta finantza-araudia egokitzen du, iruzurraren kontrako prebentzioekintzak eta iruzurraren kontra borrokatzeko ekintzak areagotzearen.
- i) Eroskeria.

2. Aurreko ataleko e) letraren bigarren paragrafoan aipatzen diren gastuak kengarri izango dira, diru-sarrerekin loturik dauden kasuan, honako zenbateko eta baldintza hauen arabera:

- a) Sukaldaritza, ostalaritza, bidaia eta joan-etorrien zerbitzuei buruzko harreman publikoen gastuen %50; horren gehieneko muga, ordea, subjektu pasiboaren eragiketa guztien %5 izango da, Euskal Autonomia Erkidegoaren Ekonomia Itunean definitzen den eran.

- b) Opariak eta bestelako esku-erakutsiak, baldin eta hartzaile bakoitzari dagokionaren prezioa ez bada (zergaldi bakoitzeko) 300 euro baino gehiago, eta hartzailearen nortasuna agiriren batean jasota geratzen bada. Baldin eta aipaturiko gastuak goian zehazturiko zenbatekoa baino gehiago badira, zenbateko horretaraino soilik izango dira kengarri.
3. Honako erregela hauek aplikatuko dira garraio-elementuak erabiltzetik sortzen diren gastuei dagokienez:

- a) Gastuen %50 izango da kengarri automobilak eta haien erremolkeak, motorrak eta motozikletak erosi, alokatu, konpondu, mantendu eta depreziatzearekin zein haien erabilerarekin zerikusia duen beste edozein kasutan, baina horrek mugak izango ditu. Batetik, alokairua, lagapena edo depreziazioa dela eta, bi zenbateko hauetan txikiena: edo 2.500 euro, edo subjektu pasiboak erabili duen amortizazio-portzentajea bider 25.000 euro egin eta horren emaitzaren %50. Bestetik, ibilgailuen erabilerarekin zerikusia duten gainerako kontzeptuengatik, 3.000 euro izango da gehieneko muga. Dena dela, ibilgailu eta urte bakoitzeko aplikatuko dira mugok edozein kasutan.

Baldin eta pertsona berak letra honetan aipatzen diren ibilgailuetariko bat baino gehiagoa ibiltzen badu aldi berean, pertsona eta urteko aplikatuko dira mugok, zenbanahi ibilgailu erabilita ere.

Baldin eta ibilgailua bat ez bada urte osoan erabili, letra honetan aipatzen diren gehieneko mugak proportzionalik kalkulatu dira, kasuan kasuko ibilgailua zenbat denbora erabili den ikusita.

Hala ere, letra honetan aipatzen diren gastuak oso-osorik izan ahalko dira kengarri, baina muga batzuekin. Alde batetik, bi kopuruotatik txikiena: edo 5.000 euro, edo zergapekoak erabili duen amortizazio- portzentajea bider 25.000 eginik ateratzen den emaitza. Eta, bestetik, 6.000 euro gehienez ere, ibilgailuaren erabilerarekin loturiko beste kontzeptuengatik. Horretarako, Bizkaiko Lurralde Historikoaren Zergei buruzko Foru Arauaren 117. artikulua 3. zenbakiak aipatzen duen aukera erabili beharko da; alegia, gastu osoa kengarriztat jotzea –goian azaldutako mugekin–, edo kontuan harturik kasuan kasuko zenbatekoak egozpena jaso duela jada ibilgailua erabiltzen duen pertsonari gauzatan emaniko ordainsari gisa (Pertsona Fisikoen Errentaren gainezko Zergari buruzko 2006ko abenduaren 29ko 6/2006 Foru Arauaren 62. artikuluan ezartzen diren arauen arabera), edo, bestela, subjektu pasiboak ziurtasunez frogaturik jarduera ekonomiko baterako erabiltzen dela soil-soilik ibilgailua.

- b) Kengarri izango dira ondoren jasotzen diren ibilgailuen erosketarekin, alokairuarekin, konponketarekin, mantentze-lanekin eta depreziazioarekin zerikusirik duten gastuak, bai eta bestelakoak ere:
1. Salgaien garraioan erabilitako ibilgailu mistoak.
 2. Bidaiariak kontraprestazio bat ordainduta garraiatzeko zerbitzuetan erabiltzen direnak.
 3. Fabrikatzaileek probak, saioak, erakusketak edo salmenten sustapena egiteko erabilitakoak.
 4. Gidariei edo pilotuei kontraprestazio bat ordainduta irakasteko zerbitzuetan erabilitakoak.
 5. Zaintza-zerbitzuetan erabilitakoak.
 6. Eskuarki ibilgailuak alokatzen jarduten duten erakundeek kontraprestazio bidezko alokairu-jarduera horretan soil-soilik erabiltzen dituztenak.

- c) Kengarri izango dira ordezkariak edo merkataritza-agenteak joan-etorri profesionalean darabiltzaten ibilgailuekin zerikusia duten gastuak; alegia, halakoak erostea, alokatzea, konpontzea, mantentze-lanak egitea, haien depreziazioa eta haiek erabiltzearekin zerikusia duen beste edozein gastu.

Hala ere, baldin eta ibilgailuok erabiltzen dituen foro arau honen 16. artikuluan azaltzen diren baldintzetan badago loturik, atal honetako a) letran ezarria aplikatuko da.

- d) Ez dira kengarri izango itsasontzi, laketontziekin edo itsas kiroletarako edozein ontzi, zein aireontziekin zerikusia duten gastuak; alegia, halakoak erostea, alokatzea, konpontzea, mantentze-lanak egitea, haien depreziazioa eta haiek erabiltzearekin zerikusia duen beste edozein gastu.

Garraibide horiek jarduera ekonomiko bati bakarrik atxikirik badaude, aurreko paragrafoan aipatzen diren gastuak kengarri izango dira, baina zergaldi bakoitzean eskuraturiko diru-sarrerei dagokien gehieneko mugaraino.

Hala ere, muga hori ez da aplikagarria izango baldin eta subjektu pasiboak egiaztatua badu badituela jarduera ekonomiko horretan —alegia, garraibideok ustiatzea— denboran zehar jarraituki jarduteko behar diren baliabide materialak eta giza baliabideak.

- 4. Kengarriak izango dira dohaintzan ematen diren ondasunen kopuru ordainduak eta kontabilitateko balioa, honako erakunde dohaintza-hartzaileek berezkoak dituzten helburuen lorpenari ezarri ahal bazaizkio

- a) Eskualdeetako industri garapenerako sozietateak.

- b) Kirol federakunde eta kirol klubek, kirol jarduera ez profesionalen sustapen eta garapenerako sozietate anonimoengandik hartu dituzten kopuruei dagokienez, beti ere erakunde horien artean aipatutako kirol federakunde eta klubek helburua lortzeko beharrezkoa den kontratu bidezko eta kostu bidezko lokarria ezarri denean soilik.

Atal honek aipatzen dituen eskualdaketez ez dute zehaztuko erakunde eskualdatzailearentzat errenta positibo edo negatiboen lorpena, alegia, hurrengo artikulua 3. zenbakian ezartzen direnena.

- 5. Aurreko 1. paragrafoko a) idatz-zatian xedatutakoa gorabehera, partaidetza-mailegu baten ondorioz sortzen diren interesak, finakoak zein aldakorrak, kengarriak izango dira, baldin eta mailegu horrek Zerga arloko presazko neurriei eta jarduera ekonomikoa bultzatu eta liberalizatzeko presazko neurriei buruzko ekainaren 7ko 7/1996 Errege Lege Dekretuko 20. artikuluko lehenengo paragrafoan zehazten diren baldintzak betetzen baditu.

15. artikulua. Balorazio erregelak: erregela orokorra eta erregela bereziak irabazizko eskualdaketetan eta sozietate-eragiketetan.

- 1. Ondare elementuak Merkataritza Kodeak ezartzen dituen irizpideen arabera balioetsiko dira. Nolanahi ere, arazoizko balioaren irizpidea aplikatuz sortzen diren balio-aldaketez ez dute zergaondoriorik izango aldaketok galera-irabazien kontuari egotzi behar ez zaizkion bitartean.

Kontabilitateko errebalorizazioen zenbatekoa ez da zerga-oinarrian sartuko, errebalorizazio horiek beren zenbatekoa galera-ira-bazien kontuan sartzerantz behartzen duten legezko edo arauzko arauak direla-eta burutzen direnean izan ezik.

Zerga-oinarrian sartu gabeko errebalorizazioaren zenbatekoak du ekarriko, zergaren ondoretarako, errebalorizatutako elementuen balio handiagoa izatea.

- 2. Hurrengo ondare-elementuak beren merkatuko balio normalean baloratuko dira:

- a) Kostu bidez eskualdatu edo eskuratutakoak.
- b) Erakundeei ekarrikoak eta kontraprestazioan hartutako baloreak.
- c) Bazkideei, sozietatearen desegitean, bazkideen banaketan, ekarpenen itzulketarekin egiten diren kapital txikipenetan, jaulkipen-sariaren banaketan, eta mozkinen banaketan eskualdatutakoak.
- d) Aktiboaren eta pasiboaren bategitea, desegite oso edo partziala eta lagapen osoa direla bide eskualdatutakoak.
- e) Trukaketetan eskuratutakoak.
- f) Trukean edo bihurketan eskuratutakoak.

Merkatuko balio normaltzat hartuko da alderdi independenteek merkatuko baldintza arruntetan adostuko luketena. Balio hori kalkulatzeko, foru arau honen 16. artikuluko 4. paragrafoan aurreikusitako metodoak aplikatuko dira.

3. Aurreko idazatiko a), b), c) eta d) letretan ezarritakoetan, erakunde eskualdatzaileak bere zerga oinarrian eskualdatutako elementuen merkatuko balio normalaren eta kontabilitateko balioaren arteko diferentzia sartuko du.

Aurreko idazatiko e) eta f) letretan ezarritakoetan, erakundeak bere zerga oinarrian eskuratutako elementuen merkatuko balio normalaren eta emandako elementuen kontabilitateko balioaren arteko diferentzia sartuko du.

Aurreko lerroaldean xedatutakoa ez da ezarri behar sozietate batek bere akzioen edo partaidetzen balio izendatua aldarazi baino egiten ez duenean, akziodunen partaidetzaren portzentaia aldatu gabe eta ekarpenen bihurketarik gabe. Orduan akzio edo parataidetza horiek ez dira merkatuko balio normalean baloratuko.

Irabazizko eskuraketan, erakunde eskuratzailerak bere zerga oinarrian sartuko du eskuratutako ondare elementuaren merkatuko balio normala. Irabazizko eskuraketan, erakunde eskuratzailerak bere zerga oinarrian sartuko du eskuratutako ondare elementuaren merkatuko balio normala.

Artikulu.A artikulua honetan aipatzen diren errentak zerga oinarrian sartzea errenta horien jatorri diren eragiketak egiten diren zergaldian egingo da.

Atal honetan aurreikusten denaren ondoretarako, ez zaie irabazizko eskuraketa iritziko dirulaguntza publikoei.ak

4. Ekarpenen itzulketarekin egiten den kapital txikipenean bazkideen zerga oinarrian sartuko da partaidetzaren kontabilitateko balioaren gainetik hartutako elementuen merkatuko balio normalaren gaindikina.

Erregela bera ezarriko da akzio edo partaidetzen jaulkipen-sariaren banaketan.

5. Mozkin-banaketan, bazkideen zerga oinarrian sartuko da hartutako elementuen merkatuko balio normala.
6. Erakundeak desegin edo bazkideak banatzen direnean, horien zerga oinarrian sartuko da hartutako elementuen merkatuko balio normalaren eta partaidetza deuseztatuaren kontabilitateko balioaren arteko diferentzia..
7. Bategitean eta zatiketa osoan edo partzialean, bazkideen zerga oinarrian sartuko da hartutako partaidetzaren merkatuko balio normalaren eta partaidetza deuseztatuaren kontabilitateko balioaren arteko diferentzia.

8. Ekarpenen itzulketaz bestelako helburua duen kapital txikiak ez ditu ekarriko bazkideentzat zerga oinarrian sar daitezkeen errentak, positiboak zein negatiboak.
9. Ibilgetu materialaren eta ukiezinaren zein ibilgetukoin bertsioen ondare elementuak edo salmentarako mantendu diren aktibo ez korrante moduan sailkatu diren elementu horiek eskualdatzean lortu diren errenta positiboak zerga-oinarrian sartzeko, errentahoretatik honako hau kenduko da, eta betiere errenta horien muga-rekin: eskualdatutako elementuei dagokienez, legez baimendutakoazken egunerapenetik edo elementu hori eskuratu zen egunetik, gerokoa bada, gertatutako monetaren balio-galeraren zenbatekoa; zenbateko hori honako erregela hauen arabera kalkulatu da:
 - a) Eskualdatutako ondare elementuen eta haiei dagozkien amortizazioen eskuraketa-prezioa edo ekoizpen-kostua, batetik, eta arauz ezartzen diren koefizienteak, bestetik, biderkatuko dira.
 - b) Aurreko idatz-zatian ezarritakoa aplikatuz zehazten diren kopuruen arteko diferentziak eskualdatutako ondare elementuaren kontabilitateko balioa gutxituko du.

Eskualdatzen diren ibilgetuko ondare elementuak ondasun higiezinak badira, aurreko eragiketan emaitza gisa lortzen den zenbatekoari besteren zorpetzeari dagokion koefizientea aplikatzeaz arazi ahal izango da arau bidez.

10. ...

11. ...

16. artikulua. Balorazio erregelak: eragiketa lotuak.

1.

1. Pertsona edo entitate lotuen artean egindako eragiketak beren merkatuko balio normalaren arabera baloratuko dira.

Pertsona edo entitate independenteek lehia libreko baldintzetan adostuko zutena hartuko da merkatuko balio normalizat.

2. Zerga Administrazioak egiaztatu ahal izango du pertsona edo entitate lotuen artean egindako eragiketak merkatuko balio normalaren arabera baloratu direla. Behar izanez gero, eskumena izango du eragiketen balorazioak zuzentzeko baldin eta zerga honi, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari edo Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergari lotutako eragiketak merkatuko balio normalaren arabera baloratu ez badira. Zergadunak aurkeztutako dokumentazioa eta Administrazioaren esku dauden datuak eta informazioa erabiliz egingo dira zuzenketak.

Zerga Administrazioak balio horri eutsiko dio gainerako pertsona edo entitate lotuei dagokiene Administrazioaren balorazioak ez du berarekin ekarriko ez zerga honetan, eta hala bada, ez Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan edo Ezegoiliarren Errentaren gaineko Zergan, eragiketa burutu duten pertsona edo entitate guztientzat eragiketan benetan lortutakotik gorako errentaren gaineko zerga ordaintzea. Zenbatespen objektiboko metodoen bat aplikatzeagatik oinarri ezargarririk kanpo geratzen den errentaren zatia hartuko da kontuan konparazioa egiteko.

2. Pertsona edo entitate lotuek arauzko eran ezartzen den dokumentazioa eduki beharko dute Zerga Administrazioaren esku.
3. Ondoko hauek izango dira pertsona edo entitate lotuak:
 - a) Entitate bat eta bertako bazkide edo partaideak.
 - b) Entitate bat eta bertako kontseilari edo administratzaileak.

- c) Entitate bat eta bertako bazkide, partaide, kontseilari edo administratzaileen ezkontideak, maiatzaren 7ko 2/2003 Legearen arabera eraturako izatezko bikoteko bikote-lagunak, edo ahaidetasun harreman batek lotutako pertsonak. Harreman hori zuzenekoa zein zeharkakoa izan daiteke, odolkidetasunezkoa, ezkontza bidezkoa edo izatezko bikoteak ekar lezakeena, hirugarren mailaraino.
- d) Talde bereko bi entitate.
- e) Entitate bat eta beste entitate bateko bazkide edo partaideak, baldin eta bi entitateak talde berekoak badira.
- f) Entitate bat eta beste entitate bateko kontseilari edo administratzaileak, baldin eta bi entitateak talde berekoak badira.
- g) Entitate bat eta beste entitate bateko bazkide, partaide, kontseilari edo administratzaileen ezkontideak, maiatzaren 7ko 2/2003 Legearen arabera eraturako izatezko bikoteko bikote-lagunak, edo ahaidetasun harreman batek lotutako pertsonak, entitate biak talde berekoak direnean. Harreman hori zuzenekoa zein zeharkakoa izan daiteke, odolkidetasunezkoa, ezkontza bidezkoa edo izatezko bikoteak ekar lezakeena, hirugarren mailaraino.
- h) Bi entitate, baldin eta lehenengoak gutxienez % 25eko zeharkako partaidetza baldin badu bigarrenaren kapital sozialean edo haren fondo propioetan.
- i) Bi entitate, baldin eta bertako bazkideek edo partaideek edo haien ezkontideek, maiatzaren 7ko 2/2003 Legearen arabera eraturako izatezko bikoteko bikote-lagunek, edo ahaidetasun harreman batek lotutako pertsonak, zuzenean edo zeharka, gutxienez % 25eko partaidetza baldin badute kapital sozialean edo fondo propioetan. Ahaidetasun harremana zuzenekoa zein zeharkakoa izan daiteke, odolkidetasunezkoa, ezkontza bidezkoa edo izatezko bikoteak ekar lezakeena, hirugarren mailaraino.
- j) Espainiako lurraldean egoitza duen entitate bat eta atzerrian dituen establezimendu iraunkorrak.
- k) Espainiako lurraldean egoitzarik ez duen entitate bat eta lurralde horretan dituen establezimendu iraunkorrak.
- l) Talde bereko bi entitate, talde horrek sozietate kooperatiboen taldeen araubidean tributatzen duenean.

Lotura hori bazkide edo partaideen eta entitatearen arteko harremanaren arabera definitzen bada, partaidetzak % 5ekoa edo handiagoa izan beharko du, edo % 1ekoa edo handiagoa merkatu arautu batean negoziatzeko onartzen diren baloreak izanez gero. Administratzaileei egindako aipamenak zuzenbidezkoak eta izatezkoak hartuko ditu.

Taldea existitzen da zenbait sozietatek unitate erabakitzailerik bat eratzten dutenean Merkataritza Kodeak 42. artikuluan ezarritako irizpideei jarraikiz, egoitza nonahi dutela ere eta urtero kontu bateratuak aurkezteko obligazioa eragotzi gabe.

4. Merkatuko balio normala kalkulatzeko, metodo hauetako bat aplikatuko da:

- a) Prezio libre alderagarriaren metodoa. Pertsona edo entitate lotuen arteko eragiketa batean ondasun edo zerbitzu batek duen prezioa eta pertsona edo entitate independenteen arteko eragiketa batean ondasun edo zerbitzu berdina edo antzeko batek pareko zirkunstantzietan duena alderatzen dira. Beharrezkoa izanez gero, bidezko zuzenketak egiten dira baliokidetasuna lortzeko eta eragiketaren berezitasunak aintzat hartzeko.
- b) Kostu gehituaren metodoa. Ondasunaren edo zerbitzuaren eskurapen balioari edo produkzio kostuari gehitu egiten zaio pertsona edo entitate independenteekin egindako

eragiketa berdinetan edo antzekoetan ohikoa den marjina, edo halakorik ezean, pertsona edo entitate independenteek pareko eragiketei aplikatzen dietena. Beharrezkoa izanez gero, bidezko zuzenketak egiten dira baliokidetasuna lortzeko eta eragiketaren berezitasunak aintzat hartzeko.

- c) Birsalmenta prezioaren metodoa. Ondasun edo zerbitzuaren salmenta prezioetik kendu egiten da birsaltzaileak pertsona edo entitate independenteekin egindako eragiketa berdinetan edo antzekoetan aplikatzen duen marjina, edo halakorik ezean, pertsona edo entitate independenteek pareko eragiketei aplikatzen dietena. Beharrezkoa izanez gero, bidezko zuzenketak egiten dira baliokidetasuna lortzeko eta eragiketaren berezitasunak aintzat hartzeko.
 - d) Eraitza banatzeko metodoa. Eragiketa bat edo gehiago batera egiten dituen pertsona edo entitate bakoitzari egozten zaio eragiketa horretan edo horietan lortutako eraitza osoaren zatia, pertsona edo entitate independenteek antzeko egoeretan adostuko litzuket baldintzak egoki biltzen dituzten irizpideak erabiliz.
 - e) Eragiketa guztien marjina garbiaren metodoa. Pertsona edo entitate lotu batekin egindako eragiketei egozten zaie zergadunak, edo hirugarren batzuek, pertsona independenteen arteko eragiketa berdinetan edo antzekoetan lortuko zuten eraitza garbia, kostuen gainean, salmenten gainean edo eragiketen ezaugarrien arabera egokien den magnitudearen gainean kalkulatu. Beharrezkoa izanez gero, bidezko zuzenketak egiten dira baliokidetasuna lortzeko eta eragiketaren berezitasunak aintzat hartzeko.
5. Entitate lotuen arteko zerbitzuengatik izandako gastuak, 4. paragrafoan ezarritakoaren arabera baloratuak, kengarriak izango dira baldin eta emandako zerbitzuek abantaila edo onura eraginkorra eta benetakoa ekartzen badiote edo ekar badietzaiokete hartzaileari.

Zerbitzuak hainbat pertsona edo entitate loturen alde egindakoak direnean, eta betiere jasotako zerbitzua ezin bada indibidualizatu edo ordainsariaren elementuak kuantifikatzerik ez badago, zilegi izango da kontraprestazio osoa pertsona edo entitate onuradunen artean banatzea arrazionaltasun irizpideak beteko dituzten banaketa erregelei jarraikiz.

Irizpide hori betetzen dela joko da baldin eta aplikatutako metodoak, zerbitzuaren izaerari eta zirkunstantziei begiratzeaz gainera, pertsona edo entitate hartzaileek lortutako edo lor ditzaket onurak ere kontuan hartzen baditu.

6. Pertsona edo entitate lotuek ondasun edo zerbitzuen kostuak banatzeko izenpetzen duten akordiotik eratorritako gastuak, aurreko 4. paragrafoan jasotakoaren arabera baloratuak, kengarriak izango dira honako baldintzak betetzen badira:
- a) Nahitaezkoa da akordioa izenpetzen duten pertsona edo entitateek akordioaren ondorioz eskuratu, produzitu edo garatzen diren aktibo edo eskubideen jabe egitea edo antzeko ondorio ekonomikoak dituen beste eskubideren bat eskuratzea.
 - b) Parte hartzen duen pertsona edo entitate bakoitzaren ekarpenak kontuan izan behar du zein onura edo abantaila espero dituen haietako bakoitzak jasotzea akordiotik arrazionaltasun irizpideen arabera.
 - c) Akordioak aurreikusiko du zirkunstantziak edo bertan parte hartzen duten pertsona zein entitateak aldatu daitezkeela, eta hori aintzat hartuta, egoki irizitako doikuntzak eta konpentsazio- ordainketak ezarriko ditu.
 - d) Pertsona edo entitate lotuen artean izenpetzen den akordioak arauz ezartzen diren beharkizunak bete beharko ditu.
7. Subjektu pasiboek Zerga Administrazioari eskatu diezaiokete pertsona edo entitate lotuen arteko eragiketak balora ditzala horiek burutu aurretik. Eskaerari merkatuko balio normalean oinarritutako proposamena erantsiko zaio.

Zerga Administrazioak akordioak izenpetu ahal izango ditu beste administrazio batzuekin, eragiketen merkatuko balio normala elkarrekin finkatzeko.

Balorazio akordioek akordioak onartzen diren egunetik aurrera egindako eragiketetan sortuko dituzte ondorioak, eta akordioan bertan zehazten diren zergaldietan izango dute balioa. Akordioan ezarri ahal izango da, orobat, uneko zergaldiko eragiketetan eta are aurrekoan ere egindakoetan izango dituela ondorioak, betiere kasuan kasuko zerga aitorpena aurkezteko borondatezko epea oraindik amaitu ez bada.

Zerga Administrazioaren akordioa onartzean aintzat hartutako zirkunstantzia ekonomikoak nabarmen aldatzen badira, akordioa aldatu ahal izango da zirkunstantzia ekonomiko berrietara egokitzeko.

Paragrafo honetan aipatutako proposamenak ezetsizat hartuko dira horiek ebazteko ezarrita dagoen sei hilabeteko epea amaitzen denean. Epe hori kontatuko da proposamena aurkezten den egunetik aurrera edo, Zerga Administrazioak errekeritu badu, subjektu pasiboak hura zuzentzen duenetik aurrera.

Erregelamendu bidez finkatuko da zein prozedura erabiliko den eragiketa lotuen balorazio akordioak ebazteko eta horiek luzatu ahal izateko.

Aipatutako akordioak aurreko 5. eta 6. paragrafoetan araututako zerbitzu prestazioei eta kostuak banatzeko akordioei buruzkoak ere izaten ahalko dira.

8. Eragiketetan hitzartutako balio merkatuko balio normalarekin bat ez datorrenean, bi balio horien arteko aldeari pertsona edo entitate lotuentzat emango zaion tratamendu fiskala alde horren ondorioz agerian jarritako errenten izaerari dagokiona izango da.
9. Erregelamendu bidez arautuko da nola egiaztatu eragiketa lotuetan merkatuko balio normala, honako arauak jarraituz:
 - a) Balio egiaztapena egoera tributariora egiaztatu behar zaion zergapekoari hasitako prozeduraren barruan egingo da. Hurrengo b) idatz-zatian xedatutakoa eragotzi gabe, jarduketak zergapeko horri zuzenduta egongo dira, ez beste inori.
 - b) Zergapekoari likidazioa egin bazaio balioa zuzentzearen ondorioz, eta haren aurka errekurso edo erreklamazioa aurkezten edo perituen tasazio kontrajarria eskatzen badu, zirkunstantzia horren berri eraginda dauden gainerako pertsona edo entitate lotuei emango zaie prozeduran agertu eta bidezko alegazioak aurkez ditzaten.

Ezarritako epeak amaitu eta zergapekoak ez badu errekurso edo erreklamaziorik aurkeztu edo perituen tasazioa eskatu gabe badago, balorazioa jakinaraziko zaie eraginda dauden gainerako pertsona edo entitate lotuei, nahi izanez gero, perituen tasazioa elkarrekin sustatu edo bidezko errekurso edo erreklamazioa batera aurkezteko. Errekurtso edo erreklamazioa jartzen bada edo perituen tasazio kontrajarria sustatuz gero, etenda geratuko da Zerga Administrazioak zergapekoari likidazioak egiteko duen eskubidearen preskripzio epea, eta Administrazioaren balorazioa irmo bihurtzen denean hasiko da berriro konputatzen.
 - c) Likidazioan jasotako balorazioa irmo bilakatzeak eraginkortasuna eta irmotasuna emango dizkio merkatuko balioari gainerako pertsona edo entitate lotuen aurrean, eta azken horiek bidezko erregularizazioak egin ahal izango dituzte irmotasun hori gertatzen den unean edo zergaldian, arauz ezartzen den eran.
 - d) Balioaren zuzenketagatik eraginda gertatzen diren pertsona edo entitate lotuei paragrafo honetan xedatutakoa aplikatuko zaie baldin eta Sozietateen gaineko Zergaren subjektu pasiboak, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zergadunak, edo Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren zergadunen establezimendu iraunkorrak badira.

- e) Lotutako beste alderdiak egindako eragiketak merkatuko balio normalaren arabera baloratzeko eskumena beste Zerga Administrazio bati dagokionean, administrazio horri prozedura hasi izanaren berri emango zaio bidezkoak diren ondorioetarako.
 - f) Paragrafo honetan xedatutakoak ez du galaraziko barne antolamenduaren parte diren nazioarteko itun eta hitzarmenetan ezarritakoa aplikatzea.
10. Balorazioak zuzentzen badira artikulua honetan xedatutakoaren indarrez, eta zuzenketa horrek dakarren egoera nazioarteko zergapetze bikoitzarena bada, Zerga Administrazioak, zergapekoaren eskariz, hura saihesteko prozedura abiatuko du zergapetze bikoitza saihesteko kasuan kasu aplikagarri den nazioarteko hitzarmenean edo gaiari buruzko beste edozein nazioarteko akordiotan aurreikusitakoari jarraikiz.

Ondorio horietarako, aplikatzekoa izango da Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergari buruzko apirilaren 15eko 5/1999 Foru Arauak laugarren xedapen gehigarrian xedatutakoa.

11. Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arauak jasotakoa eragotzi gabe, zerga arloko arau-haustetza hartzen da artikulua honen 2. paragrafoan eta hori garatzen duen araudian jasotakoari jarraituz pertsona edo entitate lotuek Zerga Administrazioaren eskura jarri behar duten dokumentazioa ez aurkeztea edo dokumentazio osatugabea, zehaztugabea edo datu faltsuak dituen aurkeztea.

Zerga arloko arau-haustetza hartzen da, era berean, artikulua honetan eta hori garatzen duen araudian jasotako dokumentaziotik datorren merkatuko balio normala ez aitortzea Sozietateen gaineko Zergan, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan edo Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergan.

Arau-hauste horiek arau hauei jarraituz zigortuko dira:

- a) Zerga Administrazioak balorazioa zuzentzea egokia ez denean Sozietateen gaineko Zergari, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari edo Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergari lotutako eragiketei dagokienez, diruzko isun finkoa jarriko da: isilean gordeta, zehaztu gabe edo faltsututa dagoen datu bakoitzeko 1.500 euro eta, aldiz, 15.000 euro datumultzo bakoitzeko, betiere subjektu pasiboa edo zergaduna den aldetik arau bidez talderako edo entitate bakoitzerako jartzen den obligazio bakoitzari dagokienez.
- b) Zerga Administrazioak balorazioa zuzentzea egokia denean Sozietateen gaineko Zergari, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari edo Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergari lotutako eragiketei dagokienez, diruzko isun proportzionala jarriko da: eragiketa bakoitzaren balorazio zuzenketatik datozen diru kopuruen % 15, eta gutxienez aurreko a) idatz zatia aplikatuz egokituko litzatekeen zigorraren bikoitza. Idatz-zati honetan ezartzen den zigorra hori bateraezina da Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arauak 196., 197., 198. edo 200. artikuluetan jasotakoa aplikatuta egokia izan daitekeen zigorrarekin, idatz-zati honetan jasotako zigorra jartzea ekarri duten oinarrien zatiari dagokienez.
- c) Paragrafo honetako a) idatz-zatian jasotakoaren arabera jarritako zigorrekin Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arauak 193. artikuluan jasotakoa izango zaie aplikatzekoa; eta b) idatz-zatian jasotakoaren arabera jarritakoei, berriz, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arauak 192. artikuluan jasotakoa izango zaie aplikatzekoa.
- d) Zerga Administrazioak balorazioa zuzentzea egokia denean Sozietateen gaineko Zergari, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari edo Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergari lotutako eragiketei dagokienez, baina urraketa horiei lotutako ez-betetzea gertatu gabe, eta zuzenketa horrek dakarrenean ez ordaintzea, zerga itzulketak bidegabeki lortzea edo geroagoko aitortzearen konpentsatzeko partidak desegoki zehaztea edo akreditatzea edo errenta garbia oker aitortzen denean, baina ez-ordaintzea edo itzulketak bidegabeki lortzea gertatu gabe egiaztapen edo ikerketa

prozedura batean konpentsatu, kendu edo aplikatzeko dauden diru kopuruak konpentsatu direlako, portaera horien bidez ez da urratuta geratuko Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arauak 196., 197., 198. edo 200. artikuluetan jasotakoa, balorazio zuzenketa ekarri duten oinarrien zatiari dagokionez.

- e) Paragrafo honetan jasotako zigorrak bateragarriak dira errekerimenduei erantzun ez zaiela-eta Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arauak Zerga Administrazioaren jarduketei jarkitzeagatik, oztopatzeagatik, aitzakiak jartzeagatik edo ezetza emateagatik 209. artikuluan jarritako zigorrarekin.

17. artikulua. Balorazio-erregelak: egoitza-aldaketak, establezimendu iraunkorrei uztea, paradisu fiskaletan egoitza duten pertsonak eta erakundeak edo egiten dituzten eragiketak edo pertsona eta erakunde horiekin egiten direnak, eta atxikipena egin dakiekeen kopuruak.

1. Zerga-oinarrian sartuko da merkatuko balio normalaren eta kontabilitateko balioaren arteko diferentzia, ondare-elementuak ondokoetarikoa direnean:
 - a) Egoitza Espainiako lurraldetik kanpo lekualdatzen duen erakunde baten jabetza diren ondare-elementuak, elementuok erakunde horrek Espainiako lurraldean duen establezimendu iraunkor bati lotuta geratu ezean. Hala denean, ondare horiei foru arau honen 92. artikulua. artikuluan ezarritakoa aplikatuko zaie.
 - b) Espainiako lurraldean egoitza iraunkorra edukirik, jarduerari uzten dion establezimenduari lotuak.
 - c) Espainiako lurraldean era iraunkorren finkatutako establezimendu bati loturik egon ondoren atzerrira transferitzen direnak.
2. Arauz paradisu fiskaltzat hartutako herrialde edo lurraldeetan egoitza duten pertsona edo entitateekin batera egiten diren eragiketak merkatuko balio normalaren arabera baloratuko dira, betiere Espainiako tributazioa ez bada txikiagoa balio hitzartua aplikatuta edo aipatu tributazioa geroratuta egokituko litzatekeena baino.

Aurreko lerroaldean aipatutako eragiketak egiten dituztenak behartuta daude foru arau honek 16. artikuluan 2. paragrafoan aipatzen den dokumentazioa aurkeztera, eta arauz finkatzen diren berezitasunak bete behar dituzte.

3. Zerga honen kontura atxikipena egin behar zaien kopuruen hartzaileak sortutako kontraprestazio osoaz zenbatuko ditu kopuru haiek.

Atxikipena egin ez bada edo behar adinakotik beherako zenbatekoz egin bada, hartzaileak atxiki behar izan zen kopurua kenduko du kuotatik.

Legez ezarriak eta herri arloak ordainduak diren ordainsarrietan, hartzaileak benetan atxikitako kopuruak soilik kendu ahal izango ditu.

Sortutako kontraprestazio osoa frogatzerik ez badago, zerga Administrazioak zenbatu ahal izango duen zenbateko osotik dagokion atxikipena kentzerakoan benetan jasotakoa geratu behar da. Kasu honetan, kuotatik kenduko da, konturako atxikipen legeaz, benetan jasotakoaren eta zenbateko osoaren arteko diferentzia.

18. artikulua. Kontabilitateko balioaren ordean merkatuko ohiko balioa jartzearen ondoreak.

Ondare-elementu bat edo zerbitzu bat zergaren ondoretarako merkatuko balio normalean baloratu direnean, erakunde eskuratzailerak bere zerga oinarrian balio horren eta eskuraketa balioaren arteko diferentzia sartuko du; honela:

- a) Aktibo ibilkorra osatzen duten ondare-elementuak badira, elementu horiek sarrera baten sortzapenaren zio ematen duten zergaldian.
- b) Ibilgetua osatzen duten eta amortizagarriak ez diren ondare-elementuak badira, horiek eskualdatzen diren zergaldian.
- c) Ibilgetua osatzen duten ondare-elementu amortizagarriak badira, berauen iraupen baliagarriari geratzen zaizkion zergaldietan, diferentzia horri elementu horiei dagokienez erabiltzen den amortizazio metodoa ezarriz, elementuok iraupen baliagarria amaitu aurretik eskualdatzen direnean izan ezik, orduan diferentzia eskualdatzen diren zergaldiko zerga oinarrian sartuko baita.
- d) Zerbitzuak badira, hartzen diren zergaldian, horien zenbatekoa ondare-elementu bati erantsi behar zaionean izan ezik, orduan aurreko letretan ezarritakoaren arabera jokatuko baita.

19. artikulua. Nazioarteko ezarpen bikoitzaren tratatamendua establezimendu iraunkorrek lortzen dituzten errenta eta mozkinetako partaidetzetan eta dibidenduetan.

- 1. Mozkinetako partaidetzak edo dibidenduak Espainiako lurraldetik kanpo duten erakundeetatik badatoz, ez dira subjektu pasiboaren zerga oinarrian sartuko.
- 2. Halaber, egoitza Espainiako lurraldetik kanpo duten erakundeen kapitalen edo erakundeen berezko fondoan ordezkarri diren baloreak eskualdatzetik datozen errentak ez dira sartuko subjektu pasiboaren zerga oinarrian. Araubide bera aplikatuko zaio bazkidea banantzean edo erakundea desegitean lortzen de errentari ere. Jarraian aurrean adierazitako errentak zerga oinarrian sartu behar ez direneko balizko kasu batzuk ikusiko ditugu:
 - a) Egoiliar ez den erakundeak zuzenean zein zeharka partaidetza edukitzea Espainiako lurraldeko egoiliar diren erakundeetan edo lurralde horretan dauden aktiboak edukitzea, eta denen batura erakundearen aktibo guztien merkatuko balioaren %15 baino gehiago izatea.

Hala denean, zerga oinarrian sartuko ez dena partaidetzako erakundeak haren ukantza epealdian sortu eta banatu gabeko mozkinen gehikuntza garbia soilik izango da.
 - b) Subjektu pasiboak zergetan kenkor suertatu den eskualdatutako partaidetzaren balioan zerbait aldatzea.

Hala denean, zerga oinarrian sartuko ez dena eskualdaketa zuzenketaz gainera lortutako errenta soilik izango da.
 - c) Egoiliar ez den erakundeko partaidetza alde aurretik Merkataritzako Kodeko 42. artikuluan aipatutako inguruabarretan dagoen beste erakunde batek eskualdatu izana subjektu pasiboarekin batera sozietate-taldea eratzeko, eta lortutako errenta negatiboak Zergaren zerga-oinarrian sartu izana.

Hala denean, partaidetza eskualdatuz lortutako errenta positiboaren zati bat kargapean egongo da, hain zuzen ere taldeko beste erakundeak lortutako errenta negatiboaren bidez.
 - d) Egoiliar ez den erakundeko partaidetza foru arau honetako VIII. tituluko X. kapituluaren aipatutako araubide bereziko erregelaren arabera ez baloratzea, baldin eta erregelok aplikatuz, are aurreko eskualdaketa batean ere, jarraian adierazitako diren errentak zerga honen, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren edo Egoiliar ez diren Pertsonen Errentaren gaineko Zergaren zerga-oinarrian ez sartzea ekarriko bazuen. Hona errentak:

- a') Espainiako lurraldeko egoiliar den erakunde baten partaidetza eskualdatuz lortuak.
- b') Espainiako lurraldeko egoiliar ez izanik artikuluko 3. idatz-zatiko b) eta c) letretan aipatutako betekizunak betetzen ez dituen erakunde baten partaidetza eskualdatuz lortuak.
- c') Beste ondare-elementu batzuen diruz besteko ekarpenak.

Hauetariko bat gertatzen denean, errentaren zati hau soilik geratuko da sartu gabe: egoiliar ez den erakundearen partaidetzaren eskualdaketa-balioaren eta hark erakunde eskualdatzaileak eskuratzean izan duen merkaturako balio arruntaren arteko diferentzia positiboa. Eskualdaketa bidez lortutako errentaren gainerako zatia epealdiko zerga-oinarrian sartuko da.

3. Aurreko bi idatz-zatietan aipatu diren errentak zerga-oinarrian sartu gabe utzi ahal izateko, betekizun hauek bete beharko dira:

- a) Erakunde ez-egoiliarraren kapitalean subjektu pasiboak duen zuzeneko edo zeharkako partaidetza gutxienez %5 izatea, eta banatu beharreko mozkinak eska daitekeen egunaren edo eskualdaketa egiten den egunaren aurreko urtebetean subjektu pasiboa etenik gabe izatea partaidetzaren jabe. Urtebeteko epe hori zenbatzen denean kontuan hartuko da sendotze-talde bereko beste erakunderen bat etenik gabe partaidetzaren jabe izandako aldia ere, Merkataritza Kodeko 42. artikuluan aipatutako aldia, alegia.

Aurreko 2. idatz-zatian ezarritakoa aplikatzeko, betekizun hau eskualdaketa gertatzen den egunean bete beharko da.

- b) Subjektu pasiboa partaide den erakundea zerga hau bezalako edo beronen antzeko atzerriko zerga baten kargapean eta hartatik salbuetsi gabe egotea banatzen diren mozkinak lortu diren ekitaldian.

Honen ondoretarako, subjektu pasiboa partaide duen erakundeak lortutako errenta, edo haren zati bat behintzat, kargatzen duten atzerriko zergak izango dira kontuan, zergaren xedea errenta bera, sarrerak zein errentaren adierazgarri den bestelako elementuren bat izan.

Aurreko 2. idatz-zatian ezarritakoa aplikatzeko, betekizun hau subjektu pasiboak partaidetza duen ekitaldi guztietan bete behar da.

Subjektu pasiboa partaide den erakundearen egoitza Espainiako erresumak nazioarteko zergapetze bikoitza saihesteko hitzarmena sinatua duen herrialde batean badago eta hitzarmena aplikatzen bada eta elkarri informazioa eman beharra ezartzen duen klausula badu, zerga hau bezalako edo beronen antzeko zerga baten kargapean eta hartatik salbuetsi gabe dagoela pentsatuko da.

Artikulu honetan xedatutakoa ez zaie aplikatuko egoitza arau bidez zerga paradisutzat jotzen den herrialde edo lurralde batean duten erakundeei, kasu honetan izan ezik: egoitza Europar Batasuneko estatu batean edukitzea eta subjektu pasiboak frogatzea eratzeko eta jarduteko arrazoi ekonomiko baliozkoak izan direla eta enpresa jarduerak egiten dituela.

- c) Banatzen diren edo partaidetzari dagozkion mozkinak atzerrian enpresa-jarduerak eginez sortzea.

Betekizun hau betetzat jotzeko ekitaldiko sarreraren %85 hauetakoak izan behar dira:

- a') Atzerrian lortuak baina ez foru arau honetako 115. artikuluko 2. idatz-zatian aipatutako erreta motaetakoak; hots, ezin dira izan nazioarteko zerga gardentasunaren araubidea aplikatuz zerga-oinarrian sar daitezkeenekoak. Nolanahi ere, beste erakunde batzuen partaidetzek sortzen dituzten errentak edo

baloreak edo partaidetzak eskualdatuz lortzen direnak badaude, jarraiko b) letrako betekizunak bete behar dira.

Bereziki, honen ondoreetarako atzerrian lortuzat joko dira jarduera hauen ondoriozko errentak:

- Handizkako merkataritza, ondasunen eskuratzailerak subjektu pasiboa partaide duen erakundea egoiliar den herrialdean edo lurraldean daudenean, edo Espainia ez beste herrialde edo lurralde batean, baldin eta eragiketarako erakunde haren langile eta baliabide materialak erabiliz egiten badira.
- Zerbitzuak, subjektu pasiboa partaide duen erakundea egoiliar den herrialdean edo lurraldean egiten direnean, edo Espainia ez beste herrialde edo lurralde batean, baldin eta eragiketarako erakunde haren langile eta baliabide materialak erabiliz egiten badira.
- Kreditu eta finantza eragiketarako, maleguak eta kredituak jasotzen dituzten pertsonak subjektu pasiboa partaide duen erakundea egoiliar den herrialdean edo lurraldean bizi direnean, edo Espainia ez beste herrialde edo lurralde batean, baldin eta eragiketarako erakunde haren langile eta baliabide materialak erabiliz egiten badira.
- Aseguruak eta berraseguruak, aseguratzen diren arriskuak subjektu pasiboa partaide duen erakundea egoiliar den herrialdean edo lurraldean daudenean, edo Espainia ez beste herrialde edo lurralde batean, baldin eta eragiketarako erakunde haren langile eta baliabide materialak erabiliz egiten badira.

- b') Subjektu pasiboa partaide duten erakunde ez-egoiliarren dibidenduak edo mozkin-partaidetzak, baldin eta partaidetza zeharkakoa bada eta a) letran portzentajeaz eta antzintasunaz ezarritako betekizunak bete-tzen badira, eta mozkinak eta erakundeek idatz-zati honetako gainerako letretan ezarritako betekizunak betetzen badituzte. Halaber, egoiliar ez diren halako erakundeentzako partaidetzak eskualdatuz lortzen diren errentak, artikuluko honetako 2. idatz-zatiko betekizunak betetz gero.

2. Idatz-zatian ezarritakoa aplikatzeko, c) letran ezarritako betekizuna subjektu pasiboak partaidetza duen ekitaldi guztietan bete behar da.

4. Dibidenduak edo mozkinetako partaidetza hartzen duen subjektu pasiboaren zerga-oinarrian ez da sartuko mozkinen banaketak partaidetzari ekarritako balio-galera, edozein direla eregalera hori agerian jartzen den era eta zergaldia, salbu eta aipatuzko zerga-oinarriaren zioz lehenago Espainian zergak ordaindu badira partaidetzaren eskualdaketa batean. Azken kasu horretan, erakundeak aukera izango du partaidetza eskualdatu duenean Espainian zerga-ordainketa eragin duten mozkinen zerga-oinarria besteko gastua zenbatzeko, baldin eta, eragiketa hori kontabilizatu behar den modua dela eta, ez badu inolako errentarik sartu zerga-oinarrian eta partaidetza horren balioa txikitu behar badu.

Halaber, subjektu pasiboak egoiliar ez den erakunde baten duen partaidetza, aldezturik Merkataritzako Kodeko 42. artikuluan aipatutako inguruabarretan dagoen beste erakunde batek eskualdatua subjektu pasiboarekin batera sozietate-taldea eratzeko, eskualdatuz errenta negatiboa lortzen badu, errenta hori kendu egingo da aurreko eskualdaketa lortu eta zerga-oinarrian sartu ez den errenta positibotik.

5. Artikulu honetan xedatutakoa aplikatzeko, erreserba banatzean sozietate-erabakian agertarazitakoa hartuko da kontuan eta, halakorik egon ezean, erreserba horietarako ordaindutako azken kopuruak aplikatu direla uste izango da.
6. Ez dira subjektu pasiboaren zerga oinarrian sartuko atzerrian kokaturik dauden establezimendu iraunkorren bitartez lortutako errenta positiboak, baldintza hauek betetzen badira:

- a) Errenta horiek zerga hau bezalako edo antzeko zerga baten kargapean egotea eta salbuetsita ez egotea, artikuluko honetako 3. idatz-zatiko b) letran ezarritakoarekin bat etorritik, eta haiek lortzen diren establezimenduak ez egotea arau bidez zerga paradisutzat jotzen den herrialde edo lurralde batean, salbuespen honekin: egoitza Europar Batasuneko estatu batean edukitzea eta subjektu pasiboak frogatzea eratzeko eta jarduteko arrazoi ekonomiko baliozkoak izan direla eta enpresa jarduerak egiten dituela.
- b) Establezimendu iraunkorraren errentaren iturriak atzerrian egindako enpresa jarduerak izan behar dira, artikuluko honetako 3. idatz-zatiko b) letran ezarri bezala.

Hala ere, subjektu pasiboak aurreko zergaldi batean aipatu establezimendu iraunkorretatik etorritako errenta negatiboak sartu baditu, idatz-zati honetan aipatu diren errenta positiboetatik sartu gabe utzi ahal izango direnak, gehienez, errenta positibo horien eta alde zuzenetik sartu diren errenta negatiboen arteko aldeari dagozkionak izango dira.

- 7. Foru arau honen ondorioetarako, erakunde bat atzerriko establezimendu iraunkor baten bitartez ari dela pentsatuko da baldin eta Espainiako lurraldetik kanpo dauden instalazioak edo lantokiak erabiltzen baditu, zeinahi tituluz baliatuta, etengabean edo maiztasun jakinarekin, bere jarduera osoa zein haren zati bat egiteko. Hain zuzen ere, Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergari buruzko apirilaren 15eko 5/1999 Foru Arauaren 12. artikuluko 1. paragrafoan aipatutakoak hartuko dira establezimendu iraunkortzat. Establezimendu iraunkorra dagoen herrialdeak hitzarmena sinatu badu Espainiarekin nazioarteko zergapetze bikoitza saihesteko, bertan ezarritakoa aplikatuko da.
- 8. Aurreko idatz-zatietan ezarritakoaren arabera subjektu pasiboaren zerga-oinarrian sartzen ez diren errentei dagokienez zerga-ondoreak izango dituzten datu guztiak eman behar zaizkio Zerga Administrazioari, zerga honen aitortpenarekin batera, Ogasun eta Finantza Saileko foru diputatuak zehazten duen moduan.
- 9. Artikulu honetan xedatutako ez zaie Foru Arau honetako VIII. Goiburuko IV. eta V. artikuluetan aipatzen diren erakundeei aplikatuko.
- 10. Artikulu honetan ezarritako araubidea ez zaie aplikatuko atzerrian diharduten menpeko erakundeei, baldin eta atzerrian jardutearen helburu nagusia bertako zerga-araubidea gozatzeko bada. Hala gertatzen dela uste izango da menpekoak atzerrian egiten duen jarduera eta merkatu bererako lehen Espainian beste erakunde batek egin izan badu, hark jarduerari utzi badio eta menpeko erakundearekin Merkataritzako Kodeko 42. artikuluan aipatutako erlazioren bat badu, baliozko zio ekonomikoa dagoela frogatu ezean.

20. artikulua. Aldi baterako egozketa. Sarrera eta gastuen kontabilitateko inskripzioa

- 1. Sarrerak eta gastuak sortzen diren zergaldian egotziko dira, horiek ordezkatzeko dituzten ondasun eta zerbitzuen benetako korrontearen arabera, moneta edo finantzen korrontetik at, batzuen eta besteen arteko koerlazioa errespetatuz.
- 2. Merkataritza Kodearen 34.4. eta 38.1) artikuluetan ezarritakoaren arabera, subjektu pasiboak, salbuespen modura, aurreko paragrafoan zehazten diren irizpideak baino sarrera-gastuak denboraren arabera egozteko beste irizpide batzuk erabiltzen baditu ondarearen, finantza-egoeraren eta emaitzen irudi fidelalortzeko, erabilitako irizpide ezberdin horien eraginkortasun fiskala Zerga Administrazioak onetsi beharko du, arauz zehazten den moduan.

Zerga Administrazioak, arau bidez zehazten den moduan, sarrera-gastuak denboraren arabera egozteko aurreko paragrafo-koak baino beste irizpide batzuk baimen ditzake, baina horrek ezdu inolako aldaketarik eragingo sarrera eta gastuen zerga kalifikazioan

- 3. Zergei dagokionez ezingo dira kendu galera eta irabazien kontu bati edo erreserba kontu bati egotzi ez zaizkion gastuak, baldin eta hori ezarri bada legez edo arauz, modu askean amortizatu daitezkeen ondare elementuez eta legez azkar amortiza daitezkeen ondare

elementuez ezarritako kasuetan eta zergei buruzko arautegian berariaz ezartzen den kasuetan izan ezik.

Sarrerak eta gastuak denboraren arabera egotzi behar diren zergaldian baino beste zergaldian batean egotzi badira kontabilitateko galera-irabazien kontuan edo erreserba kontu batean, sarrera eta gastu horiek, aurreko paragrafoetan ezarritakoaren arabera, dagokien zergaldian egotzi behar dira paragrafo horietan ezartzen denarekin bat. Hala ere, gastuak denboraren arabera berez dagokien zergaldian baino osteko beste batean egotzi badira kontabilitateko kontu horietan eta sarrerak, berriz, dagokien zergaldian baino aurreko beste batean egotzi badira galera-irabazien kontuan, batzuen eta besteen denboraren araberrako egozketa kontabilitateko egozketa egin den zergaldian egingo da, betiere hori eginez gero ez bada gertatzen zerga-ordainketa txikiagoa izatea denboraren araberrako egozketarako aurreko paragrafoetan jasotzen diren arauak aplikatuz aterako litzatekeena baino.

4. Epeko edo prezio geroratuko eragiketetan, errentak, dagozkien kobrantzak egin ahala, proportzioz lortu direla ulertuko da, erakundeak sortzapearen irizpidea ezartzea erabakitzen duenean izan ezik.

Epeko edo prezio geroratuko eragiketatzat hartuko dira salmentak eta obren burutzapenak, beraien prezioa, osotasunean edo partzialki hurrenez hurrengo ordainketen edo ordainketa bakarraren bidez hartzen denean, ematearen eta azken epearen edo epe bakarraren mugaegunaren arteko denbora urtebetetik gorakoa izan denean.

Geroratutako zenbatekoen endosua, deskontua edo kobrantza aurreratua eginez gero, egotzi gabeko errenta momentu horretan lortutakotzat emango da.

Idazari honetan ezartzen dena, ukituriko errentei dagozkien sarrerak eta gastuak kontabilizatzeko era edozein izanik ezarriko da.

5. Pentsio Plan eta Fondoei buruzko Legearen Testu Bateginaren zein borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakundeengara araubidea arautzen duten foru arauen xede diren egoere negozi berdinak edo antzekoak estaltzeko horniduretarako etabarruko funtsetarako gastuak prestazioak abonatzen diren zergaldian egotziko dira. Erregela bera aplikatuko da kendu ezin diren pentsio planen egoeren antzekoak estaltzeko ekarpenei dagokienez.

Orobat, foru arau honetako 13. artikulua 1. paragrafoko f) idatz-zatian aipatzen diren ondare tresnak emanez likidatu diren pertsonal-gastuak tresna horiek ematen diren zergaldian izango dirakengarriak.

6. Narriatzea dela eta balio-zuzenketaren xede izan diren ondare elementuen balioak izan diren narriatzearen itzulketaberatu gertatu den zergaldian egotziko da, zuzenketa egin zuen erakundearen edo harekin lotutako beste batean.

Erregela bera aplikatuko da aktibo ez korronteko ondare elementuen eskualdatuz sortutako galerentzat, elementuok eskualdatuz iren egunaren ondorengo sei hilabeteetan berriz eskuratuz gero.

7. Arau bidez, eta zerga oinarria zehaztekoan bakarrik, emango dira arauak, aurreko 1. idatzian ezarritakoa jardura, eragiketa edo sektore zehatzei ezartzeko.
8. Hornikuntzak desagertarazi direnean, ezarria zuten xederako erabili izan ez direlako, ekitaldiko sarreraren kontu batera sartu gabe, haien zenbatekoa zuzkitu dituen erakundearen zerga oinarrian sartuko da, zuzkidura hori gastu kenkortzat jo izan den neurrian.
9. Erakundea inbertsioaren arriskua bereganaturik duen aseguru-kontratuaren onuraduna bada, edo hura lutzeko eskubidea aintzatetsita badu, zerga-oinarrian polizari loturiko

aktiboek zergaldiaren hasieran izan duen likidazio-balioaren eta zergaldiaren amaieran izan duenaren arteko kendura sartuko du.

Idatz-zati honetan xedatutakoa ez zaie aplikatuko Pentsio Plan eta Fondoak araupetu dituen ekainaren 8ko 8/1987 Legearen xedapen erantsietatik lehenengoan eta hura garatu duten arauetan ezarritakoaren arabera enpresek berenganatutako konpromisoak gauzatzeko egindako aseguruiei.

Egotzitako errenten zenbatekoak kontratuen kopuruak jasotzetik datorren etekina gutxiko du.

21. artikulua. Subkapitalizazioa.

1. Erakunde batek, finantza-erakundeak salbu, espainiar lurraldean egoitza ez duten beste erakunde batekin edo beste pertsona eta erakunde batzuekin duen zor garbi ordainduak, zuzenak zein zeharbidekoak, 3ko koefizientea zerga-kapitalaren zifrari ezartzeak duen emaitza gainditzen badu, gaindikinari dagozkion sortutako korrituak dibidendutzat joko dira.
2. Aurreko idatzian ezarritakoa ezartzeko, bai zor garbi ordaindua, bai zerga-kapitala zergaldian zehar beren egoera ertainera txikituko dira.

Erakundearen beraren fondoen zenbatekoa zerga-kapitaltzat joko da, ekitaldiko emaitza sartu gabe.

3. Subjektu pasiboek Zerga Administrazioari aurkeztu diezaioke, foru arau honek 16. artikuluan 7. paragrafoan jasotakoaren arabera, aurreko 1. paragrafoan xedatutakoaz besteko koefizientea aplikatzeko proposamen bat. Proposamenaren oinarria izango da subjektu pasiboak merkatuko baldintza normaletan pertsona edo entitate ez lotuengandik lortzen duen zorpetzea.

Paragrafo honetan jasotakoa ez zaie aplikatuko egoitza paradisu fiskaltzat hartutako herrialde edo lurraldeetan daukaten pertsona edo entitateek egindako eragiketei.

4. Artikulu honetan ezarritakoa ez da aplikatuko loturiko erakundea Espainiako lurraldeko egoiliar ez bada eta Europako Batasuneko beste estatu bateko egoiliarra bada, arau bidez zerga paradisu kalifikaturiko lurralde bateko egoiliarra izan ezean.

22. artikulua. Aparteko mozkinen berrinbertsioa.

1. Nahi izanez gero, zerga oinarrian sartu gabe utz daitezke ustiapen ekonomikoei loturiko ibilgetu material edo ez materialaren ondare-elementuen kostu bidezko eskualdaketetan lortutako errentak, foru arau honetako 15. artikuluko 11. idatz-zatian araupetutako moneta-balio galera aplikatuz zuzendu ondoren.

Halaber, gauza bera egin daitezke mota guztietako erakundeen kapitaleko edo fondoen propioetako partaidetza ordezkatzan duten baloreen kostu bidezko eskualdaketaren bidez lortutako errenten %60arekin, baldin eta partaidetza sozietatearen kapitalaren %5ekoa baino handiagoa bada eta gutxienez urtebete lehenagotik eduki bada. Eskualdatutako partaidetza zenbatzerakoan zergaldiari dagozkiona hartuko da kontuan.

Zerga-oinarrian ez sartzeko aukeraz baliatu ahal izateko, eskualdaketaren bidez lortutako zenbatekoa aurrean aipatutako ondare elementuetako batean inbertitu behar da, hura eman edo eskura jarritako aurreko urtetik eta hurrengo hiru urteen bitarteko epealdian.

Berrinbertsioari dagozkionez, ez dira kontuan hartuko berrinbertsioa egingo den aktiboari lotutako eraiste edo kentzeen ondorioz hartuko diren betebeharrei dagozkien kostuak, kostuok berrinbertsioa balioesteko kontuan har daitezkeen arren.

Berrinbertsioa, hura gauzaten den ondare elementuak eskura jartzen diren egunean egindakotzat joko da

2. Zerga Administrazioak berrinbertsiorako plan bereziak onetsi ahal izango ditu hori bidezkotzen duten inguruabarrak biltzen direnean.

Eskabideak tramitatu eta onesteko prozedura Zergaren Araudiko 48. artikuluan ezarritakoari lotu behar zaio.

3. Berrinbertsioaren xede diren ondare-elementuek subjektu pasiboaren ondarean egon behar dute bost urtean, galdu ezean (frogatu egin behar da), edo hiru urtean, ondasun higikorrek badira, berrinbertsioa gauzatzen denetik zenbatuta, foru arau honetako 11. artikuluko 2., 3., 5. eta 6. idatz-zatietan onetsitako metodoen artetik ezartzen den amortizazio metodoaren arabera iraupen baliagarria hortik beherakoa denean izan ezik. Epe hori amaitu aurretik, elementu horiek eskualdatzeak, sartu gabeko errenta-zatia zerga oinarrian sartzea ekarriko du, lortutako zenbatekoa, aurreko 1. idatz-zatian ezarritakoaren arabera, berrinbertsioaren xede ez bada.
4. Berrinbertsioa adierazitako epean egiten ez bada, lortutako errentari dagokion kuota osoaren zatia, berandutza korrituz gain, haren mugaegunaren zergaldiari dagokion kuotarekin batera sartuko da.

Aurreko paragrafoan ezarritakoaren kalterik gabe, araubide berezipeko interes ekonomikoko elkarte espainiar eta europarrak eta enpresen aldi baterako batasunen erakundeak direnean, lortutako errenta positiboek dagokien zerga oinarriaren zatia haien bazkideei egotzi beharko zaie, foru arau honetako VIII. tituluko IV. eta V. kapituluetan ezarritakoarekin bat etorriz, berrinbertsioa egiteko epea muga eguneratu zen zergaldian.

5. Eskualdaketan guztira lortzen dena baino gutxiago bada berrinbertsioa, berrinbertsioaren zenbatekoari dagokion proportziorako zatiaren zerga errenta ez integratzea baino ez da onartuko.

Artikulu honetan ezarritako araubidea bateraezina da eskualdaketaren emaitzako kopurua berrinbertitzen den elementuei dagozkien zerga onura guztiekin, foru arau honetako 50. artikuluko 1. idatz-zatian aipatutako amortizazio arinari dagokionarekin izan ezik.

22.bis artikulua. Jabetza intelektual edo industrialetik datozen sarrerren murrizketa.

1. Erakundearen jabetza intelektual edo industrial erabiltzeko edo ustiatzeko eskubidea hirugarrenei lagatzearen bidez egindako ustiatetari dagozkion sarrerren %30 ez da zerga-oinarrian sartuko, baldin eta lagapen hori aldi baterako egiten bada eta ez bada eragiten lagapenean sartuta dauden ondare elementuak besterentzerik.

Jabetza intelektual edo industrial erakundeak berak garatu badu, berriz, sarrerren %60 ez da zerga-oinarrian sartuko.

Literatur, arte edo zientzia obrak zinemarako pelikulak barne, laga daitezkeen eskubide pertsonalak esaterako, irudi eskubideak, eta aplikazio komertzialak besterik ez duten informatika programak erabiltzeko edo ustiatzeko eskubidea lagatzen datozen sarrerekin ez dute inolako ere murrizketarako eskubiderik emango.

2. Aurreko paragrafoan ezartzen dena aplikatzeko honako baldintza hauek bete behar dira:
 - a) Lagapen-hartzaileak ekonomi jardura bat garatzeko era-bili behar ditu erabiltzeko edo ustiatzeko eskubideak eta eskubideok erabiltzearen emaitza ez dira izan behar erakunde lagatzaileari zergetan kengarriak diren gastuak sortzen dizkieten ondasun-emateak edo zerbitzu-egiteak, betiere, azken kasu horretan, erakunde lagatzailea erakunde lagapen-hartzaileari lotuta badago.
 - b) Lagapen-hartzailearen egoitza ez da egon behar tributazio eza duen edo paradisu fiskaltzat jotzen den herrialde edo lurralde batean.

3. Murrizketa hori kontuan hartu behar da foru arau honetako 34.1.b) artikuluan aipatzen den kuota osoaren zenbatekoa zehazterakoan.
4. Zergak zerga-baterakuntzaren araubidearen arabera ordaintzen dituzten erakundeak badira, lagapenaren ondoriozko sarrerak eta gastuak ez dira kenduko zerga-taldearen zerga-oina-ria zehazteko.

23. artikulua. Aurrezki kutxen ongintzarako eta gizarte ekintzarako obrak.

1. Zergatik kendu ahal izango dira aurrezki kutxek beren emaitzetatik ongintzarako eta gizarte ekintzarako obraren finantzaketarako erabiltzen dituzten kopuruak, berauek eraentzen dituzten arauen arabera.
2. Aurrezki kutxen ongintzarako eta gizarte ekintzarako obrari esleitutako kopuruak, gutxienez, 100eko 25ean, esleipena zein ekitaldiri dagokion, horretanxe, edo ondorengoan, inbertsio lotuak egiteko, edo horri heldutako erakunde eta establezimenduen euspen gastuak ordaintzeko ezarriko dira.
3. Ez dira zerga oinarrian sartuko:
 - a) Ongintzarako eta gizarte ekintzarako obraren euspen gastuak, egindako esleipenak gaindituz gero ere, etorkizuneko esleipenak ezartzeko kalterik gabe.
 - b) Ongintzarako eta gizarte ekintzarako obrari lotutako inbertsioen eskualdaketatik etorritako errentak.

24. artikulua. Zerga oinarri negatiboen konpentsazioa.

1. Likidatu edo autolikidatu diren zerga-oinarri negatiboak hurrengo urteetan amaitzen diren zergaldietako errenta positiboekin konpentsatu ahal izango dira.

Foru arau honetako 49. artikuluko baldintzak ez betetzeagatik enpresa txikitat jo ezin diren subjektu pasiboek muga bat izango dute 2012ko eta 2013ko ekitaldietan konpentsatu ahal izateko aurreko ekitaldietan likidatu edo autolikidatu zituzten zerga-oinarri negatiboak; izan ere, konpentsazio horren aurreko zerga-oinarri positiboaren 100eko 70 konpentsatu ahal izango dute, gehienez ere.
2. Konpentsatu ahal den zerga oinarri negatibotik ondoko kopurua kenduko da: bazkideek edozein titulurengatik egindako ekarpenen balioaren (eskuratutako partaidetzari dagokiona) eta partaidetza horren eskuraketa-balioaren arteko diferentzia positiboa, ondokoak gertatuz gero:
 - a) Sozietatearen kapitalaren zatirik handiena edo erakundearen emaitzetan parte izateko eskubideen zatirik handiena pertsona edo erakunde batek eskuratu du, edo elkarri lotutako pertsona edo erakunde batzuek, zerga oinarri negatiboa sortu den zergaldia amaitu ondoren.
 - b) Aurreko letran aipatutako pertsonak edo erakundeek %25etik beherako partaidetza eduki dute zerga oinarri negatiboa sortu den zergaldia amaitu denean.
 - c) Erakundeak ez du jardun ustiapen ekonomiko batean sozietatearen kapitalaren gehiengoa eman dion partaidetza eskuratu aurreko sei hiletan.
3. Subjektu pasiboak, behar denean, konpentsatu nahi dituen zerga oinarri negatiboen jatorria eta zenbatekoa frogatu beharko ditu kontabilitatearen eta agiri egokien bitartez, dena dela sortu diren ekitaldia.

V. TITULUA OINARRI LIKIDAGARRIA

25. artikulua. Oinarri likidagarriaren kontzeptua eta zehaztapena.

1. Oinarri likidagarria zerga oinarrian titulu honetan ezartzen diren txikipekak egitearen emaitza izango da.

Txikipekaren ezarpena bidezkoa ez balitz, oinarri likidagarria zerga oinarriarekin bat etorriko litzateke.

2. Zerga oinarrian txikipekak ezartzeak inoiz ez du sortaraziko oinarri likidagarrien lorpenik.

26. artikulua. Zerga oinarriaren txikipekak: sorkuntza berriko enpresak.

...

VI. TITULUA ZERGALDIA ETA ZERGAREN SORTZAPENA

27. artikulua. Zergaldia.

1. Zergaldia bat etorriko da erakundearen ekitaldi ekonomikoarekin.

2. Zergaldia beti amaituko da:

- a) Erakundeak iraungitzean.
- b) Espainiar lurraldean egoitza duen erakundeak egoitza hori atzerrira lekualdatzean.
- c) Erakundearen forma juridikoa aldatzen bada eta horrek berekin badakar emaitzako erakundea Zerga honi ez lotzea.

Zergaldi honi dagokion zerga-oinarria zehazteko, erakundea desegin dela ulertuko da, eta horrek foru arau honen 15. artikuluko 3. idatz-zatian ezarritako ondoreak izango ditu.

- d) Erakundearen forma juridikoa aldatzen bada eta horrek berekin badakar beraren karga-tasa aldatzea edo zerga-araubide berezia aplikatu beharra.

Forma juridiko aldatu denean egon diren ondare-elementuak eskualdatuz lortu den errenta elementua eduki den aldi osoan jarraian sortutzat hartuko da, besterik frogatu ezean. Errenta horretatik forma aldatu den unera arte sortu den kopuruari erakundeak jatorrizko forma juridikoaren arabera izango zituen karga-tasa eta zerga-araubidea aplikatuko zaizkio.

Aurreko lerroaldean jasotakoa aplikatzekoa da entitatearen forma juridikoa eraldatu gabe entitate horrek elementu eskualdatua eduki duen denboran zerga honez bestelako araubideak aplikatu baditu ere.

3. Zergaldia ez da hamabi hilabetetik gorakoa izango.

28. artikulua. Zergaren sortzapena.

Zerga zergaldiaren azken egunean sortuko da.

VII. TITULUA ZERGA-ZOR

I. KAPITULUA KARGA TASA, KUOTA OSOA, KUOTA LIKIDOA ETA BENETAKO KUOTA

29. artikulua. Karga tasa.

1. Karga-tasa orokorra izango da:
 - a) Oro har, % 28.
 - b) Foru arau honek 49. artikuluan jasotako enpresa txikiek % 24 aplikatuko dute, oro har
2. Hona % 21eko tasarekin tributatuak dutenak:
 - a) Aseguru orokorretako mutuak, gizarte aurreikuspeneko erakundeak eta Gizarte Segurantzaren lan istripuetako eta eritasun profesionaletako mutuak, berauek araupetzen dituen arautegiak ezarritako beharkizunak betetzen dituztenean.
 - b) Elkarrekiko berme sozietateak eta birfinkapeneko sozietateak, 1/1994 Legeak, martxoaren 11koak, Elkarrekiko Berme Sozietateen Araubide Juridikoari buruzkoak araupetzen dituenak, Espainiako Bankuaren erregistro berezian inskribatuta dauden horiek.
 - c) ...
 - d) Elkargoak, enpresa-elkarteak, ganbara ofizialak, hiri-jabetzako ganbarak, industria, merkataritza eta itsasketa ganbarak, nekazaritza ganbarak, arrantzaleen kofradiak, langileen sindikatuak eta alderdi politikoak.
 - e) Irabazizkoak ez diren erakundeak eta mezenasgorako zerga-pizgarrien zerga-araubideari buruzko Foru Arauan ezarritako zerga-araubidea aplikagarri ez duten irabazizkoak ez diren erakundeak
 - f) 27/1984 Legearen, uztailaren 26koaren, Birmoldaketa eta Berrindustrializazioari buruzkoaren, 22. artikulua. artikulua itzalpean sortutako lan sustapenerako fondoak.
 - g) Kooperatiben batasun, federakunde eta konfederakundeak.
 - h) Bilboko Balore Burtsako kide diren legezko baldintza duten Balore eta Burtsako Sozietate eta Agentziak, 24/1988 Legeak, uztailaren 28koak, Balore-Merkatuari buruzkoak ezarritakoaren arabekoak.
 - i) Bilboko Balore Burtsan negoziaketarako lehenengoz onartuak diren baloreak dituzten sozietateak.

100eko 25eko karga tasaren ezarpena negoziaketarako onarpenetik hasita ixten diren hiru zergaldietan egingo da, eta beti zergaldi horietako Zergaren sortzapenaren egunean baloreak Bilboko Balore Burtsan kotizatzen baztertuak geratzen ez badira.

Letra honetan xedatutakoa ezartzeko beharrezkoa izango da karga tasa hori ezarri behar den lehenengo ekitaldiko Zergaren sortzapenaren unean, negoziaketarako onartu diren baloreen balio izendatua sozietate-kapitalaren osotasuna izatea.
3. 100eko 20ko tasa ordainduko dutenak hauexek izango dira:
 - a) ...

- b) Balore burtsen sozietate artezkariak, 24/1988 Legeak, uztailearen 28koak, Balore Merkatuari buruzkoak halakotzat dituenak.
- 4. Irabazizkoak ez diren erakundeen eta mezenasgorako zerga-pizgarrien zerga-araubideari buruzko Foru Arauan ezarritako zerga-araubidea aplikagarri duten erakundeek 100eko 10ean ordainduko dituzte zergak
- 5. Ondokoek %1eko karga-tasa ordaindu behar dute:
 - a) ...
 - b) Talde Inbertsioko Erakundeei buruzko azaroaren 4ko 35/2003 Legearen bidez araupetutako inbertsio fondo finantzarioek, baldin eta beharrezko partaideen kopurua lege horretako 5. artikuluko laugarren idatz-zatian ezarritakoa bada, gutxienez.
 - c) Legean araututako higiezinetak inbertsio-sozietateek eta higiezinetak inbertsio funtsek, hurrengo d) idatz-zatian ageri ez direnek, baldin eta beharrezko akziodunen edo partaideen kopurua lege horretako 5. eta 9. artikuluetako laugarren paragrafoetan ezarritakoa bada, gutxienez, eta, talde inbertsioko erakunde ez-finantzarioak izanik, sozietatearen xede bakarra hiri lurreko era guztietako higiezinetan inbertitzea bada, gero errentan emateko.

Paragrafo honetan ezarritako karga-tasak aplikatzeko ezinbestekoa da aurreko paragrafoan aipatutako talde inbertsioko erakundeen aktiboko ondasun higiezinak ez besterentzea harik eta eskuratu direnetik hiru urte pasatu arte. Nolanahi ere, aparteko kasuetan Balore Merkatuko Batzorde Nazionalak berariazko baimena eman dezake horretarako.

Higiezin horiek c) idatz-zatian adierazitako gutxieneko epealdia igaro aurretik eskualdatuz gero, eskualdaketaren ondoriozko errenta Zergaren karga-tasa orokorrarekin tributatu beharko da. Gainera, erakundeak, ondasuna eskualdatu den zergaldiko kuotaz gainera, zenbateko hauek ere sartu behar ditu: idatz-zati honetan ezarritako araubidea aplikatu beharko zen aurreko zergaldi bakoitzeko, higiezinak zergaldian sortutako errentari aldi bakoitzean indarrean zegoen karga-tasa orokorraren eta %1eko tasaren arteko diferentzia aplikatzearen emaitza diren zenbatekoak. Horiez gainera bidezko berandutza korrituak, errekarquak eta zehapenak ere ordaindu behar ditu.

Idatz-zati honetan ezarritakoa aplikatzeko ezinbestekoa da erakundearen estatutuetan ezarrita egotea ez dela banatuko dibidendurik.

- d) Azaroaren 4ko 35/2003 Legearen bidez araupetutako higiezinetak inbertsio sozietateek eta higiezinetak inbertsio fondoek, baldin eta, c) letran ezarritako betekizunak betetzeaz gainera, errentatzeko soilik diren etxebizitzak sustatzen badituzte eta ondoko baldintza hauek betetzen badituzte:
 - 1.a. Higiezinaren sustapenari lotutako ondasun higiezinetak inbertsioek ezin dute gainditu higiezinetak inbertsio sozietatearen edo fondoaren guztirako aktiboaren %20.
 - 2.a. Higiezinaren sustapena eta haien errentamendua bereiz kontabilizatu behar dira eskuratzen edo sustatzen den higiezin bakoitzeko, eta higiezinako etxebizitza, lokal edo erregistro finka lokabe bakoitzaren errenta behar bezala banakatu behar da; hala ere, inbertsioak guztirako aktiboan konputatu ahal izango dira c) letran ezarritako ehunekoaren ondoretarako.
 - 3.a. Higiezinetak inbertsio sozietateen edo fondoaren sustapen jardueraren ondoriozko higiezinak hamar urte gutxienez egon behar dira errentan emanda edo errentatzeko eskainita. Epealdi hau eraikintza-lanak amaitzen direnetik konputatuko da. Honen ondoretarako, higiezinaren eraikintza amaitu dela frogatzeko obraren azken

ziurtagiria behar da, Etxegintzaren Antolamenduari buruzko 38/1999 Legeko 6. artikuluan aipatutakoa.

Horrelako ondasun higiezin bat letra honetan edo aurrekoan aipatutako gutxieneko epealdia igaro aurretik eskualdatzen bada, eskualdaketaren ondoriozko errenta Zergaren tasa orokorra aplikatuta kargatuko da. Gainera, erakundeak, ondasuna eskualdatu den zergaldiko kuotaz gainera, zenbateko hauek ere sartu behar ditu: letra honetan ezarritako araubidea aplikatu beharko zen aurreko zergaldi bakoitzeko, higiezinak zergaldian sortutako errentari indarreko karga tasa orokorraren eta %1eko tasaren arteko diferentzia aplikatzearen emaitzako kopurua. Horiez gainera bidezko berandutza-korrituak, errekarquak eta zehapenak ere ordaindu behar ditu.

Higiezinetakoz inbertsio sozietate edo fondo batek errentatzeko etxebizitzak sustatzen baditu, horren berri eman behar dio Zerga Administrazioari jarduerari ekiten dion zergaldian.

- e) Hipoteka Merkatua Araupetu zuen martxoaren 25eko 2/1981 Legearen 25. artikuluan xedatutako hipoteka merkatuaren araupeketako fondoak.
- 6. % 35eko tasarekin tributatu dute hidrokarburoen sorguneak eta lurrazpiko biltokiak miatu, ikertu eta ustiatzen dituzten entitateek, Hidrokarburoen Sektorerari buruzko urriaren 7ko 34/1998 Legeak jasotakoaren arabera.

Birfintzeari loturik dauden jarduerak eta ikerkuntza, ustiapen, garraio, biltegiatze, arazketa eta ateratako hidrokarburoen salmentaz ateko bestelako jarduera guztiak, bai eta gainontzekoen jabetzapeko hidrokarburoen lurrazpiko biltegiatze-jarduera ere, karga tasa orokorraren pean jarriko dira.

Gainontzeko baten jabetzako hidrokarburoak biltegiatzeko jarduera soi-soilik burutzen duten erakundeek ezin izango zaie ezarri foru arau honetako VIII. tituluko XII. kapituluaren xedatu araubide berezia eta horiek artikuluko honetako 1 idazatian xedatu tasa orokorraren arabera ordainduko dute zerga hau.

- 7. 100eko 0ko tasa, 8/1987 Legeak, ekainaren 8koak, Pentsio Plan eta Fondoei buruzkoak araupetzen dituen pentsio fondoei eta zerga araubidea araupetzen dieten foru arauetan ezarritako baldintzak eta beharkizunak betetzen dituzten borondatezko gizarte aurreikuspeneko erakundeek ordainduko dute.
- 8. Kreditu Kooperatibek eta Baserritarren Kutxek 100eko 28ko tasaren arabera ordainduko dute zerga.
- 9. Zerga-babesa duten Sozietate Kooperatiboek % 20ko tasan ordainduko dituzte zergak.

Hala eta guztiz ere, zerga babesa duten kooperatiba txikiek, foru arau honetako 49. artikuluan enpresa txikitzat hartzeko ezarritako baldintzak betetzen dituztenean, 100eko 18ko tasa aplikatuko dute.

30. artikulua. Kuota osoa.

Kuota osoa oinarri likidagarriari karga tasa ezartzetik ateratzen den emaitza dela ulertuko da.

31. artikulua. Kuota likidoa.

- 1. Kuota osoa ezarpen bikoitzaren ziozko kenkarien eta hobarien zenbatekoan gutxitzetik ateratzen den emaitza kuota likidoa dela ulertuko da.
- 2. Behin ere kuota likidoa ez da negatiboa izango.

32. artikulua. Benetako kuota.

1. Kuota likidua titulu honen IV, V eta VI. Kapituluetan ezarritako kenkarien zenbatekoan gutxizetik ateratzen den emaitza benetako kuota dela ulertuko da.
2. Behin ere benetako kuota ez da negatiboa izango.

II. KAPITULUA EZARPEN BIKOITZA ERAGOZTEKO KENKARIAK

33. artikulua. Barne-ezarpn bikoitza eragozteko kenkaria: barne-jatorrizko dibidenduak eta gainbalioak.

1. Subjektu pasiboaren errenten artean Espainian egoitza duten beste erakunde batzuen mozkinetako dibidenduak edo partaidetzak zenbatzen direnean, dibidendu edo mozkin partaidetzetatik etorritako zerga oinarriari dagokion kuota osoari 100eko 50 kenduko zaio.

Dibidendu edo mozkin partaidetzetatik etorritako zerga oinarria horien zenbateko osoa izango da.

2. Aurreko idatz-zatian aipatutako kenkaria %100ekoa izango da dibidenduak edo mozkinetako partaidetzak subjektu pasiboak zuzenean edo zeharbidez %5eko partaidetza, gutxienez, duen erakundeetatik datozenean, baldin eta partaidetza hori banatzen den mozkin eska daitekeen egunaren aurreko urtean eten gabe eduki bada edo, bestela, urtea betetzeko falta den aldiari edukitzen bada. Kenkaria %100ekoa izango da aseguru-etako mutua, gizarte aurreikuspeneko erakunde, elkarrekiko berme-sozietate eta erkidegoetatik hartutako mozkinetara dagokienez.
3. Kenkaria honako kasuetan ere ezarriko da: sozietateen likidazioan, bazkideen banantzean, amortizazioarako akzio edo partaidetza propioen eskuraketan eta bategite, zatiketa oso edo aktibo eta pasiboaren lagapen orokorreko eragiketarako likidaziorik gabeko desegitean, eragiketa horietatik etorritako errenta kontatuei dagokienez, mozkin banatugabeen, are kapitalari erantsiak izandakoei ere, dagokien zatian.

Aurreko lerroaldean aipatzen diren eragiketak egiten dituen sozietateak, foru arau honen 15. artikulua. artikulua 3. atal. atalean ezarritakoaren arabera, zerga oinarriari sartu behar duen errentaren gain ere kenkaria egingo da.

4. Aurreko atalean aurreikusten den kenkaria ez da honako errentei dagokienez aplikatuko:
 - a) Kapital-txikipenetik edo akzio eta partaidetzen jaulkipen-sariaren banaketatik etorritakoei dagokienez, eragiketa horiek ekarpenen itzulketarekin batera egiten direnean izan ezik.

Itzulketa horiek egiten direnean, mozkindunek bazkideei eragiketan eman liezazkieketen mozkin banatugabeen gaineko kenkaria egingo dute.
 - b) Aurreko idatzietan ezarritakoei dagokienez, banaketa egin aurretik, erreserbak egiteko edo galerak konpentsatzeko kapital-txikipena egin denean, edo jaulkipen-saria erreserbetara intsuldatu denean, edo bazkideek ondarea birjartzeko ekarpena egin dutenean, txikipenaren, intsuldatuaren edo ekarpenaren zenbatekoraino.

Aurreko lerroaldean xedatutakoa ez da aplikatuko zerga oinarriari sartu diren errenta banatuei dagokienez hauekiko zerga oinarri negatiboen konpentsazioa egin ez bada, salbu eta konpentsaziorik eza Foru Arau honetako 24. artikulua. artikuluko 2. atal. atalean oharrekin denaren ondoriozkoa izan bada.

- c) Hipoteka-merkatuaren herri izaerako araupeketak-fondoak banatutakoei dagokienez.

- d) Dibidenduaren edo mozkin-partaidetzaren banaketak zerga oinarrian errentarik sartzea ez dakarrenean edo banaketa horrek partaidetzaren balioaren galera gertarazi duenean, zerga-ondoretarako. Kasu honetan partaidetzaren balioaren lehengoratzea ez da zerga oinarrian sartuko.

Aurreko lerroaldean xedatzen dena ez da aplikatuko:

- a') Subjektu pasiboak frogatzen duenean, batetik, partaidetzaren balio-galeraren pareko zenbateko bat Sozieta-teen gaineko Zergaren zerga-oinarrian sartu dela; bestetik, zergak foru arau honetako 29.artikuluko 1, 2 edo 6.para-grafoetan zehazten diren karga tasen arabera ordaindutueta, partaidetzaren jabe izandako segidako entitateek eskualdaketaren ondorioz lortutako errenta dela-eta, etaazkenik, errenta horrek dibidenduen barruko ezarpen bikoitzaren ziozko kenkarirako eskubiderik izan ez duela. Kenkaria zati batez aplikatuko da letra honetan aipatzen den frogak izaera partziala duenean.

a') letran ezarritako kasuan, aurretik partaidetzaren jabeizan diren erakundeek ez badute zerga-oinarrian sartu aparteko mozkinen berrinbertsioa dela-eta eskualdaketaren bidez lortutako errenten %50, kenkaria dibidenduaren edomozkinetako partaidetzaren %50ari aplikatuko zaio; etaerrenta horien %60 sartu ez dutenean, berriz, kenkaria dibidenduaren edo mozkinetako partaidetzaren %40ari aplikatuko zaio.

- b') Subjektu pasiboak partaidetzaren balio-galeraren pareko zenbateko bat Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zerga oinarrian sartu dela, partaidetzaren jabe izandako segidako pertsona fisikoek, eskualdaketa dela eta, lortutako errentaren kontzeptuz, frogatzen duenean. Kenkaria zati batez aplikatuko da letra honetan aipatzen den frogak izaera partziala duenean.

Aurreko b') letran ezarritako balizkoan, kenkariaren zebatekoa ezin da izan dibidenduari edo mozkin partaidetzari Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan zerga likidakorraren zati berezian integratutako kapital irabaziei dagokien karga-tasa aplikatuz sortzen den zenbatekoa baino gehiago.

- e) Foru arau honen 26. artikuluan ezarritako txikipena ezarri beharrekoa den lehenengo zergaldi bietan hobaritutako etekinei dagozkien mozkinen banaketatik etorritakoiei dagokienez.

Erreserben banaketaren kasuan, sozietatearen erabakian den izeneztapenari egokituko zaio, abonatutako lehenengo kopuruak erreserba horiei ezarriak direla ulertuz.

- f) Kanarietako Alde Bereziko erakundeek dibidenduak edomozkinetako partaidetzak, baldin eta dibidendu edomozkin horiek zergak Sozietateen gaineko Zergariburuzko Testu Bategineko - martxoaren 5eko 4/2004 Lege-gintzako Errege Dekretuaren bidez onetsi zen - 28.arti-kuluko 8.paragrafoan adierazten diren tasen arabera ordaindu dituzten mozkinetari badagozkie.Horretarako,jasotako errentak lehenengo eta behin mozkin horietatik datozela ulertuko da.
- g) Dibidenduak edo mozkinetako partaidetzak, baldin etahaiek ordaindu aurreko bi hilabeteetan zehar eskuratutako akzioei edo partaidetzei badagozkie eta data horretatik aurrera, eta epe berean, balio homogeneouskoak eskual-datu badira

5. Subjektu pasiboaren errenten artean, espainiar lurraldeanegoiliar izan eta zerga-ordainketa karga tasa orokorrean edo %35ekoan egiten duten erakundeek kapitala edo fondo propio akordezkatzten dituzten baloreen eskualdaketatik etorritakoak zenbatzendirenean, kuota osotik kenduko da erakunde partaidetuak eskual-datutako partaidetza eduki duen bitartean sortu ziren eta haren partaidetzari egozgarriak zaizkion mozkin banatugabeen gehikuntzagarbiari, sozietate-kapitalari gaineratuak barne, bidezko karga tasaaplikatzearen ondoriozko emaitza, baldin eta honako eskakizunakbetetzen badira:

- a) Partaidetzaren portzentajea, zuzena edo zeharkakoa, eskualdaketa egin aurretik %5 edo gehiago izatea
- b) Portzentaje hori etengabeen eduki izana partaidetza eskualdatu den egunaren aurreko urtean.

Partaidetzaren eskuraketa data dela-eta, partaidetzaren eskuraketa datan mozkin banatugabeen zenbatekoa zehazterik ez badago, baloreak beren balio teorikoan eskuratu zirela ulertuko da.

Kenkari honen aplikazioa bateraezina izango da foru arau honetako 22. artikuluan halako erretetarako ezarritako aparteko mozkinen berrinbertsioarekin, idatz-zati honetan ezarritako kenkaria aplikatu zaion errentaren zatiari dagokionez.

Paragrafo honetan zehazten dena aplikagarri izango zaie, berebat, foru arau honetako 29. artikuluko 2. paragrafoko b) idatz-zatianaipatzen diren erakundeen kapitala ordezkatzan duten baloreen eskualdaketei; horretarako, 2. paragrafoan ezarritako karga tasa aplikatu behar da.

Paragrafo honetan ezarritako kenkaria ez zaio aplikatuko mozkin banatugabeen gehikuntza garbiaren barruan erakunde partai-detuaren zerga-oinarrian zerga-oinarri negatiboen konpentsazioadela-eta sartu gabeko errentei dagokien zatiari.

- 6. Kuota osoa nahikoa izan ez eta kendu ez diren zenbatekoak hurrengo urteetan amaitzen diren zergaldietako kuota osoetatik kendu ahal izango dira.
- 7. Zergapen bikoitza galarazteko kenkaria, babespeko eta babes berezipeko kooperatiben itzulkinetara dagokiena, Kooperatiben Zerga-Araubideari buruzko Foru Arauaren 26. artikuluan xedatzen denari atxikiz egingo da.

34. artikulua. Nazioarteko ezarpen bikoitza eragozteko kenkaria: subjektu pasiboak eutsi beharreko zerga.

- 1. Subjektu pasiboaren zerga oinarrian atzerrian lortu eta zergapetutako errentak sartzen direnean, kuota osoari hurrengo kopuru bietatik txikiena kenduko zaio:
 - a) Zerga honen izaera berdina edo antzekoa duenaren kargan atzerrian ordaindutako eskudirutako zenbatekoa.

Salbuespena, hobaria edo beste edozein zerga-onura dela-bide ordaindu ez diren zergak ez dira kenduko.

Ezarpen bikoitza eragozteko hitzarmena ezarri beharrean, kenkaria ezin da izan hitzarmen horren arabera ordaindu beharreko zergak ezarritakotik gorakoa..
 - b) Errentok espainiar lurraldean Bizkaiko zerga-arautegiaren pean dauden erakundeek lortuak balira, errenta horiengatik ordaindu beharko litzatekeen kuota osoaren zenbatekoa.
- 2. Atzerrian ordaindutako zenbatekoa, errentan sartuko da aurreko idazatian ezarritako ondoretarako eta, halaber, zerga oinarriaren parte izango da, guztiz kengarria izan ez arren.
- 3. Subjektu pasiboak zergaldian atzerriko zenbait errenta lortu dituzenean, kenkaria herri berekoak multzo berean sartuz egingo da, establezimendu iraunkorretatik etorriak izan ezik, berauek bakarrean establezimenduka zenbatuko baitira.
- 4. Kuota osoa nahikoa izan ez eta kendu ez diren zenbatekoak hurrengo urteetan amaitzen diren zergaldietako kuota osoetatik kendu ahal izango dira.

34 bis artikulua. Nazioarteko ezarpen bikoitza saihesteko kenkaria: dibidenduak edo mozkinetako partaidetzak.

1. Egoitza Espainiako lurraldetik kanpo duen erakunde batek ordaindutako dibidenduak edo mozkinetako partaidetzak zerga oinarrian sartuz gero, erakunde horrek dibidenduen iturri diren mozkinengatik benetan ordaindutako zergaren kenketa egingo da, dibidendu horiei dagokien zenbatekoan, baldin eta zenbateko hori subjektu pasiboaren zerga oinarrian sartuta badago.

Kenkari hori aplikatu ahal izateko beharrezkoa izango da erakunde ez-egoiliarren kapitalean subjektu pasiboak duen zuzeneko edo zeharkako partaidetza gutxienez 100eko 5 izatea, eta banatu beharreko mozkinak eska daitekeen egunaren aurreko urtebetean subjektu pasiboa etenik gabe izatea partaidetzaren jabe, edo, hala ez denean, subjektu pasiboak partaidetzari eustea harik eta urtebete egin arte.

Erreserbak banatzen diren aldietan, sozietate-akordioan dagoen izeneztapenari egingo zaio jaramon, eta erreserba horietarako ordaindutako azken kopuruak aplikatuzat joko dira.

2. Benetan ordaindutako zergatzat hartuko da dibidendua banatzen duen sozietatearen zuzeneko partaidetza duten entitateek eta aldi berean azken haien zuzeneko partaidetza duten entitateek, eta horrela hurrenez hurren, ordaindutako zerga, dibidenduak ordaintzeko erabili diren mozkinen egotzitako zatian, baldin eta partaidetza horiek % 5 baino txikiagoak ez badira eta aurreko paragrafoan aipatutako beharkizuna betetzen badute partaidetzaren edukitza aldiari dagokionez.
3. Kenkari horrek, aurreko artikuluan dibidenduei edo mozkinetako partaidetzei buruz ezarri den kenkariarekin batera, ezin izango du gainditu errentak Bizkaiko arautegiaren menpeko erakunde baten bidez lortu balira haiengatik ordaindu behar litzatekeen kuota osoaren zenbatekoa.

Muga horretatik gorakoa ezin izango da zergatik ken daitekeen gastutzat jo.

4. Kuota osoa nahikoa izan ez eta kendu ez diren zenbatekoak hurrengo urteetan amaitzen diren zergaldietako kuota osoetatik kendu ahal izango dira.
5. Dibidenduak edo mozkinetako partaidetza hartzen duen subjektu pasiboaren zerga-oinarrian ez da sartuko mozkinen banaketak partaidetzari ekarritako baliogalera, edozein direla ere baliogalera hori agerian jartzen den era eta zergaldia, salbu eta aipatu mozkinen zenbatekoaren zioz lehenago Espainian zergak ordaindu badira partaidetzaren eskualdaketa batean. Azken kasu horretan, erakundeak aukera izango du partaidetza eskualdatu duenean Espainian zerga-ordainketa eragin duten mozkinen zenbatekoa besteko gastua zenbatzeko, baldin eta, eragiketa hori kontabilizatu behar den modua dela eta, ez badu inolako errentarik sartuz zerga-oinarrian eta partaidetza horren balioa txikitu behar badu.

III. KAPITULUA HOBARIAK

35. artikulua. Hobaria, Ceutan eta Melillan lortutako errentengatik.

...

36. artikulua. Hobaria, esportazio jarduerengatik eta tokian tokiko zerbitzu publikoen prestazioengatik.

1. ...
2. 25. artikuluko 2. idazatian edo lurralde, udal eta probintzia mailako tokian tokiko erakundearen eskumenen Toki Araubideko Oinarrien apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 36. artikuluko 1. idazatik a), b), eta c) letretan sartutako zerbitzuetako edozeinen

prestazioaren ondoriozko errentei dagokien kuota osoaren zatiaren 100eko 99ko hoberia edukiko du, enpresa mistoaren edo kapital erabat pribatuko enpresaren sistemaren bidez ustiatzen direnean ezik.

Hoberia arestiko lerroaldean esandako zerbitzuak Estatuaren edo Autonomia Erkidegoen erabat mende dauden erakundeek egiten dituztenean ere aplikatuko da.

IV. KAPITULUA

AKTIBO EZ KORRONTE BERRIETAN EGITEN DIREN INBERTSIOAK PIZTEKO KENKARIAK

37. artikulua Aktibo ez korrante berrietan egiten diren inbertsioak pizteko kenkaria.

1. Erakundearen ustiapen ekonomikoaren garapenari lotutako aktibo finko material berrietan (lurrak ez dira halakotzat hartuko) inbertsioak eginez gero, kuota likidoari inbertsio horien zenbatekoaren 100eko 10 kendu ahal izango zaio.

Aktibo finkoa ez da berriztat joko beste pertsona edo erakunderen batek erabilitakoa bada, hau da, aurretik beste pertsona edo erakunderen batek bere ibilgetuan sartu badu, edo, abian jarri ez arren, Kontabilitate Plan Orokorren arabera ibilgetuan sartu beharra izan badu.

2. Hurrengo 3. idatz-zatiko b) letran xedatutakoaren kaltetan izan gabe, zergapekoek beren aktibo ez korronteko elementuetan egiten dituzten gastu eta inbertsioek, horiek kontabilitatean hobekuntzaren tratamendua badute, ez dute artikulua honetan araututako kenkaria aplikatzeko eskubiderik ekarriko.

Finantza errentamenduaren araubidean egindako inbertsioek aurreko idatz-zatian aurreikusitako kenkariari heldu ahalko diote, betiere, artikulua honetan aurreikusitako betekizunak betetzen badira.

3. Aurreko 1. idaztia. idatzian ezarritakoa honako hauei ere ezarriko zaie:

- a) Ekitaldian zehar ezarpen informatikoetan egindako inbertsioei.
- b) Eskualdatzeko pabiloi industrial birgaituak eskuratzeko, birgaitzeko pabiloi industrialak eskuratzeko edota enpresaren aktiboetan dauden pabiloi industrialak birgaitzeko inbertitutako kopuruei.

Ondore hauetarako, pabiloi industrialtzat joko dira Udalak industrial modura sailkatutako zonalderen batean daudenak, pabiloian burutzen den jarduera dena delarik, eta birgaitze lantzat, egiturak, fatxadak edota gainaldeak finkatuz eta tratatuz pabiloiak berreraikitze burutuko direnak, beti ere birgaitzeko eskuratzeko lanen kostua eskuraketaren 100eko 25 baino gehiago denean, birgaitzeko eskuratzeko badira, edota ondasunari emandako kopuruaren balio garbiaren 100eko 25 baino gehiago, birgaituko den pabiloia enpresaren aktiboetako bat bada.

- c) Enpresa emakidadunak emakida-erabakiari lotutako zerbitzu publiko bat emateko azpiegiturak eraikitze edo eskuratzeko egiten dituen inbertsioei, baina azpiegitura horiek ibilgetu ukiezin edo finantza-aktibo gisa kontabilizatuta egon behar dute abenduaren 23ko EHA/3362/2010 Agindua indarrean jarri zenetik. Agindu horrek, hain zuzen ere, Kontabilitate Plan Orokorra azpiegitura publikoen enpresa emakidadunetara egokitzeko arauak onartu zituen.

Artikulu honetako 4. zenbakian ezartzen dena betetzeko, izaeraren arabera dagokien aktibo ez korrontetzat hartuko dira azpiegiturok.

4. Aurreko idaztietan aipatutako inbertsioek honako ezaugarri hauek eta ondorengo beharkizunak bete beharko dituzte:

- a) Inbertitutako kopuruak aktibo ez korrontearen barruan kon-tabilizatu behar dira.

Idatz-zati honen ondorioetarako, ez dira kontuan hartukoerrentariak errentan hartutako elementuan edo, erren-tamendu operatiboen kasuan, erabilera-lagapeneanduen elementuan egindako inbertsio baten ondorioz age-rian geratzen diren aktiboak.

- b) Inbertsioak osatzen dituzten aktiboek gutxienez bost urteko amortizazio epea izan beharko dute ezarria, ekipo informatikoen izan ezik.

Amortizatzeko eperik laburrena izango da foru arau honetako 11. artikuluko amortizazio taulan ezarritako gehieneko koefizientea zati 100 eragiketarik ateratzen den zenbakirik altuenaren emaitza biribildua.

- c) Inbertsioen elementuak jarraiko inguruabarretako batean egon behar dira::

i) Ez dute ordaindu behar Zenbait Garraibidieren gaineko Zerga Berezia, bai haren menpeko ez direlako, bai, izan arren, salbuetsita daudelako.

ii) inbertsioa turismo ibilgailuetan egitea Zerga ordaindu arren halako ibilgailuen errentamenduan diharduten erakundeek, baldin eta erosteko eskubiderik gabe («renting») eta hiru hilabeterako gehienez (pertsonek edo erakunde berari) edo jaraiko hamabi hilabeterako errentatzen badituzte, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko azaroaren 9ko 7/1994 Foru Arauko 79. artikuluko 5. idatz-zatian ezarritakoaren arabera loturik dauden pertsona edo erakundeei lagatu ezean, eta beti ere ibilgailuak alokatzeko beste ezertarako erabiltzen ezbadira.

- d) Inbertsioa osatuko duten aktibo guztien zenbatekoak 60.101,21 hamar milioi europezatetik gorakoa izan beharko du ekitaldi bakoitzean eta honako beharkizun hauetako bat bete:

- Ibilgetu materialeko eta ibilgetuko inbertsioetakoparte den aktibo ez korronteari aurretik zituen kontabilitateko balioak eta ibilgetu ukiezinean aplikazio informatikoen duten kontabilitateko balioak, amortizazioak kenduta, batuz gero, batura horrek %10 gaintzea, edo

- Izaera bereko aktibo ez korrontearen kontabilitateko balioaren zenbateko osoaren %15 gaintzea, amortizazioak kendu gabe.

Kontabilitateko balioa zehazteko, inbertsioa egingo den ekitaldiaren aurreko zergaldiaren azkenengo egunari dagokion balantzeari begiratuko zaio, egun horretan jardunean dagoen inbertsiopeko aktibo finkoari dagokiona zenbatuko ez delarik.

Izaera bereko aktibo finkotzat joko da, Kontabilitate Plan Orokorreko edo, hala denean, ofizialki onartutako sektorekako egitamuetakoko kontu berean sartu edo sartuko dena, hiru digitutakoa berau.

60.101,21?ko kopurua konputatzeari eta letra honetako baldintzak betetzeari dagozkien ondorioetarako, bakarrik hartuko dira kontutan artikuluko honen 1., 2. eta 3. idatz-zatietan eta idatz-zati honen aurreko letretan aipatutako ezaugarriak eta baldintzak betetzen dituzten aktiboetan egindako inbertsioen kopuruak; ez dira konputatuko artikuluko honen 7. idatz-zatiaren 1., 2. eta 3. arauetan xedatutakoaren arabera baztertutako kopuruak

5. Artikulu honetako 1. idatz-zatian adierazitako kenkaria baldintza hauek betetzen dituzten enpresek ere aplikatu ahal izango dute: aurreko 4. idatz-zatiko d) letran ezarritako bi beharkizunak beteta edukitzea; inbertsioaren xede diren aktiboen zenbatekoa, guztira, 60.100 euro baino gehiago ez izatea; ekitaldian, gutxienez ere, lankontratu mugagabe bat formalizatzea, batez besteko plantila handituz, eta hurrengo hiru urteetan kontratuari eustea.

6. Orokorrean, aktibo finko materialetako inbertsioak, artikulua honetan ezarritakoak, eta foru arau honetako gainerako artikuluetan ezarritakoak egindakotzat hartuko dira ibiltzen jarritakoan.

Hala ere, subjektu pasiboak aukeran ditu iraupen luzeko inbertsio-proiektuak, zeinetan hamabi hilabete baino gehiago pasatzen baitira ondasunen aginduaren egunetik haiek eskuratu arte. Izan ere, egindakotzat hartua da inbertsioa ordainketak egin ahala. Era berean, kontutan hartu behar da ordainketen zenbatekoa.

Inbertsioko ondasunen hornitzailearekin kontratua egina den egunean indarrean dagoen kenkariaren araubidea aplikatu behar da.

Aukera gauzatu ostean, irizpideak eraenduko du inbertsio osoa.

Aukera hori burutu gura duen subjektu pasiboak, kontratu-egunaz geroztik zenbatutako hilabeteko epean, idatziz jakinarazi beharko dio Foru Aldundiari, kontratatutako inbertsioaren kopurakina eta ondasunak eman eta ordaintzeko ezarritako egutegia adieraziz. Era berean, jakinarazpen horrekin batera, kontratuaren kopia bat bidali beharko du.

7. Artikulu honetan ezartzen den kenkariaz baliatzeko hurrengo arau hauek zaindu beharko dira:

- 1.a. Aktiboak eskuratzen direnean, hitzartutako kontraprestazio osoa sartuko da kenkariaren oinarrian, baina ez dira kontuan hartuko hauek: interesak, zeharkako tributuak eta horien errekaruak, eraikuntza-marjina, lizitazioaren gastu teknikoak eta aktibo horiek eraitsi edo kentzearen ondorioz hartutako betebeharrei dagozkien kostuak. Dena dela, aurreko horiek guztiak bai hartu daitezke kontuan aktiboen balorazioa egiterakoan.

Inbertsioak ondasun higiezinetan egiten badira kenketarako oinarritik lurraren balioa aterako da, beti ere.

Inbertsioak pabiloi industrialak birgaitzeko egiten direnean, birgaitzeko eskuratzen badira, berauen birgaiketarako erabiliko diren kopuruek eta haiek eskuratzeko salneurriaren zenbatekoak zehaztuko dute oinarria, aurreko lerroaldeetan adierazitako kontzeptuak kenduta.

- 2.a. Kenkariaren oinarria ezin izango da merkatu baldintza normaletan, subjektu independenteen artean erabakitako salneurria baino handiagoa izan.

- 3.a. Kenkariaren ezarpena bateraezina izango da inbertsio beraiei lotutako beste edozein zerga-onurarekin, amortizatzeko askatasunari eta amortizazio arinari dagokienekin izan ezik. Kenkariaren ezarpena inbertsio berdinei lotutako beste edozein zerga-mozkinekin bateraezina izango da, amortizatzeko askatasunari, amortizazio arinari eta foru arau honetako 22. artikuluko 3. atal. ataleko lehen lerroaldean ezarritako aparteko mozkinen berrinbertsioari dagokienekin izan ezik.

- 4.a. Foru arau honetako 46.5 artikuluan zehazten den epearen barruan hirugarrenei eskualdatu, errentatu edo lagatzen bazaizkie inbertsioaren xede diren ondasunak, haiek erabil ditzaten, bada, ordaindu egin beharko dira aurretik egindako kenkariaren ondorioz ordaindu ez ziren kuotak eta haiei dagozkien berandutze-interesak. Gainera, kopuru horri gehitu egingo zaio ondasun hori jaregiten den ekitaldiko zergaren aitorpenetik ateratzen den kuota.

Jaregite honi esker, kenkaria lortu ahal izateko ezarri diren mugetatik behera geratuko balitz inbertsioen zenbatekoa, hauek guztiz galduko liriateke eta gorago aipatu den derrigorrezko sarrera burutu beharko litzateke. Era berean gertatuko litzateke, enplegua aurreko 5. atal. atalean zehaztutako epean mantenduko ez balitz.

Aurreko lerroaldeetan xedatutakoaren salbuespen izango da, ondasuna berriz ere lotzen bada edo horren kopuru eta ezaugarri berbereko beste batengatik ordezkutzen bada, behingoz eta hilabetez gehien jota ere.

Kontuan hartu behar da uztailaren 15eko 2066/2009 Foru A.k [BIZKAIA], Sozietateen gaineko Zergari buruzko ekainaren 26ko 3/1996 Foru Arauaren 37. artikulua ezarri duen kenkariaren hedakuntza interpretatu duena («B.A.O.» uztailak 22), ezarri duela kontabilitateari dagokionez hobekuntzen tratamendua duten euren aktibo ez arruntetako elementuetan zerga betebeharrekoek egingo dituzten gastuek eta inbertsioek ez dutela aipatu den 37. artikuluko horretan erregulatu den kenkaria aplikatzeko eskubiderik sortarazten, salbu eta aipatu den manuan ezarri diren beharkizunak betetzen dituzten industri pabilioien birgaikuntzen kasuek.

37. bis artikulua. Komunikazioaren eta informazioaren teknologiak sustatzeko kentzea.

...

38 artikulua. Kultura Ondarea babesteko eta hedatzeko jardueren eta produkzio zinematografikoetan nahiz liburuen argitalpenean egindako inbertsioen eraginezko kentzea.

1. Sozietateen gaineko Zergaren subjektu pasiboek 100eko 15eko kuota likidoa kentzeko eskubidea edukiko dute, honako honetarako egiten diren inbertsioen edo gastuen zenbatekotik:
 - a) Euskal Herriko Kultura Ondarearen, Espainiako Ondare Historikoaren edo beste autonomia erkidegoren bateko ondarearen barruko ondasunak lortzea, ondasunak Espainiako lurraldetik kanpo eskuratzen direnean, bertako lurraldean sartzeko, baldin eta ondasunak bertan eta titularraren ondarearen barruan gelditzen badira, gutxienez hiru urtetan.

Kentze horren oinarria, berriz, irabazizkoak ez diren erakundeen eta mezenasgorako zerga-pizgarrien zerga-araubideari buruzko Foru Arauko 20. artikuluko 1. ataleko f) letran ezarritakoaren arabera egindako balorazioa izango da.
 - b) Bere jabetzako ondasunak kontserbatzea, konpontzea, berri-tzea, hedatzea eta erakustea, baldin eta Euskal Herriko Kultura Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legean eta Espainiako Ondare Historikoari buruzko ekainaren 25eko 16/1985 Legean (edo autonomia erkidegoen araudian) kultura-interesekotzat hartzen badira, araudi horretan ezarritako baldintzak betetzen direnean.
 - c) Eraikinak berriro doitzea, horien teilatuak nahiz fatxadak mantentzea zein konpontzea eta azpiegiturak hobetzea, baldin eta Unescok Espainian kokaturiko Mundu Ondaretzat adierazitako hirien edo multzo arkitektonikoen, arkeologikoen, naturalen edo paisaiakoen barruan badaude.
2. Seriean egiteko ekoizpen industrialaren aurretik, euskarri fisikoa bideratuko duten Espainiako ekoizpen zinematografikoetako luzemetraje eta fikziozko ikus-entzunezkoen serieetan egindako inbertsioek kuota likidoaren 100eko 20ko kenkarirako bidea emango dute ekoizlearentzat. Kenkariaren oinarria ekoizpenaren kostua da, ken finantzen ekoizleakideak finantzaturiko zatia.

Zinematografikoetako luzemetraje baten espainiar ekoizpenean parte hartzen duen finantza ekoizleakideak finantzatu duen inbertsioaren 100eko 5eko kenkaria egiteko eskubidea izango du, eta inbertsio horien ondoriozko aldiko errentaren 100eko 5eko muga izango du.

Kenkari hori egiteko, aurreko lerroaldean adierazitako filmen ekoizpenean ekoizpenaren guztizko kostuaren 100eko 10a baino gutxiago ez den eta 100eko 25a baino handiagoa ez den finantza baliabideen ekarpenaren bidez, haien ustiapenean ondoriozko sarreretan parte hartzeko eskubidearen truke, soil-soilik parte hartzen duen erakundea joko da finantza ekoizlekidetzat.

Idazati honetan aipatu kenkariak lanaren ekoizpena amaitzen den zergaldiaz gero egingo dira. Aldi horretan kenkari lege ez erabilitako kopuruak hurrengo zergaldietako likidaziotan ezarri ahal izango dira, foru arau honetako 46. artikuluko 1 idazatian xedatutako baldintzetan. Horrelakotan, idazati honetan aipatu 100eko 5eko muga kenkaria egin den aldian lortutako ekoizlekidetzaren ondoriozko errentaren gainean kalkulatu da.

Arau bidez kenkari hori egiteko baldintzak eta prozedurak ezarri ahal izango dira.

3. Seriean egiteko ekoizpen industrialaren aurretik, euskarri fisikoa bideratuko duten liburuen edizioetan egindako inbertsioek kuota likidoaren 100eko 5eko kenkarirako bidea emango dute.
4. ...

V. KAPITULUA KENKARIAK, ENPRESEN FINANTZAKETA PIZTEKO

39. artikulua. Ekoizpenezko inbertsioetarako et/edo ingurugiroaren artapen eta hobekuntza jardueretarako edo energia aurrezteko erreserba.

1. Zergaren tasa orokorraren menpeko subjektu pasiboek eta babes fiskalpeko kooperatibek kuota likidotik kendu ahal izango dituzte ekitaldiaren kontabilitate emaitzatik etorri eta ekoizpenezko inbertsioetarako erreserba eta/edo Ingurugiroa artatu eta hobetzeko edo energia aurrezteko jardueretarako erreserba deritzon erreserba berezarako erabiltzen dituzten kopuruen 100eko 10a; erreserba honek honako baldintza hauek bete beharko ditu:

- 1.a. Erreserbarako gordeko den zenbatekoa erreserbaren zuzkidurarako diren mozkinen ekitaldia itxi eta handik bi urteko epean erabili beharko da aktibo finko material berrien inbertsioan, lurrak eta Zenbait Garraibideren gaineko Zerga Berezia ordaintzen duten elementuak kanpo geratzen direla. Aktiboak erakundearen ustiapen ekonomikoaren garapenari lotuko zaizkio, bertan mantenduko dira jardunean gutxienez bost urtetan zehar edo erabilgarri diren bitartean, bost urtetik beheragoko iraupena izango balute, eta ezin izango zaizkie gainontzekoei eskualdatu, errentatu edo laga beronen erabilpenerako.

Ondore hauetarako, inbertsioak egindakotzat joko dira jardunbidean hasten diren momentuan.

Aurreko lehenengo idazatian erabakitakoa gorabehera, ondasunak irmo eskatu eta erakundeak benetan eskuratu bitarteko epea bi urtetik gorakoa denean, ondasunen kontura egindako ordainketak aipatu erreserbarako egindakotzat har litezke, burutuko diren zergaldietan.

Aurreko lerroaldean aipatutako bi urteko epea igarota erreserba gauzatzen ez bada, subjektu pasiboak ingresatu egin beharko du gauzatu gabeko erreserbaren zatia dela eta egindako kenkariari dagokion kopurua, eta kopuru hori, atzerapenagatiko interesekin batera, aipatutako epea buka dadin ekitaldiaren benetako kuotari gehitu beharko zaio.

- 2.a. Ekoizpenezko inbertsioetako erreserbari egindako zuzkidurek balantzearen pasiboan agertu beharko dute guztiz banatuta eta behar bezalako tituluarekin eta zuzkidurak banatzean ekitaldiko galeren eta irabazien kontuaren kargura gauzatu beharko dira.
- 3.a. Aurreko urteko baliabide propioen aldean, erreserbarako zuzkiduraren muntan gehitu beharko dira erakundearen baliabide propioak, eta guztiz burutu osteko hurrengo bost urtetan zehar mantendu beharko da munta hau, kontabilitate-galerengatik gutxipena gertatzen ez bada.
2. Ekoizpenezko inbertsioetarako eta/edo ingurugiroa zaindu eta hobetzeko edo energia aurrezteko jarduerengatiko erreserba baliaezina izango da, inbertsioa gauzatzeko balio

duten ondasunek ustiapen ekonomikoaren garapenari lotutakotzat egon behar badute, hori guztia aurreko 1. idaz-zatiaren 1. baldintzan xedatutakoarekin bat etorrira.

3. Sozietatea likidatuz gero, ezarri edo gauzatu gabeko erreserbaren zatia, hark erakarriko dituen emaitzei gehituko zaie kargatzeko.

Berdin jokatu da aktiboaren eta pasiboaren bategitean, zatiketan, lagapenean edo jarduera-adarraren ekarpenean, salbu eta erreserba eta honi dagozkion gauzatzea eta inbertsioa negoziorekin jarraituko duen erakundean gordetzen badira aurreko enpresak zituen modu berean.

4. Erreserba foru arau honek baimentzen dituen helburuetako bat ez den beste helbururen baterako ezartzen edo erabiltzen bada, edo epea nahiz aurreko 1. idazatia. idazatian zehaztutako gauzatze-baldintzak betetzen ez badira, derrigorrezkoa izango da, kenkariari esker garaiz ordaindu ez ziren kuotak eta dagozkion berandutza korrituak sartzeara, eta kopuru hau aipatu edozein gertakariren ekitaldiari dagokion aitortzen likidaziotik ateratako kuotari gehitu beharko zaio.
5. Erreserba foru arau honek baimentzen dituen helburuetako bat ez den beste helbururen baterako gauzatzen bada, edo epea nahiz aurreko 1. idazatian zehaztutako gauzatze-baldintzak betetzen ez badira, derrigorrezkoa izango da kenkariari esker garaiz ordaindu ez ziren kuotak eta dagozkion berandutza korrituak sartzeara, eta kopuru hau aipatu edozein gertakariren ekitaldiari dagokion aitortzen likidaziotik ateratako kuotari gehitu beharko zaio.

VI. KAPITULUA KENKARIAK, ZENBAIT JARDUERAREN BURUTZEA PIZTEKO

40. artikulua. Kenkaria, ikerketa eta garapenen jarduerengatik.

1. Ikerketa eta garapeneko jarduerak egiteak eskubidea emango du kuota likidoan kenkaria egiteko, artikulua honetan eta foru arau honen 42. artikuluan jasotakoaren arabera.
2. Ikerketa eta garapentzat hartuko dira:
 - a) Ezagutza berriak aurkitzeko eta zientzian edo teknologian goi ulerkuntza bilatzeko egiten den «oinarrizko ikerketa» edo azterlan original eta planifikatua, betiere merkataritza edo industria helburuetatik kanpokoa.
 - b) Ezagutza berriak aurkitzeko egiten den «ikerketa aplikatua» edo azterlan original eta planifikatua, betiere ezagutza horiek produktu, prozesu edo zerbitzu berriak garatzen edo lehendik daudenak nabarmen hobetzen erabil-tzekoa bada.
 - c) Ikerketa aplikatuaren emaitzen «garapen esperimentalak » edo produktu, prozesu edo zerbitzu berrien plan,eskema edo diseinu batean aplikatutako ikerketaren gauza-tzea, edo emaitza horien hobekuntza nabarmena, bai eta merkaturatu ezin diren prototipoen sorrera eta hasierako erakusketarako proiektuak edo proiektu aitzindariak ere, baldin eta aplikazio industrialetarako edo merkataritzako ustiapenerako bihurtu edo erabili ezin badira.
 - d) Software aurreratuaren sorkuntza, baldin eta horrek aurrerapen zientifikoa edo teknologiko nabarmena badakar, dela teorema eta algoritmo berriak garatuz dela sistema eragile eta lengoia berriak sortuz, edota pertsona ezgaituak informazioaren gizarteko zerbitzuetara sartzeko egiten bada. Softwarearekin erlazionatuta dauden ohiko edo betiko jarduerak hortik kanpo geratzen dira.
3. Kenkariaren oinarrian ondokoak sartuko dira: ikerketa eta garapen gastuen zenbatekoak eta, bidezkoa izanez gero, ibilgetu material eta ukiezineko elementuetan (higiezinak eta lurrak ez besteetan) egindako inbertsioak.

Ikerketa eta garapeneko edo berrikuntza teknologikoko gastutzat hartuko dira subjektu pasiboak egindako gastuak, baldin eta jarduera horiei zuzenean lotuta badaude eta benetan jarduera horietan erabili badira. Proiektuen arabera banaka sailkatuta agertuko dira gastuak.

Halaber, kenkariaren oinarrian sartuko dira Europar Batasuneko edo Europako Esparru Ekonomikoko beste estatu batzuetan egindako jardueri dagozkien ikerketa eta garapen gastuak ere.

Europar Batasunekoak edo Europako Esparru Ekonomikokoak ez diren estatuetan egindako jardueren gastuei dagokienez, hauek ere kenkarirako eskubidea izango dute, baldin eta ikerketa eta garapeneko jarduera nagusia Europar Batasuneko edo Europako Esparru Ekonomikoko estatu batean egiten bada eta gastuen zenbatekoa guztirako inbertsioaren %25 baino gehiago ez bada.

Ikerketa eta garapeneko gastutzat hartuko dira, era berean, jarduera horiek Europar Batasuneko edo Europako Esparru Ekonomikoko estatu batean egiteko asmoarekin zergadunak, berak bakarrik edo beste erakunde batzuekin batera, ordaintzen dituen diru kopuruak.

4. Kenkari ehunekoak hauek izango dira:

a) Kontzeptu hau dela-eta zergaldiaren barruan egindako gastuen % 30.

Ikerketa eta garapen jarduerak egiteagatik zergaldian izandako gastuak aurreko bi urteetan izandako batez bestekoa baino handiagoak badira, batez besteko horretara iritsi arte aurreko paragrafoan jasotako ehunekoak aplikatuko da, eta batez besteko horretatik gorako soberakinari, berriz, % 50.

Aurreko paragrafoetan xedatutakoaren arabera egokia den kenkariaren gain, % 20ko kenkari gehigarria egingo da zergaldiko gastu hauengatik:

a') Entitateko langileria gastuengatik, ikerketa eta garapen jardueri oso-osorik lotutako ikertzaile kualifikatuei dagozkienean

b') Ikerketa eta garapen proiektuetan egindako gastuengatik, proiektuok hauekin kontratatuta daudenean: unibertsitateekin, ikerketako organismo publikoekin edo berrikuntza eta teknologia zentroekin, Berrikuntza eta teknologia zentroein buruzko abenduaren 20ko 2609/1996 Errege Dekretuaren arabera horrela aitortu eta erregistratuta badaude; eta, orobat, Eusko Jaurlaritzaren apirilaren 29ko 96/1997 Dekretuak arautzen duen Teknologiaren Euskal Sarean sartutako entitateekin. 96/1997 Dekretuak Teknologiaren Euskal Sarea sortu eta arautzen du, eta, horretarako, Euskadiko Teknologi Ikerketarako Erakundeekin elkarlana eta koordinazioa finkatu eta erakunde horien ezaugarriak eta eginkizunak zehaztu zituen.

b) Ibilgetu material eta inmaterialeko elementuetan egindako inbertsioen % 10, higiezinak eta terrenoak kanpoan utzita, baldin eta bakar-bakarrik ikerketa eta garapen jardueri atxikita badaude .

41. artikulua. Kenkaria, berrikuntza teknologikoko jarduerengatik.

1. Berrikuntza teknologikoko jarduerak egiteak eskubidea emango du kuota likidoan % 15eko kenkaria egiteko, ondorengo 3. paragrafoko b) eta c) idatz-zatietan jasotako kasuetan, eta % 20ko kenkaria, aldiz, paragrafo bereko a) eta d) idatz-zatietan jasotako kasuetan, betiere artikulua honetan eta ondorengoan xedatutakoaren arabera.
2. Berrikuntza teknologikotzat hartuko da produktu edo produkzio prozesu berrien lorpena edo jadanik daudenen hobekuntza nabarmena dakarren jarduera, baldin eta horren emaitza aurrerapen teknologikoa bada. Era berean, berriztat hartuko dira ikuspegi teknologikotik

begiratuta lehendik daudenetik nabarmen bereizten diren ezaugarri edo aplikazioak dituzten produktu edo prozesuak.

Jarduera horren barruan sartuko da produktu edo prozesu berriak plan, eskema edo diseinu batean gauzatzea, bideragarritasun azterketak egitea, prototipoak sortzea eta hasierako erakusketarako proiektuak edo proiektu aitzindariak eta ehunen lagindegia egitea, bai eta aplikazio industrialetarako edo merkataritzako ustiapenerako bihurtu edo erabili daitezkeenak ere.

Diagnostiko teknologikoko jarduerak ere sartuko dira ondorengo 3. paragrafoko a) idatzatian aipatutako entitateek egindako soluzio teknologiko aurreratuak identifikatu, definitu eta orientatzeko helburua dutenean, emaitzak zertan amaitzen diren kontuan hartu gabe.

3. Kontzeptu hauei lotutako berrikuntza teknologikoko jardueretan zergaldiaren barruan izandako gastuez osatuta egongo da kenkariaren oinarria:
 - a) Erakunde hauei aginduta dauden proiektuak: unibertsitatei, ikerketako organismo publikoei edo berrikuntza eta teknologia zentroe, betiere Berrikuntza eta teknologia zentroe buruzko abenduaren 20ko 2609/1996 Errege Dekretuaren arabera horrela aitortu eta erregistratuta badaude; eta, orobat, Eusko Jaurlaritzaren apirilaren 29ko 96/1997 Dekretuak arautzen duen Teknologiaren Euskal Sarean sartutako entitateei. 96/1997 Dekretuak Teknologiaren Euskal Sarea sortu eta arautzen du, eta, horretarako, Euskadiko Teknologi Ikerketarako Erakundeekiko elkarlana eta koordinazioa finkatu eta erakunde horien ezaugarriak eta eginkizunak zehaztu zituen.
 - b) Produkzio prozesuen diseinu industrialia eta ingeniari-tza. Horien barruan hauek sartuta daude: planen kontzepzioa eta prestaketa, deskripzio elementuak definitzeko marrazkiak eta euskarriak nahiz produktu baten fabrikazio, proba, instalazio eta erabilpenerako nahiz ehunen lagindegien prestaketarako behar diren zehaztapen teknikoak eta funtzionamendu ezaugarriak.
 - c) Teknologia aurreratuaren eskurapena, patente, baimen, know-how eta diseinu moduan. Zergadunarekin zerikusia duten pertsona edo entitateei ordaindutako kopuruek ez dute kenkarirako eskubiderik emango. Kontzeptu honi lotutako oinarria ezin da milioi bat euro baino handiagoa izan.
 - d) Kalitatea ziurtatzeko ISO 9000 serieko, ISO 14000, GMP araua edo antzeko arauak betetzearen ziurtagiria lortzea, arau horiek ezartzeko behar diren gastuak sartu gabe.
4. Berrikuntza teknologikoko gastutzat hartzen dira zergadunak proiektuka banatuta berariaz egiten dituenak, baldin eta artikulu honetan aipatutako jardueri zuzenean lotuta badaude eta benetan jarduera horiek garatzeko erabiltzen badira.
5. Halaber, kenkariaren oinarrian sartuko dira Europar Batasuneko edo Europako Esparru Ekonomikoko beste estatu batzuetan egindako jardueri dagozkien berrikuntza teknologikoko gastuak ere.

Europar Batasunekoak edo Europako Esparru Ekonomikokoak ez diren estatuetan egindako jardueren gastuei dagokienez, hauek ere kenkarirako eskubidea izango dute, baldin eta berrikuntza teknologikoko jarduera nagusia Europar Batasuneko edo Europako Esparru Ekonomikoko estatu batean egiten bada eta gastuen zenbatekoa guztirako inbertsioaren %25 baino gehiago ez bada.

Berrikuntza teknologikorako gastutzat hartuko dira, era berean, jarduera horiek Europar Batasuneko edo Europako Esparru Ekonomikoko estatu batean egiteko asmoarekin zergadunak, berak bakarrik edo beste erakunde batzuekin batera, ordaintzen dituen diru kopuruak.

42. artikulua. Ikerketa eta garapenaren eta berrikuntza teknologikoaren kontzeptutik kanpo gelditzen direnak, eta kenkariaren aplikazioa.

1. Honako hauek ez dira ikerketa eta garapen jardueratzat ez berrikuntza teknologiko jardueratzat joko:
 - a) Berekin berritasun zientifiko edo teknologiko esanguratsurik ez dakarten jarduerak. Bereziki, produktuen edo prozesuen kalitatea hobetzeko ohiko ahaleginak, lehendik dagoen produktu edo produkzio prozesu bat bezero batek ezarritako betebeharrak zehaztetara egokitzea, aldizkako edo sasoko aldaketak, eta lehendik dauden produktuetan antzekoetatik bereizteko egindako aldaketa estetikoak edo garrantzi txikiak.
 - b) Industria produkzioko eta zerbitzu hornikuntzako edo ondasun eta zerbitzu banaketako jarduerak. Bereziki, produkzio jardueraren plangintza; produkzioaren prestaera eta hasiera, tresnen doikuntza eta aurreko 41. artikuluko 3. paragrafoan azaldutako bezelako jarduerak barne direlarik; ikerketa eta garapen jarduerak edo berrikuntza jarduerak bezala sailkatutako jarduerari atxikita ez dauden produkzioko instalazio, makina, ekipa eta sistemak eranstea edo aldatzea; etendako produkzio prozesuetako arazo teknikoaren konponketa; kalitatearen kontrola eta produktu eta prozesuen normalizazioa; gizarte zientzien alorreko prospekzioa eta merkatu azterketak; merkaturatzeko sareak edo instalazioak ezartzea; jarduerak horiekin loturiko langileen trebakuntza eta prestakuntza.
 - c) Mineral eta hidrokarburoen azterketa, zundaketa edo prospekzioa.
2. Foru arau honen 40. eta 41. artikuluetan arautzen diren kenkariak aplikatzeko, zergadunek legez erabakitzen den organoak egindako txosten arrazoitua aurkeztu ahal izango dute, artikuluko 2. paragrafoan zergadunaren jarduerak ikerketa eta garapen bezala edo berrikuntza teknologiko bezala –hurrenez hurren– kalifikatzeko eskatzen diren betebeharrak zientifiko edo teknologikoak betetzeari buruzkoa. Kasu batean zein bestean, aurreko 1. paragrafoan xedatutakoa hartu beharko da kontuan. Esandako txostenean, jarduerak horiek egotzitako gastuen eta inbertsioen zenbatekoa zehaztu beharko da.

43. artikulua. Garapen iraunkorra, ingurumenaren zaintza eta hobekuntza eta energia iturrien aprobetxamendu eraginkorragoa lortzera zuzentzen diren proiektuekin loturiko inbertsio eta gastuengatiko kenkaria.

1. Zergadunek inbertsioaren % 30 kendu ahal izango dute kuota likidotik, inbertsio horiek Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu sailburuak Teknologia Garbier Euskal Zerrenda onartuz emandako Aginduan zehazten diren ekipa osoetan egindakoak badira.

Aipatu inbertsioak aktibo finko material berrietan egin beharko dira eta dagokion enpresaren jardueraren kutsatze eragina murriztu eta zuzentzeari zuzenean atxikita egon beharko dute.
2. Zergadunek honako hauen zenbatekoaren % 15 kendu ahal izango dute kuota likidotik:
 - a) EAEko erakunde ofizialek onarturiko proiektuak gauzatzeko ekitaldian zehar lur kutsatuak garbitzeko aktibo finkoetan egindako inbertsioak eta izandakogastuak.
 - b) Ibilgetu materialeko aktibo berrietan egindako inbertsioak, aktibo horiek ondoren adierazten diren helburuetakobateko edo batzuk - garapen iraunkorraren eta ingurumenaren babes eta hobekuntzaren eremuaren barruan- dituzten proiektuak gauzatzeko beharrezkoak badira:
 - a') Hondakinak minimizatzea, berrerabiltzea eta balioztatzea.
 - b') Mugikortasuna eta garraio iraunkorra.

- c') Natura-guneetako ingurumena leheneratzea, konpentsazio neurriak edo bestelako borondatezko ekintzak gauzatzearen ondorioz.
 - d') Ur kontsumoa minimizatzea eta ura araztea.
 - e') Energia berriztagarrien erabilera eta energia eraginkortasuna.
3. Aurreko 1. paragrafoan aipatzen den kenkaria zergadunak aplikatuko du. Honek, Zerga Administrazioak hala eskatuta, Eusko Jaurlaritzako dagokion sailaren ziurtagiria aurkeztu beharko du, egindako inbertsioak Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu sailburuak Teknologia Garbien Euskal Zerrenda onartuz emandako Aginduan zehazten diren ekipo osoei dagozkiela egiaztatzeko.
- Aurreko 2 paragrafoko a) idatz-zatian aipatzen den kenkaria zergadunak aplikatuko du. Horrek, Zerga Administrazioak hala eskatuta, Eusko Jaurlaritzako dagokion sailaren ziurtagiria aurkeztu beharko du, idatz-zati horretan azaltzen diren betebeharrak betetzen dituela egiaztatzeko.
- Aurreko 2. paragrafoko b) idatz-zatian aipatzen den kenkaria zergadunak aplikatuko du. Horrek, Zerga Administrazioak hala eskatuta, Bizkaiko Foru Aldundian edo Eusko Jaurlaritzan Ingurumenean ahalmena duen Sailaren ziurtagiria aurkeztu beharko du, egindako inbertsioek idatz-zati horretan ezartzen diren betebeharrak betetzen dituztela egiaztatzeko.
4. Foru arau honen 46. artikuluko 5. paragrafoan xedatutakoaren ondorioetarako, iritziko da ez dagoela desatxikitzerik artikuluko honetan araututako kenkariak baliatzen diren aktiboak, legeak hala aginduta, hirugarrenei lagatzen zaizkienean. Finantza errentamenduko araubidean egindako inbertsioak ere kenkari honetaz baliatu ahal izango dira.
5. 46. artikuluan xedatutakoa eragotzi gabe, aurreko 1. paragrafoan eta artikuluko honetako 2. paragrafoaren a) eta b) idatz-zatietan zerrendatu diren kenkari motak elkarrekin bateraezinak izango dira.
6. Erregelamendu bidez arautuko da kenkari hau aplikatzeko prozedura. Halaber, haren aplikazioa dakarten egitatezko suposamenduak zehaztu ahal izango dira.

44. artikulua. Enpresaren gizarte aurreikuspeneko tresna gisa diharduten gizarte aurreikuspeneko sistemetara enpresak egindako ekarpenengatiko kenkaria.

Zergadunak langileen alde egotzitako enpresa ekarpenen 100eko 10eko kenkaria egin ahal izango du kuota likidoan, langile bakoitzaren ekarpenetarako urteko 6.000 euroko muga dagoela kontuan hartuta. Hori egin ahal izateko, baldintza hauek guztiak bete behar dira: batetik, enpresa ekarpen horiek langileen multzoari eragin behar diote, erregelamendu bidez ezartzen denaren arabera; bestetik, ekarpen horiek egin behar dira edo enpleguko pentsio planetara, edo enpresako gizarte aurreikuspeneko planetara, edo Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2003ko ekainaren 3ko 2003/41/EE Zuzentarauan (enpleguko pentsio funtsen jarduerari eta gainbegiraketari buruzkoa) araututako pentsio planetara, edo gizarte aurreikuspeneko mutualitateetara, edo borondatezko gizarte aurreikuspeneko entitateetara; azkenik, aurreko horiek guztiek gizarte aurreikuspeneko tresna gisa jardun behar dute, eta zergaduna erakunde horien sustatzailea edo bazkide babeslea izan behar da.

Kenkari hau ezin izango da aplikatu ondoko hauen babesean egindako ekarpenekiko: Pentsio Planak eta Funtsak arautzen dituen Legearen testu bateratuko laugarren, bosgarren eta seigarren xedapen iragankorretan ezarritako araubide iragankorra, baita ere 1996ko Zerga Neurriari buruzko azaroaren 21eko 5/1996 Foru Arauaren bigarren xedapen iragankorra. Halaber, ezin izango da aplikatu enplegu erregulazioko espediente baten ondorioz langileekin hartutako konpromiso zehatzen kasuan ere

44. bis artikulua. Kenkaria, lanbide heziketarako gastuengatik.

1. Lanbide heziketarako jardueretan aritzeak kuota likidoari zergaldian zehar egindako gastuen % 10 kentzeko bidea emango du.
2. Zergaldian zehar egindako lanbide heziketarako jardueragatik sortu diren gastuak aurreko bi urteetako gastuen batezbestekoa baino handiagoak badira, aipatu zenbatekoen arteko aldearen % 15eko kenkari gehigarria ezarriko zaio aurreko idazatikoen kenkariari.
3. Aurreko idazatietan ezarritakoaren ondoreetarako lanbide heziketarako jardueratzat joko da enpresa batek zuzenean edota gainontzekoen bidez, langileak egunera-tzeko, trebatzeko edo birgaitzeko eta enpresaren beraren jardueraren garapenak edota lanpostuen euren ezaugarriek hala eskatuta buruturiko heziketa ekimenen multzoa. Per-tsona Fisikoen Errentaren Gaineko Zergari buruzko abenduaren 29ko 6/2006 Foru Arauan erabakitakoarekin bat, ez dira inola ere lanbide heziketarako gastutzat joko norbanakoaren lan etekin gisara hartuko direnak.
4. Artikulu honetan ezarritako kenkaria modu berean aplikatuko da lan-istripuen aurkako aurreneurrien kudeaketa sistema (L.I.A.K.S.) ezartzeko arau orokorrei buruzko UNE 81900 ziurtagiria lortzeko zergaldian egindako gastuak.
5. Era berean, kenkaria aplikatuko da erakundeak enplegatua teknologia berriak erabiltzen ohitzeko xedez egindako gastuengatik. Horrelako gastuen artean sartuta daude haien Internet-erako konexioa emateko, ahalbide-tzeko edo finantzatzeko egindakoak, eta ekipo informatikoak dohainik edo prezio beheratuetan ematekiko edo haiek eskuratzeko maileguak eta diru-laguntzak ematekiko datozenak, enplegatuek haiek lanerako tokitik edo ordutegitik kanpo erabilirik ere. Paragrafo honetako gastuak, zerga-ondoreetarako, langileak prestatzeko gastutzat hartuko dira eta ez dute enpleguaren zuzeneko lanaren etekina lortzea zehaztuko.

44 ter. artikulua. Kenkaria haur hezkuntzako lehenengo zikloko zerbitzua emateko lokaletan egindako inbertsio eta gastuengatik.

...

45. artikulua. Enplegua sortzearen ziozko kenkaria.

1. Zergaldian zehar lan-kontratu mugagabea egiten zaion pertsona bakoitzeko 4.900 euro kendu ahal izango da kuota likidotik.

Kopuru horri 4.300 euro gehituko zaizkio kontratatzen den pertsona lan-merkatuan sartzeko zailtasun bereziak dituzten taldeetako batean sartuta badago, arau ezarritakoaren arabera.

Lanaldi partzialeko kontratua duten langileen kasuan, kenkariaren zenbatekoa langileak egindako lanaldiaren araberakoa izango da, lanaldi osoari dagokionez.

2. Aurreko atalean xedatutako kenkaria ezartzeko, beharrezkoa izango da kontratazioa egiten den zergaldiaren bukaeran eta haren hurrengo bi ekitaldietako zergaldien bukaeran lan-kontratu mugagabea duten langileen kopurua handiagoa izatea kenkaria sortzen den zergaldiaren hasieran dagoena baino, eta diferentzia, gutxienez, kenkaria izateko eskubidea ematen duen kontratu kopurua bestekoa izango da.

Horrez gainera, azken ekitaldian —aurreko lerroaldean aipatutakoan— lan-kontratu mugagabea duten langileen batez bestekoa handiagoa izan behar da kontratazioak egin ziren zergaldiaren aurrekoan zegoena baino, eta diferentzia, gutxienez, kenkaria izateko eskubidea ematen duen kontratu kopurua bestekoa izango da.

Zenbaki honetan xedatutakoa bete behar da bai lan-kontratu mugagabea duten langile guztiei dagokienez, bai goiko 1. zenbakian aipatu diren langile talde biei dagokienez, arau bidez ezartzen diren baldintzetan.

Langileen Estatutuko 47. artikuluan ezarritakoarekin bat etorri izapidetzen diren enplegu-erregulazioko espedienteen ondorioz baimena ematen bada lan-harremanak eteteko edo lanaldia murrizteko, zenbaki honetan ezarritako baldintzak ez dira bete behariko harik eta lan-harremanak eteteko edo lanaldia murrizteko baimenaren indarraldia amaitu arte. Enplegu-erregulazioko espedientea benetan ebazten den eguna edozein dela ere, plantillaren batez besteko kopurua zehazteko (horretarako bakarrik) ebazpena ematen den zergaldiko lehen eguna izango da espedientea ebatzi deneko eguna.

3. Sozietateak eta banakako enpresak bat egin, banandu eta eraldatuz sozietate berriak sortzeko eragiketak gauzatzeak ez du ekarriko, berez, artikulua honetan jasotzen den kenkaria aplikatzerik.
4. Foru arau honetako 16.3 artikuluan ezarritako kasuetan, kenkari honen aplikazioak kontuan izan behariko du lotutako erakundeen egoera bateratua..

VII. KAPITULUA ARAU ERKIDIAK

46. artikulua. Titulu honetako IV, V eta VI. kapituluetan ezarritako kenkariaren arau komunak.

1. Titulu honetako IV, V eta VI. kapituluetan zehaztutako kenkariaren batura —aurreko 40. eta 42. artikuluetan jasotzen direnak batu gabe— ezin izango da kuota likidoaren 100eko 45 baino gehiago izan.

Aurreko lerroaldean ezartzen dena gorabehera, foru arau honetako 49. artikuluko baldintzak ez betetzeagatik enpresa txikitzat jo ezin diren subjektu pasiboen kasuan, titulu honetako IV, V eta VI. kapituluetan zehaztutako kenkariaren batura —aurreko 40. eta 42. artikuluetan jasotzen direnak batu gabe— ezin izango da kuota likidoaren 100eko 35 baino gehiago izan.

2. Kuota nahikoa izan ez izateagatik kentzen ez diren kopuruak hurrengo urteetan amaitzen diren zergaldietako likidazioetan aplikatu ahal izango dira, muga bera errespetatuta.
3. Hitzartutako kontraprestazio osoa sartuko da kenkariaren oinarrian, baina ez dira kontuan hartuko hauek: interesak, zeharkako tributuak eta horien errekarguak, eraikuntza-marjina, lizitazioaren gastu teknikoak eta aktibo horiek eraitsi edo kentzearen ondorioz hartutako betebeharrei dagozkien kostuak. Dena dela, aurreko horiek guztiak bai hartu daitezke kontuan aktiboen balorazioa egiterakoan, edo baita gastuena egiterakoan ere, hala badagokio.

Aurreko lerrokadan ezartzen dena gorabehera, ez dira tituluhonetako V.eta VI.kapituluetan aurreikusten diren kenkarietan sartuko kenkari horiek aplikatzeko eskubidea emango duten aktiboilotutako eraiste edo kentzeen ondorioz hartuko diren betebeharrei dagozkien kostuak, kostuok aktiboen balioesteko kontuan har daitezkeen arren.

Errentamendu operatiboen kasuan, errentariak errentan hartutako elementuan edo erabilera-lagapenean duen elementuan egindako inbertsio baten ondorioz agerian geratzen diren aktiboek ezdute titulu honetako V.eta VI.kapituluetan aurreikusten diren kenkariak aplikatzeko eskubidea emango.

Kenkariaren oinarria, horrela kalkulatu, ezin izango da merkatuan egoera normalean eta pertsona independenteen artean adostuko litzatekeen prezioa baino handiagoa izan.

Inbertsioak ondasun higieziinei badagozkie, lurzoruaren balioakenkariaren oinarritik kanpo utziko da beti. Halaber, aipatutako oinarritik, hala badagokio, zenbateko bat kenduko da.

Zenbateko hori lortzeko, aurreko hiru kapitulu horietako kenkarietan adierazten diren inbertsioetarako eta jarduerak sustatzeko jasotako dirulaguntzei —kapital zein ustiatetakoei—, ehuneko bat aplikatuko zaie.

Ehuneko hori kenketa baten emaitzada:100 ken entitateari aplikatzekoa zaion karga tasa egitearenemaitza, alegia. Aurreko hiru kapitulu horietan araututako kenkarien oinarriaren barruan sartzen diren kopuru guztiak ibilgetu moduan edo, halabadagokie, gastu moduan kontabilizaturik egon beharko dira, Kontabilitate Plan Orokorreko arauetara jarraituz.

4. Oro har, aurreko hiru kapitulu horietan aurreikusitako inbertsioak, funtzionamenduan jartzen diren garaian egindakotzat hartuko dira.

Hala ere, epe luzerako inbertsioetan (hamabi hilabete baino gehiago igaro direnean ondasunak enkargatu zirenetik eskuan izan arte) zergadunak erabaki dezake inbertsioa ordainketak egin ahala eta horien zenbatekoaz egindakotzat ematea, inbertsio ondasunen hornitzailearekin kontratua sinatu zen egunean indarrean zegoen kenkarien araubidea aplikatuz.

Aukera horretaz baliatuz gero, inbertsio guztiari aplikatu beharko zaio irizpide hori.

Aukera horretaz baliatu nahi duen zergadunak Ogasun eta Finantza Sailari emango dio horren berri, hilabeteko epearen barruan, kontratuaren datatik aurrera. Jakinarazpenean, kontratatutako inbertsioaren zenbatekoa zehaztu beharko du, baita ondasunak entregatu eta ordaintzeko egutegia ere. Era berean, jakinarazpen horri kontratuaren kopia erantsi beharko zaio.

5. Aurreko hiru kapitulu horietan aurreikusitako kenkarien gai diren aktibo finkoak edo ondare elementuak gutxienez bost urtez (edo, ondasun higikorrek badira, hiru urtez) egon beharko dira funtzionatzen zergadun beraren enpresan, aurreko artikuluetan aurreikusitako helburuei atxikita, hala badagokie, ondasun horien balio bizitza laburragoa denean salbu, eskualdatu, alokatu edo hirugarrenei erabiltzeko laga gabe, justifikatutako galerak izan ezik. Elementu horiek desatxiki, eskualdatu, alokatu edo lagatzeak, edo adierazitako epea amaitu baino lehenago ezarritako helburuetatik desatxikitzeak, bere garaian egindako kenkariengatik ordaindu ez ziren kuotak –dagozkion berandutze interesekin– ordaintzeko beharra ekarriko du. Berandutze interesak, egoera hori gertatzen den ekitaldiko autolikidaziotik ateratzen den kuotari gehitu beharko zaizkio.

Aurreko lerroaldean xedatutakoa gorabehera, kenkarigai den inbertsioa gauzatzen den aktibo finkoak hartan ezarritako epea baino denbora gutxiagoz egon daitezke, baldin eta haien orde, hiru hilabeteko epean, kenkarirako eskubidea kreditatzen duten betebeharrak eta baldintzak betetzen dituzten beste batzuk ipintzen badira.

Nolanahi ere, iritziko da ez dagoela desatxikitzerik inbertsioa gauzatzen den ondasunak alokatu edo hirugarrenei erabiltzeko lagatzen zaizkienean, ondoko hiru baldintzak betetzen badira: zergadunak, ustiapen ekonomiko bat dela medio, aktibo finkoak alokatzen edo hirugarrenei erabiltzeko lagatzen jardutea, ondasun horien errentari edo lagapen-hartzaileekin loturarik ez izatea, foru arau honen 16. artikuluan azaldutako zentzuan, eta finantza errentamenduko eragiketak ez izatea.

6. Gastu edo inbertsio berak ezin izango du kenkaria entitate bat baino gehiagotan aplikatzerik ekarri, ez eta entitate batean aurreko hiru kapitulu horietan araututako kenkarietako bat baino gehiago aplikatzerik ere.

Aurreko hiru kapitulu horietan ezarritako kenkariak bateraezinak izango dira inbertsio eta gastu berekin loturiko beste edozein zerga onurarekin, amortizatze askatasunari eta amortizazio bizkortuari dagokienez izan ezik.

7. Kuota likidoko kenkariak aplikatzerakoan, honako hurrenkera hau jarraitu behar da:

Lehenengo eta behin, aurreko ekitaldietan sortutako kenkariak aplikatuko dira, bakoitzaren arautegietan aurretik ezarritako mugak errespetatuz.

Jarraian, unean uneko ekitaldiko kenkariak aplikatuko dira, aurreko 1. zenbakian ezarritako mugen arabera.

Ondoren, aurreko ekitaldietatik datozen eta kuota likidoaren gaineko mugarik gabe aplikatzen diren kenkariak egingo dira.

Azkenik, ekitaldi berari dagozkion eta kuota likidoaren gaineko mugarik gabe aplikatzen diren kenkariak egingo dira.

Kuota likidoaren gaineko muga daukaten kenkarien baturak ezin izango du inoiz ere gainditu kuota likido horri artikuluko honetako 1. zenbakian aipatzen den ehunekoa aplikatuz ateratzen den zenbatekoa: berdin du zein ekitalditan sortu diren kenkari horiek.

8. Titulu honetako aurreko hiru kapitulu horietan araututako kenkariak, bakar-bakarrik, zergadunak bere oldez aurkeztutako autolikidazioetan eta zerga arloko arau-hausteengatik erantzukizunik sortu ez duten likidazioetan aplikatutako kopuruengatik aplikatu ahal izango dira, haietan ezarritako baldintza eta betebeharrekin.

VIII. KAPITULUA KENKARIA, KONTURAKO ORDAINKETEI

47. artikulua. Kenkaria, atxikipenei, konturako sarrerei eta zatikako ordainketei.

1. Izatezko kuotatik kengarriak izango dira:
 - a) Atxikipenak.
 - b) Konturako sarrerak.
 - c) Zatikaturako ordainketak.
2. Kontzeptu hauen guztien zenbatekoa benetako kuotatik gorakoa denean, Zerga Administrazioak gaindikina, bere arioz, itzuliko du.

VIII. TITULUA ZERGA ARAUBIDE BEREZIAK

LEHEN KAPITULUA DEFINIZIOA

48. artikulua. Definizioa.

1. Titulu honetan araututakoak dira zerga araubide bereziak, bai ukitutako subjektu pasiboan izaeratik bai burutzen dituzten egitateen, egintzen zein eragiketen izaeratik.
2. Beste tituluetakoa arauak titulu honetan daudenen gehigarri gisa ezarriko dira.

II. KAPITULUA ENPRESA TXIKI ETA ERTAINAK

49. artikulua. Zer den enpresa txikia eta zer ertaina.

1. Enpresa txikitzat joko dira baldintza hauek betetzen dituztenak:
 - a) Ustiapen ekonomikoa egin behar du.
 - b) Enpresaren eragiketa bolumena, Euskal Autonomia Erkidegoaren Ekonomi Itunean definitu den bezala, edo beraren aktiboa, ez da izan behar 10 milioi euro baino gehiago.
 - c) Batez beste, plantilan 50 pertsona baino gutxiago eduki behar ditu.

- d) Aurrean adierazi diren betekizunetako bat betetzen ez duen enpresa batek ezin du eduki %25etik gorako partaidetza enpresan, zuzenean zein zeharka. Salbuespena: kapital-arriskuko funts edo sozietateek eta enpresak sustatzeko sozietateek (foru arau honetako 59 eta 60. artikuluetan aipatu dira, hurrenez hurren) hori baino partaidetza handiagoa eduki dezakete, baldin eta partaidetza sozietatearen xedearen ondoriozkoa bada.
2. Enpresa ertaintzat joko dira baldintza hauek betetzen dituztenak:
- a) Ustiapen ekonomikoa egin behar du.
- b) Enpresaren eragiketa bolumena, Euskal Autonomia Erkidegoaren Ekonomi Itunean definitu den bezala, ez da izan behar 50 milioi euro baino gehiago, edo aktiboa 43 milioi euro baino gehiago.
- c) Batez beste, plantilan 250 pertsona baino gutxiago eduki behar ditu.
- d) Aurrean adierazi diren betekizunetako bat betetzen ez duen enpresa batek ezin du eduki %25etik gorako partaidetza enpresan, zuzenean zein zeharka. Salbuespena: kapital-arriskuko funts edo sozietateek eta enpresak sustatzeko sozietateek (foru arau honetako 59 eta 60. artikuluetan aipatu dira, hurrenez hurren) hori baino partaidetza handiagoa eduki dezakete, baldin eta partaidetza sozietatearen xedearen ondoriozkoa bada.
3. Aurreko 1 eta 2. idatz-zatietan azaldutako betekizunak Zergaren sortzapenaren aurreko zergaldian bete behar dira. Zergaldi hori egutegiko urtea baino laburragoa izan bada, eragiketen bolumenari dagokion magnitudea urtekoratu egingo da. Gauza bera egingo da sorkuntza berriko erakundeekin.
4. Aurreko 1 eta 2. idatz-zatietako c) letretan xedatutakoaren ondoretarako, batez besteko plantila kalkulatzeko lansaio osoko langileak hartuko dira kontuan, urteko. Lansaio partzialeko langileak lan egindako orduen kopuruaren proportzioan zenbatuko dira.
5. Erakundea, Merkataritzako Kodearen 42. artikulua arabera, sozietate talde bateko kidea bada, lehenago aipatu magnitudeak talde horretako erakundeen multzoari egokituko zaizkio.
- Aktiboa eta eragiketen bolumena konputatzeko, Merkataritza Kodeko 46. artikuluan eta hura garatu duten arauetan azaldutakoaren arabera bidezko diren ezabaketak hartu behar dira kontuan..

50. artikulua. Ibilgetu material berriaren amortizazioa.

1. Ibilgetu material berriek amortizazio askatasuna izango dute jardunbidean hasten direnetik, baina, horretan, salbuespen izango dira foru arau honen 14. artikulua 3. zenbakiaren a) letran eta d) letraren lehenengo eta bigarren paragrafoetan xedaturiko erregelak aplikatzen zaizkien garraiobideak eta aurreko 49. artikuluan zehaztu diren enpresa txikiek eskuratutako eraikinak.
- Ibilgetu material berriak, aurreko 49. artikuluan zehaztu diren enpresa txikiek eskuratutako eraikinak eta foru arau honen 14. artikulua 3. zenbakiaren a) letran eta d) letraren lehenengo eta bigarren paragrafoetan xedaturiko erregelak aplikatzen zaizkien garraiobideak izan ezik, amortizatu egin ahal izango dira, jardunbidean hasten direnean, foru arau honetako 11. artikulua taulan agertzen den gehieneko amortizazio koefizientearen bider 1,5 eragiketarik ateratzen den koefizientearen arabera.
2. Aurreko idaztatiko araubidea era berean ezarriko zaie zergaldian zehar obren burutzapenerako kontratu baten bidez enkargatutako elementuei, baldin eta hura bukatu eta hurrengo hamabi hilabeteen barruan eskuratzen badira.

3. Aurreko bi idazatietan zehaztutakoa enpresak berak egindako ibilgetu material berriari ere ezarriko zaio.
4. Aurreko 1. idatz-zatiko lehenengo lerroaldean ezarritako amortizazio askatasuna eta jarraiko hauek bateraezinak dira::
 - a) Esportazio jardueren ziozko hobaria, beronengatiko mozkinak inbertitu diren osagaiei dagokienez.
 - b) Aparteko hobarien berrinbertsioarekin, eskualdaketaren zenbatekoa berrinbertitzeko erabiliko diren elementuei egingo zaiena.
5. Amortizazio askatasuna izan duten elementuak eskualdatzen badira, aparteko mozkinen berrinbertsioari bakarrik heldu ahal izango dio eskualdaketaren balioaren eta beraren kontabilitateko balioaren (monetaren balio galeraren zenbatekoa zuzendutakoan) arteko diferentziak eratorritako errentak. Amortizazio askatasuna izan duten elementuak eskualdatzen badira berrinbertitzeagatik salbuespena bakarrik izango du eskualdaketaren balioaren eta beronen kontabilitateko balioaren arteko diferentziak eratorritako errentak, behin monetaren balio galeraren zenbatekoan zuzentzen denean hura.
6. Artikulu honetan ezarritakoa era berean ezarriko zaie finantza errentamendurako kontratua egingo zaien ibilgetu material berriaren elementuei, erosketarako aukera gauzatzen baldin bada.
7. Aurreko 1. idazatian ezarritakoari jarraituz lortutako zenbateko amortizagarriaren gaindikinari benetan gauzatutako balio galeraren arabera egindako kenkaria ez da galeren eta irabazien kontuari gotzi beharko.

51. artikulua. Zuzkidura, zordunen balizko kaudimengabeziagatik.

1. Foru arau honetako 49. artikuluan aipatzen diren enpresa txiki eta ertainetako zerga oinarriari zuzkidura orokor bat kendu ahal izango zaio balizko kaudimengabeziek eratorritako arriskua estaltzeko, zergaldiaren bukaeran egongo den zordunen kontuen gaineko zenbatekoaren 100eko 1era arte.
2. Foru arau honetako 12. artikuluko 2. idazatian ezarritakoaren arabera kaudimengabeziagatik horniduraz zuzkitutako zordunak eta artikulu horren arabera kendu ezin diren zuzkidurak izango dituzten haiek ez dira aurreko idazatian zehaztutako zordunen artean sartuko.
3. Aurreko 1. idazatian ezarritakoaren arabera zuzkitutako horniduraren saldoak ezin izango du idazati horretan bertan adierazitako muga gainditu.
4. Enpresa txiki eta ertainak izateari utzi dioten zergaldietan zehar egindako zordunen balizko kaudimengabeziek eratorritako arriskua hornitzeko zuzkidurak ez dira kengarriak izango aurreko 1. idazatian adierazitako hornidurazko saldoaren zenbatekora arte.

52. artikulua. Kenkaria energia-iturri berriztagarrietan inbertitzeagatik Salbuespena berrinbertitzeagatik.

...

III. KAPITULUA ITSAS GARRAIOKO ENPRESEN ARAUBIDEA

53. artikulua. Aplikazio esparru subjeliboa eta objetiboa. Itsas garraioko enpresen zerga ordainketarako araubidea.

1. Sozietateen gaineko Zergaren subjektu pasiboek ondokoen artean hauta dezakete: edo ontzi guztien (eurenak zein errentatuta dituztenak) ustiapenari zerga-oinarrian dagokion

zatia edo araubide hau aplikatu ahal zaien ontzien kudeaketa teknikoari eta haietako langileen kudeaketari dagokiena zehaztu dezakete, ontzi bakoitzaren erregistroko tonaje garbiari beheko eskala aplikatuta:

Erregistro garbiko tonak	100 tonako bakoitzagatik eguneroko zenbatekoa (eurotan)
0tik y 1.000ra	0,85
1.001etik y 10.000ra	0,71
10.001etik y 25.000ra	0,40
25.001etik	0,20

Eskala aplikatzeko egunak zenbatzeko, ez dira kontutan hartuko itsasuntzia konponketa arruntengatik zein apartekoengatik operatibo ez dagoen egunak. Era berean, itsasuntziaren jardunaren hasiera urtekitaldiaren hasierako eguna ez bada edo jardueraren amaierakoa urtekitaldiaren amaierako eguna ez bada, ez dira zenbatuko egunok.

Ontzi guztien kudeaketa teknikoa eta haietako langileen kudeaketa egitea jarduera horien erantzukizun osoa hartzea da, baita, horiez gain, Segurtasunerako Kudeaketaren Nazioarteko Kodeak ontziak ustiatzeko eta kutsaduraren prebentziorako ezarritako betebeharrak eta erantzukizunak ere.

Araubide honetako eskakizunak betetzen dituzten eskatzailearen itsasuntzi guztientzako da araubide hau, baita baimena eta gero erosten edo alokatzen dituen itsasuntzientzako ere, beti ere eskakizunok betetzen badituzte, eta araubide horretakoaz baliatu daitezke fletamenduan hartutako itsasuntziak ere, baldin eta erakundearen, edo hala balitz araubidepeko talde fiskalaren, untzidi guztiaren tona garbien 100eko 75a gainditzen ez badute.

Zerga baterakuntzaren araubide berezipean zergak ordaintzen dituzten erakundeak badira, zerga taldea osatzen duten erakunde guztien itsasuntzi guztiei aplikatuko zaie araubide hau, aurreko lerroaldean aipatutako betekizunekin.

2. Araubide horrekin lortutako zerga oinarriaren zatian hurrengo jardueretatik, eta ez beste edozeinetatik, eratorritako errentak baino ez dira sartuko:

a) Salgaiak itsasoz garraiatzeko itsasuntzia ustiatzetik.

Ontzi batek merkatugaiak garraiatzeaz batera dragatze-lanak ere egiten baditu, araubide honetan sartzeko zergaldiko jardun-denboraren % 50 baino gehiago itsaso zabaleko garraioan eman behar du; hala bada, jarduera hori bakarrik sartuko da araubidean.

b) Bidaiariak itsasoz garraiatzeko itsasuntzia ustiatzetik.

c) Itsas salbamenturako, soroslaritzarako edo atoi-lanerako itsasuntzia ustiatzetik.

Atoiontzia sartzeko, zergaldiko jardun-denboraren % 50 gutxienez portuetan egiten diren jardueretan eta ontzi autopropulsiatuei portuan sartzen laguntzen eman behar dute.

d) Araubide hau aplikatu ahal zaien ontzien kudeaketa teknikoa eta haietako langileen kudeaketa.

e) Erakunde batek pilotaje, atoi, amarratze eta desamarratze zerbitzuak egitea berak araubide honetan dituen ontziei, eta ontzietako gaien zama-lanak eta estibatze eta desestibatze lanak egitea, baldin eta garraioaren erabiltzaileari fakturitzen bazaizkio eta erakundeak berak edo berarekin lotuta ez dagoen beste batek egiten baditu.

Honelako ontzien erabilera lagatzen duten erakundeei dagokienez, aurreko a) eta c) letretan ezarritako betekizuna betetzat joko da atoi edo dragatze lanak egiten dituen erakundeak araubide hau aplikatu ahal den zergaldi bakoitzerako beharrezko den portzentajea bete duela frogatuz gero.

Arrantzako jardueretan erabiltzen diren ontziak ezin dira sartu araubide honetan, ez kirol ontziak ez aisialdikoak.

3. Aurreko idazatietan aipaturiko itsasuntzien kudeaketa estrategikoa eta merkataritzakoa Europako Batasuneko edozein Estatutatik egin behar da. Kudeaketa estrategikoa eta merkataritzakoa dagoela ulertuko da itsas nabigazioko edo itsasoko lanetako jardueraren kontrola eta arriskua hartzen denean.

Honen ondoretarako, estrategien eta merkaturatzearen kudeaketa itsas garraioaren edo itsasoko lanen kontrola eta arriskua nor bere gain hartzea da.

Araubide hau Europar Batasunetik kanpo erregistratutako ontziak dituzten subjektu pasiboek aplikatu ahal bazaie, ontzi horien tonelaje garbiak araubide berezian dagoen erakundearen ontziteriaren tonelajearen eragindako gehikuntzak, arrazoa gorabehera, ez du eragotziko araubide hau aplikatzea gehikuntza sortu duten ontziei, baldin eta Europar Batasuneko estatuetan erregistratutako ontzien aurreko urteko batez besteko tonelaje garbiaren portzentajeak kopuru berean irauten badu hurrengo hiru urteetan.

Baldintza hori ez da aplikatuko Europar Batasuneko estatuetan erregistratutako ontzien tonelaje garbiaren portzentajea % 60tik gorakoa izanez gero.

Aurreko paragrafoetan ezarritakoa eragotzi gabe, atoi eta dragatze lanetarako erabiltzen diren ontziak Europar Batasuneko estatuetan erregistratuta egon behar dira.

Araubide hau aplikatzeko ezinbestekoa da ontzi guztiak egotea erregistratuta Europar Batasunean.

4. Araubide hau aukeratuz gero, hurrengo arau bereziak izango dira kontuan:
 - a) Erakundea enpresa ertaina edo handia izatea, Europako Batzordearen 2003/361/CE Gomendioan xedatutakoaren arabera.
 - b) Berregituratzeko laguntza jasotzea, estatuak Europako Batzordearen 2004/C244/02 Berriematean ezarritakoaren itzalpean emanik.
 - c) Europako Batzordeak araubide honen ondoriozko zergaonurak kontuan hartu ez izana berregituratzeko laguntzari buruzko erabakia hartzean.
5. Edonola ere, Foru Arau honetako 29. artikulua 1. idazatiaren a) letran xedatutako karga tipo orokorra aplikatuko da.
 - a) Aurreko 1. idatz-zatian ezarritakoaren arabera zehaztutako zerga oinarriaren zatiari ezin aplikatu izango zaio txiki penik.
 - b) Aurreko 1. idatz-zatian xedatutakoa aplikatuta zehaztutako zerga oinarriaren zatia ezin da konpentsatu aurreko ekitaldietatik konpentsatzeko utzitako zerga oinarri negatiboekin, ez itsas erakundearen beste jarduerak (araubide honetan sartu ezin direnek) sortutakoekin, ez araubide hau aplikatzen hastean konpentsatu gabe dauden zerga oinarri negatiboekin.
 - c) Aurreko 1. idatz-zatian ezarritakoaren arabera zehaztutako zerga oinarriaren zatiari ezin aplikatu izango zaio ez kenkaririk ez hobaririk.
6. Oro har, foru arau honetako 29. artikuluko 1. idatz-zatiko a) letran ezarritako karga-tasa orokorra aplikatuko da.

7. Subjektu pasiboaren beste jardueri dagokien zergaoinarriaren zatia zehazteko Zergaren araubide orokorra aplikatu behar da, haiek sortutako errentak soilik kontuan hartuta. Dragatze-lanetan, jarduera horren errenta zerga-oinarriaren zati horretan sartuko da, ez baitago araubide berezi honetan.

Zerga-oinarriaren zati horretan araubide honetan dauden jarduerak sortzen ez dituzten diru-sarrerara guztiak eta horiek lortzeko zuzenean egin beharreko gastuak zenbatuko dira, bai eta jarduera horiek sortu duten negozio kopuruari gastu orokorretan dagokion zatia ere.

Araubide hau betetzeko, erakundeak araubidean dagoen ontzi bakoitzaren diru-sarrerak eta gastuak, zuzenekoak zein zeharkakoak, eta ustiapenerako erabiltzen diren aktiboak zehazteko behar diren kontabilitate-erregistro guztiak eduki behar ditu.

8. Araubide honetako ontzi bat eskualdatuta sortzen den errenta positiboa edo negatiboa aurreko 1. idatz-zatian ezarritakoa aplikatuta kalkulaturako zerga-oinarriari integratuzat joko da.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa gorabehera, erakunde batek araubide hau hautatzen badu Sozietateen gaineko Zergaren araubide orokorrean ordaindu ondoren, araubidea aplikatzen zaion lehenengo ekitaldian erreserba baliaezin bat eratu behar du araubide bereziari heldu dionean titular izan den ontzi bakoitzeko, hain zuzen ere haren merkatuko balio arruntaren eta kontabilitateko balio garbiaren arteko diferentzia positiboaren bestekoa, edo bestela titulartasunari eusten dion ekitaldi guztietan ontzi bakoitzaren balio bi horien arteko diferentzia zehaztu beharko du urteko kontuen memorian. Gauza bera egin behar da araubidea aplikatzen hasi ondoren eskuratzen diren ontzi erabiliekin, baina hauen kasuan erreserbaren kopurua ontziaren eskuraketa-balioaren eta merkatuko balioaren arteko diferentzia positiboa izan behar da.

Halaber, foru arau honetako VIII. tituluko X. kapituluko araubide berezia aplikatu den eragiketa baten bidez eskuratutako ontzien kasuan, kontabilitateko balio garbia erakunde eskualdatzailearen kontabilitatean ageri den eskuraketa-balioa oinarritzat hartuta kalkulaturako da.

Erreserba baliatzea edo memorian aipamena egin beharra ez betetzea zergen arloko arau-haustea izango da, eta zehapena ekarriko du: aipaturako diferentziaren % 5eko isuna.

Erreserba hau ez da zergapetuko, berari dagokion ontzia aurreko 2. idatz-zatian adierazitako jardueri ez beste bati atxiki edo besterendu ezean.

9. Araubide honetako ontzi bat besterenduz gero, hura eskualdatuta sortzen den errenta positiboa ez da zergapetuko. Hala ere, besterentzean, kargapean izango da erregela hauetako aurreko idatz-zatian aipaturako erreserbaren zatia, besterendutako ontziari dagokiona, besterentzearen emaitzako zenbateko guztia foru arau honetako 22. artikuluan ezarri bezala berrinbertitu ezean.

Idatz-zati honetan ezarritakoaren ondoreetarako, ontzi bat eskualdatzen bada, zuzenean zein zeharka, foru arau honetako VIII. tituluko X. kapitulua aplikatu ahal zaion eragiketa baten bidez, ez da eskualdaketatzat joko, baldin eta erakunde eskuratzailak erreserba zuzkitzen badu edo memorian agertzen badu eskualdatzailearen kontabilitatean egon den bezala.

10. Subjektu pasibo batek araubide honetan ezarritako betekizunen bat betetzen ez badu, ekitaldi horretan zergaldiko kuotarekin batera araubide hau aplikatu duen ekitaldi guztietan araubide orokorra aplikatuz gero sartu beharko zituen kuota guztiak sartu beharko ditu; horrez gain, bidezko berandutza-korrituak, errekarquak eta zehapenak ere aplikatu ahal izango zaizkio.

Foru arau honetako 53. artikuluko 3. idatz-zatian ezarritako baldintza ez betetzeak bertan aipaturako gehikuntza sortu duten ontziak araubidean egotea eragotziko du eta, ondorioz, aurreko paragrafoan ezarritako erregularizazioa aplikatu beharko zaie ontzi horiei.

Gehikuntza Europar Batasuneko estatueta erregistratutako ontzien baxaren ondorioz gertatzen bada, ontzi horien erregularizazioa 2006ko urtarrilaren 1etik aurrera hasi eta ontziok araubide honetan egondako zergaldi guztietakoa izango da.

Aurreko paragrafoetan ezarritakoa ez da aplikatuko betekizunak subjektu pasiboari ezin egotz dakiokeen aparteko inguruabar bategatik edo ezinbesteko batek eraginda betetzen ez direnean.

11. Araubide hau jardueren etekin garbia zuzeneko zenbatespenaren bidez zehazten duten pertsona fisikoei aplikatu ahal izango zaie, ezarritako baldintzak eta betekizunak betetz gero.

54. artikulua. Jakinarazpena.

1. Sujetu pasiboek jakinarazi egin beharko diote Foru Ogasunari araubide hori aplikatzen dutela.

Zerga baterakuntzaren araubidean zergak ordaintzen dituzten erakundeak badira, zerga taldearen barnean araubidea aplikatzen duten erakunde guztiei buruzkoa izango da jakinarazpena, aurreko artikulua 1. idazatian xedatutakoaren arabera.

Jakinarazpen horretakoak 10 urteko indarraldia izango du eta luzatu egin daiteke zerga Administrazioari beste jakinarazpen bat eginez, 10 urteko eperako bakoitzean.

Subjektu pasiboek ez badute araubide hori 10 urteko gutxienezko epean aplikatzen, ezin izango dute beste jakinarazpenik egin araubidea aplikatu zen azken urtetik hasi eta 5 urtegarrenera arte.

Horretarako behar besteko arrazoirik badago, subjektu pasiboek epea beste bat izan dadila eska diezaioke zerga Administrazioari; epe hori ezin izango da 5 urtetik beheragokoa izan.

Araubideak eragina izango duen zergaldia amaitu eta hurrengo bi hilabeteen barruan egingo da jakinarazpena.

Zerga Administrazioak egiaztatu egin dezake araubide hau ondo betetzen denentz eta urtekitaldiz urtekitaldi betetzen ote diren hori aplikatzeko dauden eskakizunak. Halaber, informazioa bil dezake, araubide hau aplikatzeak itsas garraioko Europako Batasuneko politikaren helburuei benetan laguntzen dien jakiteko.

IV. KAPITULUA INTERES EKONOMIKODUN ELKARTZE EUROPAR ETA ESPAINIARRAK

55. artikulua. Interes ekonomikoko espainiar elkarteak.

1. Interes Ekonomikoko Elkarteen apirilaren 29ko 12/1991 Legeak araupetzen dituen interes ekonomikoko elkarteei Zerga honen arau orokorrak aplikatuko zaizkie, ondoko espezialitateekin:
 - a) Ez dute Sozietateen gaineko Zergarik ordainduko lurralde espainiarrean bizi diren bazkideei egotz dakiekeen zerga oinarriarengatik. Ez da inola ere Foru Arau honen 47. artikulua zati horrexen beraren gainean aipatzen duena itzuliko.
 - b) Espainiar lurraldean bizi diren bere bazkideei egotziko zaizkie:
 - a') Erakunde horiek lortutako zerga oinarri positibo zein negatiboak. Bazkideei egotzen zaizkien zerga oinarri negatiboak ezin izango ditu lortu zituen erakundeak konpentsatu.

- b') Erakundeak eskubidea duen kuotaren kenkari eta hobariak. Kenkari eta hobarien oinarriak bazkideen likidazioan sartuko dira, kuota Zerga honen edo Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren arauen arabera gutxituz.
 - c') Erakundeari dagozkion atxikipen eta konturako ordainketak.
2. Espainiar lurraldean bizi ez diren bazkideei dagozkien hobarietako dibidendu eta partaidetzek kontzeptu horretan ordainduko dute zerga, Ez-egoileen Errentaren gaineko Zergaren Foru Arauan eta Espainiak ezarpen bikoitza ekiditeko sinatutako itunetan ezarritako arauen arabera.
 3. Zerga oinarriaren egozpena jasan behar duten eta bazkideei dagozkien eta erakundea araubide honetan zegoen zergaldietatik datozen mozkinetako dibidendu eta partaidetzek ez dute zerga honengatik ez eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergarengatik ordainduko. Mozkinetako dibidendu edo partaidetza hauen zenbatekoa ez da egotzi zaizkien bazkideen partaidetzen erosketaren balioan sartuko. Partaidetzak egozpenaren ondoren erosi dituzten bazkideak direnean, horien erosketa balioari zenbateko hori gutxituko zaio.

Kapitaleko, fondo propioetako, araubide honetan sartutako erakundeen emaitzetako partaidetzak eskualdatzean, erosketa balioari bazkideei, izatezko banaketarik gabe, erostetik saltzerainoko tartean beren partaidetzen errenta gisa egotzi zaizkien mozkin sozialen zenbatekoa gehituko zaio.

4. Zerga araubide hau ez da bere xedeari egokitutakoez bestelako jarduerarik egiten diren edo bere bazkide diren, beren bazkideen edo hirugarrenen jarduerak zuenean zein zeharka zuzendu edo kontrolatzen dituzten sozietateetan partaidetzarik edukitzen diren zergaldietan aplikatuko.

56. artikulua. Interes ekonomikoko europar elkarteak

1. Europar Erkidegoen Kontseiluaren uztailaren 25eko 2.137/1985 Arautegiak araupetzen dituen interes ekonomikoko europar elkarteak eta beren bazkideei arestiko artikuluan esandakoa aplikatuko zaie, ondoko espezialitateekin:
 - a) Ez dute Sozietateen gaineko Zergarengatik ordainduko. Erakunde horiei ere ez zaie Foru Arau honen 47. artikulua jasotzen duen itzulketa aplikatuko.
 - b) Erakundea espainiar lurraldeko egoilea ez bada, Espainiako egoile diren bere bazkideek Sozietateen gaineko Zergaren edo. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren, dagokienean, elkartean zehaztutako mozkin edo galeretan dagokien zatia sartuko dute, zerga oinarria zehazteko arauak aplikatuz zuzenduta.

Bazkideek elkartearen bidez egindako jarduerak atzerrian ezarpen iraunkorra ekarri duenean, Sozietateen gaineko Zergaren edo Espainiak nazioarteko ezarpen bikoitza ekiditeko sinatutako itunean ezarritako arauak aplikatuko dira.

 - c) Espainiar lurraldeko egoile ez diren bazkideak, erakundearen egoitza Espainian egon zein ez, Ez-egoileen Errentaren gaineko Zergaren mende egongo dira, bakarrik Ez – egoileen Errentaren gaineko Zergaren apirilaren 15ko 5/1999 Foru Arauaren 12. artikuluan, edo nazioarteko ezarpen bikoitza ekiditeko deneko itunean ezarritakoaren arabera beraiek elkartearen bitartez egindako jarduerak ezarpen iraunkorra egotea eragiten badu.
 - d) Ez-egoileen Errentaren gaineko Zergaren arauen arabera zergak ordainarazi zaizkien eta lurralde espainiarreko egoile ez diren bazkideei egotzitako mozkinak ez dira beren banaketarengatik zergak ordaintzearen mende egongo.
2. Arestiko idaztietan aurreikusitako araubidea ez da aplikatuko interes ekonomikoko europar elkarteak bere xedeaz bestelako jarduerak edo uztailaren 25eko CEE 2137/1985

Arautegiaren 3. artikuluko 2. zenbakiak debekatzen dituen jarduerak egiten dituen zergaldian.

57. artikulua. Eratzeko ekarkinetarako araubidea.

1. Aurreko artikuluan bietan aipatutako interes ekonomikodun elkartzeek eta interes ekonomikodun elkartze europarrek berauek sortzeko egindako diru bidezko ekarkinengatik 100eko 25eko kenkaria izango dute.
2. Ekarpinak taldearen gizarte kapitaleko partaidetzaren era azaldu beharko du eta hura osorik ordaintzen den ekitaldiaren ondorengo bost ekitaldietan zehar iraun.
3. Artikulu honetan ezarritako kenkaria foru arau honetako VII. tituluko IV, V eta VI. kapituluetan ezarritako kenkariekin batera ezarriko da 46. artikulua. artikuluan ezarritako muga berberekin.

57 bis. artikulua. Bazkideak identifikatu eta egozteko irizpideak.

Kapitulu honetan xedatutakoa aplikatzekoa zaien erakundeei Foru Arau honetako 58 bis eta 58 ter artikuluetan xedatutakoa ere aplikatuko zaie.

V. KAPITULUA ENPRESEN ALDI BATERAKO BATASUNA

58. artikulua. Enpresen aldi baterako batasunak.

1. Enpresen Elkarte eta Aldi Baterako Batasunen eta Eskualdeko Industria Garapeneko Sozietateen Zerga Araubidearen gaineko maiatzaren 26ko 18/1982 Legean araututako enpresen aldi baterako batasunek, dagokien erregistro berezian izena emandakoek, baita beren enpresa kideek ere, Foru Arau honetako 55. artikuluan ezarritakoaren araberrako zergak ordainduko dituzte.
2. Atzerrian aritzen den enpresen aldi baterako batasuneko kide diren enpresek atzeritik datozen errentengatik ez-integrazioaren metodoari heldu ahal izango diote.
3. Atzerrian egin edo ematen dituzten obra, zerbitzu edo horniketetan parte hartzen duten enpresek, aldi baterako batasunen pareko lankidetzaren formularen bidez, atzeritik datozen errentengatik ez-integrazioaren metodoari heldu ahal izango diote.

Erakundeek ez-integrazio hori Ogasun eta Finantza Sailari eskatu beharko diote, espainiar lurraldean eraturako enpresen aldi baterako batasunentzat exijitzen den informazioaren antzekoa aurkeztuz.

4. Ez-integrazioaren alde eginez gero, aldi baterako batasuna iraungi arte aukera hori aplikatuko da. Aldi baterako batasunetik lortutako errenta negatiboa erakunde kideen zerga oinarriari egotziko zaio. Halakoetan, hurrengo ekitaldietan aldi baterako batasunak errenta positiborik daukanean, enpresa kideek beren zerga

oinarrietan, positibo modura, aurretiaz egotzitako errenta negatiboa sartuko dute, errenta positibo horietarako zenbatekoaren mugarekin.

5. Artikulu honetan aurreikusitakoa ez da aplikatuko subjektu pasiboak bere sozietatearen xedeaz bestelako jarduerarik egiten dituen zergaldietan.

58 bis. artikulua. Egozpen irizpideak.

1. Kapitulu honek hizpide dituen egozpenak araubide honen mende jarritako erakundearen zergaldiaren azkeneko egunean bazkide edo enpresa kide izatearekin batera doazen eskubide ekonomikoak dituzten pertsona edo erakundeei egotziko zaizkie, erakundearen eraketa eskrituratik ondorioztatzen den proportzioan eta, bestela, zati berdinetan.

2. Egozpena honelaxe egingo da:

- a) Bazkideak edo enpresa kideak araubide honen mende jartzen direnean, araubide honen mende jarritako erakundearen ekitaldiaren amaierako egunean.
- b) Gainerako suposamenduetan, hurrengo zergaldian, araubide honen mende jarritako erakundearen ekitaldiaren amaierako egunean bertan hori egiten jarraitzea erabaki ezean.

Zer aukeratzen den ondoreak izan behar ditueneko Zergaren lehenengo aitortpenean adieraziko da, eta hiru urtez mantenduko da.

58 ter. artikulua. Bazkide edo enpresa kideen identifikazioa.

Kapitulu honetan xedatutakoa aplikatzekoa zaien erakundeek, Sozietateen gaineko Zergaren beren aitortpenarekin batera, zergaldiaren amaierako egunean bazkide edo enpresa kide diren edo horrekin batera doazen eskubideak dituzten pertsonen zerrenda ere aurkeztuko dute, baita bakoitzak erakunde horien emaitzetan zenbateko partaidetza duen ere.

VI. KAPITULUA KAPITAL-ARRISKUKO SOZIEATE ETA FONDOAK, ENPRESEN SUSTAPENERAKO SOZIEATEAK ETA LURRALDEKO INDUSTRI GARAPENERAKO SOZIEATEAK

1. ATALA

59. artikulua. Kapital-arriskuko sozietate eta fondoak.

1. Kapital-arriskuko erakundeek (kapital-arriskuko erakundeak eta haien sozietate kudeatzaileak araupetu dituen azaroaren 24ko 25/2005 Legeak araupetuek), salbuespena izango dute lege honetako 2. artikuluan aipatutako partaidetza duten enpresen edo kapital-arriskuko erakundeen kapitaleko partaidetzak eta akzioak eskualdatuz lortzen diren errentetan, baloreak eskuratu direnetik edo kotizazio salbuetsi zaienetik eskualdatu arte igarotako urteen arabera. Hain zuzen ere, salbuespena baloreen ukantzaren bigarren urtea hasten denetik hamabosgarrena bete arte aplikatu ahal izango dute.

Salbuespen gisa, epealdi hori hogeigarren urtera arte (berau barne) zabaltzea onartu ahal izango da. Epealdi hori luzatzeko bide ematen duten kasuak, baldintzak eta beharkizunak araz zehaztuko dira.

Hala ere, aipatu artikuluko 1. idatz-zatiaren bigarren paragrafoan ezartzen diren enpresen kapitalen edo fondoan partaidetzaren adierazgarri diren baloreak eskualdatuz lortzen diren errenten kasuan soilik aplikatuko da salbuespena baldin eta, gutxienez, partaidetzako erakundearen higiezinek duten kontabilitateko balio osoaren %85 diren higiezinak finantzazkoa ez den jarduera ekonomiko baten garapenari lotuta badaude, baloreen ukantza-denboran zehar etenik gabe, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan ezarritakoa betez eta kapital-arriskuko erakundeak eta haien sozietate kudeatzaileak araupetu dituen legean edo higiezinei buruzko legean ezarritakoaren arabera.

2. Subjektu pasiboek kapital-arriskuko fondoan ondasunera eta kapital-arriskuko sozietateen fondoetara egindako diruzko ekarpenen zenbatekoaren %20 kendu ahal izango dute kuota likidotik.

Ekarpen hori guztiz ordaindua egon behar da eta sozietatearen aktiboan bost ekitalditan eduki behar da.

Idatz-zati honetan ezarritako kenkaria foru arau honetako VII. tituluko IV., V. eta VI. kapituluetan ezarritako kenkariekin batera aplikatuko da, 46. artikuluan ezarritako muga bereberekin.

3. Kapital-arriskuko sozietateek eta fondoek sustatzen dituzten sozietateek ematen dituzten dibidenduak eta, oro har, mozkin partaidetzak foru arau honetako 19. artikuluan ezarritako araubidean egongo dira (zerga oinarria integratu beharrik ez), edo bestela 33. artikuluko 2. idatz-zatian ezarritako kenkaria aplikatu ahal izango zaie, direnak direlakoak partaide-tzaren portzentajea eta akzioak eta partaidetzak eduki diren aldia.
4. Dibidenduak eta, oro har, kapital-arriskuko sozietateek eta fondoek emandako mozkin partaidetzak honela tratatuko dira:
 - a) Foru arau honetako 33. artikuluko 2. idatz-zatian ezarritako kenkaria aplikatzeko eskubidea emango dute, dena delakoa partaidetza-portzentajea eta akzioak eta partaidetzak eduki diren aldia gorabehera, baldin eta hartzailea zerga honen subjektu pasiboa bada edo establezimendu iraunkorra duen Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren kargapeko zergaduna.
 - b) Hartzailea establezimendu iraunkorrik ez duen Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren kargapeko zergaduna den pertsona fisikoa edo erakundea bada, dibidenduak eta mozkin partaidetzak ez dira joko Espainiako lurraldean lortuzat.
5. Kapital-arriskuko sozietateen eta fondoek berezko fondoak adierazten dituzten akzioak edo partaidetzak eskualdatuta edo itzulita sortzen diren errenta positiboak honela tratatuko dira:
 - a) Foru arau honetako 33. artikuluko 5. idatz-zatian ezarritako kenkaria aplikatzeko eskubidea emango dute, dena delakoa partaidetza-portzentajea eta akzioak eta partaidetzak eduki diren aldia gorabehera, baldin eta hartzailea zerga honen subjektu pasiboa bada edo establezimendu iraunkorra duen Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren kargapeko zergaduna.
 - b) Hartzailea establezimendu iraunkorrik ez duen Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren kargapeko zergaduna den pertsona fisikoa edo erakundea bada, errentak ez dira joko Espainiako lurraldean lortuzat.
6. Errenta arau bidez zerga paradisu gisa sailkaturiko herrialde edo lurralde baten bidez lortzen bada, aurreko 4. eta 5. idatz-zatietako b) letretan xedatutakoa ez da aplikatuko.
7. Aurreko 1. idatz-zatian ezarritako salbuespena ez da aplikatuko baloreak eskuratzen dituen pertsona edo erakundea kapital-arriskuko erakundeari edo horren bazkide nahiz partaideei lotuta badago, ezta arau bidez zerga paradisu kalifikatuta dagoen herrialde edo lurralde bateko egoiliarra bada. Aitzitik, aplikatu egingo da eskuratzailea hurrengo pertsona edo erakundeetako bat denean:
 - a) Partaidetzako erakundea bera.
 - b) Partaidetzako erakundearen bazkide edo administratzaileetako bat, baldin eta ez badago, edo egon ez bada, kapital-arriskuko erakundeari lotuta Foru Arau horretako 16. artikuluan ezarritako moduan eta partaidetzako erakundearekin duen loturaren ondoriozkoa ez den arrazoiren bategatik.
 - c) Kapital-arriskuko beste erakunde bat.
8. Aurreko 1. idatz-zatian ezarritako salbuespena ez zaio aplikatuko kapital-arriskuko erakundeak berari edo bere bazkide nahiz partaideei lotuta dagoen pertsona edo erakunde bati, zuzenean zein zeharka, eskuratu dizkion baloreak eskualdatzean sortutako errentari, baldin eta eskuraketa egin baino lehen erakundeeko bazkideen nahiz partaideen eta partaidetzako enpresaren artean loturarik badago.
9. Baloreak lotura duen kapital-arriskuko erakunde bati eskualdatzen bazaizkio, eskualdatzailearen eskuraketaren balioan eta datan subrogatuko da zerga 1. idatz-zatian aurreikusitako epeak zenbatze aldera.

10. Aurreko 7, 8 eta 9. idatz-zatietan xedatutakoaren ondoretarako, loturatzat hartuko da sozietatearen kapitalean edo bere fondoetan gutxienez %25eko partaidetza (zuzena edo zeharkakoa) izatea.
11. Subjektu pasiboak partaidetza duen erakundeak Europako Parlamentuaren eta Kontseilu Europarraren 2004ko apirilaren 21eko 2004/39/CEE Zuzentarauaren bidez araupetutako balore-merkatu batean kotizatzen badu, aurreko 1. idatz-zatian ezarritako salbuespena aplikatu ahal izateko ezinbestekoa izango da arrisku-kapitaleko erakundeak partaidetza eskualdatzea hiru urte igaro baino lehen, erakundearen kotizazioa onartu den egunetik aurrera zenbatuta.

2. ATALA

60. artikulua. Enpresen sustapenerako sozietateak.

1. Enpresen Sustapenerako Sozietateetatik joko dira sozietatearen behineneko helburua enpresak sustatu eta suspertzea izan, enpreson kapitalean aldi baterako partaidetza izan eta, gutxienez, sozietatearen beraren kapitaletik 3.005.060,52 euro 500 milioi ezarrita dutenak.

Helburuok iristeko hurrengo eragiketak egin ahal izango dituzte Enpresen Sustapenerako Sozietateek:

- A) Enpresa jarduerak burutzen dituzten sozietateetako akzioak edota partaidetzak harpidetzea edo eskuretzea, edozein eratako titulutan.

Butsan kotizatzen duen enpresa bakar baten partaidetzak baino ezingo dituzte izan Enpresen Sustapenerako Sozietateek zergaldi berean, baldin eta Bizkaiko Foru Aldundiaren Ogasun eta Finantzetako Sailak bestelako baimenik ematen ez badu. Geroagoko partaidetzetarako baimenak banan-banan eskatu behar dira kotizatutako akzioak eskuratu baino lehen edo, bestela, akzioak kotizatzeko baimena eskatu den datarako, kotizatzeko baimen hori akzioak eskuratu eta gero eskatu bada. Edonola ere, kotizatzen duen enpresa bat baino gehiagotan partaidetzak aldi berean izateko administrazioaren baimena 3 urterako izango da gehienez, baimena eman den egunetik zenbatzen hasita.

Zergaldian zehar ezin izango da parte hartutako sozietatearen 100eko 6tik gorako partaidetzarik izan. Hortik gora izateko ezinbestekoa da kotizatzeko baimena eskatu baino arinago eskuratuak izatea akzio horiek.

Ezin izango dute inola ere higikorretako inbertsiorako sozietateetan, higikorretako inbertsiorako fondoetan, karterako sozietateetan eta ondasunak baino ez dituzten sozietateetan parterik hartu.

Ondoren horietarako ez dira «Kartera Sozietate» edo «Ondasunak baino ez dituzten Sozietate» izaeratzat joko Zerga Gardentasun Araubidepean ez egonik, aktiboaren 100eko 75etik gorakoa benetan enpresa ekintzetan ari den enpresaren baten edo ari diren enpresen batzuen partaidetzez osaturikoa dutenak.

- B) Partaidetza ematen duten sozietateek jaulkitako errenta finkoko tituluak harpidetu edota berauei bost urtetik gorako eperako maileguak ematea, azken hauetan parte hartuz zein ez hartuz.

Ondoren hauetarako parte hartzeko mailegutzat joko dira, korrituen gaineko hitzarmena gorabehera, zordunaren mozkin garbian hartzekodunaren partaidetza zein izango den honela erabakiko denetan:

- a) Mailegua emango duen erakundeak partaidetza izango du mozkin garbietan nahiz eta, horretaz gain, korritu finkoa erabaki daitekeen.

- b) Mailegariak ezin izango du mailegu horien amortizazioa aurreratu, aurreratutako amortizazio hau norbere fondoan balore bereko ekarpenaren bidez konpentsatzen ez bada, baldin eta ekarpena aktiboen erregularizaziotik ez badator. Parte hartzeko maileguaren amortizazio aurreratuak ezin izango ditu inola ere baliabide propioen eta besteren baliabideen arteko harremanak eraldatu.
- 2. Artikulu honetan araututako araubideari helduko dioten enpresen sustapenerako sozietateek ez dute zergarik ordainduko titulu honetako VIII. kapituluaren ezarritako zerga araubidepean.
- 3. Aurreko 1. idazatian zehaztutako beharkizunak beteko dituzten akzioak eta partaidetzak eskualdatzeagatik lortuko diren errentei foru arau honetako 59. artikuluan xedatutakoa ezarriko zaie.
- 4. Subjektu pasiboek enpresen sustapenerako sozietateen fondoetara egindako diruzko ekarpenen zenbatekoaren 100eko 20 kendu ahal izango diote kuota osoari.

Ekarpen honek guztiz ordaindua eta sozietatearen aktiboan bost ekitalditan zehar egon beharko du.

Idazati honetan ezarritako kenkaria foru arau honetako VII. tituluko IV, V eta VI. kapituluaren ezarritako kenkariekin batera ezarriko da 46. artikuluan ezarritako muga berberekin.

- 5. Partaidetzarako maileguak emateagatik lortutako errentak salbuetsiko dira, baldin eta mailegua jaso duen erakundearen mozkinetara esker ordaingarriak badira hauek. Korritu finkoak eratorritako ordainketak ez du salbuespen hori izango.

Hala ere, mailegua jaso duen erakundearentzat zergatik kendu ahal izango den gastutzat joko da.

- 6. Aurreko idazatian xedatutakoaren arabera zerga oinarriaren barruan sartuko ez den errentaren zenbatekoa hurrengo eginkizun hauetakoren baterako erabili beharko da:
 - a) Erreserba berezi baten zuzkidurarako, berau zuzkitzen denetik bost urteko epearen barruan foru arau honetako 39. artikuluko 2. zenbaki. zenbakian aitatutako eginkizunerako erabiliko delarik.
 - b) Partaidetzarako mailegu berriak emateko bi urteko epean.
- 7. Dibidenduek eta, orokorrean, enpresen sustapenerako sozietateek sustatu eta suspertutako sozietateetatik hartutako mozkinetako partaidetzek foru arau honetako 33. artikuluko 2. idazatian ezarritako kenkaria izango dute partaidetzen portzentaia, eta akzioak eta partaidetzak edukitzeko denbora direnak direlarik.
- 8. Dibidenduek eta, orokorrean, enpresen sustapenerako sozietateetatik hartutako mozkinetako partaidetzek foru arau honetako 33. artikuluko 2. idazatian ezarritako kenkaria izango dute partaidetzen portzentaia, eta akzioak eta partaidetzak edukitzeko denbora direnak direlarik.
- 9. Aipatutako beharkizunak ez betetzeak artikulu honetan ezarritako araubidearen galketa ekarriko du.
- 10. Artikulu honetan xedatutako araubidea ezarriko da, baldin eta Bizkaiko Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Sailak, enpresen sustapenerako sozietateek eurek eskatu ondoren, hala egitea erabakitzen badu.

3. ATALA

61. artikulua. Lurraldeko industri garapenerako sozietateak.

1. Elkartzeen eta enpresen aldi baterako batasunen eta lurraldeko industri garapenerako sozietateen zerga araubideari buruzko maiatzaren 26ko 18/1982 Legeak araututako lurraldeko industri garapenerako Sozietateek salbuespena izango dute parte hartuko duten enpresen kapitalean akzioak eta partaidetzak eskualdatzeagatik lortutako errentengatik, foru arau honetako 59. artikuluko 1. idazatia. idazatian xedatutakoaren arabera.
2. Dibidenduek eta, orokorrean, lurraldeko industri garapenerako sozietateak partaide diren sozietateetatik hartutako mozkinetako partaidetzek foru arau honetako 33. artikuluko 2. idazatia. idazatian ezarritako kenkaria izango dute partaidetzen portzentaia, eta akzioak eta partaidetzak edukitzeko denbora direnak direlarik.

VII. KAPITULUA TALDE-INBERTSIOETARAKO ERAKUNDEAK

62. artikulua. Talde inbertsioko erakundeen zerga-ordainketa.

1. Talde Inbertsioko Erakundeei buruzko azaroaren 4ko 35/2003 Legeak araupetutako talde inbertsioko erakundeek, tasa orokorraren kargapekoak ez besteek, ez dute eskubiderik izango ez kuotan kenkaririk aplika-tzeko, ez nazioarteko zergapetze bikoitza saihesteko araubideari heltzeko (horren arabera errentak ez dira integratzen zerga oinarrian). Inolaz ere ez zaie aplikatuko foru arau honetako VIII. tituluko VIII. kapituluan ezarritako ondare sozietateen araubidea.
2. Atxikipenen, konturako sarreren eta, hala denean, zatikako ordainketen zenbatekoa kuota osoaren munta baino handiagoa denean, Zerga Administrazioak gaindikina ofizioz itzuliko du.

63. artikulua. Talde-inbertsiotarako erakundeetako kideen edo partaideen zerga-ordainketa.

1. Artikulu honetan xedatutakoa aurreko artikuluko talde-inbertsiotarako erakundeetako kideei eta partaideei ezarriko zaie, baldin eta norberaren betebeharragatik edo establezimendu iraunkorragatiko betebeharragatik zerga hau ordaindu beharra badute.
2. Aurreko idazatiak aipatu dituen subjektu pasiboek honako kontzeptu hauek sartuko dituzte zerga oinarrian:
 - a) Akzioak edota partaidetzak eskualdatzeagatik edo berauek berreskuratzeagatik lortutako errenta positiboa edo negatiboa.
 - b) Talde-inbertsiotarako erakundeak banatutako mozkinak. Mozkin hauek ez dute ezarpen bikoitzagatik kenkarirako biderik emango.
3. Artikulu honen 2. idazatian aurreikusitako araubidea Kon-tseiluaren 1985ko abenduaren 20ko 85/611/CEE Jarraibideak araututa dauden eta Foru Arau honen 65. artikuluan aurreikusitakoen desberdinak diren inbertsio kolektiboko erakundeetako bazkide edo partaideei aplikatuko zaie, Europar Batasuneko Estatu kideren batean eratu eta helbideratuta eta, Espainiako egoile diren erakundeek merkaturatzeko ondoretarako, Balioen Merkatuko Estatuko. Batzordearen erregistro berezian izena emanda badaude.

64. artikulua. Inbertsio kolektiboko erakundeen akzio edo partaidetzetan kontularitzan jasotako errentak.

Subjektu pasiboak kontularitzan jaso dituen edo jaso behar dituen inbertsio kolektiboko erakundeetako akzio edo partaidetzetatik datozkion errenten zenbatekoa zerga oinarrian sartuko da.»

65. artikulua. Arau bidez paradisu fiskal modura sailkatutako herrietan edo lurraldeetan eraturako talde-inbertsioetarako erakundeetako kideen edo partaideen zerga-ordainketa.

1. Arau bidez paradisu fiskal modura sailkatutako herrietan edo lurraldeetan eraturako talde-inbertsioetarako erakundeetan parte hartzen dutenentarik norberaren betebeharragatik edo establezimendu iraunkorraren ziozko betebeharragatik zerga honen menpeko subjektu pasibo direnek ekitaldiaren mugaeguneko partaidetzaren likidazio-balioaren eta beronen eskuraketa-balioaren arteko diferentzia positiboa sartu beharko dute zerga-oinarrian.

Zerga oinarrian sartutako kopurua eskuraketa-balio handiagotzat joko da.

2. Talde-inbertsioetarako erakundeak banatutako mozkinak ez dira zerga oinarrian sartuko eta partaidetzaren eskuraketa-balioa gutxituko dute.
3. Kontrakoa frogatzen ez den bitartean, aurreko 1. idazatia. idazatian aipaturako aldea akzioa edota partaidetza eskuratzeko balioaren 100eko 15ekoa dela ulertuko da.

VIII. KAPITULUA ONDARE SOZIETATEAK

66. artikulua. Ondare sozietateen kontzeptua.

1. Zergadunetan ondoko egoera guztiak batera gertatzen badira, ondare sozietatetzat joko dira:

- a) Zergaldiko laurogeita hamar egunetan gutxienez, haren aktiboaren erdia baino gehiago baloreek osatua izatea, edo haren aktiboaren erdia baino gehiago jarduera ekonomikoei atxikita ez egotea.

Jarduera ekonomikorik dagoen edo ondare elementu bat horri atxikita dagoen erabakitzeke, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan xedatutakoari jarraituko zaio.

Hala aktiboaren balioa nola jarduera ekonomikoei loturik ez dauden ondare-elementuen balioa kontabilitatetik eratorriko dena izango da, baldin eta kontabilitateak sozietatearen ondarearen benetako egoera islatzen badu.

- b) Haren bazkide guztiak zergaldi osoan zehar pertsona fisikoak izatea.
 - c) Entitatearen diru sarreraren % 90 gutxienez Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 29ko 6/2006 Foru Arauaren 65. artikuluan aipatzen diren errenta iturrietatik etortzea.
2. Aurreko 1. paragrafoko a) idatz-zatian xedatutakoa betetzearen ondorioetarako, ondoko hau hartuko da kontuan:
 - a) Jarraikoak ez dira konputatuko balore gisa:
 - Legezko eta arauzko eginbeharrak betetzeko edukitzen direnak.

- Jarduera ekonomikoak burutzearen ondorioz finkatutako kontratu-harremanetatik sorturiko kreditueskubideak dituztenak.
- Balore sozietateek beren xedea den jardueran aritzearen ondorioz dauzkatenak.
- Boto-eskubideen % 5 gutxienez ematen duten eta partaidetza zuzentzeko eta kudeatzeko helburuarekin eskuratu diren baloreak, baldin eta horretarako, materialen eta pertsonen behar bezalako antolaketa badago eta sozietatearen partaidetzako entitatea idatz-zati honetan sartzen ez bada.

b) Baloreak edo jarduera ekonomikoei lotutako elementuak ez dira halakotzat konputatutako, baldin eta balore edo elementuon eskuraketa-prezioa ez bada entitateak lortutako mozkin banatu gabeen zenbatekoa baino handiagoa (mozkinok ekonomi jardueren emaitza izan behar dira), urte horretan zein aurreko azken hamar urteetan lortutako mozkinen zenbatekoaren mugarekin.

Horren ondorioetarako, aurreko lerroaldeko azken intzisoan aipatutako baloreen dibidenduak eta ekonomi jardueren mozkinak berdintzat joko dira, baldin eta sozietatearen partaidetzako entitateak lortutako sarreraren % 90 gutxienez ekonomi jarduerak eginez lortu bada.

3. Artikulu honetako aurreko paragrafoetan ezarritako baldintzak betetzen dituzten entitateak ez dira ondare sozietatetzat joko beraien partaidetza ordezkatzeko duten baloreak bigarren mailako balore merkatu ofizialetakoren batean negoziatzera onartuta dauden zergaldietan.
4. Ondare sozietatetzat jotzen diren zergadunek Zerga honen zioz tributatu dute, kapitulu honetan aurreikusten diren berezitasunak kontuan edukiz.
5. Araubide hau aplikatzea bateraezina izango da titulu honetako gainerako kapituluetan ezartzen diren arauekin, X. eta XIII. kapituluetan jasotakoekin izan ezik.

67. artikulua. Zerga oinarria zehaztea.

1. Ondare-sozietateen zerga-oinarria zehazteko, gastu bat ere ez da kengarritzat hartuko, nahiz eta gastu hori galera eta irabazien kontuan kontabilizatuta egon, artikulu honetako hurrengo paragrafoan xedatutakoa salbuetsita.

Zerga-oinarria, beraz, sozietatearen sarrera osoekin bat etorriko da, eta sarera horiei ezin izango zaie aplikatu foru arau honen IV. tituluan xedatutakoa —15-18, 20. eta 21. artikuluetan ezarritakoa salbuetsita—, eta, hala badagokio, foru arau honetako 115. artikulua eta 122 duodecies xedatutakoa aplikatuko da.

2. Entitatearen sarreraren barruan etxebizitzetatik lortu diren kapital higiezinaren etekinak, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 29ko 6/2006 Foru Arauko 34. artikuluko 1. paragrafoan aipatzen direnak, baldin badaude, ondare sozietateek aipaturiko xedapenean ezartzen dena aplikatu ahal izango dute errenta horiekiko.

Entitatearen sarreraren barruan Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 29ko 6/2006 Foru Arauko 36. artikuluan 1. paragrafoaren a) eta b) idatz-zatietan aipatzen diren dibidenduak edo mozkinetako partaidetzak badaude, ondare sozietateek foru arau horren 9. artikuluko 25 zenbakian xedatutakoa aplikatu ahal izango dute errenta horiekiko.

3. Artikulu honetako 1. paragrafoan xedatutakoa gorabehera, ondare sozietateek Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 29ko 6/2006 Foru Arauko 68. artikuluan xedatutakoa aplikatu ahal izango dute.

68. artikulua. Kuota zehaztea.

1. Karga-tasak eskala honetakoak dira:

Aurrezpenaren oinarri likidagarriaren zatia (€)	Aplikatu beharreko tasa (%)
10.000 eurora arte	20,00
10.000,01 eurotik aurrera	22,00

- Inoiz ere ez da aplikatuko foru arau honen 33. artikulutik 46. artikulura arteko artikuluetan xedatutakoa, 34. artikuluan xedatutakoa salbuetsita.
- Aurreko zenbakian ezartzen dena gorabehera, eta hala badagokio, foru arau honetako 122 duodecies artikuluan jasotzen diren kuota osoaren gaineko kenkariak aplikatuko dira.

69. artikulua. Ondare sozietateen mozkinen banaketa eta partaidetzen eskualdaketa Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergan.

- Ondare sozietateen araubide berezia aplikatzekoa izan den zergaldietan lortutako mozkinak banatzen direnean, edozein delarik ere ondare sozietateek lortutako mozkinak banade tzen dituen entitatea, banaketa egiten den garaia edo entitateei garai horretan aplikatzekoa zaien zerga araubidea, establezimendu iraunkorra duten eta Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergako zergadunak diren pertsona fisikoek Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 29ko 6/2006 Foru Arauko 36. artikulua 2. paragrafoan ezartzen dena aplikatuko dute.
- Ondare sozietateetako partaidetzak eskualdatzen badira, edozein delarik ere eskualdaketa egiten den unea eta entitateei garai horretan aplikatzekoa zaien zerga araubidea, betiere eskualdatzailea establezimendu iraunkorra duen eta Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergako zergaduna den pertsona fisikoa bada, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 29ko 6/2006 Foru Arauko 49. artikulua 1. paragrafoko c) idatz-zatian eta 78. artikuluan ezartzen dena aplikatuko da.

70. artikulua. Partaideen identifikazioa.

- Ondare sozietateetat jotzen diren entitateek beren kapitaleko partaidetza ordezkatzen duten balore edo partaidetzak mantendu edo izendun bihurtu beharko dituzte.
- Aurreko paragrafoan ezarritako eginbeharra ez betetzea zerga arloko arau-haustetza joko da.
- Zigorra diru isun finko bat izango da, 3.000 eurokoa, ez-betetzea gertatu den zergaldi bakoitzeko, baldin eta horri buruzko administrazio errekerimendurik ez bada egin. Administrazio errekerimendurik izan bada, zigorra 6.000 eurokoa izango da ez-betetzeak irauten duen zergaldi bakoitzeko.
- Arau-hauste horren erantzule subsidiarioak izango dira sozietatearen administratzaileak, aurreko idatz-zatian ezarritakoa behar bezala betetzeko neurriak berariaz proposatzen dituztenak salbu, nahiz eta gainerako administratzaileek onartu ez.
- Artikulu honetan ezartzen dena betez jartzen diren zigorrei Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arauko 193. artikuluan ezartzen dena aplikatuko zaie.

IX. KAPITULUA ZERGA-BATERAKUNTZARSOZIEATE-TALDEEN ARAUBIDEA

71. artikulua. Definizioak.

- Zerga-taldeek kapitulu honetako zerga-araubidea aukeratu ahal izango dute. Horrela eginez gero, beraiek osatzen dituzten erakundeek ez dute zerga banako araubidean ordainduko.
- Banako zerga-araubidetza joko da, erakunde bakoitzari legokiokeena zerga-baterakuntzaren araubidea ezin bazaie ezarri.

72. artikulua. Subjektu pasiboa.

1. Zerga-taldea subjektu pasibotzat joko da.
2. Sozietate nagusiak zerga-taldearen ordezkagarritasuna izango du eta zerga-baterakuntzako araubideei datxezkien zerga-betebehar formalak eta materialak bete beharko ditu.
3. Sozietate nagusia eta menpeko sozietateak era berean egongo dira lotuta zerga ordaintzeko araubide bakunak eratorritako zerga-betebeharrei, zerga-zorren ordaintketarenari izan ezik.
4. Sozietate nagusia horren jakitun delarik, sozietate nagusiaren aurrean zein zerga-taldeko edozein erakunderen aurrean egindako frogatze zein ikerketa administrazio-ekintzek, zerga-taldeari loturik dagoen Sozietateen gaineko Zergaren preskripzio epea geldiaraziko dute.

73. artikulua. Zerga-baterakuntzako araubidearen ezarpenagatik eratorritako zerga-ordaintketarako erantzukizunak.

Zerga-taldeko sozietateek solidarioki burutuko dute zerga-zorra, zehapenak alde batera utzita.

74. artikulua. Zerga-taldearen definizioa. Sozietate nagusia. Menpeko sozietateak.

1. Arau honi dagokionez, zerga-taldetzat hau joko da: sozietate nagusi batek eta haren menpean egongo diren beste sozietate guztiek osatu eta egoitza Espainiako lurraldean duten akzioen bidezko sozietate anonimo, mugatu eta komanditarioen zein artikuluko honetako 3. zenbakian aipatzen diren kreditu-erakundeen multzoa, foru arau honetako 2. artikuluko 3. zenbakian ezartzen dena gorabehera.
2. Sozietate nagusitzat joko da hurrengo beharkizun hauek betetzen dituen:
 - a) Aurreko idatz-zatian ezarritako forma juridikoetako bat izan edo, bestela, berezko nortasun juridikoa, eta Sozietateen gaineko Zergari loturik egotea eta hartatik salbuetsi gabe. Ez-egoiliarrek Bizkaiko Lurralde Historikoan dituzten establezimendu iraunkorrak sozietate nagusitzat joko dira partaidetzak dituzten sozietateekiko.
 - b) Tributazio-araubide hau aplika daitekeen zergaldiko lehen egunean beste sozietate baten kapitalean %75eko partaidetza edo handiagoa edukitzea, zuzenean zein zeharka, edo %70ekoa edo handiagoa, sozietatearen akzioak negoziatorako onartuta badaude araututako merkatu batean. Azken ehuneko hori aplikatuko da beste sozietate baten kapitalean partaidetza zeharka edukiz gero ere, baldin eta partaidetza ehuneko horretara akzioak araututako merkatu batean negoziatorako onartuta dituzten menpeko sozietateen bitartez iritsi bada.
 - c) Partaidetza zergaldi osoan mantendu behar da.

Partaidetza zergaldi osoan zehar mantentzeko derrigortasuna ez da eskatuko partaidetza eman duen erakundea desegiten bada.
 - d) Ez du egoitza lurralde espainiarrean izan eta nagusitzat jotzeko beharkizunak dituen beste baten menpekkoa izan behar.
 - e) Interes ekonomikoko espainiar eta europar elkarrean eta enpresen aldi baterako batasunen edo ondarezko sozietateen araubide bereziaren mende ez egotea.
 - f) Espainiar lurraldeko egoile ez diren ezarpen iraunkorrak izanik, erakunde horiek nagusitzat jotzeko moduko baldintzarik betetzen dituen espainiar lurraldeko egoile den beste erakunde baten mende ez egotea, eta Espainiak informazio trukearen klausula

daukan nazioarteko ezarpen bikoitza ekiditeko ituna sinatuta daukaneko lurralde edo herrialde bateko egoile izatea.

3. Sozietate bat menpeko sozietateetat joko da, baldin eta sozietate nagusiak haren gainean duen partaidetzak aurreko zenbakiko b) eta c) letretako beharkizunak betetzen baditu.

Finantza-bitartekarien inbertsio-koefizienteei, baliabide propioei eta informazio-obligazioei buruzko maiatzaren 25eko 13/1985 Legeko 8.3 artikuluan aipatzen den moduko babes sistema instituzional batean integratutako finantza-erakundeek ere menpekotzat joko dira, baldin eta baldintza hauek betetzen badira: batetik, sistemako entitate zentrala zerga-taldeko kidea bada; bestetik, sistema eratzen duten erakundeek emaitzen %10 erkidegoan jartzen badute, eta, azkenik, erakundeen arteko kaudimen eta likidezia konpromisoa erakundeotako bakoitzari egozgarriak zaizkion baliabide propioen %10era artekoa bada. Baldintza horiek betetzat joko dira, baldin eta babes sistema instituzional batean hainbat aurrezki-kutxek, modu itunduan, soilik sistemako entitate zentralaren bidez betetzen badute, zuzenean edo zeharka, kreditu-erakunde gisa duten xedea, 2010eko uztailaren 9ko 11/2010 Errege Lege Dekretuko 5.4 artikuluan ezartzen denaren arabera.

4. Honako inguruabarretakoren bat duten erakundeek ezin izango dute zerga-taldeetako kideak izan:

- a) Zergatik salbuetsita daudenak.
- b) Zergaldia ixtean konkurtso egoeran edo, kapital sozietateen itxura izan ez arren, Kapital Sozietateei buruzko Legearen Testu Bategineko 363. artikuluko 1. paragrafoko d) idatz-zatian (uztailaren 2ko 1/2010 Legegintzako Errege Dekretuak onetsia) ezarritako ondare egoeretako batean daudenak, urteko kontuak onetsi diren ekitaldia amaitu aurretik azken egoera hau gainditu ez bada.
- c) Sozietate nagusiak ez duen karga tasa duten Sozietateen gaineko Zergaren menpeko sozietateak.
- d) Partaidetza zerga-taldeakidea izateko ezarritako beharkizunak beteko ez dituen beste sozietate baten bidez lortuko duten menpeko sozietateak. Partaidetza sozietate-taldeakidea izateko ezarritako beharkizunak beteko ez dituen beste sozietate baten bidez lortuko duten menpeko sozietateak.
- e) Urtaldia, legeak aginduta, sozietate nagusiarenera egokitu ezin duten menpeko sozietateak.

5. Zerga-taldea bukatutzat emango da sozietate nagusiak izaera hori galtzen duenean.

75. artikulua. Zerga-taldean sozietateak sartzea edo kentzea.

1. Aurreko artikuluko 2.a) idatz-zatian definitutakoaren moduko partaidetza emango duten sozietateek derrigorrez sartu beharko dute zerga-taldearen barruan, hurrengo ekitaldiaren ondoretarako. Sozietateak sortu direnean, eratzen diren momentuan sartuko dira taldean, baldin eta, eratzean, zerga-taldeakidea izateko gainontzeko beharkizun guztiak betetzen badira.
2. Menpeko sozietateak izateari utziko dioten haiek zerga-taldetik kanpo geratuko dira egoera hau gertatzen den zergaldiaren beraren ondoretarako.

76. artikulua. Zeharkako nagusitasunaren zehaztapena.

1. Sozietate batek beste sozietate baten kapitalaren %75 edo gehiago badauka (edo %70 edo gehiago, sozietatearen akzioak negoziatorako onartuta badaude araututako merkatu batean) eta, gainera, bigarrena egoera berean badago hirugarren batekiko, eta horrela elkarren segidan, lehenengo sozietateak besteetan zeharka daukan partaidetza zenbatekoa den kalkulatzeko kapital ehunekoak hurrenez hurren biderkatu behar dira eta biderketaren

emaitza %75 izan behar da, gutxienez (edo %70, sozietatearen akzioak negoziatorako onartuta badaude araututako merkatu batean edo zuzenean zein zeharka partaidetuta badago) partaidetza eman duen sozietateak zerga taldean sartu ahal eta behar izateko eta, gainera, bitarteko sozietate guztiak zerga taldeko kideak izan behar dira.

2. Zerga talde baten barruko kideen artean hainbat partaidetza harreman badaude, zuzenekoak eta zeharkakoak, sozietate batek zuzenean zein zeharka kontrolatutako baten kapitalean daukan partaidetza kalkulatzeko zuzeneko eta zeharkako partaidetzaren ehunekoak batu behar dira. Partaidetutako sozietate bat sozietateen zerga taldea sartu ahal eta behar izateko ezinbestekoa da aurreko batura gutxienez kapitalaren %75 izatea, edo %70, sozietatearen akzioak negoziatorako onartuta badaude araututako merkatu batean edo honelako sozietateek badute partaidetza, zuzenean zein zeharka, eta kopuru horretara heltzen bada.
3. Taldeko kideen artean elkarrekiko partaidetzak, partaidetza zirkularrak edo partaidetza konplexuak badaude, taldean izateko frogatu behar da kapitalaren partaidetza %75 dela gutxienez, edo %70, sozietatearen akzioak negoziatorako onartuta badaude araututako merkatu batean edo honelako sozietateek badute partaidetza, zuzenean zein zeharka, eta kopuru horretara heltzen bada.

77. artikulua. Zerga-baterakuntzako araubidearen ezarpena Sozietate-taldeen araubidearen ezarpena.

1. Zerga-baterakuntzako araubidea zerga-taldeko sozietate guzti-guztiek hala egitea erabakitzen dutelako ezarriko da.
2. Aurreko idatz-zatian aipatutako erabakiak akziodunen batzak, edo antzeko organoak merkataritzako orma eduki ezean, hartu behar ditu zerga-baterakuntzako araubidea ezarri behar den zergaldiko aurre-aurreko zergaldiko edozein egunetan, eta ondorioak izango dituzte aurkaratzen ez badira edota aurkarapenerako biderik ematen ez dutenean.
3. beharkizunak bete beharko dituzte zerga-baterakuntzako araubidepeko zerga-ordainketarako lehenengo zergaldia bukatuko den egunean amaituko den epearen barruan.
4. Artikulu honetako 1. eta 2. idatz-zatietan aipatutako erabakiak hartu ezean, ez da egongo zerga-baterakuntzako araubidea aplikatzerik.

Etorkizunean zerga-taldean sartu behar diren sozietateei dagozkien akordioak ez egotea erakunde nagusiaren zergen arloko arau-haustea izango da. Erregimena betekizun hau bete gabe aplikatzen den lehenengo zergaldian zehapena 2.000 euroko isun finkoa izango da eta 4.000 eurokoa bigarreanean. Zehapenak ez du eragotziko ukituriko erakundeak aipatutako taldean sartzea. Baldin eta Zerga zerga-baterakuntzaren erregimenean ordaindu behar duten lehen zergaldia amaitu eta hurrengo egunetik zenbatu beharreko bi urteko aldian artikulu honetan aipatutako akordioa lortzen ez bada, ezin aplikatu izango da erregimen hori.

Idatz-zati honetan xedatutakoaren arabera ezartzen diren zehapenei Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 193. artikuluan xedatutakoa aplikatuko zaie.

5. Aukera egindakoan, zerga-taldea araubide hori loturik egongo da jarraiko hiru zergaldietan, foru arau honetako 74. artikuluan ezarriko betekizunak betetzen badira eta zentsu-aitorpenaren bidez uko egiten ez zaion bitartean. Uko egin nahi izanez gero, azken zergaldia amaitu eta hurrengo bi hiletan zehar baliarazi behar da.
6. Sozietate nagusiak zerga-baterakuntzako araubidea aplikatzekoa den zergaldia hasi baino lehen jakinarazi behar dizkio artikulu honetako 1. zenbakian aipatutako erabakiak Zerga Administrazioari.

Halaber, zerga-taldearen osaera aldatzen bada, sozietate nagusiak Zerga Administrazioari jakinarazi behar dizkio aldaketa horiek, eta identifikatu behar du zer sozietate sartu den taldean eta zer sozietate utzi den taldetik kanpo. Jakinarazpen hori, egin ere, zergaldia amaitzen denetik hilabeteko epean egin behar da.

78. artikulua. Zerga-taldearen zerga oinarriaren zehaztapena.

1. Zerga-taldearen zerga oinarria hurrengoak zenbatuz zehaztuko da:
 - a) Zerga-taldeko kide diren sozietate guzti-guztien banako zerga oinarriak, bakoitzaren zerga oinarriaren konpentsazioa sartu gabe.
 - b) Ezabaketak.
 - c) Aurreko ekitaldietan burututako ezabaketen eranskinak.
 - d) Zerga-taldeko zerga oinarri negatiboen konpentsazioa, aurreko letretan adierazitako batura positiboa denean, bai eta foru arau honetako 81. artikuluko 2. idatz-zatian adierazitako zerga oinarri negatiboen konpentsazioa ere.
2. Ezabaketak eta atxikimenduak uteko kontu bateratuak formulatzeko arauak onetsi dituen abenduaren 20ko 1.815/1991 Errege Dekretuan ezarritako irizpideen arabera egingo dira.

79. artikulua. Ezabaketak.

1. Zerga oinarri bateratua zehazteko, zergaldian zehar egindako barruko eragiketen emaitzen ezabaketa guztiak burutuko dira.

Barruko eragiketatzat joko dira taldeko sozietateek taldekide direneko zergaldietan euren artean egindakoak eta zerga-baterakuntzako araubidea erabiliko dutenak.
2. Barruko eragiketengatiko emaitzen ezabaketak, positiboak zein negatiboak, emaitza horiek zerga-taldeko erakundearen banako zerga oinarrian daudenean burutuko dira.
3. Foru arau honetako 33. artikuluko 4. idatz-zatian ezarritakoaren arabera barruko ezarpen bikoitzaren ziozko kenkaria egin ez zaien norbanakoaren zerga oinarrietako dibidenduak ez dira ezabatuko.

80. artikulua. Erasketak.

1. Ezabatutako emaitzak zerga-taldearen zerga oinarriari erantsiko zaizkio gainontzekoen aurrean egiten direnean.
2. Sozietateren batek barruko eragiketaren batean esku hartu eta horren ostean, zerga-taldeko partaide izateari uzten dionean, eragiketa horri ezabatuko zaion emaitza banaketa hori gertatu zeneko zergaldiaren aurreko zerga-taldearen zerga oinarriari erantsiko zaio.
3. Zerga-taldeko sozietate baten partaidetzaren balioaren zuzenketaren ezabaketaren eransketa burutuko da taldetik irteten denean eta balioaren zuzenketa sortu duen galerari dagokion zerga oinarri negatiboaren konpentsazio eskubide bereganatzen duenean. Balio zuzenketa itzulketa ez da erantsiko partaidetzako sozietatea zerga-taldean izan ez den zergaldietan.

81. artikulua. Zerga oinarri negatiboen konpentsazioa.

1. Zerga-taldearen zerga oinarria zehazteko arauen arabera berau negatiboa ateratzen bada, foru arau honetako 24. artikuluan ezarritako moduan konpentsatu ahal izango da zenbatekoa zerga-taldearen zerga oinarri positiboekin.

2. Zerga-taldean sartzean konpentsatu gabe dauden sozietate baten zerga oinarri negatiboak taldearen zerga oinarrian konpentsatu ahal izango dira, sozietatearen beraren zerga oinarriarako mugarekin. Ondore hauetarako, eta hauexetarako soilik, zerga oinarrian ez dira sartuko Foru Arauko 33. artikuluko 2. idatz-zatian aipatutako dibidenduak edo mozkin-partaidetzak.

82. artikulua. Berrinbertsioa.

1. Foru arau honetako 22. artikuluan aipatutako aparteko mozkinen berrinbertsioari eutsi ahal izango diote zerga-taldeko sozietateek eta berrinbertsioa aparteko mozkina lortu zuen sozietateak berak zein taldeko besteren batek egin ahal izango du Berrinbertsioa zerga-taldeko beste sozietate bati eskuratutako elementu batean gauzatu ahal izango da, baldin eta elementu hori berria bada.
2. Ezin izango zaio aparteko mozkinen berrinbertsioari eutsi zergataldeko erakundeen artean egindako eskualdaketetan.

83. artikulua. Zergaldia.

1. Zerga-taldearen zergaldia sozietate nagusiaren bera izango da.
2. Menpeko sozietateren batek zergaldi bat banako zerga-ordainketa arautzen duten arauen arabera bukatzen duenean, bukaera honek ez du zerga-taldearena ekarriko.

84. artikulua. Zerga-taldearen kuota osoa.

Zerga-taldearen oinarri likidagarriari sozietate nagusiaren karga tasa ezartzeak erakarriko duen munta joko da zerga-taldearen kuota osotzat.

85. artikulua. Zerga-taldearen kuota osoaren kenkariak eta hobariak Sozietate-taldearen kuota osoaren kenkariak eta hobariak.

1. Zerga-taldearen kuota osoari foru arau honetan ezarritako kenkariak eta hobariak kenduko zaizkio.

Kenkari eta hobari horietaz baliatzeko ezarri diren betekizunak zerga-taldeari egokituko zaizkio, bai eta Foru Arauko 19. artikuluan ezarritako integrazioaziorik ezaren araubide aplikatzeko ezarritakoak ere.

2. Zerga-taldean sartzean edozein sozietatek aplikatu gabe dituen kenkariak zerga-taldearen kuota osoari kendu ahal izango zaizkio, hark banako zerga-ordainketaren araubidearen arabera izan zezakeen muga berberarekin.

86. artikulua. Informazioa eman beharra.

1. Zergari dagokionez, sozietate nagusiak galera eta irabazi bateratuen balantzea eta kontua egin behar izango ditu, zerga-taldea osatzen duten sozietate guztiei sartze orokorreko metodoa ezarriz.
2. Urteko kontu bateratuek sozietate nagusiaren urteko kontuen itxieraegun eta zergaldi eurak izango dituzte, eta menpeko sozietateek sozietate nagusiak egingo duen egunean bertan itxi beharko dute beren sozietate ekitaldia.
3. Lehenengo idatz-zatian aipatutako agiriei honako informazio hau erantsi beharko zaie: Lehenengo idatz-zatian aipatutako agiriei honako informazio hau lotu beharko zaie:
 - a) Sartzeko dauden aurreko zergaldietan egindako ezabaketak.
 - b) Zergaldian zehar egindako ezabaketak; berauen jatorria eta zenbatekoa behar bezala frogatu behar dira.

- c) Zergaldian zehar izandako eransketak; berauen jatorria eta zenbatekoa ere behar bezala frogatu behar dira.
- d) Zerga-taldearen zerga oinarria zehazteko eta artikuluko honetako 1. idatz-zatiko agiriak prestatzeko egindako ezabaketan eta eransketan artean egon daitezkeen diferentziak, behar bezala azalduta.

87. artikulua. Zerga-baterakuntzaren araubidea galtzea dakarten kariak.

1. Zerga-baterakuntzaren araubidea galdu egingo da kari hauek gertatzen direnean:
 - a) Zerga-taldeko sozietateren batek Zergei buruzko Foru Arau Orokorrean xedatutakoaren arabera zeharkako zenbatespenaren araubidea ezartzea dakarten inguruabarretariko baten bat izatea.
 - b) Informazio betebeharrak, aurreko artikuluko 1. idatz-zatian azaldutakoak, ez betetzea.
2. Zerga-baterakuntzaren araubidearen galerak aurreko idatz-zatian azaldutako kariak gertatzen diren zergaldian bertan izango ditu ondoreak eta zerga-taldeko sozietateek zergaldi horretan banako araubidean ordaindu beharko dute zerga.

88. artikulua. Zerga baterakuntzaren araubidearen galeraren eta zerga taldearen iraungipenaren ondoreak.

1. Baldin eta, zerga baterakuntzaren araubidearen galera edo zerga taldearen iraungipena gertatzen den zergaldian inkorporatzeke dauden ezabaketak, zerga taldeko zerga-oinarri negatiboak edo konpentsatu gabekoen kuotako kenkariak badaude, era honetan jardungo da:
 - a) Sartu gabeko ezabaketak zerga baterakuntzaren araubidea aplikatu ahal den azken zergaldian zerga taldeak daukan zerga oinarrian integratuko dira.

Aurrean ezarritakoa ez da aplikatuko erakunde nagusiak beste zerga talde baten menpeko sozietate izatearen izaera hori berehala eskuratzen badu, ez eta beste talde bateko sozietate batek, foru arau honetako VIII. tituluko X. kapituluan ezarritako araubide bereziari heldutako bat-egiteko prozesu batean, irensten badu ere (batera zein bestera, menpeko sozietate guztiak sartuko dira taldean). Ezabatutako emaitzak beste zerga taldearen zerga oinarriari batuko zaizkio, foru arau honetako 80. artikuluan ezarritakoarekin bar etorritz.

Honen aurreko paragrafoan ezarri dena betetzearen ondoretarako nahitaezkoa izango da zerga taldeak, deskribatu diren inguruabarrak gertatzen direnean eraturiko denak, zerga baterakuntzaren araubidean ordaintzea aurreko taldeak azkeneko aldiz zerga baterakuntzaren araubidea aplikatu zuenaren osteko zergaldiko lehen egunetik.

- b) Araubidearen galera edo iraungipena gertatuko den zergaldian zerga tasa eratzten duten sozietateek konpentsatzeke dauden zerga taldeko zerga-oinarri negatiboak konpentsatzeko eskubidea onartuko dute.

Honen aurreko a) letraren bigarren paragrafoan ezarri dena aplikagarria den kasuetan foru arau honen 81. artikuluan 2. atalak ezarri duen araua izaera hori galdu duen izaki nagusiak burutzen duen zerga taldea eratzten duten sozietateen multzoa kontuan hartuta aplikatuko da.

- c) Araubide horren galera edo iraungipena gertatuko den zergaldian zerga taldea eratzten duten sozietateek zerga taldeko kuoten kenkariei dagozkien ordaintzeke dauden zenbatekoen aplikazioen eskubidea jasoko dute. Hori talde horien eraketan izan duten parte hartzearen atal proportzionalen egingo dute.

Honen aurreko a) letraren bigarren paragrafoan ezarri dena aplikagarria den kasuetan foru arau honen 85. artikulua 2. atalak ezarri duen araua izaera hori galdu duen izaki nagusiak burutzen duen zerga taldea eratzen duten sozietateen multzoa kontuan hartuta aplikatuko da.

2. Honen aurreko ataletan ezarri dena zerga taldea eratzen duten sozietateetako batek talde horretako kide izatea uzten dionean aplikatuko da.

Baldin eta izaki nagusiak izaera hori galtzen badu eta horren menpeko sozietateetako batek berehala zerga talde berri bateko izaki nagusi izate horren izaera hartzen badu, zerga talde berri horretako kide guztiak aurreko taldeko kideak izan direnean, artikulua honen aurreko ataldeko a), b) eta c) letretako bigarren paragrafoetan ezarri diren arauak aplikatuko dira.

Aurreko paragrafo horretan ezarri dena aplikatzearen ondoretarako beharrezkoa izango da deskribatu diren inguruabar horien ondorioz sortu den zerga talde bere zergak zerga baterakuntzaren araubidean ordaintzea aurreko taldeak azkeneko aldiz zerga baterakuntzaren araubide aplikatu zuen zergaldiaren hurrengo zergaldiko lehen egunetik.

89. artikulua. Zerga-taldearen aitortzea eta autolikidazioa.

1. Sozietate nagusiak, zerga-taldearen aitortzea aurkezten duen aldi berean, taldeari dagokion zerga-zorra kitatu beharko du eta beraz Bizkaiko Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Sailak adieraziko duen lekuan, moduan eta epeetan sartu.
2. Sozietate nagusiaren banako zerga-ordainketarako aitortzenari dagokion epearen barruan aurkeztu beharko da aitortzea.
3. Zerga-taldea iraungitzen bada, zerga-baterakuntzaren araubidea galtzen badu edo sozietateren bat zerga-taldetik irteten bada egin beharko diren aitortzen osagarriak egutegiko hogeita bost eguneko epean aurkeztu behar dira; iraungipen, galera edo banantzearen karia gertatzen den egunetik sei hilabete igarotakoan hasiko da zenbatzen epe hori.

X. KAPITULUA

BAT-EGITEEN, ZATITZEEN, AKTIBO-EKARPENEN, BALORE-TRUKEEN, AKTIBO- ETA PASIBO-LAGAPEN OROKORREN ETA EUROPAKO SOZIEKATE BATEK EDO EUROPAKO SOZIEKATE KOOPERATIBO BATEK SOZIEKATEAREN HELBIDEA EUROPAR BATAKUNTEKO ESTATU KIDE BATEK BATEK BATEK BATEK BATERA ALDATZEAREN ARAUBIDE BEREZIA

90. artikulua. Definizioak.

1. Bategite eragiketatzat joko da hurrengoak burutzen dituen eragiketa:
 - a) Likidaziorik gabe desegiteagatik eta desegiten den momentuan bertan erakunde batek edo batzuek aurretik dagoen beste erakunde bati beren sozietatearen ondasunak blokean eskualdatzen dizkiote, beste erakundearen sozietatearen kapitaleko ordezkariak duten baloreak eta, hala bada, izendun balorearen 100eko 10etik gorakoa ez den diru-kontentsazio bat, edo, izendun balorerik ez balego, kontabilitateari kendutako balore horien bereko beste balore bat kideei eratziz.
 - b) Likidaziorik gabe desegiteagatik eta desegiten den momentuan bertan erakunde bik edo gehiagok erakunde berri bati beren sozietatearen ondasun guztiak blokean eskualdatzen dizkiote, erakunde berriaren sozietatearen kapitaleko ordezkariak duten baloreak eta, hala bada, izendun balorearen 100eko 10etik gorakoa ez den diru-kontentsazio bat, edo, izendun balorerik ez balego, kontabilitateari kendutako balore horien bereko beste balore bat kideei eratziz.

- c) Likidaziorik gabe desegiteagatik eta desegiten den momentuan bertan erakunde batek bere sozietatearen kapitalaren ordezkartasuna duten balore guztien titularra den erakundeari sozietatearen ondasun guztiak eratzkitzen dizkio.

2.

1.a. Zatiketatzat joko da hurrengoak burutuko dituen eragiketa:

- a) Likidaziorik gabe desegin delako erakunde batek bere sozietatearen ondare guztia zati batean edo gehiagotan banatzen du eta blokean eskualdatzen die aurretik dauden edo berriak diren erakunde biri edo gehiagori, ekarpena hartuko duten erakundeen sozietatearen kapitalaren ordezkartasuna duten baloreak, proportziorik arau baten arabera, eta, hala bada, izendun balorearen 100eko 10etik gorakoa ez den diru-konpentsazio bat, edo, izendun balorerik ez balego, kontabilitateari kendutako balore horien bereko beste balore bat beren kideei eratzkitz.
 - b) Entitate batek jarduera-adarrak osatzen dituen bere sozietatearen ondarearen zati bat edo batzuk zatitzen ditu eta blokean eskualdatzen dizkie aurretik dauden edo berriak diren entitate bati edo gehiagori, eta entitate eskualdatzaileak, gutxienez, jarduera-adar bat gordeko du beretzat. Eskualdatzaileak, horren truke, azken sozietate horien sozietate-kapitala ordezkartzen duten baloreak jasoko ditu; baloreok entitatearen bazkideei esleitu behar dizkie –bakoitzaren partaidetzaren arabera–, sozietate-kapitala eta erreserbak derrigorrezkoa den zenbatekoan gutxitu behar ditu, eta, hala bada, aurreko idatzzatian ezartzen den bezalako diru-konpentsazioa eman beharko die.
 - c) Entitate batek bere sozietatearen ondarearen zati bat bereizten du, beste entitate batzuen sozietate-kapitalean gehiengoa ematen dioten kapital-partaidetzek osatua, eta bere ondarean, gutxienez, beste entitate bat edo batzuen edo jarduera- adar batean antzeko ezaugarriak dituzten partaidetzak mantentzen ditu. Bereizitakoa beste entitate bati –sortu berria edo lehendik dagoena– eskualdatzen dio, eta trukean entitate eskuratzailearen kapitala ordezkartzen duten baloreak jasotzen ditu; jasotakoa entitatearen bazkideei esleitu behar die –bakoitzaren partaidetzaren arabera–, sozietate-kapitala eta erreserbak derrigorrezkoa den zenbatekoan gutxitu behar ditu, eta, hala bada, aurreko idatz-zatian ezartzen den bezalako diru-konpentsazioa eman beharko die.
- 2.a. Erakunde eskuratzaile bi edo gehiago badaude, zatitzen den erakundeko bazkideei erakunde eskuratzaileetako baten kapitalaren balore adierazgarriak eratzkitzeko, zeukaten proportzioan ez, ezpada bestelakoan, beharrezkoa izango da erakunde horiek eskuratutako ondareak jarduera-adarrak izatea.
- 3.a. Diruzkoa ez den jarduera-adarren ekarkintzat joko da hurrengoa burutuko duen eragiketa, hots: desegin gabeko erakunde batek aurretik dagoen edo berria den beste erakunde bati jarduera-adar bat edota guztiak eratzkitzen dizkio eta horren trukean, horiek hartzen dituen sozietatearen kapitalaren ordezkartasuna duten baloreak hartzen ditu.
- 4.a. Jarduera adartzat joko da ekonomi ustiapen bat zehazten duen ekonomi unitate autonomiaduna osatzeko gai diren ondare osagaien multzoa, hau da, berez baliatzeko gai den multzoa. Erakunde eskuratzaileari erakundearentzat edo eskualdatzen diren osagaien funtzionamendurako hartutako zorrak eratziki ahal izango zaizkio.
- 5.a. Entitate batek egiten duen eragiketa bat sozietatearen kapitala ordezkartzen duten baloreen truketzat joko da entitateak hurrengo eragiketetakoa bat egiten badu: beste entitate bateko boto-eskubideen gehiengoa lortzeko bidea emango dion beste entitate horren sozietate-kapitalaren partaidetza eskuratzen badu; edo, dagoeneko gehiengoa badu, partaidetza handiagoa eskuratzen badu, bazkideei, beren baloreen truke, lehenengo entitatearen sozietate-kapitala ordezkartzen duten beste balore batzuk

esleitzuz, eta, hala badagokio, diru-konpentsazioa emanez; konpentsazio horrek ez du gainditu behar balio nominalaren ehuneko 10, edo, balio nominalik ezean, balore horien nominalari baliokidea den balioa, kontabilitatetik ondorioztatuko dena.

91. artikulua. Eskualdaketak eratorritako errenten araubidea.

1. Aurreko artikuluan aipatutako eragiketetatik datozen ondoko errenta hauek ez zaizkio zerga-oinarriari erantsiko:

- a) Espainian kokatutako ondasunak eta eskubideak eskualdatzearen zioz sortzen direnak.

Erakunde eskuratzailleak egoitza atzerrian duenean, zerga-oinarritik salbu Espainiako lurraldean kokaturiko establezimendu iraunkor bati loturiko elementuen eskualdaketatik datozen errentak soilik geratuko dira.

Elementuok Espainiako lurraldetik kanpo transferitzeak berekin ekarriko du establezimendu iraunkorraren zerga-oinarrian sartzea, hura gertatzen den zergaldian, merkatuko balio izendunaren eta hurrengo artikuluan aipatutako balioaren arteko diferentzia; kopuru horri kontabilitatean agertarazitako amortizazioen eta bestelako balio-zuzenketen zenbatekoa kendu beharko zaio, hala denean, baldin eta zerga-kenkariak ekartzen badituzte.

- b) Egoitza Espainiako lurraldean duten erakundeei Europar batasunekoak ez diren estatuen lurraldeetako establezimendu iraunkorrek eskualdaketak egitearen zioz sortzen direnak.

- c) Egoitza Espainiako lurraldean ez duten erakundeei bertan modu iraunkorrean finkaturik ez dauden establezimenduei eskualdaketak egitearen zioz sortzen direnak.

Erakunde eskuratzailleak egoitza atzerrian duenean, zerga-oinarritik salbu Espainiako lurraldean kokaturiko establezimendu iraunkor bati loturiko elementuen eskualdaketatik datozen errentak soilik geratuko dira..

Elementuok Espainiako lurraldetik kanpo transferitzeak berekin ekarriko du establezimendu iraunkorraren zerga-oinarrian sartzea, hura gertatzen den ekitaldian, merkatuko balio izendunaren eta hurrengo artikuluan aipatutako balioaren arteko diferentzia; kopuru horri kontabilitatean agertarazitako amortizazioen eta bestelako balio-zuzenketen zenbatekoa kendu beharko zaio, hala denean, baldin eta zerga-kenkariak ekartzen badituzte.

- d) Espainian barik Europar Batasuneko beste estatu kideen lurraldean kokatuta dauden establezimendu iraunkorrek estatu haietan egoitza duten entitatei establezimendu iraunkorrek eskualdatzearen zioz sortzen direnak, baldin eta errenta horiek 1990eko uztailaren 23ko 90/434/EEE Zuzentarauaren (estatu kide ezberdinetako sozietateen artean egindako bat-egiteei, zatitzei, aktibo-ekarpenei eta akzio-trukeei eta Europako sozietate batek edo Europako sozietate kooperatibo batek sozietatearen helbidea Europar Batasuneko estatu kide batetik beste estatu kide batera aldatzeari aplikatu beharreko zerga-araubide erkideari buruzkoa da) eranskinean zehaztutako formaren bat badute, eta Zuzentarauko 3. artikuluan aipatutako zergetako batek zergapetuta eta zerga horietako edozeinetatik salbuetsita ez badaude.

Aurreko a), b) eta c) letretan aipatutako eragiketetatik datozen errentak ez dira zerga-oinarritik bazter utziko, baldin eta erakunde eskuratzaillea zerga honetatik salbuetsita badago edo errenta-eratzikipeneko araubidean badago.

Artikuluko 1. zenbaki honetan aipatutako eragiketetatik datozen errentak zerga-oinarritik kanpo utziko dira, nahiz eta erakunde eskuratzailleak karga-tasa edo zerga-araubide berezia izan. Erakunde eskuratzailleari karga-tasa edo zerga-araubide berezi bat aplikatzen bazaio, eskualdatzailearena baino beste bat, eragiketa egin den unean egondako ondare-elementuak eskualdatuz lortzen den errenta —eragiketaren ondoren gauzatutakoa—

eskualdatutako elementuaren ukantza-denbora osoan zehar modu linealean lortu dela ulertuko da, besterik frogatu ezean. Errenta horretatik eragiketa egin den unera arte sortu den kopuruari erakunde eskualdatzaileak izango lituzkeen karga-tasa eta zerga-araubidea aplikatuko zaizkio.

2. Aurreko idazatian ezarritako araubideari uko egin ahal izango zaio ondare-elementuen osotasuna edo zatiren bat eskualdatzeak eratorritako errenten zerga oinarriari erantsiz.
3. Edozein modutan ere, nazioarteko itsas eta aire-nabigazioan diharduten erakundeetan agerian agertuko diren itsasuntziak edota aireuntziak edo ustiapenerako ondasun higikorrek eskualdatzeak eratorritako errentak zerga oinarriari erantsiko zaizkio, erakunde eskuratzailearen egoitza lurralde espainiarrean ez dagoenean.

92. artikulua. Eskuratutako ondasunen zerga-balorazioa.

1. Aurreko artikuluan ezarritako araubidea ezartzeko gertatu zaien eragiketek eratorritako eskualdaketen bidez eskuratutako ondasunak eta eskubideak, zergari dagokionez, eragiketa burutu aurretik erakunde eskualdatzailean zituzten balio berberen arabera baloratuko dira eta berdin mantenduko da, erakunde eskualdatzailearen eskuraketa eguna foru arau honetako 15. artikuluko 11. idazatia. idazatian xedatutakoa ezartzeko. Balio horiek eragiketari esker benetan ordaindu dituzten zergan errenten zenbatekoan zuzenduko dira.
2. Aurreko artikuluan ezarritakoa aplikatzeko gertatuko ez den kasuetan alde bien artean erabakitako balioa hartuko da merkatuko balio arruntaren mugarekin.

93. artikulua. Ekarpeneren kontraprestazio gisa jasotako akzio edo partaidetzen zerga-balorazioa.

Jarduera-adarren ekarpen baten ondorioz jasotako akzio edo partaidetzak, zergari dagokionez, batasun ekonomiko lokabeak duen kontabilitateko balioagatik baloratuko dira, zuzendua berau, hala denean, eragiketa dela eta sozietate eskualdatzailearen zerga oinarrian sartu diren errenten zenbatekoan.

94. artikulua. Balore-trukearen zerga araubidea.

1. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren edota Zerga honen zerga-oinarrian ez dira sartuko balore-trukean agertzen diren errentak, baldin eta ondorengo betekizunak betetzen badira:
 - a) Balore-trukea egiten duten bazkideak Espainian bizi badira edota Europako Batasuneko kide den beste herri batean edota bestelako estatu batean, baldin eta, azken kasu horretan, jasotako baloreak Espainian egoitza duen erakunde baten sozietate-kapitalaren adierazgarri badira.

Bazkidea errentak esleitzeko araubidean dagoen entitatetzat jotzen bada, entitate horren bazkide, jaraunse, erkide edo partaide direnen zerga-oinarrian ez da batuko balore-trukeen zioz sortutako errenta, betiere eragiketa horri kapitulu honetan ezartzen den zerga-araubidea aplikatu behar bazaio edo eragiketa 90/434/EEE Zuzentarauaren itzalpean egiten bada, eta bazkideak jasotzen dituen baloreek trukaturako baloreek zeukaten zerga-balorazio berari eusten badiote.
 - b) Baloreak eskuratu dituen erakundea Espainian egoitza badu edota 90/434/CEE Zuzentaria ezartzen den eremuan sartuta badago.
2. Balore-trukea egin duen erakundeak jaso dituen baloreak balioetsiko dira ekarpena egin duten bazkideen ondarean zuten balioagatik, Zerga honen edo Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren arauaren arabera. Ez da horrela egingo merkatu-balore arrunta txikiagoa bada; horrelakoetan, azken horren arabera balioetsiko dira.

Bazkideek sortutako errentak Espainian zergari atxikita ez badaude, alderdien artean erabakitako balorea hartuko da aintzat, eta merkatuko balore arrunta izango da muga.

3. Bazkideek jasotako baloreak, zerga ondorioetarako, emandako baloreen balioaren arabera baloratuko dira, eta hori zerga honekin edo Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergarekin bat zehaztuko da, hots, bietatik egoki denarekin. Balorazio hori gehitu edo murriztu egingo da, diru entregatuz edo jasoz egiten den konpentsazio osagarriaren zenbatekoan.

Jasotako baloreek emandakoen eskuratze data gordeko dute.

4. Bazkideak Espainiako egoiliar-izaera galtzen badu, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren edota Zerga honen inguruabar hori gertatu den zergaldiaren zerga-oinarrian sartuko da akzioek edo partaidetzek merkatuan duten balore arruntaren eta aurreko idatz-zatiak (dagokionean, zuzenduta, zerga aldetik kengarriak izan diren balore-galeren zenbatekoan) aipatzen duen balorearen arteko aldea.

Errenta horri dagokion zerga-zorren zatia atzera daiteke, eta baloreak eskualdatu diren zergaldiari dagokion aitopenearekin batera sar, baldin eta subjektu pasiboak bermatzen badu zorra ordainduko duela.

5. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren edota Zerga honen zerga-oinarrian sartuko dira zerga-paradisutzat arauz hartutako herrietan edo lurraldeetan egoitza duten edo han bizi diren erakundeek parte hartu duten eragiketetan lortu diren errentak; edota horien bidez lortutako errentak.
6. Balore-trukeko eragiketek artikuluan honen 1. idatz-zatian ezarritako betekizunak betetzen ez badituzte, ezingo diote heldu kapitulu honetan ezarritako araubideari.

95. artikulua. Bazkideen zerga-ordainketa bategite-, irespen- eta erabateko zein zatikako banaketa-eragiketetan.

1. Erakunde eskurtaileak erakunde eskualdatzailearen bazkideei baloreak ahalduz gero agerian jartzen diren errentak ez dira zerga oinarrian sartuko, baldin eta horiek egoitza espainiar lurraldean badute, edota Europar Batasuneko kide den estatu batean, edota beste edozein estatutan, beti ere, azken kasu honetan, baloreak egoitza espainiar lurraldean duen erakunde baten sozietate-kapitalaren ordezkartasuna badute.

Bazkidea errentak esleitzeko araubidean dagoen entitatetzat jotzen bada, entitate horren bazkide, jaraunse, erkide edo partaide direnen zerga-oinarrian ez da batuko balore-esleipenaren zioz sortutako errenta, betiere eragiketa horri kapitulu honetan ezartzen den zerga-araubidea aplikatu behar bazaio edo eragiketa 90/434/EEE Zuzentarauaren itzalpean egiten bada, eta bazkideak jasotzen dituen baloreek trukaturako baloreek zeukaten zerga-balorazio berari eusten badiote.

2. Bategite, xurgatze eta bereizte oso edo partzialeko eragiketen bidez jasotako baloreak, zerga ondorioetarako, emandako baloreen balioaren arabera baloratuko dira, eta hori zerga honekin edo Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergarekin bat zehaztuko da, hots, bietatik egoki denarekin. Balorazio hori gehitu edo murriztu egingo da, dirua emanez edo jasoz egiten den konpentsazio osagarriaren zenbatekoan. Jasotako baloreek emandakoen eskuratze data gordeko dute.
3. Bazkideak espainiar lurraldeko egoiliar izateari uzten badiu, inguruabar hori gertatzen den zergaldiari dagokion Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergako edota zerga honetako zerga oinarrian sartuko da akzio edo partaidetzek merkatuan duten balio normalaren eta aurreko idatzian aipatu den balioaren arteko diferentzia, zuzendua berau, hala denean, zergatik kendu ahal izan diren balio-galeren zenbatekoan.

Errenta horri dagokion zerga-zorren zatia atzeratu ahal izango da, baloreak eskualdatzen diren zergaldiari dagokion aitorpenarekin batera sartuz, subjektu pasiboak horren ordainketa bermatzen baldin badu.

4. Arau bidez paradisu fiskaltzat jotako lurralde edo lurraldeetan helbideratutako edo finkatutako erakundeek esku hartzen duten eragiketetatik lortutako errentak, edota horien bidez lortutakoak, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergako edota zerga honetako zerga oinarrian sartuko dira.

96. artikulua. Erakunde eskualdatzailearen eta erakunde eskuratzzailearen kapitaleko partaidetzak.

1. Erakunde eskuratzzaileak erakunde eskualdatzailearen kapitalean parte hartzen duenean, %5ean gutxienez, partaidetzaren deuseztapenak eratorritako errenta positiboa ez da haren zerga oinarrian sartuko, baldin eta erakunde eskualdatzailearen salbuespenekin bat badator, ezta arrazoi bera dela eta agerian geratzen den errenta negatiboa ere.

Balizko honetan ez da kenkaria ezarriko dibidenduen barneko ezarpen bikoitza eragozteko, aurreko lerroaldean aipatutako salbuespenei dagokienez.

2. Partaidetzaren zenbatekoa aurreko idazatian aipatutakoa baino txikiagoa denean, horren deuseztapenak errenta bat ekarriko du, eta jasotako ondare-elementuek merkatuan duten balio arruntaren eta berorren kontabilitateko balioaren diferentziaren zenbatekoa izango da errenta hori.
3. Eskuratutako ondasunak, zergari dagokionez, foru arau honen 92. artikuluan ezarritakoaren arabera baloratuko dira.

Hala ere, erakunde eskuratzzaileak erakunde eskualdatzailearen kapitalean %5eko partaidetza, gutxienez, duenean, partaidetzak zerga ondorioetarako duen eskuraketa balioaren eta ondare garbiaren arteko diferentziaren zenbatekoa, zerga ondorioetarako, eskuratutako ondasun-eskubideei egotziko zaie, eta horretarako, Merkataritza Kodeko 42. artikuluan ezartzen den integrazio orokorreko metodoa aplikatuko da; eta aipatutako balioespenaren arabera egotzia izan ez den diferentzia horren zatia, foru arau honen 12. artikuluko 9. paragrafoan ezarritakoaren arabera kengarria izango da zergan. Orobat, jasotako ondasun-eskubideei egotziko zaie erakunde eskualdatzailearen egoitzan sortutako ondasun-eskubideen balioak izandako aldaketen ondoriozko doikuntzekin bat datorren partaidetzak zerga ondorioetarako duen eskuraketa balioaren zatia, zati hori galera-irabazien kontuan egotzi ez zenez gero, ez zuen zerga ondorioz izan eta

Aurreko lerrokadan ezartzen dena aplikatzeko, erakunde eskuratzzaileak eta eskualdatzaileak ez dute izan behar sozietate talde bereko kide, Merkataritza Kodearen 42. artikuluan ezartzen diren irizpideen arabera, erakundearen egoitza eta urteko kontu bateratuak egiteko betebeharrak gorabehera. Beharkizun hori ez zaio ezarriko pertsona edo erakunde eskualdatzaileak ordaindutako partaidetzaren eskuraketa prezioari, eskualdatzaileak, aldi berean, Merkataritza Kodearen 42. artikuluan xedatutako balizkoen artean ez dauden pertsona edo erakunde bati eskuratu badio.

Aurreko lerrokadako beharkizuna betetzen ez denean, partaidetzak zerga ondorioetarako duen eskuraketa balioaren eta ondare partaidetuaren ondare garbiaren arteko diferentziaren kenkaria bakarrik egin daiteke baldin eta kreditatzen bada erositako sozietatearen merkataritza-fondoaren balio-galera itzulezin bati dagokiola

4. Erakunde eskualdatzaileak erakunde eskuratzzailearen kapitalean parte hartzen duenean, ez dira haren zerga oinarrian sartuko partaidetzaren eskualdaketa dela-eta agerian geratzen diren errentak, nahiz eta erakundeak foru arau honen 91. artikuluko 2. idazatia. idazatian ezarritako uko egite ahalmena erabili.

97. artikulua. Zerga-eskubide eta betebeharrarako subrogazioa.

1. Erakunde eskuratzailerari eskualdatuko zaizkio erakunde eskualdatzailearen zerga-eskubide eta betebeharrak, foru arau honetako 90. artikulua. artikuluan aipatutako eragiketek titulu unibertsaleko ondorengotza ekartzen dutenean.

Erakunde eskuratzailerak bere gain hartuko du zerga-onurak edukitzen jarraitzeko, edota erakunde eskualdatzaileak edukitakoak sendotzeko beharrezkoak diren beharkizunak betetzea.

2. Ondorengotza titulu unibertsalekoa ez denean, eskualdatutako ondasun eta eskubideei dagozkien zerga-eskubide eta betebeharrei buruzkoa baino ez da izango eskualdaketa.

Erakunde eskuratzailerak bere gain hartuko du erakunde eskualdatzailearen zerga pizgarriek eratorriko beharkizunak betetzea, eskualdatutako ondasun eta eskubideei lotuta dauden heinean.

3. Erakunde eskualdatzailean konpentsatzeko dauden zerga-oinarri negatiboak erakunde eskuratzailerak konpentsatuak izan ahalko dira.

Erakunde eskualdatzailearen kapitaleko partaide den erakunde eskuratzailerak edo hari begirako hori foru arau honen 16. artikulua. artikuluan ezarritako kasu batean dagoenean, konpentsatu ahal den zerga-oinarri negatiboa bazkideenak eta edozein titulurengatik egindakoak diren eta loturazko erakundeek erakunde eskualdatzailearen gainean duten edo dituzten partaidetza hori edo partaidetzei dagozkien ekarpenen balioaren eta kontabilitate-balioaren arteko diferentzia positiboaren zenbatekoan txikituko da.

Inoiz ezin konpentsatuko dira zerga-oinarri negatiboak, baldin eta erakunde eskualdatzaileak jasandako galerei badagozkie eta galerok erakunde eskuratzailerak erakunde eskualdatzailearen kapitalean edo beste erakunde batek erakunde hartan duten partidetzak balioa galtzea ekarria badute, foru arau honen 16. artikulua. artikuluan aipatuta dagoen lotura dutenean.

4. Subrogazioek foru arauen edota espainiar legeen babespean sortutako eskubide eta betebeharrak baino ez dituzte kontutan hartuko.

98. artikulua. Errenten egozketa.

Foru arau honen 90. artikulua. artikuluan aipatutako eragiketak direla-eta iraukitako erakundeek burututako jardueren errentak merkataritzako arauetan ezarritakoaren arabera egotziko dira.

99. artikulua. Establezimendu iraunkorren galerak.

Establezimendu iraunkor bat eskualdatzen denean, eta foru arau honen 91. artikulua 1. paragrafoko d) idatz-zatian ezarritako araubidea aplikatzeko denean, foru arau hau aplikatzeko zaien entitate eskualdatzaileen zerga-oinarria gehitu egingo da; gehikuntza ondokoa izango da: establezimendu iraunkorrek egotzitako errenta negatiboen eta positiboen arteko gaindikina, establezimenduaren eskualdaketa onoriozko errenta positiboaren mugarekin.

Aurreko lerroaldean ezarritakoaz gain, errenta positibo horrek foru arau honen 19. artikulua 6. paragrafoan ezartzen diren baldintzak betetzen ez baditu, gaindikin hori gainditzen duen errentaren zenbatekoa entitate eskualdatzaileen zerga-oinarrian sartuko da; nolahi ere, kuota osotik kendu ahal izango da 904/434/EEE Zuzentarauko xedapenak ez baleude establezimendu iraunkorra kokatuta dagoen estatu kidean zerga-oinarrian sartuta dagoen errenta hori zergatuko lukeen zerga, zerga-oinarrian sartutako errenta horri dagokion kuota osoaren zenbatekoaren mugarekin.

100. artikulua. Kontabilitateko betebeharrak.

1. Erakunde eskuratzailleak ondoren aipatuko den informazioa sartu beharko du urteko txostenean, erakunde eskualdatzailleak foru arau honen 91. artikuluko 2. idazatia. idazatian aipatu den ahalmena erabili ez badu; orduan, d) letran zehaztutakoa baino ez du bete behar izango:
 - a) Erakunde eskualdatzailleak amortizagarriak diren eskualdatutako ondasunak eskuratu zituen ekitaldia.
 - b) Erakunde eskualdatzailleak itxitako azken balantzea.
 - c) Kontabilitatearen liburuetan eragiketa burutu baino lehen erakunde eskualdatzaillearen liburuetakoz ez bezalako balioarekin sartu diren ondasun eskuratuen zerrenda, balore biak adieraziz, eta baita amortizazio fondoak ere eta erakunde bietako kontabilitate-liburuetan eratutako hornidurak.
 - d) Erakunde eskualdatzailleak edukitako zerga-onuren zerrenda, zeinei buruz erakundeak bere gain hartu behar baitu beharkizun jakin batzuk betetzea, foru arau honen 97. artikuluko 1 eta 2. idazati. idazatietan ezarritakoaren arabera.

Idazati honetan ezarritakoetarako, erakunde eskualdatzailleak erakunde eskuratzailleari jakinarazi beharko dizkio aipatu datu horiek.

2. Pertsona juridikoak diren bazkideek ondorengo datu hauek aipatu beharko dituzte urteko txostenean:
 - a) Emandako baloreen kontabilitateko balioa.
 - b) Jasotako baloreak zein balioekin kontabilizatu diren.
3. Aurreko idazatietan ezarritako aipamenak eskuraturiko baloreak edo ondare-elementuak inbentarioan dauden bitartean burutu beharko dira edo, bestela, erakunde eskualdatzailleak edukitako zerga pizgarriek eratorritako beharkizunak bete behar diren bitartean.

Erakunde eskuratzailleak aukeratu ahal izango du, eta bigarren eta ondorengo urteko txostenei dagokienean, aipamenok eragiketaren ondorengo lehenengo urteko txostenean agertzen direlako adierazpen hutsa sartu, zein gorde egin beharko baita aurreko lerrodean aipatzen den inguruabarra dagoen bitartean.

4. Aurreko idatz-zatietan ezarritako betebeharrak ez betetzea zergen arloko arau-haustea izango da. Zehapena 200 euroko isun finkoa izango da ematen ez den datu bakoitzeko eta urtero informazio hori ematen ez den lehenengo hiru urteetan, eta 1.000 eurokoa hortik aurrerako urte bakoitzeko; nolana ere, isunak muga izango du: erakunde eskuratzailleak eskualdatutako ondasun eta eskubideei kontabilitatean ezarritako balioaren %5.

Idatz-zati honetan xedatutakoaren arabera ezartzen diren zehapenei Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 193. artikuluan xedatutakoa aplikatuko zaie.

101. artikulua. Diruzkoak ez diren ekarpenak.

1. Kapitulu honetan finkatutako araubidea, zerga honen subjektu pasiboaren edo Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergadunaren aukeran, ondoko baldintzak betetzen direneko diruzkoak ez diren ekarpenei aplikatuko zaie:
 - a) Ekarpena jasotzen duen erakundea espainiar lurraldeko egoilea izatea edo jardueran bertan egitea ipinitako ondasunak lotzen zaizkioneko ezarpen iraunkorraren bidez.

- b) Behin ekarpena egin ondoren, zerga hau ordaintzen duen subjektu pasiboak edo Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergadunak ekarpena hartzen duten erakundearen fondo propioetan gutxienez 100eko 5ean parte hartzea.
 - c) Sozietatearen akzioak edo partaidetzak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergadunek ipintzen badituzte, a) eta b) letretan esandakoez gain ondoko betekizun hauek ere beteko dira:
 - a') Ordezkatzen duten sozietatearen kapitalaren erakundea espainiar lurraldeko egoilea izatea, eta erakunde horri Foru Arau honetan aurreikusten diren interes ekonomikoko espainiar edo europar elkartean eta enpresen aldi baterako batasunen eta ondarezko sozietateen erregimen berezia ez aplikatzea.
 - b') Erakundearen fondo propioen gutxienez 100eko 5eko partaidetza ordezkatzea.
 - c') Ekarpena egin duenak etengabe edukitzea ekarpena gauzatzen deneko dokumentu publikoaren dataren aurreko urtean.
 - d) Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergadunek c) lettran aipatutakoez bestelako ondarezko elementuren ekarpenik egitekotan, elementu horiek kontularitza Merkataritzako Kodean xedatutakoaren arabera eramaten deneko ekonomia jarduerari lotuta egotea.
2. Kapitulu honetan ezarritako araubidea jarduera-adarretako ekarpenei ere aplikatuko zaie, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga ordaindu beharra dutenek egiten dituztenean ekarpenok, beti ere kontabilitatea Merkataritzako Kodean xedatutakoaren arabera eramaten badute.
 3. Ekarrirako ondare-elementuak ezin izango dira baloratu, zergari dagokionez, merkatuan duten balio arruntaren ginetik.

102. artikulua. Aktiboaren eta pasiboaren lagapen orokorra.

1. Subjektu pasiboak hautatzen badu, kapitulu honetan ezarritako araubidea merkataritzako sozietateen egitura aldatzeari buruzko apirilaren 3ko 3/2009 Legeko 81-84 bitarteko artikuluetan aipatutako aktiboaren eta pasiboaren lagapen orokorreari aplikatuko zaie, ondokoak betez gero:
 - a) Lagapena desegindako erakundearen bazkide baten edo batzuen alde egitea, horretan boto-eskubidea gutxienez 100eko 25ekoa dutenean, desegite-erabakia baino urtebete lehenagoko aldian.
 - b) Bazkideei esleitutako aktiboek eta pasiboek desegindako erakundearen jarduera osoa edo horren adar bat edo gehiago osatzea.
 - c) Erakunde lagapen-hartzaileak egoitza espainiar lurraldean izatea, edota jarduerak hortxe burutzea, ekarrirako ondasunei lotutako ezarpen iraunkor baten bidez.
2. Lagatako ondare-elementuak ezin izango dira baloratu, zergari dagokionez, merkatuan duten balio arruntaren ginetik.

103. artikulua. Zergapetze bikoitza saihesteko arauak.

1. Foru Arau honek 93, 94.2 eta 101. artikuluetan ezarritako balioespen-arauak aplikatuz gero gerta zitekeen zergapetze bikoitza saiheste aldera, ondorengo arauak ezarriko dira:
 - a) Aurkeztutako ondasunei egotzi ahal zaizkien errenten kargura banatu diren mozkinen kenkarirako eskubidea emango dute, dibidenduen barneko zergapetze bikoitza, Foru Arau honek 33.2 artikuluan aipatzen duena, saihesteko, bazkidearen partaidetza-hunekoia eta antzinatasuna edozein delarik ere. Irizpide bera ezarriko da kenkariari

dagokionez, partaidetzaren eskualdaketak eragindako errenten ondoriozko gainbalioen barneko zergapetze bikoitza, Foru Arau honek 33.5 artikuluan aipatzen duena, saiheste aldera.

- b) Aurkeztutako ondasunei ezarri ahal zaizkien errenten kargura banatutako mozkinen eskubidea emango dute Foru Arau honek 19. artikuluan aipatzen duen ez integratzerako, bazkidearen partaidetza-maila edozein delarik ere.

Aurreko idatz-zatiak aipatzen duen mozkinen banaketak eragindako partaidetzaren balio-galera ez da zergan kengarria izango, mozkin horien zenbatekoari dagozkion zergak, partaidetzaren eskualdaketaren bidez, Espainian ordaindu direnean izan ezik. Azken kasu horretan, erakundeak aukera izango du partaidetza eskualdatu duenean Espainian zerga-ordainketa eragin duten mozkinen zenbatekoa besteko gastua zenbatzeko, baldin eta, eragiketa hori kontabilizatu behar den modua dela eta, ez badu inolako errentarik sartuzerga-oinarrian eta partaidetza horren balioa txikitu behar badu.

- 2. Erakunde eskuratzailleak zenbatzeko izan zuen eragatik, ezin izan bada saihestu zergapetze bikoitza, aurreko idatz-zatian ezarritako arauen bidez, erakunde horrek, iraungitzeko unean, doitzeak egingo ditu, hain zuzen, Foru Arau honek 93, 94.2 eta 101. artikuluetan ezarritako balioespen-arauak ezartzearen egin dituen doitzeak bezalakoak ez diren doitzeak. Erakunde eskuratzailleak kontrako zeinua duten doitze horiek egin ahal izango ditu iraungi aurretik, baldin eta frogatzen bada bazkideek euren partaidetza eskualdatu dutela, eskualdaketa hori egiteko euren zerga-oinarrian sartu den zenbatekoaren mugaz.

104. artikulua. Zerga-araubidea ezartzea.

- 1. Kapitulu honetan ezarritako zerga-araubidea aplikatuko da zerga honen subjektu pasiboek esku hartu duten eragiketetan, merkataritza-sozietatearen irudi juridikoa ez badute, eta baldin eta lortu diren emaitzak kapitulu honetan aipatutako eragiketen ondorioz lortutakoen balioak badira.
- 2. Kapitulu honetan ezarritako zerga-araubidea Europako sozietate batek edo Europako sozietate kooperatibo batek sozietatearen helbidea Europar Batasuneko estatu kide batetik beste estatu kide batera aldatzeko eragiketei ere aplikatuko zaie, Espainiako lurraldean kokatuta dauden ondasun eskubideei dagokienez, ondoren lurralde horretan dagoen establezimendu iraunkor bati eratzikita geratzen badira. Ondorio horietarako, araubide berezi honetan ondasun-eskubideen eskualdaketarako ezartzen diren arauak sozietatearen helbidea aldatzeko eragiketei ere aplikatuko zaizkie, eragiketok horrelako eskualdaketarik sortzen ez badute ere.
- 3. Kapitulu honetan ezarritako araubidea ezartzeko, bera aukeratu beharko da, eta ondorengo arauak bete:
 - a) Bat-egiteetan edo zatiketetan, aukera sartuko da proiektuan eta zerga-egoitza Espainian duten erakunde eskualdatzaileek eta eskuratzailleak bat egiteko edo zatitzeko hartu dituzten sozietate-erabakietan.

Eragiketa horiei aplikatu ahal bazaie Foru Arau honek 91. artikuluan ezarritako araubidea, eta horietan ez erakunde eskualdatzaileak ez eskuratzailleak zerga-egoitza Espainian ez badute, erakunde eskuratzailleak egingo du aukera, eta eskualdaketaren agiria den eskritura publikoan jaso beharko da.

- b) Diruzkoak ez diren ekarpenetan, eta aktiboen eta pasiboen lagatze orokorretan, erakunde eskuratzailleak egingo du aukera, eta sozietatearen erabakian jaso beharko da, edo, bestela, egintzaren edo kontratuaren agiria den eskritura publikoan.

Eragiketa horietan erakunde eskuratzailleak zerga-egoitza edo establezimendu iraunkorra Espainian ez badu, erakunde eskualdatzaileak egingo du aukera.

- c) Baloreak trukatzeko eragiketetan, erakunde eskuratzailerak egingo du aukera, eta sozietatearen erabakian jaso beharko da, edo, bestela, egintzaren edo kontratuaren agiria den eskritura publikoan. Akzioak eskuratzeko eskaintza publikoetan, eragiketa bultzatzeko eskumena duen sozietate-organoak egingo du aukera, eta azalpenezko liburuxkan jaso beharko da.

Eragiketetan, ez baloreak eskuratzen dituen erakundeak ez baloreak trukutzen zaizkion partaidetzako erakundeak egoitza Espainian ez badute, balore horiek eskualdatzen dituen bazkideak frogatu beharko du erakunde eskuratzailerari 90/434/CEE Zuzentaraua ezarri zaiola.

- d) Europako sozietate batek edo Europako sozietate kooperatibo batek sozietatearen helbidea Europar Batasuneko estatu kide batetik beste estatu kide batera aldatzeko eragiketetan, aukera jasoko da sozietatearen helbidea Espainiatik beste estatu kide batera aldatzen duen sozietatearen lekualdaketaarako proiektuan zein sozietate-erabakian, edo sozietatearen helbidea Espainiara aldatzen duen sozietatearen proiektuan zein sozietate-erabakian, edo egoitza Espainian izan ez arren Espainiako lurraldean establezimendu iraunkorra duen sozietateak egoitza beste estatu kide batera aldatzeko proiektuan zein sozietate-erabakian.

Aukera eskritura publikoan edo eragiketa dokumentatzeko agiri publiko baliokidean jaso behar da. Eragiketa dokumentatzeko erabiliko den eskritura edo agiri hori amaierako estatu kidearen Erregistro Publikoan inskribagarria izan behar da, eta Kontseiluaren 1968ko martxoaren 9ko 68/151/EEE Zuzentzarauan berariaz aurreikusi behar da.

Edonola ere, paragrafo honetan aipatzen den aukera Ogasun eta Finantza Sailari jakinarazi behar zaio, arauz ezarritako eran eta epean.

4. Kapitulu honetan ezarritako araubidea ez da aplikatuko, egindako eragiketaren helburu nagusia zerga-iruzurra edo zerga-itzurpena bada.

Ondorio horietarako, eragiketak horrelakotzat joko dira Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arauko 14. eta 15. artikuluetan ezartzen dena aplikagarri bazaie.

Bereziki, araubidea ez da aplikatuko eragiketa baliozko arrazoi ekonomikoengatik egin beharrean –hala nola, eragiketetan parte hartu duten entitateen jarduerak berregituratzea edo arrazionalizatzea–, zerga-abantailak lortzeko helburu soil-soilarekin egiten bada, betiere eragiketa hori paragrafo honen aurreko idatz-zatian ezartzen diren kasuetan badago.

5. Kapitulu honetan dagoen errenten geroramendu-araubidea ez da bateragarria izango, Foru Arau honek 19. artikuluan ezarritakoarekin bat, hor ezarritako balizko egoerekin, hain zuzen, zergaoinarrian ez integratzea Espainiako lurraldean egoitza ez duten erakundeetan dituzten partaidetzak eskualdatzearen ondoriozkoak diren errentak.

XI. KAPITULUA MEATZARITZAKO ZERGA ARAUBIDEA

105. artikulua. Meatzeak: amortizatzeko askatasuna.

1. Meatzeei buruzko uztailaren 21eko 22/1973 Legearen 3. artikuluko 1. idazatia. idazatiaren C azpidazatian edota Meatzeei buruzko Legea aldarazi zuen azaroaren 5eko 54/1980 legeak sortutako D azpidazatian sailkatutako meatokietako eta bestelako geologi baliabideen, edota aipatu artikuluko A eta B azpidazatietan sartutakoen artean arau bidez orokorrean zehaztutakoen araketa-, azterketa-, ustiapen-, edota onura jarduerak garatzen dituzten erakundeek, meatzaritzako aktiboetan egindako inbertsioekin lotuta eta azalera-kanona dela-eta ordaindutako diru-kopuruei dagokienez, amortizatzeko askatasuna eduki ahal izango dute hamar urtetan, bere zerga oinarrian ustiapenaren emaitza sartuta duen lehenengo zergaldiaren hasieratik kontatzen hasita.

2. Ez da kontutan hartuko aurreko idazatian aipatutako jardueren artean aipatu jarduerak burutzeko edota garatzeko zerbitzu-emate hutsa.

106. artikulua. Agortze-faktorea: ezarpen eremua eta erak.

1. Agortze-faktorea dela eta, esleitzen den diru-kopuruan zerga oinarria murriztu ahal izango dute Meatzeei buruzko uztailaren 21eko 22/1973 Legearen babespean ondorengo baliabide baten edo batzuen aprobetxamendua burutzen duten subjektu pasiboek:
 - a) Meatzeei buruzko uztailaren 21eko 22/1973 Legearen 3. artikuluko 1. idazatia, idazatiaren C azpidazatian, edota Meatzeei buruzko Legea aldarazi zuen azaroaren 5eko 54/1980 legeak sortutako D azpidazatian sartutakoak.
 - b) Aipatutako artikuluko B azpidazatiari dagozkion baina jatorriz naturalak ez diren meatokietatik ateratakoak, beti ere berreskuratutako edo eraldatutako ekoizkinak Meatzeei buruzko Legea aldarazten duen azaroaren 5eko 54/1980 Legeak sortutako C edota D idazatietan sailkatuta badaude.
2. Agortze-faktorea ez da aurreko idazatian aipatutako aprobetxamenduei dagokien zerga oinarriaren 100eko 30 baino handiagoa izango.
3. Hornikuntzarako Plan Nazionalean lehentasunezko zatitako mea-lehengai baten edo batzuen aprobetxamendua burutzen duten erakundeek aukeratu ahal izango dute, baliabide hauei dagokien jardueran, agortze-faktorea saldatutako mearen 100eko 15era artekoa izatea, eurek enpresek geroagoko tratamenduan edota eraldaketan kontsumitutakoa ere hor barruan sartzen delarik. Kasu horretan, agortze-faktorerako zuzkidura ezin izango da izan aipatu aprobetxamenduetatik, eta substantzia horiek eta horiek eratorritako beste batzuk barnean dituzten ekoizkintetatik eta jasotako substantzien tratamendu, eraldaketa, merkaturatze eta salketei dagokien zerga oinarriaren zatia baino handiagoa izan.
4. Nortasun juridiko independentea osatu gabe, meatzaritza jarduerak burutzeko zenbait pertsona fisiko edo juridiko batzen badira, partaide bakoitzak esleitu ahal izango du, jarduera erkidean duen hainbanako partaidetzaren arabera, agortze-faktoreari dagokion zenbatekoa ondorengo artikuluetan ezarritako betebeharrekin.

107. artikulua. Agortze-faktorea: inbertsioa.

Agortze-faktorea dela eta, zerga oinarria txikitu zuten diru-kopuruak ondoren azaltzen diren mehatzaritza jarduerarekin zuzenean lotuta dauden gastu, lan eta ibilgetuetan baino ezin izango dira inbertitu:

- a) Beste meatoki batzuen eta bestelako geologi baliabideen araketa eta ikerketa.
- b) Lortutako ekoizkinen errehabilitazioa edo kalitatea hobetzeko ikerketak..
- c) Artikulu horren a), b) eta d) letretan aipatuta dauden jarduerak eta uztailaren 21eko 22/1973 Legearen 3. artikulua, artikulua C ataleko edo azaroaren 5eko 54/1980 Legeak sortutako D ataleko meatoki eta gainerako geologi baliabideen ustiapenez arduratzen diren enpresen gizarte kapitalaren balore ordezkagarrien harpidetza edo eskurapena. Lehenengo legea meei buruzkoa da; eta bigarrena, Meen Legea aldarazten duena. Honako puntuok aipatu behar dira: mineral erradioaktiboak, baliabide geotermikoak, haitz bituminosoak. Era berean, enpresa horiek beste meatoki edo geologi baliabide batzuen ustiapenez arduratzen dira, baldin eta atal honetan sartzea erabakitze moduko energi interesik badute. Harpidetza edo eskurapen horretarako, kasu bietan, baloreek hamar urteko epean etengabe iraun behar dute erakundearen ondorengorik.

Akzioak edo partaidetzak eskuratu zaizkien enpresek, harpidetzaren ostean, aipatutako enpresaren ezberdina den jarduerarik eginez gero, subjektu pasiboak foru arau honen 109. artikulua, artikulua 1. atalean aipatuta dagoen likidazioa egin beharko du edo harpidetzari dagokion zenbatekoa beharkizunak betetzen dituzten beste inbertsio batzuetan eman.

Berrinbertsio berria aurreko c) letran aipatutako baloreetan eginez gero, baloreok hamar urteko epea betetzeko falta den epealdian zehar iraun beharko dute.

- d) Ustiapena burutzen ari den metokiaren gordelekuari buruzko ezaguera hobea lortzeko ikerketa.
- e) Enpresako meatzaritzako jardueretan ezarri ahal diren ikerketa-laborategiak eta ekipoa.
- f) Erauzketaren industrien hondakinak kudeatzeari buruzkoa, eta meatzeetako jarduerak ukitutako lekuak babestu eta leheneratzeari buruzko ekainaren 12ko 975/2009 Errege Dekretuan ezarritako eraberritze-planetan sartzen diren jarduerak.

108. artikulua. Agortze-faktorea: betebeharrak.

1. Agortze-faktorea dela eta, zergaldi bakoitzean zerga oinarria txikitzen duen zenbatekoa hamar urteko epe barruan inbertitu beharko da, hura amaitutakoan kontatzen hasita.
2. Inbertsioa burutuztat joko da aurreko artikuluan aipatzen diren gastuak edo lanak betetzen direnean edota ibilgetua jasotakoan.
3. Zergaldi bakoitzean erakundearen salbuespen-kontuak gehitu beharko dira, agortze-faktorea dela-eta zerga oinarria murriztu zuen zenbatekoan.
4. Subjektu pasiboak txikipena burutu zen ekitaldiaren ondorengo hamar ekitaldietako txostenean jaso beharko du haren zenbatekoa, haren pentzutan egindako inbertsioak eta burututako amortizazioak, baita aurreko idazatian ezarritakoaren ondorioz gehitu ziren salbuespen-kontuetan egondako urripena eta horren norakoa ere. Ekintza hauek egiaztatu ahal izango dira denboraldi berean zehar.
5. Aurreko 3. idazatia. idazatian xedatutakoa betetzeko eraturako salbuespenak askatasun osoz erabili ahal izango dira bakarrik inbertsioak amortizatuz doazen neurrian, edota fondo horiekin finantzaturako akzioak edo partaidetzak harpidetu zirenetik hamar urte igarotakoan.
6. Agortze-faktorea ezartzeagatik finantzaturako inbertsioak ezin izango zaie foru arau honetako VII. tituluaren IV, V eta VI. kapituluetan ezarritako kenkariei atxiki.

109. artikulua. Agortze-faktorea: betebeharrak ez betetzea.

1. Agortze-faktoreari dagokion zenbateko hori inbertitu gabe, edota behar ez bezala inbertituta hamar urteko epea igarotakoan, bukatutako zergaldiaren zerga oinarrian sartuko da, epe jakin hori edo erabilera desegokia burutu den ekitaldia ahitutakoan, txikipen koerlatiboa burutu zen zergaldiari dagokion zorraren borondatezko ordainketa epealdia bukatzen den egunetik sortzen diren berandutza korrituak likidatu behar direlarik.
2. Erakundearen likidazioa gertatuz gero, agortze-faktoreari ezarri beharreko zenbatekoa zerga oinarrian sartuko da aurreko idazatian ezarritako eran eta ondorioekin.
3. Modu berean jokatuko da mea-ustiapena erabat edo zati batean laga zein besterenganatuz gero, baita bategin, banatu, aktiboa eta pasiboa erabat laga edo erakundeen jardueradarren bat ekarriz gero ere, emaitzazko erakundeak, meatzaritza jarduerarekin jarraituta, erakunde eskualdatzaileak zuen onura finkatzeko beharrezkoak diren beharkizunak betetzea bere gain hartzen ez badu, aurreko erakundearen agertzen zen era berean.

XII. KAPITULUA HIDROKARBURUEN IKERKETA ETA USTIAPENERAKO ZERGA ARAUBIDEA

110. artikulua. Hidrokarburoen araketa, ikerketa eta ustiapena.

Sozietatearen xedetzat, Hidrokarburoen Alorreko urriaren 7ko 34/1998 Legean esaten den bezala, Estatuaren lurraldean eta Espainiako Erresumaren mende dauden lurraldeko itsasoko

lurpean eta hondoan dauden hidrokarbuero naturalen, likido eta gaseosoen iturriak eta lurpeko biltegiak arakatu, ikertu eta ustiatzea bakarrik duten sozietateek, eta horien osagarri gisa erauzitako produktuen garraio, gordetze, arazte eta salmentakoek, zerga oinarrian, agortzearengatik, murrizketa bat egiteko eskubidea izango dute, erakundeak ondoko bien artean zein izango den aukeratuko duelarik:

- a) Hidrokarbueroen salmentaren kontraprestazioaren eta gordetzeko zerbitzuen prestazioaren zenbatekoaren 100eko 25, murrizketa horren aurretiatzko zerga oinarriaren 100eko 50eko mugarekin.
- b) Murrizketa honen aurretiatzko zerga oinarriaren zenbatekoaren 100eko 40.

111. artikulua. Agortzearen faktorea: baldintzak.

1. Emakidadunak agortzearengatik zerga oinarria murriztu zuten zenbatekoak Hidrokarbueroen Alorreko urriaren 7ko 34/1998 Legean esaten den bezala, Estatuaren lurraldean eta Espainiako Erresumaren mende dauden lurraldeko itsasoko lurpean eta hondoan dauden hidrokarbuero naturalen, likido eta gaseosoen iturriak eta lurpeko biltegiak arakatu, ikertu eta ustiatzen inbertituko ditu, baita landak uzten eta itsas plataformak desegiten ere, zerga oinarria agortzearengatik murriztu den zergalditik hamar urteko epean. Berdin joko dira agortzearengatik zerga oinarria murrizten deneko lehenengo zergaldiaren aurreko lau urteetan egindako araketa, ikerketa eta ustiapen jarduerak.

Ondore horietarako, araketa edo ikerketa aurretiatzko azterlan geologiko, geofisiko edo sismikoak izango dira, baita arakatu edo ikertzeko baimenaren eremuan egindako gastu guztiak ere, hala nola, araketa sundatzeak, eta ebaluazio eta garapen gastuak, negatiboak badira, lurretara heldu eta lurra prestatzeko obren gastuak, eta sundatze horiek kokapenak. Emakida batean egin eta, emandako ustiapenaren sorburua daukanaz bestelako egitura bat, hidrokarbueroak eduki edo gordetzeko gai dena, kokatu eta zulatzeko lanak hartzen dituztenak ere araketa eta ikerketa gastutzat joko dira. Landak uztea eta itsas plataformak desegitea produktzioko lurreko instalazioak edo itsasoko plataformak desegiteko behar diren lanak dira, instalazioak zeudeneko lurra eta itsas zatia libre eta garbi lagata, emakidaren Dekretuak dioen bezala.

Ondore horietarako, ustiapeneko inbertsioak ustiapen baten emakidaren eremuan egindakoak izango dira, hala nola, putzuen diseinu, zulaketa eta eraikuntza, ustiapeneko instalazioak, eta ustiapen lanak egin ahal izateko beharrezkoa den bestelako edozein inbertsio, ageriko edo ez-agerikoa, betiere emakidadunak arestian esandako araketa eta ikerketa jardueretan egindako inbertsioak ez badira.

Ondore horietarako, positibo ateratzen diren ebaluazio eta garapeneko sundatzeak ustiapen gisa sartuko dira.

2. Erakundearen erreserbako kontuak zerga oinarria agortzearengatik murriztu zeneko zenbatekoan gehituko dira zergaldi bakoitzean.
3. Arestiko idazatia betez eraturako erreserba libreki baliatu ahal izango dira fondo horiekin finantzaturako ondasunak amortizatuz doazen heinean.
4. Subjektu pasiboak murrizketa egin zeneko ekitaldiaren hurrengo hamar ekitaldien memorian murrizketa horren zenbatekoa, horren kargura egindako inbertsioak, eta egindako amortizazioak jasoko dira, baita arestiko 2. idazatian esandakoaren ondorioz gehitu ziren erreserben kontuetan izandako edozein gutxitze ere, eta zertara xedatu zen. Egitate hauek tarte horretan bertan egiaztatzea gerta liteke, eta horretarako subjektu pasiboak agortzeari exijitutako betekizunak betetzen direla kreditatzen duten euskarri dokumentalak eta kontularitza aurkeztuko ditu.
5. Agortzea aplikatzearen ondorioz finantzaturako inbertsioek ezin izango diete Foru Arau honen VII. Goiburuaren IV., V. eta VI. Kapituluetan finkatutako kenkariei etsi.

112. artikulua. Agortze-faktorea: betekizunak ez betetzea.

1. Agortze-faktoreari dagokion zenbateko hori inbertitu gabe edota behar ez bezala inbertituta hamar urteko epea igarotakoan, bukatutako zergaldiaren zerga oinarrian sartuko da, epe jakin hori edota erabilera desegokia burutu den ekitaldia ahitutakoan, txikipen koerlatiboa burutu zen zergaldiari dagokion zorraren borondatezko ordainketa-aldia bukatzen den egunetik sortzen diren berandutza korrituak likidatu behar direlarik.
2. Erakundearen likidazioa gertatuz gero, agortze-faktoreari ezarri beharreko zenbatekoa zerga oinarri sartuko da aurreko idazatian ezarritako eran eta ondorioekin.
3. Modu berean jokatu da lagapena edo erabateko zein zatikako besterentze gertatuz gero, baita bat egin, banatu, aktiboa eta pasiboa erabat laga edo jarduera-adarren bat ekarriz gero ere, jarraituko duen erakundearen jardueren sozietate-helburua, soilki, foru arau honen 110. artikulua. artikuluan ezarritakoa ez bada, eta erakunde eskualdatzaileak zuen onura sendotzeko beharrezkoak diren beharkizunak betetzea bere gain hartzen ez badu, aurreko erakundearen agertzen zen era berean.

113. artikulua. Titulartasun konpartitua.

Ikerketarako baimen baten edota ustiapen emakida baten titulartasuna zenbait sozietateren artean banatuta dagoenean, partaide den erakunde bakoitzari esleituko zaizkio egozkarri zaizkion diru-sarrerak, gastuak ondare-elementuen eskualdatzeak eratorritako errentak eta inbertsioak, partaidetza mailaren arabera.

114. artikulua. Inbertsio ezmaterialen eta ikerketa gastuen amortizazioa. Zerga oinarri negatiboen konpentsazioa.

1. Ikerketa izaerako gastuak eta aktibo ukiezinak, indarreko edo iraungitako baimen eta emakidetan egin direnean, aktibo ezmaterialtzat joko dira egin diren unetik, eta 100eko 50eko gehieneko urteko kuotan amortizatu ahal izango dira. Aurretiko lan geologiko, geofisiko eta sismikoak eta sarbideak egiteko eta lurrak prestatzeko obrak zein ustiaketa, ebaluazio eta garapen zundaketak eta putzuak berregokitu eta meatokiak artatzeko eragiketak kontzeptu honen barruan sartuko dira.

Ikerketa izaerako gastuen eta aktibo ukiezinaren gehienezko amortizazio aldirik ez da izango.

2. Aktiboaren osagai ukikorrek «ekoizpen unitatea» irizpideari jarraituz amortizatu ahal izango dira, Administrazioak foru arau honetako 11. artikuluko 2. idazati. idazatik d) letran ezarritako eran onartutako planaren arabera.
3. Foru arau honetako 110. artikulua. artikuluan aipatu erakundeek hurrengo ekitaldietako zerga oinarriak haietariko bakoitzaren 100eko 50eko urteko gehieneko zenbatekoan txikitzeko prozeduraren bidez konpentsatuko dituzte beren zerga oinarri negatiboak.

Zerga oinarri negatiboen konpentsazio prozedura hau foru arau honetako 24. artikulua. artikuluan ezarritakoa ordezkatzera dator.

XIII. KAPITULUA NAZIOARTEKO ZERGA GARDENTASUNA

115. artikulua. Erakunde ez-egoiliarrek lortutako zenbait errenta positiboren zerga oinarriaren barruan sartzea.

1. Erakundeek beren zerga oinarrian sartuko dute espainiar lurraldean egoitza ez duen erakunde batek lortutako errenta positiboa, baldin eta errenta horiei 2. idazatia. idazatian ezarritako motaren bati badagokio eta ondorengo inguruabarrak betetzen badira:
 - a) Beraiek bakarrik edota foru arau honen 16. artikulua. artikulua arabera lortutako pertsona edo erakundeekin batera kapitalean, berezko fondoetan, emaitzetan edo

egoitza espainiar lurraldean ez duen erakundeko boto-eskubideen 100eko 50eko edo gehiagoko partaidetza izatea, azken honen ekitaldi soziala ixteko egunean.

Egoitza espainiar lurraldean duten erakunde lotuek duten partaidetza egoitza lurralde espainiarrean duten pertsona edo erakunde lotuetan zehaztutako zeharkako partaidetzaren zenbatekoaren arabera kontatuko da.

Sartu beharreko errenta positiboaren zenbatekoa emaitzen partaidetzaren proportzioan zehaztuko da, eta hori ezean, kapitalean, fondoetan eta boto-eskubidean duten partaidetzaren arabera.

- b) Egoitza espainiar estatuan ez duen erakundeak ordaindutako zenbatekoa, zerga honen izaera berdina edo antzekoa duen kargagatik 2. idazatia. idazatian ezarritako errenta-motaren bati egozkarria dena, horren arauen arabera legokiokeen 100eko 75 baino gutxiago izatea.
- c) Egoitza Europar Batasuneko beste estatu batean ez edukitzea, eta subjektu pasiboak frogatzea eratzeko eta jarduteko arrazoi ekonomiko baliozkoak izan dituela eta enpresa jarduerak egiten dituela.

2. Zerga oinarrian ondorengo iturri bakoitzetik etorritako errenta positiboa baino ez da sartuko:

- a) Hiri- zein landa-ondasun higiezin, edota berorien gainean berrerortzen diren eskubide errealeen titulartasuna, baldin eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko azaroaren 27ko 7/1991 Foru Arauaren 6 eta 40. artikuluetan xedatutakoarekin bat enpresa jardueraren bati lotuta ez badaude, edota horien erabilpena egoiliar ez diren erakundeei lagata ez badago, titularra den sozietate-multzoto berekoak izanik Merkataritzako Kodearen 42. artikulua. artikuluen ildotik.
- b) Edozein erakunde-motak dituen berezko fondoetako partaidetza eta norbere kapitalen hirugarren batzuei egindako lagapena, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko azaroaren 27ko 7/1991 Foru Arauaren 37. artikulua. artikuluko 1 eta 2. idazati. idazatietan ezarritako eran.

Ez da letra honetan sartuko ondorengo finantza-aktiboek eratorritako errenta positiboa:

- a') Enpresa jardueren egikaritzak sortarazitako legezko eta araudizko betebeharrak betetzeko dituztenak.
- b') Enpresa jardueren garapenaren ondorioz ezarritako kontratuzko harremanetatik jaiotako kreditu-eskubideak sartzen dituztenak.
- c') Balore-merkatu ofizialetan bitartekaritza jardueren egikaritzaren ondorioz dituztenak.
- d') Kreditu- eta aseguru-erakundeek beren jardueren egikaritzaren ondorioz dituztenak, c) letran ezarritakoaren kalterik gabe.

Norbere kapitalak hirugarren batzuei lagatzeak eratorritako errenta positiboa ondorengo c) letran aipatuko diren kreditu- eta finantza-jarduerak burutzetik datorrela ulertuko da, lagatzailea eta lagapen-hartzailea sozietate-talde batekoak direnean Merkataritzako Kodearen 42. artikulua. artikuluen ildotik eta lagapen-hartzailearen diru-sarrerak, 100eko 85ean gutxienez, enpresa jardueren egikaritzatik datorrenean.

- c) Kreditu-, finantza-, aseguru- eta zerbitzuen emate-jarduerak esportazio jarduerekin zuzenean lotuta daudenak izan ezik, egoitza espainiar lurraldean duten pertsona zein erakundeekin burututakoak horiek, zuzenean edo zeharka, eta foru arau honen 16. artikulua. artikuluen ildotik lotuak, erakunde egoiliar horietan zergatik kendu ahal diren gastuak zehazten dituzten neurrian.

Ez da errenta positiboan sartuko egoiliar ez den erakundeak burututako kreditu-, finantza-, aseguru- eta zerbitzuen emate-jarduerak eratorritako diru-sarreraren 100eko 50 baino gehiago, zuzenean esportazio jarduerekin lotutakoak salbu, foru arau honen 16. artikulua. artikulua. artikulua ildotik loturiko pertsona zein erakundeekin bururatu ez diren eragiketetatik datorrenean.

- d) Bestalde, a) eta b) letretan aipatzen diren eta errentak sortarazten dituzten ondasunen eta eskubideen eskualdaketak.

Ez dira sartuko aurreko a), b) eta d) letretan ezarritako errentak, egoiliar ez den erakundeak lortutakoak, zuzenean edo zeharka, 100eko 5ean baino gehiagotan parte hartzen duten erakundeetatik etorriak edo eratorriak, ondorengo bi beharkizun hauek betetzen direnean:

- a') Egoiliar ez den erakundetak partaidetzak zuzentzea eta kudeatzea, horretarako giza baliabideak eta materialak antolaketuz.
- b') Errentak ematen dituzten erakundearen diru-sarrerak, gutxienez 100eko 85ean, enpresa jarduerak egitetik etortzea.

Honetarako, ulertuko da enpresa jarduerak egitetik datozela a), b) eta d) letretan ezarritako errentak, jatorria aurreko b') letrako beharkizuna betetzen duten erakundeetan izan dutenak eta, zuzenean edo zeharka, egoiliar ez den erakundearen 100eko 5 baino gehiagoko partaidetza ematen dutenean.

3. Ez dira sartuko aurreko idazatik a), b) eta d) letretan ezarritako errentak horien zenbatekoen batura errenta osoaren 100eko 15 baino gutxiago bada, edota egoiliar ez den erakundearen diru-sarrera guztien 100eko 4 baino gutxiago.

Aurreko lerroaldean ezarritako mugak, Merkataritzako Kodearen 42. artikulua. artikulua ildotik, sozietate-multzo batekoak diren eta egoitza espainiar lurraldean ez duten erakunde multzoak lortutako errenta edo diru-sarrerei buruzkoak izan daitezke.

Inoiz ez da sartuko egoiliar ez den erakunde baten errenta osoa baino zenbateko handiagoa.

4. Ez dira sartuko artikulua honetako 2. idazatia. idazatian aipatu diren errentak, egoitza Espainian duten erakundeek izan baina zergatik kendu ezin diren gastuei dagozkienean.
5. Artikulu honetako 1. idazati. idazatik a) letraren barruan dauden erakundeek sartu egin beharko dituzte errentak, erakunde ez-egoiliarrean zuzenean parte hartzen badute edota zeharka, beste erakunde ez-egoiliar bat edo batzuen bitartez. Azken kasu honetan errenta positiboaren zenbatekoa zeharkako partaidetzari dagokiona izango da.
6. Egoitza espainiar lurraldean ez duen erakundeak bere ekitaldi soziala bukatzen duen eguna barne hartzen duen zergaldian egingo da sarrera. Sozietate horren ekitaldiak ezin izango du 12 hilabete baino gehiago iraun, horretarako subjektu pasiboak sarrera hori burutzeko ekitaldi horri dagozkion kontuak onartzeko eguna barne hartzen duen zergaldia aukeratzeko ez badu, beti ere hura bukatutako egunetik kontatzen hasita 6 hilabete baino gehiago igarotzen ez badira.

Aukera ondoreak ekarriko dituen lehenengo zergaren aitorpenean azalduko da, eta horrela jarraituko du hiru urtez.

7. Zerga oinarriaren barruan sartu beharreko errenta positiboaren zenbatekoa foru arau honetan zerga oinarria zehazteko zerga honi buruzko beste xedapenetan ezarritako printzipio eta irizpideen arabera kalkulatu da. Errenta osotzat joko da irizpide eta printzipio hauek ezartzetik gertatzen den zerga oinarriaren zenbatekoa.

Horretarako, egoitza espainiar lurraldean ez duen erakundearen ekitaldi soziala ixtean indarrean dagoen truke-tasa erabiliko da.

8. Zerga oinarriaren barruan sartutako errenta positiboari dagokion zatiari dagokionez, dibidenduak edota mozkinetako partaidetzak ez dira zerga oinarrian sartuko. Tratamendu bera ezarriko zaie konturako dibidenduei.

Salbuespenen banaketa egonez gero, sozietatearen erabakian izeneztatuta dagoenari begiratuko zaio, ordaindutako azken diru-kopuruak salbuespen horiei ezarrita daudela ulertzen delarik.

Errenta positibo bera behin baino ez da sargai izango, agertzen den era eta erakundea edozein izanik ere.

9. Ondorengo kontzeptuak kuota osotik kendu ahal izango dira:

- a) Zerga honen izaera berdina edo antzekoa duten zerga edo kargak, benetan ordainduak, zerga oinarriaren barruan sartutako errenta positiboari dagokion zatian.

Benetan ordaindutako zergatzat hartuko dira, egoiliar ez den erakundeak zein berorren sozietate partehartzaileek ordaindutakoak, beti ere hark foru arau honen 19. artikulua. artikuluan ezarritako partaidetza-portzentaia duenean horien gainean.

- b) Dibidenduen banaketaren edo mozkinetako partaidetzen zioz, atzerrian benetan ordaindutako zerga edo karga bat datorrenean ezarpen bikoitza eragozteko hitzarmen batekin, edo bestela kasuko lurralde edo lurraldeko barne-legeriari lotzen zaionean, aldeztatik zerga oinarriaren barruan sartutako errenta positiboari dagokion zatian.

Egoiliar ez den erakundearen gaineko partaidetza zeharkakoa denean, beste erakunde ez-egoiliar baten edo batzuen bitartez, hark edo haiek benetan ordaindutako zerga honen izaera berdina edo antzekoa duen zerga edo karga kenduko da, aldeztatik zerga oinarriaren barruan sartutako errenta positiboari dagokion zatian.

Kenkari hauek egin egingo dira, nahiz eta zergak sarrera burutu zen zergaldia ez den beste batzuei dagozkien.

Inoiz ez dira kenduko arau bidez paradisu fiskaltzat jotako lurraldeetan edo lurraldeetan ordaindutako zergak.

a) eta b) letretako kenkarien batura ezin izango da izan zerga oinarriaren barruan sartutako errenta positiboaren ondorioz zerga hau dela-eta ordaindu beharreko kuota osoa baino gehiago.

10. Partaidetza zuzen zein zeharkakoaren eskualdaketaren ondoriozko errenta kalkulatzeko, erosketaren balioari, izatezko banaketarik gabe, bazkideen zerga oinarrian erostetik saldu arteko tartean beren akzio edo partaidetzen errenta gisa sartutako errenta positiboaren zenbatekoan gehituko zaio.

Foru Arau honek xedatutakoaren arabera ondarezkotzat jo beharko liratekeen sozietateen kasuan, zenbatuko den eskualdaketa balioa, gutxienez, itxitako azkeneko balantzearen emaitzazko teorikoa izango da, behin aktiboen balioaren truke Ondarearen gaineko Zergaren ondoretarako izango luketen balioa edo, txikiagoa balitz, merkatuko balio normala jarrita.

11. Artikulu honetan ezarritakoa erabiliko duten subjektu pasiboek Zerga aitortzen honekin batera egoitza espainiar lurraldean ez duen erakundeari buruzko ondorengo datuak aurkeztu behar izango dituzte:

- a) Sozietatearen izen edo izendazioa, eta sozietatearen egoitzaren lekua

- b) Administratzaileen zerrenda.
 - c) Galeren eta irabazien balantzea eta kontua.
 - d) Zerga oinarriaren barruan sartu beharreko errenta positiboaren zenbatekoa.
 - e) Zerga oinarrian sartu beharreko errenta positiboaren zioz ordaindutako zergen frogaketa.
12. Partaidetza ematen duen erakundeak egoitza arau bidez paradisu fiskal modura sailkatutako lurralde edo lurraldeetan badauka, hauxe uste izango da:
- a) Aurreko 1. idazati. idazatik b) letran ezarritako inguruabarra betetzen dela.
 - b) Partaidetza ematen duen erakundeak lortutako errenta aurreko 2. idazatia. idazatian aipaten diren errenta-iturrietatik datorrela.
 - c) Partaidetza ematen duen erakundeak lortutako errenta partaidetzaren eskuraketaren balioaren 100eko 15 dela.

Aurreko letretako ustezkotasunek kontrako frogak onartuko dituzte.

Aurreko letretako ustezkotasunak ez dira ezarriko partaidetza ematen duen erakundeak kontuak bateratzen dituenean, Merkataritzako Kodearen 42. artikulua. artikuluan ezarritakoaren arabera, sartzera behartuta dauden erakunderen batekin edo batzuekin.

13. Artikulu honetan ezarritakoa foru arau honen 3. artikulua. artikuluan eta 8.2. artikulua. artikuluan ezarritakoaren kalterik gabe ulertuko da.
14. artikulu honetarako, ulertuko da Merkataritzako Kodearen 42. artikulua. artikuluan aipatzen den sozietate-multzoa, urteko kontu sendotuen azalpenerako arauetako lehenengo kapituluko 1 eta 2. sekzioetan agertzen dena dela, abenduaren 20ko 1.815/1991 Errege Dekretuaren bidez onetsitakoak.

XIV. KAPITULUA

FINANTZA-ERRENTAMENDUKO ZENBAIT KONTRATUREN ZERGA ARAUBIDEA

116. artikulua. Finantza-errentamenduko kontratuak.

1. Artikulu honetan oharre ematen dena aplikagarri izango zaie ondasun higikor edo higiezin erabilera lagatzeko xede hutsezko finantza-errentamenduko kontratuak, ondasunok, geroko baliatzaileak zehaztutakoaren arabera, artikulu honetako 2. atalean aipatzen diren kuoten aldizkako ordainketan datzan kontraprestazioaren truk, horretarako eskuratuak direnean. Lagapenaren gai diren ondasunak baliatzailearen nekazaritza, arrantza, industria, merkataritza, artisautza, zerbitzugintza edo lanbidezko ustiatzei soilik atxikita geratu beharko dira. Finantza-errentamenduko kontratuak, iraunaldiaren amaieran, baliatzailearen aldeko erosteko aukera bilduko du, nahitaez.

Edozein zio dela-eta, baliatzaileak kontratuaren gai den ondasuna eskuratzen ez badu, errentatzaileak beste baliatzaile bati lagatu ahal izango dio, aurreko lerroaldean ezarri den printzipioa hautsitakotzat jotzen ez dela ondasuna baliatzaile berri horren zehaztepenen arabera eskuratua ez izanagatik.

2. Aurreko idazatian aipatu diren kontratuen iraupena bi urtekoa izango da gutxienez ondasun higikorrek direnean kontratugai, eta hamar urtekoa ondasun higiezinak edo industri establezimenduak direnean. Hala ere, gehiegizko eginerak eragozteko, arau bidez ezarri ahal izango dira gutxieneko beste iraupen epe batzuk, kontratugai izan daitezkeen ondasun desberdinen ezaugarrien arabera.

3. Finantza-errentamenduaren kuotak kontratuetan adierazita agertu beharko dira desberdinduz, erakunde errentatzaileak ondasunaren kostuaren berreskuratzeari dagokion zatia, erosteko aukeraren balioa baztertuta, eta horrek eskatzen duen finantza-zama, hori guztia legokiokeen zeharkako kargaren ezarpenaren kalterik gabe.
4. Ondasunaren kostuaren berreskuraketari dagokion finantza-errentamenduaren kuoten zatiaren urteko zenbatekoak berdin jarraitu beharko du edo bestela kontratu-aldian zehar izaera hazkorra izango du.
5. Edozein kasutan ere, erakunde errentatzaileari ordaindutako finantza-zama zergatik ken litekeen gastutzat joko da.
6. Berdin gertatuko da ondasunaren kostuaren berreskuraketari dagozkion eta ordainduta dauden finantza-errentamenduen kuoten zatian, kontratugai direnak lurrak, orubeak eta aktibo amortizaezin batzuk direnean izan ezik. Baldintza hori eragiketaren xedeko ondasun batean baino gertatzen ez denean, amortizagarriak diren elementuei dagokien proportzioan bakarrik kendu ahal izango da, eta horri dagokion kontratuan adierazi beharko da diferentzia eginez.

Aurreko idazatian xedatutakoaren arabera, kopuru kengarriaren zenbatekoa ezin izango da izan, ondasunaren kostuari foru arau honen 11. artikuluko 2. idazatia. idazatian jasotako eta aipatu ondasun horri dagokion taularen araberako amortizazio linealaren koefizientearen bikoitza ezartzetiko emaitza baino handiagoa. Gaindikina ondorengo zergaldietan kendu ahal izango da, muga berbera errespetatuz. Aipatu muga hori kalkulatzeko, ondasuna jarduteko moduan jartzen den muga hartuko da kontutan.

VIII. tituluko II. kapituluan aipatzen diren subjektu pasiboak direnean, foru arau honen 11. artikuluko 2. eta 3. idazatian jasotako taularen araberako amortizazio linealaren koefizientearen bikoitza bider 1,5 hartuko da kontutan, eraikinen kasuan izan ezik

7. Aurreko idazatian aipatu diren kopuruen kenkaria ez dago baldintzatuta galera eta irabazien kontuko kontabilitatean egoztera.
8. ...
9. Artikulu honetako baldintzak betetzen dituen finantzaerrentamendu baten bidez aktiboak eskuratzen dituzten subjektu pasiboek artikulu honetan bertan arautzen den zerga araubide berezia ez aplikatzea aukera dezakete. Eta horrela egiten badute, 11.artikuluko arau orokorren edo subjektu pasibo horiei aplikagarriazaien zerga araubide berezian zehazten diren arauen araberakoamortizazio kuoten besteko zenbatekoa izango da kengarria.
10. Erakunde errentatzaileek aukeratu ahal izango dute, Zerga Administrazioari jakinerazirik arau bidez ezartzen den prozeduraren arabera, 6. idatz-zatiko data eta aktiboa eraikitzen benetan hasi izanaren momentua berbera direla, betiere hurrengo betekizunak denak aldi berean bete izana aintzat hartua
 - a) Aktiboak finantza-errendamenduko kontratu baten ibilgetu material direnean eta aktiboaren eraikuntza amaitu baino lehenago era adierazgarrian ordaintzen direnean aitatutako kontratuaren kuotak.
 - b) Aktibo horien eraikuntza gutxienez 12 hilabeteko epean denean.
 - c) Aktiboak betekizun tekniko eta diseinuzko bereziak dituztenean, eta ez direnean serieko produkziokoak.

XV. KAPITULUA
ATZERRIKO BALOREAK DAUZKATEN ERAKUNDEEN ARAUBIDEA

117. artikulua. Atzerriko balioen edukitzeko erakundeak.

1. Kapitulu honetan aurreikusitako araubideari xedetzat espainiar lurraldeko egoileak ez diren erakundeen fondo propioak ordezkatzan dituzten balioak bitarteko materialen eta giza baliabideen antolamendu egokiaren bidez kudeatu eta administratzeko jardura duten sozietateek eutsi ahal izango diote.

Atzerriko balioen edukitzeko erakundearen kapitala ordezkatzan duten balio edo partaidetzak nominatiboak izango dira.

2. Interes ekonomikoko espainiar eta europar elkarrean, eta enpresen aldi baterako batasunen edo ondarezko sozietateen araubide berezien mende dauden erakundeek ezin izango diote Kapitulu honetako araubideari eutsi.

118. artikulua. Espainiako lurraldean egoitza ez duten erakundeen berezko fondoan balore adierazgarriak edukitzeak eragin dituen errentak.

Espainiako lurraldean egoitza ez duten erakundeen dibidenduak eta mozkin partaidetzak ez dira integratuko zerga oinarrian, ez eta partaidetza foru arau honetako 19. artikuluan ezarritako baldintzen eta betekizunen arabera eskualdatuta lortzen diren errenta positiboak ere.

118 bis. artikulua. Mozkinak banatzea. Partaidetza eskualdatzea Mozkinen banaketa.

1. Aurreko artikulua aipatzen dituen sartu gabeko errenten kargura banatu diren mozkinekin, era honetan jokatuko da:
 - a) Hartzailea Zerga honi lotutako erakunde bat bada, jasotako mozkinen eskubidea emango dute kenkaria izateko, dibidenduen zergapetze bikoitza dela eta, Foru Arau honek 33. artikuluan ezarritako eran.
 - b) Hartzailea Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zergaduna bada, banatutako mozkinak ez du eskubiderik emango kenkaria izateko dibidenduen zergapetze bikoitza dela eta. Alabaina, baloreak dituen erakundeak atzerrian ordaindutako zergei dagokionez –galdutako mozkinak osatzen lagundu duten salbuetsitako errentarenak direnei dagokionez–, kenkaria ezarri ahal izango da nazioarteko zergapetze bikoitzagatik, abenduaren 21eko 10/1998 Foru Arauak, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergarenak, 82. artikuluan ezarritako eran.
 - c) Hartzailea Espainiako lurraldean egoitza ez duen erakundea edo pertsona fisikoa bada, banatutako mozkinak ez da Espainiako lurraldean lortutako mozkinatzat joko. Espainian kokatutako establezimendu iraunkorra bada, a) letran xedatutakoa ezarriko da. Jaulkipen-prima banatzeko, letra horretan mozkinak banatzeko ezarrita dagoen trataera aintzat hartuko da.

Ondorio horietarako, banatutako lehen mozkinak salbuetsita dauden errentetatik datorrela joko da.

2. Baloreak dituen erakundearen dagoen partaidetza eskualdatzean eskuratu diren errentekin, eta bazkidea banatzean edota erakundea kitatzean lortutakoekin honela jokatuko da:
 - a) Hartzailea Zerga honi lotutako erakundea bada, edo Espainiako lurraldean egoitza duen establezimendu iraunkorra bada, eta betetzen badu atzerriko baloreak dituen erakundearen partaidetza izateko betekizuna, Foru Arau honek 33. artikuluan 5. idatzatzen ezarri duen legez, orduan barne-zergapetze bikoitza dela-eta kenkaria aplikatu ahal izango da, artikulua horretan ezarritako moduan. Balizko egoera berean, Foru Arau honek 19. artikuluan ezarri duen eran, zerga-oinarrian integratu gabe utzi ahal izango da eskuratutako errentaren zati bat, hain zuzen, erakunde ez-egoiliarren partaidetzei

egotzi ahal zaizkien balore-diferentziei dagokiena, eta, erakunde horiekiko, baloreak dituen erakundeak betetzen baditu Foru Arau honek, 118. artikuluan, atzerriko errentak ez integratzeko ezarritako betekizunak.

- b) Hartzailea Espainiako lurraldean egoitza ez duen erakunde edo pertsona fisiko bat bada, ez da Espainiako lurraldean lortutakotzat joko, Foru Arau honek 19. artikuluan aipatzen dituen salbuetsitako errenten kargura zuzkitutako erreserbei dagokien errenta, ezta artikuluko horretako 3. idatz-zatiak aipatzen dituen betekizunak betetzen dituzten erakunde ez-egoiliarren partaidetzei egotzi ahal zaien balore-diferentziei dagokienak..
- 3. Baloreak dituen erakundeak txostenean aipatu beharko ditu salbuetsitako errenten zenbatekoa eta eurei dagozkien atzerrian ordaindutako zergak; eta bazkideei behar duten informazioa eman beharko die, bazkideek aurreko idatz-zatietan ezarritakoa bete ahal izateko.
- 4. Errentaren hartzaileak zerga-paradisutzat arauz jotako herri edo lurralde batean egoitza badu, ez da aplikatuko artikuluko horretako 1. idatz-zatiaren c) letran eta 2. idatz-zatiaren b) letran ezarritakoa.

119. artikulua. Atzerriko baloreak dituzten erakundeen araubidea ezartzea.

- 1. Atzerriko baloreak dituzten erakundeen araubidearen aukera jakinarazi behako zaio Ogasun eta Finantza Saileko foru diputatuari. Araubidea ezarriko zaio jakinarazpena egin ostean amaitzen den zergaldiari eta ondorengoei, araubideari uko egiten zaiola Ogasun eta Finantzak Saileko foru diputatuari jakinarazi aurretik amaitzen badira.

Arauz, jakinarazpenaren betekizunak eta horrekin batera eman beharreko informazioaren edukiarenak ezarri ahal izango dira..

- 2. Araubidearen onura izateko, berari dagokion balizkoak bete beharko dira, eta horiek, lehenik, subjektu pasiboak onartu beharko ditu zerga-administrazioaren eskakizunez.
- 3. Diruzkoak ez diren ekarpenek, Espainiako lurraldean egoitza ez duten erakundeen berezko fondoen balore adierazgarriei dagozkienek, Foru Arau honek 101. artikuluan ezarritako araubidearen onura izango dute, ekarpen horiek baloreak dituen erakundearen partaidetzen ehunekoa edozein izanda ere, eta baldin eta balore horiek eragindako errentek Foru Arau honek 19. artikuluan ezarritako araubidearen onura izan ahal badute.

XVI. KAPITULUA PARTZIALKI SALBUETSITAKO ERAKUNDEEN ARAUBIDEA

120. artikulua. Ezarpen eremua.

Araubide hau ondorengo erakundeei ezarriko zaie:

- a) Irabazizkoak ez diren erakundeen eta mezenasgorako zerga-pizgarrien zerga-araubideari buruzko Foru Arauan ezarritako zerga-araubidea edukitzeko baldintzak betetzen ez dituzten eta irabazizkoak ez diren erakundeak
- b) Kooperatiba-batasun, federakunde eta konfederakundeei.
- c) Elkargo, enpresen eta profesionalen erkidego, ganbara ofizial, hiri-jabetzako ganbara, merkataritza, gintza eta itsasketa ganbara, nekazal ganbara, arrantzaleen kofradia, langileen sindikatu eta alderdi politikoei.
- d) Birmoldaketa eta Berrindustrializazioari buruzko uztailaren 26ko 27/1984 Legearen 22. artikulua. artikuluaaren itzalpean eratutako lan sustapenerako fundoei.
- e) Gizarte Segurantzako lan-istripuetako eta lan-gaixotasunetako mutuei, eurek duten erregulazte-arauegian ezarritako beharkizunak betetzen dituztenean.

121. artikulua. Salbuetsitako errentak.

1. Aurreko artikuluan aipatutako erakundeek lorturiko errenta hauek salbuetsita egongo dira:
 - a) Euren helburu soziala edo xede bereziaosatzen duten jarduerak egitearen ondoriozkoak.
 - b) Irabazizko eskuratzeen eta eskualdatzeen eraginezkoak, baldin eta batzuk eta besteak euren helburua edo xedea betetzeko lortzen edo egiten badira.
 - c) Helburu edo xede berezia egiteari lotutako ondasunen kostu bidezko eskualdatzean adierazten direnak, lortutako zenbateko osoa helburu edo xede horri lotutako inbertsio berrietarako erabiltzen denean.

Inbertsio berriak, bestalde, ondare-elementua emateko dataren aurreko urtearen eta hurrengo hiru urteen bitarteko epean egingo dira, eta gainera, zazpi urtetan edukiko dira erakundearen ondarearen barruan, euren bizitza erabilgarria (foru arau honetako 11. artikuluko 2., 3., 5. eta 6. ataletan onartutako amortizazio-metodoaren arabera, laburragoa denean izan ezik.

Inbertsio berria, berriz, kasuan kasuko ondare-elementuak ematen direnean egindakotzat hartuko da.

Inbertsioa adierazitako epean egin ezean, lortutako errentari dagokion kuota osoaren zatia, berandutza-interesekin batera, epea amaitzeko zerga-aldiari dagokion kuotarekin batera ordainduko da.

Elementu horiek aipatutako epea amaitu orduko eskualdatuz gero, zergapetu gabeko errenta-zatiaren zerga-oinarria ordainduko da, lorturiko zenbatekoa berriro inbertitzen denean izan ezik.

2. Aurreko paragrafoan aipatutako salbuespenaren barruan dira sartuko ustiapen ekonomikoen etekinak, ondaretik datozenerrentak eta eskualdatzeetan, paragrafo horretan aipatzen ez direnetan, lortutako errentak.

Alberdi politikoen kasuan, salbuetsita geratuko dira haien ondaeraosatzen duten ondasun eskubideetatik datozen etekinak orobat salbuetsita geratuko dira haien berezko ustiapen ekonomikoentekinak, baldin eta Zerga Administrazioak halakotzak aitortzen baditu, betiere alderdiek, aurretik, salbuetsita geratzea eskatu badute.

Alberdi politikoen lortutako errentak salbuetsita egongo dira artikuluko honetan ezartzen denaren arabera, beraz, ez da errenta horiengaineko atxikipenik edo konturako sarrerarik egin behar.

Arauz zehaztuko da alderdi politikoen atxikitze betebeharretik salbuetsita geratzeko behar duten kreditazioa lortzeko prozedura

3. Ustiapen ekonomiko bateko errendimendutzat hartuko dira lan pertsonalaren eta kapitalaren ondoriozkoak (edo bi faktore horietariko baten ondoriozkoak), baldin eta subjektu pasiboak bere kontura antolatzen baditu produkzio-bideak eta giza baliabideak (edo bi faktore horietariko bat), ondasunen edo zerbitzuen produkzioan nahiz banaketan esku hartzeko.

122. artikulua. Zerga-oinarriaren zehaztapena.

1. Zerga-oinarria foru arau honetako IV. tituluaren ezarritako arauak aplikatuz kalkulatu da.
2. Foru Arau honetako 14. artikuluan ezarritakoak ez ezik, honako hauek ere ez dira gastu kengarritzat hartuko:

- a) Salbuetsitako errenitei soilik egozteko moduko gastuak. Salbuetsi gabeko errenitei neurri batean egozteko modukoak diren gastuak kengarriak izango dira, salbuetsi gabeko ustiapen ekonomikoen ekitaldian lortutako eragiketa bolumenak erakundearen guztizko eragiketa bolumenaren aldean egiten duen ehunekoan.
- b) Eraitzen aplikaziokoak diren zenbatekoak eta, hain zuzen ere, aurreko artikuluko 1. ataleko a) paragrafoan aipaturiko salbuetsitako jarduerak eusteko erabiltzen direnak.

XVII. KAPITULUA

ETXEBIZITZEN ERRENTAMENDUAK LANTZEN DITUZTEN ERAKUNDEAK

122 bis. artikulua. Aplikazio-eremua.

1. Kapitulu honetan ezarritako araubideari jarduera ekonomiko nagusia Espainiako lurraldean dauden etxebizitzak errentatzea duten sozietateek heldu ahal diote.

Jarduera hori bateragarria izango da negozio-lokaletan eta garaje-plazetan inbertitzearekin, errentatzeko asmoarekin, baldin eta horien baterako kontabilitate-balioa erakundearen etxebizitza-inbertsioen kontabilitate-balioaren % 20 baino gehiago ez bada.

Honen ondoreetarako, etxebizitzaren errentamendutzat Hiri Errentamenduei buruzko azaroaren 24ko 29/1994 Legeko 2. artikuluan ezarritakoa soilik hartuko da, eta gainera lege horretan etxebizitzaren errentamenduen kontratuetarako ezarritako betekizunak eta baldintzak bete behar dira.

2. Kapitulu honetan ezarritako zerga-araubide berezia aplikatzeko ondokoak bete behar dira nahitaez:
 - a) Errentatzeko diren etxebizitzaren % 90ek ezin dituzte eduki 110 metro koadro baino gehiago eraikita.
 - b) Erakundeak bere jabetzako 10 etxebizitza eduki behar ditu gutxienez errentatuta edo errentatzeko. Etxebizitzaren errentamenduan gehienez ere eraikin bereko bi garaje-plaza eta eranskinak, negozio-lokalak salbu, sartu daitezke, etxebizitzarekin batera errentatuz gero.

Etxebizitzaren kopurua konputatzean ez dira kontuan izango loturiko pertsona edo erakundeei errentatutakoak, foru arau honetako 16. artikuluan ezarritakoaren arabera.

3. Araubide hau aplikatzea hautatuz gero, Zerga Administrazioari jakinarazi behar zaio. Araubide berezi hau hautapenaren berri eman ondoren amaitzen den zergaldian, eta hurrengoetan ere bai Zerga Administrazioari uko egin nahi zaiola adierazi arte.

Arau bidez berriematearen betekizunak eta bertan eman beharreko informazioa zehaztu ahal izango dira.

4. Erakunde bati VIII. tituluko gainerako araubide berezietako bat aplikatu ahal bazaio (zerga-baterakuntzaren araubidea, nazioarteko zerga-gardentasunaren araubidea eta bategiteen, zatiketen, aktiboen ekarpenen, balore-trukeen eta aktiboaren eta pasiboaren lagapen osoen araubidea ez besteetako bat), ezin hautatu izango du kapitulu honetan ezarritako araubidea, hurrengo paragrafoan ezarritakoa eragotzi gabe.

Foru arau honetako 49. artikuluan ezarritakoaren arabera enpresa txikien eta ertainen araubidea (foru arau honetako VIII. tituluko II. kapituluan ezarritakoa) aplikatu ahal zaien erakundeek horren eta kapitulu honetako araubidearen artean hautatu ahal izango dute.

122 ter. artikulua. Zerga-erregimen.

1. Aurreko artikuluan ezarritako betekizunak betetzen dituzten erakundeek % 90eko hobaria aplikatu ahal dute etxebizitzaren errentamenduen eta errentamenduen bitartekaritza-lanen ondoriozko errentei dagokien kuota osoan.

Hobari hori aplikatuko zaion errentamenduaren ondoriozko errenta kalkulatzeko eragiketa hau egin behar da: etxebizitza errentatuta lortutako diru-sarrerara garbietatik beraiekin zuzen lotutako gastuak eta gastu orokorretatik diru-sarrerara horiei dagokien zatia kendu behar dira.

2. Hobari hori erakundearen etxebizitzak eskualdatuta lortutako errentei ere aplikatu ahal zaie, baldin eta 10 urtean, gutxienez, errentatuta eduki baditu.

Kasu hauetan, hobaria aplikatu ahal izateko ezinbestekoa da etxebizitza errentariari ez beste bati eskualdatzea.

3. Aurreko idatz-zatietan ezarritako hobariak zerga honen arautegian ezarritako gainerako guztiak aplikatu ondoren aplikatuko dira.
4. Foru arau honetako 16. artikuluan ezarritakoaren arabera loturik dauden pertsoneri edo erakundeeri etxebizitzak errentatuta edo eskualdatuta lortutako errentei ezin zaie aplikatu artikuluko honetako hobaria.
5. Kapitulu honetan araupetutako araubidea hautatzen duten erakundeetako bazkideei zergapetze bikoitza saihesteko kenkaria aplikatuko zaie, foru arau honetako 33. artikuluan mozkin-banaketetarako eta partaidetza-eskualdaketatara ezarritakoa.
6. Foru arau honetako 22. artikuluko 1. idatz-zatian zehaztutako berrinbertsio-aldia, hiru urte, bost urtera luzatuko da eskualdaketa ondozko errentari aurreko 2. idatz-zatian ezarritako hobaria aplikatzen bazaio.

XVIII. KAPITULUA

HIGIEZINEN MERKATUAN INBERTITZEKO SOZIESTATE ANONIMO KOTIZATUAK

122 quáter artikulua. Higiezin merkatuan inbertitzeko sozietate anonimo kotizatuen araubidea aplikatzea (SOCIMI)

1. Higiezin merkatuan inbertitzeko sozietate anonimo kotizatuak eta Espainian dauden eta Higiezin merkatuan inbertitzeko sozietate anonimo kotizatuak arautu dituen urriaren 26ko 11/2009 Legearen 2. artikuluko 1. paragrafoko c) idatz-zatiak aipatzen dituen erakundeek, lege horretan ezarritako baldintzak betetzen badituzte, kapitulu honetan ezarritako araubidearen aplikazioa aukeratu ahal dute, eta hori ere beren bazkideei aplikatuko zaie. Hala ere, zerga-araubidea aplikatzeko lehenengo zergaldia denez, lege horretako 4. artikuluan ezarritako negoziatzeko obligazioa exijituko da, araubide hori aplikatzeko erabakia hartzen den egunetik.

Aukera akziodunen batzorde orokorrak hartu beharko du, eta zerga administrazioari jakinarazi beharko dio, zergaldia amaitu aurreko azken hiru hilak baino lehen.

2. Araubide hau jakinarazpen horren ondoren amaitutako zergaldian aplikatuko da, eta araubideari ukapena jakinarazi aurretik amaitutako hurrengoetan. Aurreko paragrafoan ezarritako epetik kanpo egindako jakinarazpenak ez du aukerarik emango araubide hau aplikatzeko zergaldi horretan.
3. Aurreko paragrafoetan ezarritakoa gorabehera, araubide hau aplikatzea aukeratu ahal da, nahiz eta urriaren 26ko 11/2009 Legean ezarritako baldintzak ez bete; baina baldintza horiek, hala ere, aukeraketaren egunaren ondoko bi urteen barruan bete beharko dira.

Baldintza hori ez betetzeak ekarriko du sozietateak zerga honen araubide orokorragatik tributatu behar izatea, ez-betetze horren zergalditik aurrera. Gainera, sozietateak, zergaldi

horretako kuotarekin batera, araubide orokorra aplikatzearen ondoriozko kuotaren eta aurreko zergaldietan araubide orokorra aplikatzearen ondoriozko kuotaren arteko aldea sartu beharko du, bidezko berandutza korrituak, errekareruak eta zehapenak gorabehera.

4. Araubide hau aplikatzeko aukera eta VIII. titulu honetan ezarritako edozein araubide bereziren aplikazioa (X., XIII. eta XIV. kapituluetan araututakoak izan ezik) bateragarriak dira.

122 quinquies artikulua. Zerga-oinarriaren zehaztapena eta Zergaren sortzapena.

1. Zergaldiko zerga-oinarria aldi horren azken egunean indarrean dagoen araudiak ezarritakoaren arabera zehaztuko da.

Horretarako, etxebizitzak alokatzeagatik errenten ehuneko 20 salbuetsiko da, baldin eta sozietatearen aktiboaren ehuneko 50 baino gehiago —balantze indibidualen arabera zehaztuta, urriaren 26ko 11/2009 Legeko 3. artikuluko 1. paragrafoan ezarritako baldintzetan— etxebizitzak badira.

2. Higiezinaren eskualdaketak eta helburu sozial nagusiari lotutako partaidetzak badira eta urriaren 26ko 11/2009 Legeko 3. artikuluko 3. paragrafoan adierazitako mantentze-epeak amaitu ondoren gertatu badira, aparteko onurak berrinbertitzeko araubidea aplikatuko da, foru arau honen 22. artikuluan ezarritako baldintza eta betekizunekin, berrinbertitu beharreko zenbatekoa aipatutako eskualdaketetan lortutako onurarekin bat datorrena izan beharko duela.

Karga-tasa orokorrari lotutako ondare elementuen eskualdaketaren ondoriozko errentak badira, aparteko onurak berrinbertitzeko araubidea aplikatu ahalko da, foru arau honen 22. artikuluan ezarritako baldintza eta betekizunekin.

3. Zerga hau sortuko da akziodunen batzorde orokorrak zergaldiari dagokion ekitaldiko onurak eta, hala badagokio, araubide hau aplikagarri izan duten aurreko ekitaldietako erreserbak banatzeko erabakia hartzen duen egunean.

Hala ere, zerga zergaldiko azken egunean sortuko da, onurak banatzeko erabakia egon ala ez, karga-tasa orokorra bete behar duten errentengatik, bai eta sozietateak galerak izan dituenean, banatzeko moduko onurarik ez dagoenean edo banaketa ez bezalako beste erreserba batzuk dituenean ere.

122 sexies artikulua. Karga-tasa.

1. Sozietate horien karga-tasa ehuneko 20 izango da. Hala ere, honako hauen ondoriozko errentek karga-tasa orokorrean tributatuko dute:

- a) Higiezinaren eskualdaketak edo helburu sozial nagusiari lotutako partaidetzak, baldin eta urriaren 26ko 11/2009 Legeko 3. artikuluko 3. paragrafoan adierazitako iraunkortasun-betekizuna bete bada, bai eta eskuratzailera, Foru Arau honen 16. artikuluan adierazitakoaren arabera, talde berekoa bada edo zerga informazioaren truke efektiboa duen herrialde edo lurralderen batean bizi bada, Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko hogeita laugarren xedapen gehigarrian ezarritako baldintzetan.

- b) Higiezin horien errentamenduak, errentaria, foru arau honen 16. artikuluan adierazitakoaren arabera, talde berekoa den erakundea bada edo zerga informazioaren truke efektiboa duen herrialde edo lurralderen batean bizi bada, Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko hogeita laugarren xedapen gehigarrian ezarri den bezala.

- c) Kontabilitateko araudia aplikatzearen ondoriozko emaitza zehazten ez duten eragiketak.

2. Aurreko paragrafoan adierazitako karga-tasak aplikatzearen ondoriozko kuota osoa foru arau honen VII. tituluko II. eta III. kapituluetan ezarritako kenkarietan eta hobarietan txikitu ahalko da.
3. Aurreko paragrafoan ezarritakoari jarraiki kalkulaturako kuota likidua foru arau honen VII. tituluko IV., V. eta VI. kapituluetan ezarritako kenkarien zenbatekoan gutxitu ahalko da.

122 septies artikulua. Autolikidazioa

1. Zergaren autolikidazioa dibidenduarekin proportzionalki bat datorren zergaldiko zerga-oinarriaren zatiaren gainean egingo da, baldin eta banaketa ekitaldian lortutako onurarekin lotuta erabaki bada, hala badagokio, kontura banatutako kopuruak kontuan hartuta.

Dibidenduaren banaketa erreserben kargura egiten bada edo azken horiek galeren konpentsazioa ez bezalako helbururako erabiltzen badira -arabide hau aplikagarri izan duen ekitaldi baten onuren ondoriozkoak-, autolikidazioa ekitaldi horretako zergaldiko zerga-oinarriaren zatiaren gainean egingo da, erabakitako banaketaren dibidenduari edo erabakitako erreserbei dagokien zenbatekoaren eta ekitaldi honetan lortutako onuraren artean dagoen proportzioan.

Paragrafo honetan xedatu denerako, zerga-oinarriaren, erreserbetan eta onuretan ez da karga-tasa orokorrari lotuta dauden errenten ondoriozkoa sartuko.

2. Autolikidazioa zergaldia amaitu eta hurrengo sei hilen ondoko 25 egun naturaletan aurkeztuko da, eta bakarra izango da; banatutako onura eta erreserbei eta erabakitako erreserbei dagokien zerga-oinarria hartuko du barne, bai eta karga-tasa orokorrari lotuta dauden gainerako errentak ere.
3. Urriaren 26ko 11/2009 Legeko 3. artikuluko 3. paragrafoak adierazitako hiru edo zazpi urteko iraunkortasunaren gaineko betekizuna ez betetzeak ekarriko du, higiezin bakoitzeko, ez-betetzea gertatu zeneko zergaldiko kuotarekin batera, %8 edo, zati batean salbuetsita dauden errentak izanik, 122 quinquies artikuluko 1. paragrafoan xedatutakoren arabera, %12 aplikatzearen ondoriozko zenbatekoa sartu behar izatea, arabide hau aplikagarri izan duten zergaldi guztien zerga-oinarriaren zati izan ziren higiezin horien ondorioz sortutako errentei, bidezko berandutza korrituak gorabehera. Ez-betetzea gertatu zeneko zergaldian sortutako higiezin horien errentamenduaren ondoriozko errentak karga-tasa orokorrean tributatuko du, bai eta banatu gabeko onurei dagokien errentak ere, aurreko ekitaldietan higiezin horien errentamenduaren ondoriozkoak eta ez-betetzea gertatu deneko zergaldiaren autolikidazioan sartuko denak.

Erregularizazio hau bidezkoa izango da, baldin eta sozietateak, kausa edozein dela ere, beste arabide baten arabera tributatu behar badu, aipatutako epealdia amaitu aurretik.

4. Arabide hau aplikatzeko, errentak lortutako sarrera osoaren arabera egongo dira integratuta higiezin edo partaidetza bakoia tzerako, sarrera hori lortzeko zuzenean lotutako gastuetan gutxituz, bai eta sarrera horri proportzioan dagozkion gastu orokorretan ere.

122 octies artikulua. Atxikipenak eta informazio-betebeharrak.

1. Sozietateak banatutako dibidenduei ez zaie aplikatuko atxikipenik ez konturako sarrerarik, haiek jasotzen dituen bazkidearen izaera gorabehera.
2. Urteko kontuen memorian, arabide hau aplikatzea aukeratu duten sozietateek «SOCIMlen egoeraren ondoriozko informaziobetekizunak, 11/2009 Legea» izeneko atala sortuko dute, eta, bertan, honako informazioa jasoko da:
 - a) Arabide hau aplikatu aurreko ekitaldien ondoriozko erreserbei aplikatutako onurak.
 - b) Arabide hau aplikagarri izan den ekitaldi bakoitzeko erreserbei aplikatutako onurak, honakoak berezita: batetik, karga-tasa orokorrari kargatutako errenten ondoriozko

zattia; bestetik, foru arau honen 122 sexies artikuluko 1. paragrafoan ezarritako karga-tasa murriztuari lotutako errentak, bai eta higiezinaren eskualdaketaren eta helburu sozial nagusiari lotutako partaidetzen ondoriozkoa ere, ekitaldi bakoitzean berrinbertitutako kopurua eta oraindik berrinbertitu ez dena aipatuz. Bereizita identifikatu beharko da onura horiek zein ekitalditatik datozen, ekitaldiko onura osoaren zenbatekoa, bai eta zerga-oinarria ere; onura eta zerga-oinarri horretan bereiziko da zati batean salbuetsita dauden errenten ondoriozkoa eta karga-tasa orokorrari lotuta daudenak.

- c) Araubide hau aplikagarri izan den ekitaldi bakoitzeko onuren kargura banatutako dibidenduak, hala badagokio, karga-tasa orokorrari kargatutako errenten ondoriozko zatia bereizita. Bertan lortutako onura identifikatu beharko da, bai eta zerga-oinarria ere, onura eta zerga-oinarri horretan karga-tasa orokorrari lotutako errenten ondoriozkoa bereizita.
 - d) Dibidenduak erreserben kargura banatu badira, zein erreserba aplikatu den zehaztu behar dute, hau da, aurreko a) eta b) idatz-zatietan aipatutako bietatik zein aplikatu den onura motaren arabera; halaber, dibidendu horiei lotutako zerga-oinarria ere bai.
 - e) Aurreko a) eta b) idatz-zatietan adierazitako dibidenduak banatzeko erabakia hartu zeneko eguna.
 - f) Araubide hau bete behar duten errentak dakartzaten errentamendurako higiezinak eta urriaren 26ko 11/2009 Legeko 2. artikuluko 1. paragrafoan adierazitako erakundeen kapitaleko partaidetzak eskuratu zireneko eguna.
 - g) Urriaren 26ko 11/2009 Legeko 3. artikuluko 1. paragrafoan adierazitako %80aren barruan zenbatutako aktiboaren identifikazioa.
 - h) Araubide hau aplikagarri izan den ekitaldietako erreserbak, zergaldian baliatu direnak, banatzeko edo galerak konpentsatzeko ez direnak. Erreserba horiek, ekitaldiko onura osoaren zenbatekoa eta ekitaldi horretako zergaldiko kuotan zerga-oinarria eta kenkariak zein ekitalditik datozen identifikatu beharko da.
3. Urteko memoriaren aipamenak, aurreko paragrafoa a) eta b) idatz-zatietan ezarritakoak, idatz-zati horiek aipatutako erreserbak egon bitartean egin beharko dira.
4. Halaber, sozietateek, Zerga Administrazioak hala eskatuta, gastuak errenta-iturrien artean banatzeko egindako kalkuluei buruzko informazio xehekatua aurkeztu beharko dute.
5. Sozietateak bere bazkideei beharrezko informazioa eman beharko die, horiek araubidea bete ahal izateko; dibidenduaren ordainketarekin batera eman beharko da. Araubide hau galduz gero, gertakari hau bazkideei jakinarazi beharko zaie, galera hori zehazten duten egoerak gertatzen diren zergaldian bertan.

122 nonies artikulua. Zehapen-araubidea.

Zergen arloko arau-haustea da, ekitaldi bakoitzari dagokionez, aurreko artikulua adierazitako informazio-betebeharra ez betetzea. Arau-hauste hori honako arau hauen arabera zehatuko da:

- a) Datu bakoitzeko 1.500 euroko zehapena ezarriko da, eta 15.000 eurokoa, isildutako, zehatzak ez diren edo faltsuak diren datu batzuegatik, aurreko artikuluko 2. paragrafoa a) b), c) eta d) idatz-zatietan jasotako informazio-betebehar bakoitzari dagokionez.

Datu bat da aurreko lerroaldean aipatutako idatz-zatietan jasotako informazio bakoitza.

Datu-multzoak dira a) idatz-zati honetan adierazitako letra bakoitzean aipatutako informazioak.

- b) 3.000 euroko zehapena ezarriko da isildutako, zehatza ez den edo faltsua den datu bakoitzeko edo datu-multzo bakoitzeko, aurreko artikuluko 2. paragrafoko e), f), g) eta h) idatz-zatietan jasotako informazio-betebehar bakoitzari dagokionez.

Datu bat da aurreko paragrafoan aipatutako idatz-zatietan jasotako informazio bakoitza.

Datu-multzoak dira b) idatz-zati honetan adierazitako letra bakoitzean aipatutako informazioak.

- c) 30.000 euroko zehapena ezarriko da, aurreko artikuluko 4. paragrafoak adierazitako betebeharra ez betetzeagatik.
- d) Aurreko artikuluko 5. paragrafoak adierazitako informaziobetebeharra ez betetzeagatik 15.000 euroko isuna ezarriko da.

Artikulu honetan ezartzen dena betez jartzen diren zehapenei Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergeri buruzko Foru Arauko 193. artikuluan ezartzen dena aplikatuko zaie.

122 decies artikulua. Zerga-araubide berezi honen sarrera-irteeraren zerga-araubidea.

1. Araubide hau aplikatzea erabakitzen duten sozietateei, baldin eta beste araubide batean tributatzen badute, honako arauak aplikatuko zaizkie:

a) Araubide hau aplikatzeko unean, konpentsatzeko dauden zerga-oinarri negatiboak hurrengo zergaldietan lortutako errenta positiboekin konpentsatuko dira, foru arau honen 24. artikuluan ezarri den bezala.

b) Araubide hau aplikatu aurretik higiezinen eskualdaketaren ondoriozko errenta — araubide hau aplikagarria den aldietan egina— modu linealean sortu dela ulertuko da, kontrakoa frogatu ezean, eskualdatutako higiezina eduki den denbora osoan. Aurreko zergaldiei egotz dakiekeen errenta horren zatia kargatuko da aurreko zerga-araubideak araubide honen aplikazioari aplikatuz. Irizpide hau urriaren 26ko 11/2009 Legeko 2. artikuluko 1. paragrafoan adierazitako beste sozietate batzuetako partaidetzak eskualdatzearen ondoriozko errentei aplikatuko zaie, bai eta aktiboaren gainerako elementuei ere.

c) Oraindik aplikatu ez diren kuotako kenkariak foru arau honen II. tituluan ezarritako baldintzetan kenduko dira.

2. Araubide horren arabera tributatzen ari diren eta beste araubide baten arabera tributatuko duten sozietateei honako arau hauek aplikatuko zaizkie:

a) Araubide hau aplikagarri izan den zergaldien ondoriozkoak diren eta oraindik konpentsatu gabe dauden zerga-oinarriak hurrengo zergaldietan lortutako errenta positiboekin konpentsatuko dira, foru arau honen 24. artikuluan ezarri den bezala.

b) Sozietatearen banatu gabeko mozkinen dagozkien zergaoinarriak, araubide hau aplikagarri izan den zergaldietan sortuak, karga-tasa orokorrari lotuta dauden errentekin bat ez datozenak, sozietateak beste araubide baten arabera tributatzen duen lehen zergaldiko zerga-oinarrian sartuko dira, azken aldi honetan banatu ezean, urriaren 26ko 11/2009 Legeko 6. artikuluan ezarritako epealdian (kasu horretan zerga-araubide honen aplikazioari eutsiko zaio, oinarri horietarako).

Hala ere, karga-tasa orokorra aplikatzen zaie errentekin bat ez datozen eta araubide hau aplikagarri izan den azken ekitaldian lortu diren mozkinak nahitaez banatu beharko dira, aipatutako 6. artikuluan ezarri den bezala, eta araubide hau aplikatu ahal izango zaie. Bestela, araubide orokorra aplikatuko da, ekitaldi horri dagokion zergaldian.

Sozietateak, araubide honen arabera tributatzeari uzten dion lehen zergaldian, zerga finkapeneko araubidean tributatzen duen talde baten mendeko izaera eskuratuz gero,

ez dira kenduko banatutako dibidenduak, alegia, b) idatz-zati honen aurreko bi lerroaldeek adierazitakoak.

- c) Sozietateak beste araubide baten arabera tributatzen duen zergaldiaren hasieran eskuratutako higiezinaren eskualdaketa onoriozko errenta —beste araubide hori aplikagarria den aldietan egina— modu linealean sortu dela ulertuko da, kontrakoa frogatu ezean, eskualdatutako higiezina eduki den denbora osoan. Sozietateari araubide hori aplikagarri izan zitzaienez, zergaldiei horiei egotz dakiekeen errentaren zatia kargatuko da kapitulu honetan ezarritakoaren arabera, baldin eta errenta horri egotz dakiekeen mozkin osoa dibidenduetan banatzen bada, urriaren 26ko 11/2009 Legeko 6. artikuluan ezarritako epealdian; dibidendu horiei bazkideentzat ezarritako araubidea aplikatu ahalko zaie, horien izaera kontuan hartuta. Irizpide hau urriaren 26ko 11/2009 Legeko 2. artikuluko 1. paragrafoak adierazitako beste erakunde batzuetako partaidetzak eskualdatzearen onoriozko errentei aplikatuko zaie.
 - d) Oraindik aplikatu ez diren kuotako kenkariak foru arau honen II. tituluan ezarritako baldintzetan kenduko dira.
 - e) Erakundeen kapitalaren partaidetzak eskualdatzean sortutako errentak —araubide hau aplikagarri ez duten zergaldietan egina— bazkidearen izaera kontuan hartuta dagokion zergaren araubide orokorra bete beharko du. Aurrekoa aplikagarri izango da, era berean, erreserben kargura banatutako dibidenduen kasuan, zein ekitaldikoak diren kontuan hartu gabe, paragrafo honen aurreko idatzzatiren batean ezarritakoa aplikatzekoa izan ezean.
3. Foru arau honen 104. artikuluko 4. paragrafoan ezarritakoa betetzeko, ulertuko da titulu honen X. kapituluaren ezarritako araubide berezia betetzen duten fusio-, bereizketa-eragiketak, aktiboen ekarpenak, balore-trukeak eta aktiboaren eta pasiboaren lagapen osoak egiten direla ekonomia-motibo onargarriagatik, baldin eta eragiketa horien xedea araubide berezi honen mende egon daitezkeen sozietateak edo sozietatea sortzea bada edo, bestela, xede berarekin, aurretik dauden sozietateetara egokitzea bada.

122 undecies artikulua. Araubide bereziaren galera.

Erakundeak araubide hori galduko du, eta Sozietateen gaineko Zergaren araubide orokorraren arabera tributatzen hasiko da, honako inguruabar hauetako bat gertatzen den zergaldian bertan:

- a) Merkatu arautuetan negoziatzen baztertzea.
- b) Foru arau honen 122 octies artikulua adierazitako informazio- betebeharrak funtsean ez betetzea, hurrengo ekitaldiaren memorian ez-betetze hori zuzendu ezean.
- c) Dibidenduak (denak edo batzuk) banatzea eta ordaintzea ez erabakitzea, urriaren 26ko 11/2009 Legeko 6. artikuluan ezarritako baldintza eta epeetan. Kasu honetan, zerga-araubide orokorraren arabera tributazioa egingo da mozkinen onoriozko dibidendu horiek gertatu zireneko ekitaldiari dagokion zergaldian.
- d) Araubide berezi honen aplikazioari uko egitea.
- e) Urriaren 26ko 11/2009 Legean eta kapitulu honetan ezarritako edozein betekizun ez betetzea, hurrengo ekitaldiaren barruan ez betetzeko arrazoia konpondu ezean. Hala ere, 3. artikuluko 3. paragrafoan aipatutako epealdia ez betetzeak ez du ekarriko araubide hau galtzea. Araubidea galtzeak eragingo du berriro aplikatu ezin izana, harik eta, gutxienez, bost urte igaro arte, aplikagarri izan zen azken zergaldia amaitzen denetik.

122 duodecies artikulua. Bazkideen zerga-araubide berezia.

- 1. Zerga honen subjektu pasiboek, 100eko 20ko karga-tasa aplikatzen zaien errenten onorioz, baldin eta Higiezinaren merkatuan inbertitzeko sozietate anonimo kotizatuentzat

zehaztutako zergaraubidea aplikagarri izan duten ekitaldien mozkin edo erreserben kargura banatutako dibidenduak jasotzen badituzte, hauxe integratu behar dute zerga-oinarrian: jasotako dibidenduak direla-eta kontabilitatean jasotako sarrera kontabilizatuak bider 100/80 eginez lortzen den emaitza. Errenta horri ezin zaio aplikatu zergapetze bikoitza saihesteko kenkaria, foru arau honetako 33. artikuluan ezarritakoa, alegia.

Kasu horretan, zerga-oinarrian sartutako errentaren zati bat kendu ahalko da kuota: edo errenta horren 100eko 20, edo errenta horri subjektu pasiboaren karga-tasa aplikatuz lortzen dena —tasa hori txikiagoa izanez gero—. Ez da kenkari hori aplikatuko, baldin eta aipatutako 33. artikuluko 4. zenbakian jasotako kasuetako bat gertatzen bada; dena dela, zenbaki horretako d) letrako kasuan, jasotako dibidenduaren 100eko 20ko kenkaria egingo da. Bada, zenbaki horretan adierazitako frogari dagokionez, partaidetza hori erakunde batengandik eskuratu bada, artikuluko honen 2. zenbakian ezarritakoa ere gainbalioen barne-zergapetze bikoitzaren ziozko kenkaritzat joko da.

Kuota oso nahikorik ez dagoela-eta deduzitu ezin izan diren kopuruak hurrengo urteetan amaitzen diren zergaldietako kuota osoetan deduzitu ahal izango dira.

Karga-tasa orokorrari lotuta dauden errenten ondoriozko onuren kargura banatutako dibidenduei zergaren araubide orokorra aplikatuko zaie.

2. Higiezinaren merkaturaren inbertitzeko sozietate anonimo kotizatuentzat ezarritako zerga-araubidea aplikatzea erabaki duten sozietateen kapitalaren gaineko partaidetza eskualdatzearen ondoriozko errentak lortu dituzten zerga honen subjektu pasiboek kenkaria aplikatu ahalko dute, kuota osoan, foru arau honen 33. artikuluko 5. paragrafoan ezarritakoari lotuta, dagokion gainbalioaren zatiaren gainean: sozietateak partaidetza eskualdatua izan duen denboran sozietateak berak sortu eta banatu ez dituen onuren —karga-tasari lotutako errenten ondoriozkoak— arabera.

100eko 20ko karga-tasari lotutako errenten ondorioz eta sozietateak partaidetza eskualdatua izan duen denboran sozietateak berak onurarik sortu baina banatu ez badu, halako onurekin bat datorren gainbalioaren zatiari dagokionez, zerga-oinarrian sartu beharreko errenta honako honen emaitza izango da: onura horien zenbatekoa bider 100/80 eginez lortutakoa. Dena dela, zerga-oinarrian sartutako errentaren zati bat kendu ahalko da kuota: edo errenta horren 100eko 20, edo errenta horri subjektu pasiboaren karga-tasa aplikatuz lortzen dena —tasa hori txikiagoa izanez gero—.

Kuota oso nahikorik ez dagoela-eta deduzitu ezin izan diren kopuruak hurrengo urteetan amaitzen diren zergaldietako kuota osoetan deduzitu ahal izango dira.

Kenkari hori, bestalde, foru arau honen 33.3 artikuluko jasotako kasuetan ere aplikatu ahal izango da.

Partaidetza eskualdatzean gertatutako galera ez da kengarria izango, baldin eta pertsona edo erakunde lotu batengandik eskuratu bada (foru arau honetako 16. artikuluan ezarritako baldintzetan), pertsona edo erakunde horrek partaidetza hori eskualdatzean lortu zuen errenta salbuetsiaren zenbatekora arte.

3. Erakundeak Higiezinaren merkaturaren inbertitzeko sozietate anonimo kotizatuaren araubidea aplikatzea erabakitzen badu, nahiz eta urriaren 26ko 11/2009 Legean ezarritako betekizunak ez bete, baldin eta betekizun horiek aplikatzea erabakitako egunaren ondoko bi urteen barruan betetzen badira, subjektu pasiboek aurreko paragrafoetan xedatutakoa aplikatuko dute, nahiz eta, Zergaren autolikidazioa aurkezteko unean, sozietateak aipatutako betekizunak ez bete. Betekizun horiek aurretik aipatutako epean bete ezean, subjektu pasiboak autolikidazio osagarria aurkeztu beharko du, zergaren araubide orokorra aplikatuz, bidezkoak diren berandutza korrituak gorabehera.
4. Higiezinaren merkaturaren inbertitzeko sozietate anonimo kotizatuari aplikatu beharreko karga-tasa %20 ez bada, aurreko paragrafoetan xedatutakoa aplikatuko da. Horretarako, zerga-

oinarriko integrazioa eta kuotako kenkaria kalkulatu da, paragrafo horiek aipatutakoaren arabera, aplikatutako zerga-tasa kontuan hartuta.

IX. TITULUA ZERGAREN KUDEAKETA

I. KAPITULUA ERAKUNDEEN AURKIBIDEA

123. artikulua. Erakundeen aurkibidea.

1. Ogasun eta Finantza Sailak erakundeen aurkibide bat eramango du, zeinetan Bizkaiko Lurralde Historikoan zergak ordaintzen dituzten erakundeek emango baitute izena.
2. Arau bidez ezarriko dira erakundeen aurkibideko alta, izena eman eta baxa emateko prozedurak.

124. artikulua. Baxa erakundeen aurkibidean.

1. Zerga Administrazioak, aurretiaz interesatuari entzunda, behin-behineko baxa-erabakia eman ahal izango du ondorengo kasuetan:
 - a) Erakundearen Zerga Administrazioarekiko zerga-zordunketek huts egin dutela adierazten dutenean, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergabilketari buruzko Araudian ezarritakoaren arabera.
 - b) Erakundeak zerga honi dagokion aitorpena aukezten ez duenean.
2. Behin-behineko baxa-erabakia erregistro publikoari jakinaraziko zaio, zeinek baxa horri lotutako erakundeari irekitako orrian betetzeari ekingo baitio bazterreko ohar bat, zeinetan jasoko baita, aurrerantzean, ezingo dela burutu hari dagokion inolako izenmaterik erakundeen aurkibidearen alta-ziurtagirik aurkeztu gabe.
3. Behin-behineko baxa-erabakiak ez du salbutzen horri lotutako erakundea berari doazkion zerga-betebehar batetik ere.

125. artikulua. Lagundu beharra.

Bizkaiko Lurralde Historikoko erregistro publikoetako titularrek hileroko Ogasun eta Finantza Sailari bidaliko diote erakundeen zerrenda, zeinen eraketa, ezarpena, aldarazpena edo iraungipena inskribatu baitute aurreko hilabetean.

II. KAPITULUA KONTABILITATEKO BETEBEHARRAK. KONTABILIZATU GABEKO ONDASUN ETA ESKUBIDEAK. BORONDATEZKO BALORAZIOAK

126. artikulua. Kontabilitateko betebeharrak. Administrazioaren ahalmenak.

1. Zerga honen subjektu pasiboek Merkataritza Kodean edo eurak arautzen dituzten arauetan ezarritakoaren arabera eraman beharko dute kontabilitatea.

Foru arau honetako VIII. tituluko XVI. kapituluaren aipaturiko subjektu pasiboek, nolana ere, salbuetsi gabeko errenta eta ustiapen ekonomikoei dagozkien diru-sarrerak nahiz gastuak identifikatzeko moduan eramango dute kontabilitatea.

2. Zerga Administrazioak egiaztapena burutu ahal izango du, subjektu pasiboaren negozioei lotutako kontabilitatea, liburu, eskutizketa, agiriak eta ziurtagiriak aztertuz, baita kontabilitate-programak, artxibategiak eta euskarri magnetikoak ere. Zerga Administrazioak zuzenean aztertu ahal izango du aurreko lerroaldean aipatzen den dokumentazioa eta

bestelako elementuak, bere langileen bitartez, ustez beharrezkoak diren kontabilitateko oharrak hartu ahal izango dituztelarik, eta kopia lortu haien pentzutan, euskarri magnetikoetan ere bai, idazati honetan aipatzen diren edozein datu edo agiriri dagokienean.

3. Merkataritzako Kodearen 42. artikuluko sozietate-taldeetan nagusi diren erakundeak, Zergen Ikuskatzaileak frogatze-prozeduran horrela eskatu duenez, aurkeztu beharko dituzte galeren eta irabazien kontua eta berari dagozkion eta Espainian egoitza ez duten erakundeen balantzea. Era berean, aurkeztu beharko dituzte Zerga honetarako garrantzizkoak izan daitezkeen ziurtagiriak eta gainerako aurrekariak, kontabilitate-agiri horiei lotutakoak.

127. artikulua. Kontabilizatu gabeko edo aitortu gabeko ondasun eta eskubideak: errentak lortzen direlako ustezkotasuna.

1. Titulartasuna subjektu pasiboari dagokiolarik, kontabilitateko liburuetan erregistratuta ez dauden ondare-elementuak aitortu gabeko errenten pentzutan eskuratu direla uste izango da.

Ustezkotasunak berdin jokatuko du eskuraketaren balio partziala ezkutatzuz gero.

2. Subjektu pasiboa kontabilitatean erregistratuta ez dauden ondare-elementuen jabe dela uste izango da, horien edukitza berak duenean.
3. Aitortu gabeko errentaren zenbatekoa kontabilitateko liburuetan erregistratu gabe dauden ondasun edo eskubideen eskuraketaren balioa dela uste izango da, eskuraketa finantzatzeko hartutako benetako zorren zenbatekoan gutxitua, kontabilizatu gabekoak hauek ere. Zenbateko gordina inoiz ere ezin izango da negatiboa izan.

Eskuraketaren balioaren zenbatekoa horren zirurtagirien bidez frogatuko da, eta horrela ezin izango balitz, Zergei buruzko Foru Arau Orokorrean ezarritako balorazio erregelak ezarritik.

4. Aitortu gabeko errentak daudela uste izango da subjektu pasiboaren kontabilitate-liburuetan ez dauden zorrak erregistratu direnean.
5. Aurreko idazatietan dauden ustezkotasunen ondoriozko errentaren zenbatekoa preskribatu gabeko zergaldi antzinakoenari egotziko zaio, subjektu pasiboak beste bati edota batzuei dagokiela frogatzen ez badu.
6. Edozelan ere, aitortu gabeko errenten bitartez eskuratu direla joko da, eta oraindik preskribitu ez duten eta erregulariza daitezkeen zergaldietatik antzinakoenari egotziko zaizkio, Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren hogieta zazpigarren xedapen gehigarrian aipatzen zen informazio-eginbeharra bete ez eta, horretarako epearen barruan, subjektu pasiboak aitortu gabe utzitako ondasun eta eskubideak.

Hala ere, atal honetan xedatzen dena ez da aplikatzekoa izango baldin eta subjektu pasiboak egoki egiaztatzen badu bere titulartasunaren pean dauzkan ondasun edo eskubideok aitorturiko errentez eskuratu direla edo beste zergaldi batzuetan eskuraturiko errentei dagozkiela, eta orduan ez zela zerga honen zergadun.

7. Aurreko 1-6. zenbakietan aipatzen diren ondare-elementuen balioa, behin zerga-oinarrian sartutakoan, zergaren ondore guztietarako izango du balioa..

127 bis. artikulua. Zergaren kudeaketa Zerga-administrazio bati baino gehiagori ordaintzekotan.

Zenbait administraziori tributatzuz gero ondoko arauak aplikatuko dira:

- **Lehenengoa:** Zergaren likidazioen emaitza dagokien administrazioei egotziko zaie, zergaldian zehar lurraldean lurraldeko eragiketa bolumenaren proportzioan.
- **Bigarrena:** Administrazio bati baino gehiagori zergak ordaindu behar dizkieten subjektu pasiboek, arauzko epean eta formalitate guztiak betez, bidezko diren likidazio-aitorpenak aurkeztu behar dituzte administrazio horietan eta jaso egingo dute proportzio aplikagarria eta emaitzazko kuotak edo itzulketak.
- **Hirugarrena:** Itzulketak administrazioak egingo ditu dagokion proportzioan.

128. artikulua. Kontabilitateko borondatezko birbaloraketak.

1. Kontabilitateko birbaloraketak burutu dituzten subjektu pasiboek eta berorien zenbatekoa zerga oinarrian sartuta ez badago, txostenean aipatu beharko dute horien zenbatekoa, zein elementuri dauden lotuta eta zein zergaldi edo alditan egin ziren.

Aipamen horiek birbaloratutako elementuak subjektu pasiboaren ondarean dauden ekitaldiei dagozkien txosten guzti-guztietan azaldu beharko dira.

2. Aurreko idatz-zatian ezarritako betebeharra ez betetzea zergen arloko arau-haustea izango da.

Arau-hauste hori behin bakarrik zehatuko da eta birbalorazio-zenbatekoaren %5eko isuna ezarriko da. Ordainketak ez du ekarriko diru kopuru hori Zergari dagokionez birbalorizatutako ondare-elementuaren balioari gehitzea.

Idatz-zati honetan xedatutakoaren arabera ezartzen diren zehapenei Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 193. artikuluan xedatutakoa aplikatuko zaie.

III. KAPITULUA AUTOLIKIDAZIORAKO AITORPENA ETA BEHIN-BEHINEKO LIKIDAZIOA

129. artikulua. Aitorpenak.

1. Subjektu pasiboek aitorpena aurkeztu eta izenpetu beharko dute Zerga honengatik, Ogasun eta Finantza Saileko foru diputatuak ezarritako lekuan eta eran.

Aitorpena aurkeztu beharko da zergaldia amaitu osteko sei hilabeteen ondorengo 25 egutegiko egunen barruan. Alabaina, salbuespenezko kasuetan eta egoerak horrela eskatzen badu, Zerga Administrazioak baimena eman ahal izango du epe hori baino lehenago aurkezteko.

Epe horren hasieran Ogasun eta Finantza Saileko foru diputatuak zehaztu ez badu zergaldi horren aitorpena aurkezteko era, aitorpena aurkezteko era zehazten duen xedapena indarrean jarri osteko 25 egutegiko eguneko epe barruan aurkeztu beharko da aitorpena.

Dena dela, horrela gertatuz gero, subjektu pasiboak aukeran izango du aurreko paragrafoak aipatzen duen epean aitorpena aurkeztea, aurreko zergaldiaren aitorpena egiteko ezarritako erazko betekizun guztiak beteta.

2. Foru arau honen 9. artikulua. artikuluan aipatzen diren subjektu pasibo salbuesiak ez daude aitorpena egitera behartuta.
3. Foru arau honetako VIII. tituluko XVI. kapituluan aipatu diren subjektu pasiboek errenta guztiak aitortu behar dituzte, salbuesiak zein salbuesi gabeak.

Hala ere, subjektu pasibo horiek ez dute izango aitorpena aurkeztu beharrik betekizun hauek betez gero:

- Urteko sarrerak guztira 100.000 euro baino gehiago ez izatea.
 - Atxikipena aplikatu behar zaien salbuetsi gabeko urteko errenten ziozko sarrerak 2.000 euro baino gehiago ez izatea.
 - Lortzen dituzten errenta salbuetsi gabe guztiei atxikipena aplikatzea.
4. Bizkaian jarduteaz gain, Euskal Herriko Autonomi Erkidegoan ere diharduten erakundeek, edota araubide bereko lurraldeetan, edota bietan, Bizkaiko Foru Aldundian eskatutako dokumentazioa aukeztu beharko dute beste eskudun Zerga Administrazioei dagokienez dituzten betebeharren kalterik gabe.
 5. xedatzen denaren arabera aurkeztu behar duten aitortpenen honako hauek jaso behardituzte nahitaez:
 - a) Erakundearen kapitalaren %5 edo handiagoa den partaidetza daukaten bazkideen izenak biltzen dituen zerrenda.
 - b) Zergadunak kapitalaren %5ekoa edo handiagoa den partaidetza daukan erakundearen izenak biltzen dituen zerrenda.
 - c) Erakundearen Administrazio Kontseiluko administratzaileen edo kideen izenak biltzen dituen zerrenda.

130. artikulua. Autolikidazioa eta zerga-zorraren sarrera.

1. Subjektu pasiboek, beren aitortpena aurkezten dutenean, dagokien zorra zehaztu beharko dute, eta Ogasun eta Finantzen foru diputatuak zehaztutako lekuan eta moduan sartu.
2. Zerga-zorraren ordainketa ondoren azalduko diren ondasunak emanez burutu ahal izango da:
 - a) Euskal Kultur Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legean aipatzen diren Kultur Ondare Sailkatuen Inbentarioan inskribatuta edota Inbentario Orokorrean sartuta dauden Euskal Kultur Ondarekoak.
 - b) Espainiar Ondare Historikoari buruzko ekainaren 25eko 16/1985 Legearen 73. artikulua. artikuluan xedatutakoaren arabera, Ondare Higikorren Inbentario Orokorrean edota Kulturarako interesgarriak diren Ondasunen Erregistro Orokorrean inskribatutak dauden Espainiar Ondare Historikoa osatzen dutenak.

Aurreko a) eta b) letretan aipatutako ondasunak zerbaiten ordainetan ematen direla-eta agerian geratzen diren errentak ez dira sartuko zerga oinarrian, eta Zergei buruzko Foru Arau Orokorren 59. artikuluko 1. idatz-zatiko bigarren lerroaldean azalduko kasuetan agerian geratzen direnak ere ez dira sartuko.

3. Salbuespenen, kenkarien edo edozein zerga-pizgarriren onura izateko zerga-oinarrian edo kuotan, ezar daitekeen araudiak eskatzen dituen betekizunak bete beharko dira.

Berriaz bestelakorik ezarri ezean, salbuespena, kenkaria edo zerga-pizgarria ezarri ostean horren onura izateko eskubidea galtzen bada, subjektu pasiboak, betekizunak edo baldintzak bete ez diren zergaldiaren kuotarekin batera, sartu beharko du kuota edo kendutako kopurua, aurreko aldietan ezarritako salbuespenari, kenkariari edo zerga-pizgarriari dagokiona, baita berandutza-korrituak ere.

4. Subjektu pasiboek aldatu egin ahal izango dute zergaren autolikidazioan amortizazio askatasunari, amortizazio aurreratuarieta aparteko mozkinen berrinbertsioaren ziozko salbuespenadela-eta egin duten aukera; hain zuzen ere, zerga aitortzeko borondatezko epea amaitu ondoren alda dezakete aukera hori, eta beti ere Zerga Administrazioak aurretiazko errekerimendua egin ez badie.

131. artikulua. Behin-behineko likidazioa.

Zerga-kudeaketarako organoek bidezkoa den behin-behineko likidazioa igorri ahal izango dute Zergei buruzko Foru Arau Orokorren 123. artikulua. artikuluan xedatutakoaren arabera, Zerga Ikuskatzaileak geroago egin ditzakeen egiaztapenaren eta ikerketaren kalterik gabe.

IV. KAPITULUA ADMINISTRAZIOAREN ARIOSKO ITZULKETA

132. artikulua. Ofiziozko itzulketa.

1. Foru arau honen 47. artikulua. artikuluan aipatuta dauden kopuruak batzearen ondoriozko zenbatekoa autolikidaziotik ateratzen den kuotarena baino handiagoa denean, Zerga-administrazioak behin-behineko likidazioa egin beharko du aitorpena aurkezteko ezarritako epea bukatu ondorengo sei hilabeteetan..

Aitorpena epeetik kanpo aurkeztua denean, aurreko ahapaldian aipatuta dauden sei hilabeteak hura aurkezten den egunean hasiko dira zenbatzen.

2. Autolikidazioaren ondoriozko kuota edo, halakorik balitz, behin behineko likidazioarena, Zerga honetan benetan atxikitako kopuru, konturako ordainketa eta zatikako ordainketen batuketa baino txikiagoa bada, Zerga Administrazioak kuotaren gaineko soberakina ofizioz itzuliko du aurreko idazatian finkatutako epean, egoki diren ondorengo behin behineko zein behin betiko likidazioei utzi gabe.
3. Artikulu honetako 1. idatz-zatian ezartzen den epea igaro bada eta oraindik, Zerga Administrazioari egozteko moduko arrazoiren bat dela medio, itzulketa egiteko erabakirik hartu ez bada, itzuli beharreko zenbatekoari Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 26. artikuluko 3. idatz-zatian aipatzen den berandutza-interesa aplikatuko zaio, epe hori amaitu den egunaren biharamunetik itzulketa jasotzeko eskubidea aitortzen dela jasotzen duen erabakia hartzen den egunera arte. Zergadunak ez du hala eskatu beharrik izango.
4. Arauz zehaztuko dira artikulu honetan aipatuta dagoen ofiziozko itzulketako ordainketaren prozedura eta era.

V. KAPITULUA KONTURAKO ORDAINKETAK

133. artikulua. Konturako ordainketak.

1. Zerga honi loturiko errentak ordaintzen edo abonatzen dituzten erakundeak, ondasun-erkidegoak eta jabeen erdidegoak barne, konturako ordainketen zioz arau bidez zehaztutako kopurua atxikitzaera edo konturako sarrerak egitera behartuta egongo dira, eta Bizkaiko Foru Ogasunean zenbatekoa sartzera, ezarritako kasu eta moduetan, Ekonomia Itunean ezarritakoarekin bat. Era berean, banako enpresariak eta profesionalak ere enpresa edota lanbide jarduerak egitean ordaintzen edo abonatzen dituzten errentei dagozkien atxikipenak egin eta sartu beharko dituzte, bai eta Espainiako lurraldean egoitza eduki ez eta bertan diharduten pertsona fisiko, juridiko zein gainerakoek ere.
2. Atxikitzaera behartutako subjektuak Ogasun eta Finantzen foru diputatuak zehaztutako eredu, epe, modu eta tokietan aurkeztu beharko du atxikitako kopuruaren aitorpena edo, bestela, aitorpen negatiboa, horiek burutu ez direnean. Aldi berean, atxikipenen urteko laburpen bat aurkeztuko du arau bidez zehaztutako edukiarekin.
3. Atxikitzaera behartutako subjektuak, arau bidez zehaztutako baldintzetan, burututako atxikipenaren edo burututako konturako beste ordainketa batzuen egiaztagiria luzatu beharko du..

4. Atxikipenik ez dagoeneko balizkoak arau bidez ezarriko dira. Ez da atxikipenik egingo honako kasuetan bereziki:
- a) Foru arau honen 9. artikulua. artikuluan aipatutako erakundeek lortutako errentetan.
 - b) Zerga oinarriaren egozpena jasan behar duten bazkideei dagozkien, erakundeak zergak Foru Arau honetako VIII. Goiburuko IV. eta V. Kapituluetakoa araubide berezian xedatutakoaren arabera ordaindu dituen zergaldietatik datozen, eta interes ekonomikoko espainiar eta europar elkarteek eta enpresek aldi baterako batasunek banatutako mozkinetako dibidenduak edo partaidetzak
 - c) Zergak sozietate-multzoen araubidean ordaintzen dituen talde bateko partaide diren sozietateen artean ordaindutako dibidendu edo mozkinetako partaidetzetan eta korrituetan.
 - d) Foru arau honen 33. artikuluko 2. idazatia. idazatian aipatu diren dibidendu eta mozkinetako partaidetzetan.
 - e) Loteria eta apustuen sariak, baldin eta haien zenbatekoagatik salbuetsita badaude Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 29ko 6/2006 Foru Arauko hogeita hirugarren xedapen gehigarrian aipatzen den karga berezia ordaintzetik.
5. Epai edo administrazio erabakiren baten aginduz Zerga honen atxikipena edo konturako sarreraren menpeko errentaren bat ordaindu behar denean, kopuru guztiaren arabera ordainketa egin beharko du ordaintzaileak eta Bizkaiko Foru Ogasunean egin diru sarrera, artikulua honetan ezarritakoren arabera.
6. Araudia dela-bide zatikako ordainketa lurralde bakoitzean burututako eragiketa bolumenaren proportzioan derrigorrean egin behar duten subjektu pasiboek, zergaren azken likidazio-aitorpenean aplikatuko dute proportzioa. Aurreko paragrafoan ezarritakoa gorabehera, Ekonomia Itunaren III kapituluko 2. sekzioan aurreikusitako Koordinazio eta Ebaluazio Batzorde Arauemaileari alde aurretik jakinarazita, subjektu pasiboak bestelako proportzioa aplikatu dezake ondoko kasuetan:
- a) Aktiboak eman, bategin eta zatitze eragiketak eta balore trukeak.
 - b) Lurralde erkidean edo foru lurraldean jarduera, hasi, utzi, handitu eta murriztea, aldarazpen nabarmena eragiten duena atal honetako lehen paragrafoan zehaztu den irizpidearen arabera kalkulaturako proportzioan.
- Dena den, aldarazpena garrantzitsutzat hartuko da ehunekotan 15 puntu edo gehiagoren aldaketa eragiten duenean, lurraldeetako edozeinetan aplikatzekoa den proportzioan.
7. Bizkaiko Foru Ogasunari ordaindutako zatikako zenbatekoa Bizkaiko Foru Aldundiari ingesatu beharreko kuotatik kenduko da.

134. artikulua. Subjektu pasiboaren betebeharrak zerga egoitzari dagokionez.

Subjektu pasiboek Zerga Administrazioari jakinarazi beharko diote zerga egoitza aldatzen dutenean, eta honek, aldi berean, horren aldaketa eragin ahal izango du, Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 45. artikulua. artikuluan xedatutakoaren arabera.

VI. KAPITULUA

ADMINISTRAZIOAREN AHALMENA ZERGA OINARRIA ZEHAZTEKO

135. artikulua. Administrazioaren ahalmena zerga oinarria zehazteko.

Zerga oinarria zehazteko, Zerga Administrazioak foru arau honen 10. artikuluko 3. idatz-zatian aipatutako arauak erabiliko ditu.

135 bis. artikulua. Zergaren ikuskaritza.

1. Zergaren ikuskapena Bizkaiko Foru Aldundiak egingo du honako kasu hauetan:
 - a) Subjektu pasiboak Bizkaian du zerga-egoitza. Dena dela, subjektu pasibo batzuk ez ditu ikuskatuko, hain zuzen ere, hauek: aurreko ekitaldian 7 milioi eurotik gorako eragiketa bolumena izan dutenak, ekitaldi horretako eragiketa bolumenaren 100eko 75 edo gehiago lurralde erkidean egin badute, edo, bestela, Euskal Autonomia Erkidegoan egindako eragiketa guztiak beste bi lurralde historikoetako batean egin badituzte.
 - b) Subjektu pasiboak Araban edo Gipuzkoan dauka zerga egoitza, baldin eta aurreko ekitaldiko eragiketen bolumena 7 milioi eurotik gorakoa izan bada, ekitaldi horretan lurralde erkidean eragiketen bolumenaren %75 edo gehiago egin ez badu eta, ekitaldi horretan bertan, Euskal Autonomia Erkidegoan egindako eragiketa guztiak Bizkaian egin baditu.
 - c) Subjektu pasiboak lurralde erkidean dauka zerga egoitza, baldin eta aurreko ekitaldiko eragiketen bolumena 7 milioi eurotik gorakoa izan bada, ekitaldi horretan eragiketa guztiak Euskal Autonomia Erkidegoan egin baditu eta, gainera, Bizkaian gainerako lurralde historikoetan egindako eragiketa bolumena baino proportzio handiagoa egin badu.
2. Ikuskapenak Bizkaiko Lurralde Historikoaren araudiari egokituko zaizkio gainerako administrazioen elkarlanaren kalterik gabe.

Ikuskapenek administrazio bati baino gehiagori dagokion zorra edo itzulketa eragingo balute, kobraketa edo ordainketa Bizkaiko administrazioak berak egingo luke, beste administrazio horietan bidezko diren konpentsazioen kalterik gabe. Ikuskaritza-organoeek ukitutako administrazioei jakinaraziko dizkiete jarduketaren emaitzak.
3. Ikuskaritzako jarduketak Bizkaiko Foru Aldundiak ez beste administrazioen batek egiten baditu, beroriek burutuzat joko dira, egiaztapen eta ikerketa arloan Bizkaiko Foru Aldundiari dagozkion ahalmenen kalterik gabe. Jarduketek ez diete zergapekoei ondorio ekonomikorik sortaraziko, administrazio eskudunetako organoen jarduketaren ondorioz-ko behin betiko likidazioen inguruan.
4. Administrazio eskudunaren egiaztapenetan finkatu diren proportzioek ez diete subjektu pasiboari ondorerik sortaraziko likidatutako obligazioei dagokienez, egiaztapen horien ondoren administrazioek behin betiko erabakitzen dituztenen kalterik gabe.

X. TITULUA

JURISDIKZIO MAILA

136. artikulua. Jurisdikzio eskuduna.

Administrazioarekiko auzibideen jurisdikzioa izango da, ekonomia-administraziozko bidea aurretiaz agortua dela, Zerga Administrazioaren eta subjektu pasiboaren artean foru arau honetan aipatzen den edozein konturi lotuta sortzen diren egitatezko eta zuzenbidezko hizka-mizkak ebazteko eskudun bakarra.

XI. TITULUA ZEHAPEN ARAUBIDEA

137. artikulua. Arau-haustek eta zigorrak

1. Artikulu honetako hurrengo paragrafoan eta foru arau honengainerako manuetan ezartzen dena gorabehera, Sozietateen gai-neko Zergaren aurkako zerga arloko arauhaustek Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arauan xedatzen denaren arabera zigortuko dira.
2. Foru arau honen 129.artikuluko 5.paragrafoan ezartzendiren betebeharrak ez betetzea zerga arloko arau-haustea da. Bete-behar hori betetzerakoan datu faltsuak, zehaztugabeak edo osa-tugabeak erabiltzea ere zerga arloko arau-haustea da.

Arau-hauste horren zigorra 1.000 euroko diru-isun finkoizango da, aitortu ez den datu bakoitzeko edo datu faltsu edo zehaz-tugabe bakoitzeko. Horretarako, datutzat joko da foru arau honen 129.artikuluko 5.paragrafoan zehazten denaren arabera aitorpe-nean jaso behar den bazkide, erakunde edo administratzaile bakoitza.

Paragrafo honetan ezartzen dena betez jartzen diren zigorrei Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arauko 193.artikuluari ezartzen dena aplikatuko zaie.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehengoa. Dibidenduen ezarpen bikoitzaren ziozko kenkariaren murrizketa.

Ondorengo hauek ez dute izango foru arau honen 33. artikulua. artikuluan ezarritako kenkarirako eskubiderik:

- a) Petrolio-sektorea Europako Erkidegoaren Eremura moldatzeko aurreranzko Premiazko Neurriei buruzko ekainaren 5eko 15/1992 Legearen 3. artikulua. artikuluko 1. idazatia. idazatian aipatu diren ondare-gehikuntzei dagozkien emaitzekin osatutako salbuespenen pentzutan banatutako mozkinak.
- b) Funtzio Publikoaren Araubide Juridikoaren Eraldaketarako Zerga Neurriak onetsi zituen abenduaren 29ko 22/1993 Legearen 2. artikulua. artikuluan ezarritakoaren arabera hobaritutako etekinei dagozkien mozkinen pentzutan banatutako dibidenduek, eta azaroaren 15eko 12/1993 Foru Legearen 19. artikulua. artikuluan eta uztailearen 6ko 19/1994 Legearen bosgarren xedapen gehigarrian ezarritako hobariari lotutako sozietateetatik datozen etekinei dagozkieken edota ondorengo foru arauetan ezarritako salbuespena aplika dakiekeen sozietateei dagozkieken, Gipuzkoakoa ekainaren 36ko 11/1993, Arabakoa, uztailearen 5eko 18/1993 eta Bizkaikoa, ekainaren 24ko 5/1993.

Salbuespenen banaketa egonez gero, sozietatearen erabakiko izenez tapenari begiratuko zaio, salbuespen horiei abonatutako lehenengo kopuruak ezarritzat joko direlarik.

Bigarrena. Finantza-aktiboak eta beste balore higikor batzuei dagozkien atxikipen, eskualdaketa eta betebeharrak formalei buruzko arauak.

1. Kapital higikorrean inplizitu dauden etekinen gainean atxikitze betebeharraren ondorioetarako, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren eta Sozietateen gaineko Zergaren kontura, atxikipen hau ondorengo pertsona edo erakundeek egingo dute:
 - a) Arau bidez atxikitze betebeharra ezarrita duten finantza-aktiboen eskualdaketa edo berreskuraketan lortutako etekinetan, atxikitzaileak eragiketaren erantzuleak diren erakunde jaulkitzaileak edo finantza-erakundeak izango dira.

- b) Tituluetan dokumentatu gabeko eragiketei dagozkien eskualdaketetan lortutako etekinetan, eta finantza-erakunde bati eskatutako eskualdaketetan ere, atxikitzailea eskualdatzailearen kontura jokatzen duen banketxe, kutxa edo erakunde bat izango da.
 - c) Aurreko letretan bildu ez diren kasuetan, atxikipena egingo duen fedemaile publikoaren eskuhartzea derrigorrezkoa izango da.
2. Atxikigai diren etekin inplizitudun titulu edo aktiboen lorpenari edo besterenganaketari ekiteko, horien aurretiazko eskuraketa egiaztatu beharko da fedemaileen edo aurreko idazatian aipatutako finantza-erakundearen eskuhartzearen bidez, eta zein salneurritan burutu zen eragiketa ere.

Aurreko lerroaldearen arabera, titulua edo aktiboaren edukitzaileari berreskuraketa egin behar ez dioten eragiketen jaulkitzaileak edo finantza-erakunde erantzuleak kopuru horren araberrako gordailua eratuko dute, epai-agintaritzaren esku geratuko dena.

3. Efektu publiko, balore eta bestelako titulu eta finantza-aktiboen jaulkipen, harpidetza, eskualdaketa, truke, bihurtza, kitapen eta berreskuraketan, eta horiei buruzko eskubide errealei buruzko eragiketetan ere esku hartzen duten fedemaile publikoek Zerga Administrazioari jakinarazi beharko dizkiote eragiketa horiek, parte hartzen duten subjektuen izenen zerrenda aurkeztuz, horien helbidea eta identifikazio fiskalaren zenbakia zehaztuz eta efektu publikoen, baloreen tituluen eta aktiboen kopurua eta eragiketaren salneurria eta data ere, Ogasun eta Finantzen foru diputatuak zehazten duen ereduaren arabera.

Betebehar berbera izango dute kreditu-erakunde eta finantza-establezimenduek, balore-sozietateek eta agentziek, beste finantza-bitartekariak eta beste edozein pertsona fisiko edo juridikoa, ohiki efektu publikoen, baloreen edo bestelako titulu eta finantza-aktiboen aurkibideen eta etorkizunen bitartekoketari ekiten diotenean, edota baliabideen hartze eta ezarpenari, edozein balore edo efektu-motaren bidez.

Era berean, jakinarazpen-betebehar honi lotuta egongo dira talde-inbertsioetarako erakundearen sozietate kudeatzaileak ere, erakunde horietan dituzten akzio eta partaidetzei dagokienean..

Idazati honetan ezartzen diren jakinarazpen-betebeharrak, bertan aipatzen diren atxikipenaren pean jarritako eragiketei dagokienez, betetzat joko dira hartzaileen zerrenda aurkeztzen denean, atxikipenen urteko laburpen ofizialaren ereduari lotuta..

4. Zerga Administrazioari jakinarazi beharko diote metal eta objektu preziatuen, filateliarako balioa duten tinbreen, numismatikarako balioa duten piezen eskuraketaren ordezkartasuna duten ziurtagirien, gordeagirien edo agirien jaulkipena, ohiki horrelako baloreetan inbertitzea sustatzeari ekiten dioten pertsona fisiko eta juridikoak.

Hirugarrena. Kontseiluaren 90/434/EEE zuzentarauari buruz egiten diren aipuak.

Foru arau honetan eta beste xedapen batzuetan Kontseiluaren uztailaren 23ko 90/434/EEE zuzentarauari (estatu kide desberdinetako sozietateen artean egindako bat-egite, zatiketa, zatiketa partzial, aktiboen ekarpen eta balore-trukeei aplikatu beharreko zerga erregimen komunari buruzkoa) buruz egiten diren aipuak ulergrada tuko da Kontseiluaren urriaren 19ko 2009/133/EE zuzentaruari (estatu kide desberdinetako sozietateen artean egindako bat-egite, zatiketa, zatiketa partzial, aktiboen ekarpen eta balore trukeei aplikatu beharreko zerga erregimen komunari buruzkoa eta sozietate anonimo europar baten edo europar sozietate kooperatibo baten egoitza soziala estatu kide batetik beste batera aldatzeari buruzkoa) dagozkion manuetara egiten direla.

Laugarrena. Zenbait Zerga-kontzeptu Europako Erkidegoen Zuzentarau eta Araudiei Egokitzeari buruzko ekainaren 26ko 4/1992 Foru Arauari buruzko aipamenak. Hirilurren Balioaren Gehikuntzaren gaineko Zergaren araubidea.

1. Zenbait Zerga-kontzeptu Europako Erkidegoen Zuzentarau eta Araudiei Egokitzeari buruzko ekainaren 26ko 4/1992 Foru Arauaren 2. artikuluko 4. idazati. idazatik jarduera-adarraren definizioari eta 1. artikuluko 1. artikuluko eragiketei Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko azaroaren 9ko 7/1994 Foru Arauaren 7.1.b) artikulua egiten dien aipamenak, beti ere eragiketek foru arau honetako I. tituluan araupetutako zerga-araubiderako eskubidea dutenean, foru arau honen 90. artikulua. artikuluan definitutako bategite, banaketa, jarduera-adarren ekarpenak eta balore-trukeei eginak direla ulertuko da..
2. ...
3. Ez da Hiri-lurren Balioaren Gehikuntzaren gaineko Zerga sortuko eragiketa batzuetatik datozen hirilurren eskualdaketengatik. Eragiketa horiei aplikatu ahal zaie foru arau honen VIII. Tituluaren X. kapituluaren araupetutako araubide berezia. Salbuespen gisa aipatu behar ditugu foru arau honen 101. artikulua. artikuluan ezarritakoaren babesean ekartzen diren lurren eskualdaketak. Zerga hori ez da sortuko haiek jarduera-adar batean sartuta ez daudenean.

Lur horien geroko eskualdaketan kontutan hartuko denez, balioaren gehikuntza agerian jarria den urteen kopurua ez da eten foru arau honen VIII. Tituluaren X. kapituluaren ezarritako eragiketetatiko eskualdaketarengatik.

Bostgarrena. 1996rako moneta-zuzenketaren koefizientea

Bat. 1996. urtean hasten diren zergaldiei dagokienez, foru arau honen 15. artikuluko 11. idazatian ezarritako koefizienteak honako hauek iznago dira:

Ekitaldiak	Koefizienteak
1984ko urtarrilaren 1a baino lehenago	1,960
1984	1,780
1985	1,630
1986	1,530
1987	1,430
1988	1,370
1989	1,320
1990	1,260
1991	1,200
1992	1,150
1993	1,110
1994	1,070
1995	1,030
1996	1,000

Bi. Aurretik ezarritako koefizienteak honela aplikatuko dira:

- a) Erosketaren prezioa edo ekoizpen-kostuaren gainean, ondarea erosi edo ekoiztu den urtea aintzat harturik. Hobekuntzei aplikatzekoa den koefizientea egin diren urteari dagokiona izango da.
- b) Kontabilitateko amortizazioen gainean, egin ziren urtea aintzat harturik.

Seigarrena. Laguntzak Europako Erkidegoko nekazaritza eta arrantzaren politikari.

Sozietateen gaineko Zergaren zerga oinarrian ez dira sartuko ondorengoak direla-eta agerian jartzen diren errenta positiboak:

- a) Europar Batasunak nekazaritzako politikaren barruan esne ekoizpenari, mahastizaintzari eta madariaren, mertxikaren, nektarinaren, azukre-erremolatxaren eta azukre-kanaberaren laborantzari behin betiko uzteagatik edo bananondoak, sagarrondoak, madariondoak, mertxikondoak eta nektarinondoak erauzteagatik ematen dituen laguntzak jasotzea.
- b) Europako Erkidegoko arrantza-politikako ondorengo laguntzak jasotzea:
 - 1.a Arrantza behin betiko uztea.
 - 2.a Untzi baten arrantza jarduera behin betiko geraraztea.
 - 3.a Hirugarren herrialdeetan sozietate mistoak eratzearen ondoriozko edota eratzeko eskualdaketak.
- c) Arranuntzi bat besterenganatzea, besterenganatze-datatik urtebeteko epea igarotakoan, hori zatitzeari ekiten dionean eta arrantza jarduera gerarazteko dagokion Europako Erkidegoko laguntza jasotzen duenean.
- d) Enpresa jarduerak egiteari lotuta dauden ondare-elementuen suntsipena, bai suak, uholdeak edo hondorapenak eragindakoa, konpontzeko diren laguntza publikoak jasotzea..
- e) Fomento Ministeritzak eta Eusko Jaurlaritzako arlo horretan aginpidea duen Sailak errepide garraioa behin betiko uzteagatik emandako diru-laguntzak, laguntza emateko araudian ezarritako betekizunak betetzen dituzten garraiolariek jasotakoak badira.
- f) Abereak nahitaez hiltzeagatik kalte-ordain publikoak jasotzea abereen izurri edo gaitzen kontrako jarduketetan.

Xedapen hau ugalketarako diren abereei baino ez dagokie.

Zerga oinarrian sartuko ez den errenta kalkulatzeko kontutan hartuko dira, bai jasotako dirulaguntzen zenbatekoa edo, bestela, aurreko c) letraren kasuan, lortutako errenta eta jarduerari lotutako elementuetan gertatzen diren ondareen galerak ere. Dirulaguntza horien zenbatekoa aipatu elementuetan gertatutako galerak baino txikiagoa denean, diferentzia negatiboa zerga oinarrian sartu ahal izango da. Galerarik ez dagoenean, laguntzen zenbatekoa baino ez da kargatik libre geratuko, edota, aurreko c) letraren kasuan, lortutako errenta.

Zazpigarrena. Balantzeak eguneratzea.

Bizkaiko Foru Aldundiak, foru arau hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik lau hilabeteko epean, Balantzeen eguneratzeari buruzko Foru Arauaren proiektu bat bidaliko du Batzar Nagusietara, zeinek 1996ko abenduaren 31n enpresen kontabilitatean dauden ibilgetu materialaren elementuak eguneratu ahal izateko aukera eskainiko baitu.

Zortzigarrena. Kanarietako ekonomi eta zerga araubidea.

Bizkaiko zerga arautegiari lotuta dauden Zerga honen eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren subjektu pasiboek Kanarietako Ekonomi eta Zerga Araubideari buruzko xedapenetan bildutako neurriak erabil ditzakete indarrean sartu direnez geroko eraginez, beti

ere erabilgarri badituzte, nahiz eta autonomi erkidegoaren arautegipeko zerga itunduei dagozkienak izan.

Bederatzigarrena. Merkataritzako ontziteria eraberritzeko zerga pizgarriak.

1. Hurrengo beharkizunok betetzen dituzten itsasontzi, ontzi eta itsas gailuek amortizaziorako askatasuna izango dute xedatutako eran:

a) Ontzi, itsasontzi edo itsas gailu berriak izan eta eskuratzaillearen eskuetan 1999ko urtarrilaren 1etik 2003ko abenduaren 31ra bitartean egon daitezten, edo aldi horren barruan sinatutako eraikuntza kontratu baten ondorioz enkargatutakoak izatea, betiere eskuratzaillearen eskuetan 2006ko abenduaren 31 baino lehen jartzen badira, edo erabilitako itsasontziak izan eta 1999ko urtarrilaren 1az gero eskuratuak izan badira eta hobekuntzak egin bazaizkie, hobekuntzen zenbatekoa eskuraketa balioaren 100eko 25etik gorakoa bada eta 2003ko abenduaren 31 baino lehen egiten badira.

b) Itsasontzia, ontzia edo itsas gailua itsasontzien ikurrina jartzea, matrikulazio eta itsas erregistroari buruzko uztailaren 28ko 1.027/1989 Errege Dekretuko 4.1. artikuluko lehena, bigarren, hirugarren edo bosgarren zerrendetan inskribatzeko modukoa izatea.

c) Subjektu pasibo eskuratzailleak itsasontzia, ontzia edo itsas gailua bere jarduerari lotuz ustiatzen badu, edo bestela kasko hutsa errentamenduan jarriz, azken kasu horretan erakunde errentatzailea berdin izan daitekeela Ekonomi Intereseko Espainiar Batakunderen bat, sozietate zibilen bat –izaera juridikoduna edo hain barikoa– edo ondasun-komunitateren bat, betiere, hurrengo beharkizunok betetzen baldin badira:

a') Errentaria itsasontzi, ontzi edo itsas gailuen ustiaketa ohiko jarduera legez duen pertsona fisiko edo juridikoa izatea, eta osagaia jarduera horri lotuta egotea.

b') Araubide hori ezarriz edo ezarri gabe gertatuko liratekeen zerga sarreraren arteko aldeak eguneratu eta gero ateratakoaren 100eko 70a gutxienez errentariarengandik erabiltzailearengana aldatu behar da.

Ondore horietarako, zerga abantaila araubide hori ezarriz edo ezarri gabe gertatuko liratekeen zerga sarreraren arteko aldeak Ogasun eta Finantzen foru diputatuak zehaztuko duen tasan gaurkotu ondoren baloratuko da.

c') Erakunde errentatzailearen bazkideek hartan duten partaide-tzari eutsi egin behar diote gutxienez errentamendu kontratuaren epearen hiru herenetik bitan zehar..

d') Itsasontzi, ontzi edo itsas gailuaren eskuraketa prezioak, erabilitako finantzaketaren korritu tasak eta alojeraren zenbatekoak alderdi lokabeen arteko merkaturako ohikoak izan behar dute.

e') Aktiboaren saltzailearen eta aktiboaren errentariaren artean loturarik ez egotea.

f') Itsasontzi, ontzi edo itsas gailuaren eskuraketa finantzatzeko beharrezko baliabideen 100eko 20a gutxienez errentatzailearen fondo propioetatik etorritakoak izatea.

d) ...

e) Foru Aldundiak xedapen honetan ezarritako amortizazio prozedura ezartzeko baimena eskatu eta lortu egin behar osagaia eraiki edo hobetu baino lehen.

Hobekuntza egingo zaion itsasontziaren subjektu pasibo eskuratzailleak edo, horrela denean, itsasontziaren jabeak aurkeztuko duen eskabideak argibide hauek guztiak bildu behar ditu, gutxienez:

- a) Sozietate xedea.
 - b) Baimena eskatzen diren osagaien finantzaketaren deskripzioa.
 - c) Sozietatean parte hartzen dutenen identifikazioa.
 - d) Baimena eskatzen den itsasontzi, ontzi edo itsas gailuen eraikuntza, hobekuntza edo eskuraketan ordainduko denaren aurreikuspena, zenbatekoa.
 - e) Eskabidearen xedeko itsasontzi, ontzi edo itsas gailuen deskripzioa
 - f) Itsasontzi, ontzi edo itsas gailuak noiz jarriko diren eskura, aurreikusitako data.
 - g) Hobekuntzarik egonez gero, horien deskripzioa.
 - h) Eskabidea gehienez hiru hilabeteko epearen barruan ebatzi behar izango da eta epe igarotakoan gaitziritzizat joko da.
2. Amortizazioa hurrengo arauen arabera egingo da:
- a) Amortizazioa itsasontzia, ontzia edo itsas gailua abian jarri aurretik egin ahal izango da, funtzionamendu baldintzetan edo hobekuntza hasi aurretik, ordaindutako kopuruen muga gordeko delarik.
 - b) Benetako baliogaleraren zenbatekoa gainditzen duten kopuruen kenkaria ez da egongo baldintzatuta galera eta irabazien kontura kontabilitate mailan egotzi behar izatera. Irabazi horiek zerga oinarria gehitu egingo dute, heldu dioten osagaiaren amortizazio edo eskualdaketa onduz.
3. Finantza araubideko errentamenduko araubidean eskuratu diren itsasontzi, ontzi edo itsas gailuek foru arau honetako 116. artikulua. artikuluan xedatutakoan edo xedapen honetan xedatutako amortizazio bereziari heldu ahal izango diote, txandaka.
4. Beharkizun horiek gero betetzen ez badira, aurreko 1go idazatik c) letran aipatutako erakunde errentatzaileak xedapen honetan xedatutakoarekin bat etorri egin dituen amortizazioei dagokien ekitaldietako kuoten zenbatekoa itzuli egin beharko du, bidezko zehapan, errekargu eta berandutza korrituekin batera.
5. Xedapen honetan xedatutako amortizazio askatasuna bateragarria izango da, eskualdaketa zenbatekoan itzultutako ondare osagaiei doakielara, foru arau honetako 22 eta 52 artikuluetan xedatutako ezarpenarekin. Epe hori eskualdatutako osagaiak abian jartzen diren unetik konputatuko dira.

Hamargarrena. Alderdi politikoei, bahitutako ondasun eta eskubideak itzultzea edo konpentsatzea.

Alderdi politikoei, 1936-1939 aldiko erantzukizun politikoei buruzko arautegia ezartzean, bahitutako ondasun eta eskubideak itzultzea edo konpentsatzeari buruzko abenduaren 15eko 43/1998 Legean xedatutako ondare izaerako ondasun eta eskubideak edo diruzko konpentsazioak itzultzearen ondorioz agertutako errenta positiboak ez dira sartuko alderdi politikoen eta horiei lotutako pertsona juridikoen Sozietateen gaineko Zergaren zerga oinarrian.

Hamaikagarrena. Lege lerruneko xedapenak eta elkarlehia babesteko arautegia betetzeko egindako aktibo-eskualdaketen araubide iragankorra.

- 1. Foru arau honen 22. artikuluko 1. zenbakiko bigarren lerroaldean aipatzen diren balore-eskualdaketa egiten badira edo 2002ko urtarrilaren 1etik aurrera argitaratutako lege mailako xedapenetan ezarritako betebeharrak betetzeko, edo Europako Batzordeak nahiz Ministroen Kontseiluak enpresen baterakuntza-prozesuetan lehia babesteko arauak

aplikatuta egun horretatik aurrera hartutako erabakiak betetzeko, bada, eskualdaketo tratamendu hau emango zaie Sozietateen gaineko Zergan:

- a) Lortzen den errenta positiboa ez da sartuko zerga-oinarrian, baldin eta eskualdaketa lortutako zenbateko osoa berriro inbertitzen bada, 22. artikuluan ezarritako baldintzak betez.

Kasu hauetako edozein gertatzen den zergaldian, ordea, errenta positibo hori bai sartu behar da zerga-oinarrian: berrinbertsioaren xede diren ondasun eta eskubideak eskualdatzen direnean, edo beste edozein arrazoiengatik ondasun-eskubideoi balantzean baja ematen zaienean. Horrelako errentei foru arau honetako 22. artikuluan xedatutakoa aplikatuko zaie.

- b) Berrinbertsioa gauzatzeko eskuratzen diren ondare-elementuei, errenta positiboa kalkulatzeko soil-soilik, eskualdatutako baloreek izandako balio bera egotziko zaie. Berrinbertsioa partziala bada, balio horri zerga-oinarrian sartutako errentaren zenbatekoa gehituko zaio.

2. Espainiako Estatuak eta Portugalgo Errepublikak energia elektrikoaren merkatu iberiarra sortzeko 2004ko urriaren 1ean Konpostelako Santiagon izenpetu zuten nazioarteko hitzarmeneko 4. artikuluan aipatzen diren merkatuaren sozietate gidariei dagokienez, ez dira zerga-oinarrian sartuko egoitza Espainian duen sozietate baten akzioen eta sozietate-partaidetzen eskualdaketa ondotz agerian geratzen diren errenta positiboak, baldin eta eskualdaketa horiek merkatu hori sortzeko egin badira, eta eskualdaketa horietan jasotako kontraprestazioa —osorik edo zati batean— egoitza Portugalen duen horrelako beste sozietate baten akzioak eta sozietate-partaidetzak badira.

Kasu hauetako edozein gertatzen den zergaldian, ordea, errenta positibo horiek bai sartu behar dira zerga-oinarrian: jasotako akzioak edo partaidetzak eskualdatzen direnean; beste edozein arrazoiengatik akzio-eskubideoi balantzean baja ematen zaienean, edo azken horietan balio-zuzenketa bat egiten denean, zergan kengarria bada. Azken kasu bi horietan, bajaren edo balio-zuzenketaren zenbatekoaren proportzioan sartuko dira zerga-oinarrian.

Hamabigarrena.

1. Foru arau honetako VIII. tituluko X. kapituluaren ezarritako zerga araubide berezia aktibo eta pasiboen ondoko eskualdaketei ere aplikatuko zaie, nahiz eta 90. eta 101. artikuluetan aipatzen diren eragiketak izan ez, baldin eta emaitza ekonomikoak baliokideak badira:
 - a) Inbertsio Koefizienteei, Norberaren Baliabideei eta Finantza Bitartekarien Informazio Betebeharrei buruzko maiatzaren 25eko 13/1985 Legeko 8. artikuluko 3. idatzatiko d) letran aipatzen dena bezalako babeseko erakunde sistema bat eratzeko eta zabaltzeko egiten direnak.
 - b) Bankuak berregituratzeari eta kreditu erakunde baliabide propioak indartzeari buruzko uztailaren 26ko 9/2009 Errege Dekretu-Legeko 7. artikuluan aipatutako Bankuen Berregituraketa Ordenatua egiteko Funtzak parte hartuta, kreditu erakundeak berregituratzeko prozesuetan egiten direnak.
2. Sozietateen gaineko Zergaren oinarrian sartu gabe utz daitezke aurreko idatz-zatiko a) letran aipatzen den babeseko erakunde sistema bateko akordioak betetzeko kreditu erakunde artean egiten diren aktibo eta pasibo trukeen ondorioz gertatzen diren ondare elementuen eskualdaketei sortzen dituzten errentak, baldin eta erakunde eskuratzailerak eskuratutako elementuei eskualdaketa baino lehen erakunde eskualdatzailean eduki duten balio bera ezartzen badie eta elementuok gero sortzen dituzten errentak baloratzeko erabiltzen bada.
3. Aurrezki kutxek finantza jarduerak zeharka egiten dituzten kasuetan, aurrezki kutxen gobernu organoei eta haien araubide juridikoaren beste gai batzuei buruzko uztailaren 9ko 11/2010 Errege Dekretu-Legeko 5. artikuluan ezarri den bezala, aurrezki kutxak eta hark

finantza negozio osoa egiten dion kreditu erakundeak foru arau honetako VIII. tituluko IX. kapituluaren ezarritako zerga baterakuntzaren araubidea aplikatu ahal izango dute, baldin eta 74. artikuluan horretarako ezarritako baldintzak betetzen badituzte.

Zerga baterakuntzaren araubidea aplikatu ezean, erakundeek Zergaren araubide orokorra aplikatuko dute, ondoko idatz-zatian xedatutakoa gorabehera.

4. Finantza jarduera zeharka egiten denean, aurrezki kutxen gobernu organoei eta haien araubide juridikoaren beste gai batzuei buruzko uztailaren 9ko 11/2010 Errege Dekretu-legean ezarritakoari heldutako aurrezki kutxek obra sozialerako jartzen duten kopuruak bankuaren zerga oinarria txikitu dezake, baterakuntza araubidea aplikatu gabe, edo babeseko erakunde sistemako erakunde nagusiarena, eta txikitu ere jasotako dibidenduek guztirako sarreretan duten proportzio berean, foru honetako 23. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik (txikipenaren gehieneko zenbatekoa dibidenduena izango da).

Horretarako, kutzak txikipenaren zenbatekoa jakinarazi behar dio dibidenduak ordaindu dizkion bankuari edo erakunde nagusiari. Gainera, txikipenaren zenbatekoari aurrean aipatutako artikuluan xedatutakoa aplikatzeari uko egiten badiot, horren berri ere eman behar dio. Hala ere, kutzak aurreikusitako kopuruak jarri beharko ditu ongintzarako eta obra sozialerako artikuluan horretan bertan ezarritako baldintzekin; baldintzaren bat bete ezean, bankuari edo erakunde nagusiari jakinarazi beharko dio, kendutako kopuruak erregulariza ditzan, foru arau honetako 130. artikuluko 3. idatz-zatian ezarri den bezala.

5. Foru arau honetako laugarren xedapen gehigarriko 3. idatz-zatian ezarritakoa xedapen gehigarri honetako 1. idatz-zatian aipatutako eragiketaren ondorioz egiten diren hiri lurren eskualdaketari aplikatuko zaie.

Hamahirugarrena. Finantza-errentamenduaren kuoten urteko zenbatekoa, ondasunaren kostua berreskuratzeari dagokionez.

1. Indarrean dauden finantza-errenta-menduaren kontratuetan, baldin eta horien iraupeneko urteko epeak 2010., 2011. eta 2012. urteetan hasten badira, foru arau honen 116. artikuluko 4. paragrafoan ezarritako betekizuna ez zaio galdutako ondasunaren kostua berreskuratzeari dagokion errentamendu-kuoten zatiaren zenbatekoari.
2. Kuota horien zatiaren urteko zenbatekoak epe horietan, ezingo du ondasunaren kostuaren %50 gainditu ondasun higiezinaren kasuan, edo kostu horren %10, ondasun higiezinak edo industria-establezimenduak badira.

Hamalagarrena. Sozietateen gaineko Zergaren karga-tasa orokorra aplikatzen ez zaien kapital aldakorreko inbertsiio-sozietateek egindako kapital-txikipenak (ekarpenak itzulita) eta jaulkipen-primen banaketak.

1. Foru arau honen 15. artikuluko 4. paragrafoan xedatutakoa gorabehera, kapitalaren murriztapenetan, Sozietateen gaineko Zergaren karga-tasa orokorra aplikatzen ez zaien eta kapital aldakorreko inbertsioko sozietateek egindako ekarpena itzulita eta jaulkipen-prima banatuta, talde inbertsioko erakundearen azaroaren 4ko 35/2003 Legean araututakoetan, Sozietateen gaineko Zergaren karga-tasa orokorra aplikatzen ez zaienean, sartu beharreko errentak honako arauen arabera kalkulatu dira:
 - a) Kapitalaren murriztapenaren kasuan, ekarpenak itzulita, kapitalaren murriztapenean jasotako zenbateko osoa, ekintzen likidazio-balioaren hazkuntzaren mugarekin, eskuratu edo sinatzen direnetik harik eta kapital soziala gutxitu arte, kidearen zerga-oinarrian sartuko da, kuota osoan kenkarirako eskubiderik gabe.
 - b) Jaulkipen-prima banatuz gero, kontzeptu horregatik jasotzen den zenbatekoa edozein dela ere, hori bazkidearen zerga-oinarrian sartuko da, kuota osoan kenkarirako eskubiderik gabe.

2. Aurreko 1. paragrafoan xedatutakoa Batasuneko beste estatu batzuetan erregistratutako talde inbertsioko erakundeei (kapital aldakorreko inbertsio-sozietateen baliokide direnei) aplikatuko zaie, inbertsiogile talde murrizak direla eta dituzten mugak gorabehera, beraien akzioak eskuratzen, lagatzen edo erreskatatzen direnean. Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2009ko uztailaren 13ko 2009/65/CE Zuzentarauak (higigarrien baloreetako talde inbertsioko erakunde batzuei buruzko lege, arau eta administrazio- xedapenak koordinatu dituenak) araututako sozietateei kasu guztietan aplikatuko zaie.

Hamabosgarrena. Babes sistema instituzional bateko kreditu-erakundeek eratutako taldeen eta aurrezkikutxen finantza-jarduna zeharka egitearen ondoriozko taldeen zergabaterakuntzako araubidea.

1. Foru arau honetako VIII. tituluko IX. kapituluan ezartzen den zerga-baterakuntzako araubidea aplikatzeari dagokionez, talde bat eratzen bada eta talde horretako sozietate nagusia 1985eko maiatzaren 25eko 13/1985 Legeko 8.3.d) artikuluan aipatzen den moduko babes sistema instituzional bateko entitate zentrala bada, honako berezitasun hauek hartuko dira aintzat:
 - a) Araubide hori 2011ko ekitaldiari dagokion zergaldia hasten denetik aplikatu ahalko da, edo, zergaldia hasten denetik, babes sistema instituzionala zergaldia hasi ondoren eratzen bada. Araubide hori aplikatzeko egin beharreko aukera eta jakinarazpena egiteko —foru arau honetako 77. artikuluan aipatzen dira—, zergaldi hori amaitzen den egunera arteko epea dago. Foru arau honetako 74.2.a) artikuluko baldintzak betetzen dituzten sozietateak zergaldi horretan bertan sartuko dira taldean, baldin eta haien sozietate-kapitala ordezkatzeko duten partaidetzak, sisteman integratzeko plana betetz, entitate zentralari eman bazaizkio eta entitate horrek zergaldia amaitu arte mantentzen baditu partaidetza horiek, foru arau honetako VIII. tituluko X. kapituluan eta hamabigarren xedapen gehigarriko 1. zenbakian zehazten diren zerga-araubideen peko eragiketen bidez, eta ekarpena egiten duen kreditu-erakundearen menpeko sozietatetzat jotzen badira, azken erakunde horrek araubide berezi horretan sozietate nagusi gisa tributatzearen ondorioz.
 - b) Erakunde nagusitzat entitate zentrala duen talde fiskal batean menpeko sozietate legez integratzen diren kreditu-erakundeek erakunde nagusi gisa tributatzen badute zerga-baterakuntzako araubidean, foru arau honetako 88. artikuluan zehazten dena aplikatuko da.
 - c) Foru arau honetako 74.3 artikuluko beharkizunak bete eta erakunde nagusitzat entitate zentrala duen talde fiskal batean menpeko sozietate legez integratzen diren kreditu-erakundeek konpentsatzeko dituzten zerga-oinarri negatiboak taldearen zerga-oinarri konpentsatu ahalko dira. Konpentsazioa foru arau honetako 81.2 artikuluan ezartzen den eran egin behar da, eta muga bat egongo da: entitate zentralaren zerga-oinarri indibiduala edo entitate zentralak negozio finantzario osoa eman dion banku-erakundea, hain zuzen, baldin eta aurrezki-kutxek eta entitate zentralak, hala badagokio, ekarpena egin ondoren, ez badute jarduera ekonomikorik egiten eta haien errenta bakarrak partaide diren beste erakunde batzuen kapitalean dituzten partaidetzen ondoriozko etekinak badira. Negozio finantzarioa emateko eragiketan zenbait aktibo eta pasibo ematea eragozten duen baldintzaren bat dagoela-eta aktibo-pasibo horiek ez emateak ez dio tratamendu honi eragingo.

Aurreko guztia berdin aplikatuko da, nahiz eta banku-erakunde hori erakunde nagusitzat entitate zentrala duen taldetik kanpo geratu, bai eta taldea iraungitzen denean ere.

Foru arau honetako 88.1.b) artikuluko bigarren lerroaldean ezartzen dena aplikatu behar denean, eta, manu horretan zehazten den muga aplikatu ondoren, konpentsatzeko dagoen zerga-oinarri negatiborik geratzen bada, soberakin hori letra honetako lehenengo lerroaldean zehazten den eran konpentsatu ahalko da.

- d) Foru arau honetako 74.3 artikuluko beharkizunak bete eta erakunde nagusizat entitate zentrala duten talde fiskal batean menpeko sozietate legez integratzen diren kreditu-erakundeek oraindik aplikatu gabe dituzten kuotako kenkariak taldearen kuota osoan kendu ahalko dira. Kenkaria egiteko muga hau egongo da: entitate zentralari edo entitate zentralak negozio finantzario osoa eman dion banku-erakundeari banako zerga-araubidean dagokien muga, baldin eta aurrezki-kutxek eta entitate zentralak, hala badagokio, ekarpena egin ondoren, ez badute jarduera ekonomikorik egiten eta haien errenta bakarrak partaide diren beste erakunde batzuen kapitalean dituzten partaidetzen ondoriozko etekinak badira. Negozio finantzarioa emateko eragiketan zenbait aktibo eta pasibo ematea eragozten duen baldintzaren bat dagoela eta aktibo-pasibo horiek ez emateak ez dio tratamendu honi eragingo.

Aurreko guztia berdin aplikatuko da, nahiz eta banku-erakunde hori erakunde nagusizat entitate zentrala duen taldetik kanpo geratu, bai eta taldea iraungitzen denean ere.

Foru arau honetako 88.1.c) artikuluko bigarren lerroaldean ezartzen dena aplikatu behar denean, eta, manu horretan zehazten den muga aplikatu ondoren, aplikatzeko dagoen kenkaririk geratzen bada, soberakin hori letra honetako lehenengo lerroaldean zehazten den eran aplikatu ahalko da.

- e) Babes sistema instituzionala eratu eta handitu dela eta, kreditu-erakundeek, menpeko sozietate gisa, aktiboak eta pasiboak eskualdatzen badizkiote taldeko sozietate nagusia den entitate zentralari, eta eskualdaketa hori foru arau honetako VIII. tituluko X. kapituluaren edo hamazazpigarren xedapen gehigarriko 1. zenbakian zehazten diren zerga-araubideetan dauden eragiketen bidez egiten badira, aktibo eta pasibo horiei egozgarriak zaizkien errentak, eskualdaketa baino lehen sortuak badira, entitate zentralari egotziko zaizkio, merkataritzako arauetan zehazten denaren arabera.

Aurreko b), c) eta d) letretan zehazten dena berdin aplikatuko d, baldin eta, babes sistema instituzionala eratu ondoren, entitate zentrala zerga-baterakuntzako araubidean tributatzen duen beste talde bateko menpeko sozietate izatera igarotzen bada.

2. Kreditu-erakundeek, babes sistema instituzional bateko akordioak betez, haien artean egin dituzten aktibo eta pasiboen eskualdaketei foru arau honetako VIII. tituluko X. kapituluaren edo hamabigarren xedapen gehigarriko 2. zenbakiko zehazten diren zerga-araubideak aplikatzeko, araubide horietan bietan zenbait errenta zerga-oinarrian ez sartzei buruz adierazten dena berdin aplikatuko zaie eskualdaketa horien ondorioz talde fiskalaren zerga-oinarrian sartu beharreko errenta ezabatuei, baldin eta aktibo-pasibo horiek zerga-baterakuntzako araubidean tributatzen duen talde batekoak diren erakundeek ondarearen parte badira.
3. 2010eko uztailaren 9ko 11/2010 Errege Lege Dekretuko 5. artikulua araberan, bai aurrezki-kutxak bai kutxa horren negozio finantzario osoa jaso duen banku-erakundeak zerga-baterakuntzako araubidea (foru arau honetako VIII. tituluko IX. kapituluaren arautzen da) aplikatu ahalko dute negozioaren ekarpen hori gertatzen den ekitaldiari dagokion zergaldia hasten denetik, baldin eta foru arau honetako 74. artikuluan horretarako zehazten diren baldintzak betetzen badituzte.

Araubide hori aplikatzeko egin beharreko aukera eta jakinarazpena egiteko —foru arau honetako 77. artikuluan aipatzen dira—, zergaldi hori amaitzen den egunera arteko epea dago. Araubide hori aplikatzerakoan berezitasun hauek hartu behar dira kontuan:

- a) Foru arau honetako 74.2.a) artikuluko baldintzak betetzen dituzten sozietateak zergaldi horretan bertan sartuko dira taldean, baldin eta haien sozietate-kapitala ordezkatzeko duten partaidetzak banku-erakundeari eman bazaizkio eta erakunde horrek zergaldia amaitu arte mantentzen baditu partaidetza horiek, foru arau honetako VIII. tituluko X. kapituluaren zehazten diren zerga-araubideen peko eragiketen bidez, eta ekarpena egiten duen aurrezki-kutxaren menpeko sozietateetat jotzen badira, aurrezki-kutxa horrek araubide berezi horretan sozietate nagusi gisa tributatzearen ondorioz.

- b) Ekarpena egiten duen aurrezki-kutxak konpentsatzeko dituen zerga-oinarri negatiboak taldearen zerga-oinarrian konpentsatu ahalko dira, aurrezki-kutxaren zerga-oinarriko mugarekin, foru arau honetako 81.2 artikuluan ezarritako baldintzetan, baldin eta aurrezki-kutxa horrek, ekarpena egin ondoren, ez badu ekonomiajarduerarik egiten eta haren errenta bakarrak aurrezki-kutxa hori partaide den beste erakunde batzuen kapitalean dituen partaidetzen ondoriozko etekinak badira. Negozio finantzarioa emateko eragiketean zenbait aktibo eta pasibo ematea eragozten duen baldintzaren bat dagoela-eta aktibo-pasibo horiek ez emateak ez dio tratamendu honi eragingo.

Aurreko guztia berdin aplikatuko da, nahiz eta banku-erakunde hori erakunde nagusitzat aurrezki-kutxa duen taldetik kanpo geratu, bai eta taldea iraungitzen denean ere.

Foru arau honetako 88.1.b) artikuluko bigarren lerroaldean ezartzen dena aplikatu behar denean, eta, manu horretan zehazten den muga aplikatu ondoren, konpentsatzeko dagoen zerga-oinarri negatiborik geratzen bada, soberakin hori letra honetako lehenengo lerroaldean zehazten den eran konpentsatu ahalko da.

- c) Ekarpena egiten duen aurrezki-kutxak oraindik aplikatu gabe dituen kuotako kenkariak talde fiskalaren kuota osoan kendu ahalko dira, aurrezki-kutxari banako zerga-araubidean legokiokeen mugarekin, baldin eta aurrezki-kutxa horrek, ekarpena egin ondoren, ez badu ekonomia-jarduerarik egiten eta dituen errenta bakarrak aurrezki-kutxa hori partaide den beste erakunde batzuen kapitalean dituen partaidetzen ondoriozko etekinak badira. Negozio finantzarioa emateko eragiketean zenbait aktibo eta pasibo ematea eragozten duen baldintzaren bat dagoela-eta aktibo-pasibo horiek ez emateak ez dio tratamendu honi eragingo.

Aurreko guztia berdin aplikatuko da, nahiz eta banku-erakunde hori erakunde nagusitzat aurrezki-kutxa duen taldetik kanpo geratu, bai eta taldea iraungitzen denean ere.

Foru arau honetako 88.1.c) artikuluko bigarren lerroaldean ezartzen dena aplikatu behar denean, eta, manu horretan zehazten den muga aplikatu ondoren, aplikatzeko dagoen kenkaririk geratzen bada, soberakin hori letra honetako lehenengo lerroaldean zehazten den eran aplikatu ahalko da.

- d) Negozio finantzario osoa ekarpen gisa emateko foru arau honetako VIII. tituluko X. kapituluan ezarritako zerga-araubidean dauden eragiketak erabiltzen badira, ekarpena egin aurretik sortzen diren errentak, aktibo eta pasibo horiei egozgarriak zaizkienak, ekarpena egin baino lehen sortuak badira, entitate zentralari egotziko zaizkio, merkataritzako arauetan zehazten denaren arabera.

4. Aurreko 1. eta 3. zenbakietan aipatzen diren taldeen kasuan, taldeok zerga-baterakuntzako araudian tributatzen badute, baina aurrezki-kutxek beren finantza-jarduna zeharka egiteko erabiltzen duten banku-erakundea edo negozio finantzario osoa eman dioten banku-erakundea taldeotatik kanpo geratzen bada, foru arau honetako 88. artikuluan ezartzen dena aplikatuko da, nahiz eta talde fiskala iraungitzeko kasuetako batean egon.

Nolanahi ere, aurrezki-kutxek beren finantza-jarduna zeharka egiteko erabiltzen duten banku-erakundeak edo negozio finantzario osoa jaso duen banku-erakundeak partaidetzak baditu foru arau honetako 74.3 artikuluko baldintzak betetzen dituzten erakundeetan, eta banku-erakunde horrek zein horretarako baldintzak betetzen dituzten haren partaidetzapeko erakundeek zerga-baterakuntzako araubidea aplikatzen badute erakunde hori taldetik kanpo geratu den zergaldiaren hasieratik, baina ezabatutako emaitzak sortu dituzten eragiketetan parte hartu duten erakundeetako batzuk ez badira talde horretan integratzen, emaitza horiek ezabatutako errenta hori sortu zuen talde iraunkorraren zerga-oinarrian sartuko dira, foru arau honetako 80. artikuluan zehazten den eran. Emaitzok talde iraunkorraren zerga-oinarrian sartu ahal izateko, bai banku-erakundea parte den talde fiskaleko parte ez den beste erakundea, bai azken erakunde hori, biak, talde beraren parte izan behar dira eta talde hori Merkataritzako Kodeko 42. artikuluan aipatzen denaren

moduko talde bat izan behar da. Hain zuzen ere, talde horretan, erakunde nagusia babes sistema instituzional bateko entitate zentrala edo aurrezki-kutxa bat izan behar da, eta, kasu batean zein bestean, entitate zentral horrek finantza-erakunde bati eman behar dio negozio finantzario osoa.

Hamaseigarrena. Ondasun higiezinak alokatzea ustiapen ekonomikotzat hartzea

Foru arau honetan xedatzen denari dagokionez, ondasun higiezinak alokatzea ustiapen ekonomikotzat hartuko da, baldin eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 29ko 6/2006 Foru Arauko 24.3 artikuluan zehazten diren zirkunstantziak gertatzen badira.

Hamazazpigarrena. Enpresa emakidadunek azpiegiturak eraikitze edo eskuratzeko egindako inbertsioak.

Foru arau honetan xedatzen denari dagokionez, enpresa emakidadunak emakida-erabakiari lotutako zerbitzu publiko bat emateko azpiegiturak eraikitze edo eskuratzeko egiten dituen inbertsioak haien izaeraren arabera dagokien aktibo ez korrontetzat hartuko dira, baina azpiegitura horiek ibilgetu ukiezin edo finantza-aktibo gisa kontabilizatuta egon behar dute abenduaren 23ko EHA/3362/2010 Agindua indarrean jarri zenetik. Agindu horrek, hain zuzen ere, Kontabilitate Plan Orokorra azpiegitura publikoen enpresa emakidadunetara egokitzeko arauak onartu ziren.

XEDAPEN IRAGANKORRAK

Lehengoa. Kontabilitatez kanpoko doikuntzak.

Foru arau hau indarrean sartu orduko zergaldiei dagozkien Sozietateen gaineko Zergako zerga oinarriak zehazteko egindako kontabilitatezko doikuntzak, positiboak eta negatiboak, kontutan hartuko dira arau hori ezarri behar duten zergaldiei dagozkien zerga oinarriak zehazteko asmoz, horiek araupetu zituzten arauetan ezarritakoaren arabera.

Inoiz ez da onargarria izango errenta bera kontutan hartua ez izatea edota birritan kontutan hartua izatea, Sozietateen gaineko Zergako zerga onarria zehazteko.

Bigarrena. Hidrokarburoen ustiapenari lotutako elementuen amortizazioa.

Hidrokarburoen ikerketa eta ustiapenari buruzko 1974ko ekainaren 27ko Legearen Araudia onetsi zuen uztailaren 30eko 2.362/1976 Errege Dekretuaren 47. artikuluko B.1. idazatia. idazatian ezarritako amortizaziorako gehieneko koefizienteen arabera amortizatzen ari diren aktiboak foru arau hau indarrean sartzean, aipatu koefizienteak ezarritako amortizatu ahal izango dira, eta erabat amortizatuta egon beharko dira gehieneko 20 urteko epean, indarrean sartzen den egunetik kontatzen hasita.

Hirugarrena. Agorketa faktorerako zuzkiduretako ordaindu gabeko saldoak. 21/1974 Legearen bidez araupetutako hidrokarburoen ikerketa eta ustiaketa jarduerak.

1. Hidrokarburoen Araketa, Ikerketa eta Ustiapenerako Araubiderako Araubide Juridikoari buruzko ekainaren 27ko 21/1974 Legearen eta Meatzaritzaren Sustapenerako urtarrilaren 4ko 6/1977 Legearen itzalpean egindako agorketa faktorerako zuzkiduretarako ordaindu gabeko saldoak, foru arau hau indarrean jarri baino lehen egin badira, nor bere legean ezarritako beharkizunen eta baldintzen arabera ordaindu beharko dira behin egin zen kenkaria finkatzeko ondoretarako.
2. Foru arau honetan hidrokarburoen ikerketa eta ustiaketa jardueretarako bildu diren xedapenak Hidrokarburoen Ikerketa eta Ustiaketarako Araubide Juridikoari buruzko ekainaren 27ko 21/1974 Legearen arabera araupetuta jarraitzen duten hidrokarburoen ikerketa eta ustiaketa jardueretarako baimenduta dauden erakundeei ere ezarriko zaizkie.

Laugarrena. Berrinbertsioaren ziozko salbuespena.

1. Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 27ko 11/1984 Foru Arauak araupetutako eta arau horretako 11.8. artukulan ezarritako berrinbertsioaren ziozko salbuespenari lotutako zergaldietan egotzitako ondare-gehikuntzak artukulu horretan ezarritakoaren arabera araupetuko dira, nahiz eta berrinbertsioa foru arau hau indarrean sartu ondoren egin.
2. 1996.eko urtarrilaren bata eta foru arau hau indarrean sar dadin tartean egindako ibilgetu material edo ezmaterialen ondasunak kostubidez eskualdatu izanagatik errentak lortutako erakundeek berriz inbertitu ezker aukeran izango dute abenduaren 27ko 11/1984 Foru arauaren 11.8 artikulua edo Foru arau honen 22.a erabiltzea.

Bosgarrena. Birmoldaketa eta berrindustrializazioaren zerga-onurak.

Birmolkaketarako Errege Dekretuei lotutako subjektu pasiboek Birmoldaketa eta Berrindustrializazioari buruzko 27/1984 Legeak ezarritako zerga-onurak edukiko dira, horietan ezartzen den modura.

Seigarrena. Finantza-errentamenduak.

Foru arau hau indarrean sartu orduko burututako, eta era berean arau hau indarean sartu orduko erabiltzaileari emandako ondasunei buruzkoak diren edota indarrean sartu eta ondorengo bi urteko epean ematen diren ondasun higiezinak diren buruzkoak diren finantza-errentamenduen kontratuetan, Kreditu Erakundearen Diziplina eta Esku Hartzeari buruzko uztailaren 29ko 26/1988 Legearen zazpigarren Xedapen Gehigarrian ezarritako arauak aginduzko izango dira erabat bete arte.

Zazpigarrena. Foru arau hau indarrean sartu baino lehen eskuratutako ibilgetu ezmaterialaren merkataritzako fondoak, intsuldaketa-eskubideak eta beste elementu batzuk.

1. Foru arau honen 11. artukulu. artukuluko 6. idazatia. idazatian ezarritakoa, foru arau hau indarrean sartu baino lehen eskuratutako ibilgetu ezmaterialaren merkataritzako fondoan, marken, intsuldaketa-eskubideen eta beste elementu batzuen eskuraketaren balioari ezarri izango zaio, nahiz eta kontabilitateari dagokionez amortizatuta egon, zerga oinarria zehazteko kenduak izan ez direnean.
2. Foru arau honen 96. artukulu. artikuluko 3. idazati. idazatik bigarren lerroaldean ezarritakoa Zenbait Zerga-kontzeptu Europako Erkidegoen Zuzentarau eta Araudiei Egokitzeari buruzko ekainaren 26ko 4/1992 Foru Arauaren 10. artikulua. artikulua itzalpean burututako eragiketei ere ezarri ahal izango zaie, nahiz eta kontabilitateari dagokionez amortizazioa eginda egon.
3. Enpresen Bategiteen gaineko Zergaren Araubideari buruzko abenduaren 26ko 76/1980 Legearen itzalpean burututako eragiketetan sortutako merkataritzako fondoan amortizazioa ez da sekula gastu kengarritzat joko, merkataritzako fondo horien zenbatekoa zerga oinarrian sartzen ez bada, eta horiei dagokien kuota hobaritzen ez bada.

Zortzigarrena. Enpresen Bategiteen gaineko Zergaren Araubideari buruzko abenduaren 26ko 76/1980 Legearen itzalpeko bategiteak.

Enpresen Bategiteen gaineko Zergaren Araubideari buruzko abenduaren 26ko 76/1980 Legearen itzalpean suertatu ziren eragiketarako baten bat burutu ondoren, eta bost urte igaro baino lehen, ondasun higiezinak direnean, eta hiru urte, ondasun higikorrek direnean, ondare-elementuak eskualdatuko balira, horiek direla eta birbaloragai izanik, ez litzateke zenbatuko eskuraketaren balioan aipatu birbaloraketaren zenbatekoa, eskualdaketa lortutako benetako balioa berrinbertitzen bada foru arau honen 22. artikulua. artukulan ezarritakoaren arabera, hortxe bertan ezarritako araubidea izango delako ezartzekoa erabat.

Bederatzigarrena. Inbertsioen ziozko saldo kendu gabeak.

1. Foru arau hau indarrean sartu baino arinagoko ekitaldietan sortarazitako zerga-onurei dagozkien kendu gabeko zenbatekoak berorien arautegietan eta foru arau honen 46. artikulua. artikuluan ezarritakoaren arabera ezarriko dira.
2. Subjektu pasiboak aktibo material finkoetako inbertsioen ziozko kenkaria, Sozietateen gaineko Zergaren Araudia onetsi zuen irailaren 10eko 98bis/1985 Foru Dekretuko 188.3. artikulua. artikuluan ezarritakoaren arabera, aukeratu izan balu ordainketak egiten diren zergaldietan ezartzea, kenkaria foru arau hau indarrean sartu ondoren hasten diren eta ordainketak egiten diren zergaldietan ezarriko zatekeen, aipatutako arauan ezarritako baldintza eta betekizunekin, eta aurreko lerroaldean definitutakoa kuota likidotzat joko da.

Hamargarrena. Konpentsatzeko dauden zerga oinarri negatiboak.

2009ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten den lehen zergaldiaren hasieran konpentsatu gabe dauden zerga oinarri negatiboak foru arau honetako 24. artikuluan ezarritakoarekin bat etorri konpentsatu ahal izango dira.

Hamaikagarrena. Estatuaren edota beste edozein erakunde salbuetsiren zerga-araubidearekin berdineko arau bat dela bide salbuetsitako erakundeak.

1996ko urtarrilaren 1ean, estatuko edota beste edozein erakunde salbuetsiko zerga-araubidearekin berdineko arau bat dela bide, salbuetsita dauden erakundeek horretaz edukitzen jarraituko dute foru arau hau indarrean sartu eta ondorengo hiru urteetan hasten diren zergaldietan zehar.

Hamabigarrena. Sozietateen gaineko Zergaren Araudia onetsi zuen irailaren 10eko 98bis/1985 Foru Dekretuaren 69. artikulua. artikulua itzalpeko kaudimengabeziarako hornidurako saldoak.

1996ko urtarrilaren 1ean, Sozietateen gaineko Zergaren Araudia onetsi zuen irailaren 10eko 98bis/1985 Foru Dekretuaren 69. artikuluko 6. idazatia. idazatian araupetutako sistemaren bitartez kaudimengabezien hornidurarako fondo bat eratuta duten subjektu pasiboek data horretan dauzkaten zalantzazko kobrantzako kredituen estaldurari ezarriko diote saldoa, eta soberakina, egotekotan, erabat iraungita eta gero sortuz doazenei. Bien bitartean aipatu kredituen estaldura burutzeko zuzkidurak ez dira kengarriak izango.

Hamahirugarrena. Aitorpen bateratuaren araubidea.

1. Aitorpen bateratuaren araubidea ezargarria izan dadin lehenengo zergaldia 1996.eko urtarrilaren bata eta Fooru Arau hau argitara dadin egunaren artean badago, 77. artikulua. artikulua 1. atalzatian aipatutako erabakiak zerga-administrazioari iragartzeko epea hil bikoia izango da, argitaratze-egun horretatik hasita.
2. Foru arau hau indarrean sartzean aitorpen bateratuaren araubidea duten sozietate-multzoek hori edukitzen jarraituko dute, eta foru arau honen VIII. tituluko IX. kapituluaren dauden arauak ezarri ahal izango zaizkie.

Hamalagarrena. Finantza-eragiketen gaineko mozkinen araubide iragankorra.

1979ko urtarrilaren 1ean zerga honetan mozkinak aintzatetsita dituzten bidesaridun estraten emakidadun sozietateek berorien legeriaren eta abenduaren 27ko 11/1984 Foru Arauaren 2. idazati. idazatik hirugarren xedapen iragankorrean ezarritakoaren eta berorien garapen arauen arabera finantzaketa- eta birfinantzaketa- eragiketarako eskuratutako eskubide hori izaten jarraituko dute oraingo baldintzetan. Era berean, foru arau hau indarrean sartzen den datan Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 27ko 61/1978 Legearen 25. c) artikuluan eta Sozietateen gaineko Zergaren kuoten hobariari buruzko maiatzaren 29ko 5/1980 Errege dekretu-legearen 1. artikulua. artikuluan aipatzen den hobariaz onuratsen diren subjektu pasiboek hori berorri ezartzen jarraituko dute horri buruzko arauetan ezarritako baldintza

berberetan. Hobari hori Ekonomia eta Ogasun Ministerioak erabakitako ebazpenaren bidez, zenbait mailegu eta jesapen direla-eta udal korporazioek, autonomi erkidegoek eta estatuak ordaindu behar dituzten korrituei dagokie.

Hamabosgarrena. Talde-inbertsioko erakundeen partaidetzen zerga-balioa.

Foru arau honen 65. artikulua. artikulua aipatzen duen likidazio-balioaren soberakina kalkulatzeko, eskuraketa-baliozat joko da foru arau hau ezarri behar duten zergaldiaren lehenengo eguneko likidazio-balioa, subjektu pasiboak egun horretan dituen partaidetza eta akzioei dagokienez. Balio horren eta eskuraketaren benetako balioaren arteko diferentzia ez da eskuraketa-baliozat joko akzio edo partaidetzen eskualdaketa edo berreskuraketak eratorritako ondarearen gehikuntzak eta urripenak zehaztean.

Foru arau hau indarrean sartu aurretik lortutako mozkinetatik datozen talde-inbertsioko erakundeek banatutako dibidendu eta partaidetzeko mozkinak horien bazkide edo partaideen zerga onarrian sartuko dira. Horretarako, banatutako lehenengo salbuespenak irabazitako lehenengo mozkinekin zuzkituak izan direla ulertuko da.

Hamaseigarrena. Egunerapen kontuak.

1. Foru arau hau indarrean sartzen denetik, “1979.erako Aurrekontuen Legearen Eguneratze”, “Atzerriko aktiboen eguneratzea, 1980.erako Aurrekontuen Legea” eta “1983.erako Aurrekontuen Legearen Eguneratzea” legezko salbuespenera eskualdatuko dira, eta gerakina, egonez gero, baliatze askedun erreserbetara.
2. Eguneratutako elementuen amortizazioari dagozkion arauak ezargai izaten jarraituko dute horien iraupen baliagarria iraungi arte.

Hamazazpigarrena. Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga Bereziaren salbuespena.

Azaroaren 27ko 7/1991 Foru Arauaren laugarren xedapen gehigarriko 4. idazati. idazatik d) letran xedatutakoaren arabera, Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga Bereziaren salbuespena aintzatesita duten edota aintzatesten zaien erakunde ez-egoiliarrek foru arau hau indarrean sartu eta ondorengo ekitaldiko abenduaren 31ra arte izango dute hori.

Hamazortzigarrena. Nazioarteko ezarpen bikoitzaren ziozko kenkaria.

Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 27ko 11/1984 Foru Arauaren 29. artikulua. artikuluan ezarritako nazioarteko ezarpen bikoitzaren ziozko kenkariari dagozkion zenbateko kendugabeak, foru arau hau indarrean sartu eta gero ixten diren zergaldiei dagozkien likidazioetan ezarriko dira, aipatu artikuluan ezarritako baldintza eta betekizunekin.

Hemeretzigarrena. Ohizkanpoko mozkinen berrinbertsioa eta sozietate gardenak.

Foru Arau honetako 22. artikuluan jarritako epean ez bada berrinbertsioa egin, VIII. tituluaren VIII. kapituluan, 2002.eko abenduaren 31n indarrean zegoen idazkerearen arabera, araututako zerga gardentasuneko araudipeko erakundeei dagozkien errenten kasuan, lortutako errenta positiboak dagozkien zerga oinarriaren zatia, aipaturiko kapituluan xedatutakoarekin bat etorriz, bazkideei egotziko zaie berrinbertsioa egiteko epea amaitzen den zergaldian

Hogeigarrena. Partaidetza kontuetako dibidenduen ezarpen bikoitzaren ziozko kenkaria.

Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 27ko 11/1984 Foru Arauaren 10. b) artikuluan edota Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko azaroaren 27ko 7/1991 Foru Arauaren 37.1. artikulua. artikuluan ezarritakoaren arabera, partaide kudeatzailearen zerga oinarrian sartu diren partaide ez-kudeatzaileari dagozkion partaidetzeko kontuen emaitzak dibidenduen ezarpen bikoitzaren ziozko kenkarirako eskubidea sortuko dute, edota foru arau honen 19. artikulua. artikuluan ezarritako salbuespenerako eskubidea.

Hogeita batgarrena. Otsailaren 24ko 1/1995 Foru Arauan ezarritako ekoizpen-inbertsioetarako erreserba bereziaren gauzapena.

1. Otsailaren 24ko 1/1995 Foru Arauan ezarritakoaren ondorioz, foru arau hau ezarriko den lehenengo ekitaldian foru arau horren itzalpean zuzkituriko Ekoizpen-inbertsioetarako salbuespen berezia gauzatuz gero, eta era berean, inbertsio berberak direla-eta foru arau honen 37. artikulua. artikuluan ezarritako kenkaria ezartzeari ekiten bazaio, hau gutxitu egingo da gauzatutako inbertsioaren zenbatekoaren 100eko 40ri zuzkiduraren uneko karga tasa aplikagarria ezartzetik datorren zenbatekoan.
2. Zerga honen subjektu pasiboek 1995ean hasitako ekitaldia izan eta ixte data 1996.ean badute, otsailaren 24ko 1/1995 Foru arauaren 10. artikuluko xedapenak aplika ditzakete.

Hogeita bigarrena. Bategiteak eta zatiketak.

Ekainaren 26ko 4/1992 Foru Arauan eta horren garapen-xedapenetan ezarritakoa izango dute aginduzko, foru arau hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu orduko erabakitako bategite-eta zatiketa-eragiketek, beharrezko betekizunak betetzen dituztenean eta interesatuek hala eskatzen dutenean aipatu argitalpena egiten denetik hiru hilabete igaro baino lehen.

Dena den, interesatuek foru arau honetan ezarritako araubidea aukeratu ahal izango dute, Zerga Administrazioaren organo eskudunari jakinarazi ondoren.

Hogeita hirugarrena. Enpresa sortu berriak.

Foru arau honen 26. artikulua. artikuluan ohartemandako jaurpidea ezarri egin zaie lanean 1996.eko urtarrilaren lehenengo egunaren eta Foru Arau hau indarrean sar dadin egunaren bitartean hasi diren enpresei, artikulua berean aipatutako baldintza eta beharkizun berberekin.

Hogeita laugarrena. Inbertsioen ziozko kenkaria ekitaldi-porrot gertaturiko entitateentzat.

1995ean hasi eta 1996an itxitako ekitaldiak dituzten Zerga honen subjektu pasiboek, Ekonomi Zuzperketari Laguntzeko Fisko-Neurriei buruzko otsailaren 24ko 1/1995 Foru Arauan biltzen diren xedapenak aplikatu ahal izango dituzte 1996an itxitako lehen ekitaldian..

Hogeita bostgarrena. Kuota nahikorik ez dagoelako aplikatzeko geratu diren kenkariak.

Foru Arau honetako VII. tituluko IV., V. eta VI. kapituluetan aurreikusitako kenkariak, 2001eko urtarrilaren 1ean hasten den lehenengo zergaldiaren hasieran aplikatzeko daudenak, zergaldi horretan indarrean zegoen Foru Arau honen 46. artikulua idazketan ezarritako baldintzetan eta epean aplikatu ahal izango dira, kenkari horiek kreditatu zireneko zergaldiaren amaieratik zenbatzen hasita.

Hogeita seigarren.

Sozietateen gaineko Zergari buruzko ekainaren 26ko 3/1996 Foru Arauko VIII. tituluko VI. kapituluaren bigarren atalean ezartzen den araubidea aintzatetsita duten erakundeek eta horien bazkideek behin-behinean aplikatuko dute zerga, indarrean dauden baldintzak beteta; hain zuzen, 2005eko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietarako izango ditu ondoreak harik eta Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arau berria onetsi arte.

Hogeita zazpigarrena. Esportazio jarduerengatiko kenkaria.

Foru arau honetako 43. artikuluan ezartzen den kenkaria, 2006ko abenduaren 31n indarrean zegoen testuaren arabera, ondoko kenkari- portzentajeekin aplikatuko da:

- a) 100eko 12, 2007ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietarako.
- b) 100eko 9, 2008ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietarako.

- c) 100eko 6, 2009ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietarako.
- d) 100eko 3, 2010eko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietarako.

Xedapen iragankor honetan zehazten diren esportazio jarduerak ez dute kenkari honetarako eskubiderik emango 2001eko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietan, xedapen horretako azken leerroaldean ezarritakoa gorabehera.

Xedapen iragankor honetan ezartzen den kenkariaren eremutik kanpo egongo dira banaketa-sare bat ezarri eta ustiatzeko jarduerak Ogasun Zuzendaritza Nagusiaren ekainaren 28 20/2006 Ebazpenarekin bat; ebazpen hori Europako Batzordeak E 22/2004-Espainia estatu laguntzari buruz 2006ko martxoaren 22ko emandako erabakiaz geroztik Sozietatearen gaineko Zergan esportazio jarduerengatiko kenkaria aplikatzeko ezarritako mugei buruzkoa da.

Xedapen iragankor honetan ezartzen den kenkaria foru arau honetako IV., V. eta VI. kapituluetan ezartzen diren kenkariekin batera aplikatuko da, kontuan izanik foru arau horretako 46. artikulua, egun duen testuaren arabera, ezartzen duena xedapen iragankor honetan adierazten diren zergaldi guztietarako.

Hogeita zortzigarrena. Kentzeko dauden saldoak.

2007ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten den lehenengo zergaldiaren hasieran aplikatu gabe dauden zenbatekoak, kenkarietara eta bestelako zerga-onurei dagozkienak, zergapetze bikoitzaren ziozko kenkariak izan ezik, eta zenbateko horiek egun hori baino lehenagoko zergaldietan badute jatorria, bada, orduan, zenbateko horiek zerga bikoitzaren araudian ezartzen denaren arabera aplikatuko dira, foru arau honen 46. artikuluan zergaldi horietarako zehazten diren betekizunekin; ez da kuota-eritasunarengatik kentzen ez diren kopuruak aplikatzeko epeari dagokion betekizuna bete behar: epe hori 15 urtekoa izango da beti.

Hogeita bederatzigarrena. Ondare sozietateen zerga-oinarri negatiboak eta kentzeko dauden saldoak.

1. Ondare sozietateek ezin izango dituzte konpentsatu 2007ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietako zergaoinarriak lehenagoko beste zergaldi batzuetako zerga-oinarri negatiboekin.
2. Ondare sozietateek ezin izango dituzte aplikatu 2007ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietako zergaoinarrietan lehenagoko beste zergaldi batzuetako kentzeko dauden saldoak, kenkarietara eta bestelako zerga-onurei dagozkienak.

Hogeita hamargarrena. Ondare sozietateen araubide iragankorra. Araubide orokorreko tributazioa.

1. Zergaldia 2006aren barruan hasi eta 2007. urtean bukatzen duten ondare sozietateen zerga oinarria, hala badagokio, bi arau hauek aplikatuz zehaztuko da: foru arau hau, 2006ko abenduaren 31n indarrean zegoen testuaren arabera, eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 21eko 10/1998 Foru Araua, egun horretan amaitutako zergaldiei aplikatzekoa zaien testuaren arabera.
2. 2007ko urtarrilaren 1a baino lehenago hasitako zergaldietan ondare sozietateen araubide berezia aplikatu izan duten entitateek egun horretatik aurrera hasten diren zergaldietan hala egiteari uzten badiote, ondoko erregelak aplikatuko dira:
 - a) Sozietateak ondare sozietateen araubidearen pean tributatu zuen zergaldietan sortu ziren eta zergaldietako zerga oinarrian sartu ez ziren errentak, 2007ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten den lehenengo zergaldiari dagokion Sozietateen gaineko Zergaren zerga oinarrian sartuko dira. Ondare sozietateen araubidea aplikatuz subjektu pasiboaren zerga oinarrian sartu diren errentak ez dira berriro sartuko beren sortzapena gertatzen denean.

- b) Ondare sozietateen araubidea aplikatzekoa izan den zergaldietan sortutako zerga oinarri negatiboak, konpentsatzeke badaude 2007ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten den lehenengo zergaldiaren hasieran, foru arau honen 24. artikuluko 1. paragrafoan ezarritako baldintza eta betebeharrekin konpentsatu ahal izango dira.
 - c) Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 21eko 10/1988 Foru Arauaren 81. artikuluan azaltzen diren dibidenduen zergapetze bikoitzagatikoen kenkariak ondare sozietateen araubidea aplikatzekoa izan den zergaldietan sortuak badira eta 2007ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten den lehenengo zergaldiaren hasieran aplikatzeke badaude, orduan, kenkari horien % 50 edo % 100 aplikatu ahal izango da, foru arau honen 33. artikuluan ezarritako baldintza eta eginbeharrekin.
 - d) Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 21eko 10/1988 Foru Arauaren 78. artikuluan azaltzen diren kuota osoaren gaineko kenkariak ondare sozietateen araubidea aplikatzekoa izan den zergaldietan sortuak badira eta 2007ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten den lehenengo zergaldiaren hasieran aplikatzeke badaude, orduan, kenkari horiek foru arau honen 46. artikuluan (zergaldi horietarako testuaren arabera) ezarritako baldintza eta betebeharrekin aplikatu ahal izango dira.
3. Ondare sozietateen araubide berezia aplikatzekoa izan den zergaldietan lortutako mozkinak banatzen direnean, edozein delarik ere ondare sozietateek lortutako mozkinak banatzen dituen entitatea, banaketa egiten den garaia edo entitateei garai horretan aplikatzekoa zaien zerga araubidea, jasotako mozkinak betiere zerga oinarriaren barruan sartuko dira eta dibidenduen zergapetze bikoitzagatikoen kenkaria egiteko eskubidea emango dute, foru arau honetako 33. artikuluko 1. eta 4. paragrafoetan ezarritakoaren arabera, baldin eta jasotzailea Sozietateen gaineko Zergako subjektu pasiboa bada, edo Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergako zergaduna bada eta establezimendu iraunkorra badu.
4. Foru arau honetako 33. artikuluan ezarritakoaren arabera barne iturriko gainbalioen zergapetze bikoitza ekiditeko kenkaria ezin izango da inoiz ere aplikatu sozietateetako partaidetza eskualdatzean lortutako errentekiko, errenta horiek ondare sozietateen araubidea aplikatzekoa izan den ekitaldietan lortutako mozkinetatik datozen erreserbei badagozkie, edozein entitatearen partaidetak eskualdatzen direlarik ere, eta edozein delarik ere eskualdaketa egiten den garaia edo entitateei garai horretan aplikatzekoa zaien zerga araubidea, baldin eta jasotzailea Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergako zergaduna bada eta establezimendu iraunkorra badu.

Errenta hauek zehazterakoan, konputatu beharreko eskualda-tze balioa, gutxienez, itxitako azken balantzetik ondorioztatzen den balio teorikoa izango da, atxikita ez dauden aktiboaren kontabilitate balioaren ordezkari aktibo horiek Ondarearen gaineko Zergarako izango luketen balioa edo, txikiagoa izanez gero, merkatuko balio normala hartu eta gero.

Lehenengo lerroaldean xedatutakoa foru arau honen 33. artikuluko 3. paragrafoan azaltzen diren kasuetan ere aplikatuko da.

5. Araubide berezi honen pean tributatu zuten sozietateek informazio betebeharrak betetzen jarraitu beharko dute Sozietateen gaineko Zergari buruzko Araudia onetsi zuen ekainaren 10eko 81/1997 Foru Dekretuaren 46 bis artikuluan ezarritakoaren arabera.

Hogeita hamaikagarrena. Ondare sozietateen desegitea eta likidazioa.

1. Zenbait baldintza betetzen dituzten sozietateek desegitea eta likidatzea erabaki ahal izango dute, eta, horretarako, xedapen honetan ezartzen den zerga-araubidea aplikatuko da. Baldintzak dira:
- a) Sozietateek ondare sozietate izaera izatea, Sozietateen gaineko Zergari buruzko ekainaren 26ko 3/1996 Foru Arauko VIII. tituluko VIII. kapituluaren indarrean zegoen 2006ko abenduaren 31ko testuan ezartzen denarekin bat, 2006ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldi guztietan eta izaera hori sozietateak iraungi arte mantentzea.

- b) 2007ko urtarrilaren 1etik aurrera hasi den lehenengo zergaldiaren lehenengo sei hilabeteetan balio osoz hartzea desegitea likidazioarekin egiteko erabakia, eta erabaki horren ondoren, erabakia hartu eta hurrengo sei hilabeteen barruan, beharrezkoak diren egintza eta negozio juridiko guztiak egitea, merkataritzako araudiarekin bat, likidazio-aldian dagoen sozietatearen erregistroko idazpena deuseztatu arte.
2. Sozietateok desegin eta likidatzeak ondoko zerga-araubidea izango du:
- a) Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergatik salbuestea, Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergari buruzko martxoaren 21eko 3/1989 Foru Arauko 18. artikulua 1. paragrafoko 1. zenbakiko «sozietateen desegitea» zerga egitatea, «sozietatearen eragiketak» kontzeptua dela eta.
- b) Bazkideei hiri ondasun higiezinak esleitzen zaizkienean, ez da Hiri-Lurren Balioaren Gehikuntzaren gaineko Zerga sortuko. Higiezin horiek, ondoren, eskualdatu egiten badira, iraungitzen den sozietateak erosi zituen egunean erositzat joko dira.
- c) Desegiten den sozietatearen Sozietateen gaineko Zergaren ondorioetarako, ez da inolako errentarik sortuko Espainiako lurraldeko egoiliar diren bazkideei –pertsone fisiko nahiz juridikoak– ondasun edo eskubideak eraxekez zaizkienean.
- d) Desegiten den sozietateko bazkideen Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren, Sozietateen gaineko Zergaren edo Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren ondorioetarako:
1. Desegiten den sozietatearen kapitaleko akzio edo partaide-tzen eskuraketa-balioa edo, izatekotan, titulartasun-balioa esleitutako zorren zenbatekoan gehituko da eta esleitutako kredituen eta diruaren edo hura ordezkatzeko duen zeinuaren zenbatekoan gutxituko da.
 2. Aurreko zenbakian deskribatzen diren eragiketen emaitza negatiboa balitz, emaitza hori ondareerrenta edo –irabazitza joko da, bazkidea pertsona fisikoa edo juridikoa izatearen arabera, hurrenez hurren; edozelan ere, ondare irabaziak kalkulatzeko ez da aplikatuko Pertsona Fisikoen errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 21eko 10/1998 Foru Arauko hamaikagarren xedapen iragankorra ezartzen dena.
- Halakoetan, esleitutako kredituez, diruaz edo hura ordezkatzeko duen zeinuaz bestelako aktiboko elementuetako gainerako bakoitzaren eskuraketa-balioa zero dela hartuko da.
3. Aurreko 1. zenbakian letra horretan deskribatutako eragiketen emaitza zero edo positiboa bada, ondare-errenta edo -galera edo -irabazirik ez dagoela joko da.
- Emitza hori zero denean, esleitutako kredituez, diruaz edo hura ordezkatzeko duen zeinuaz bestelako aktiboko elementuetako gainerako bakoitzaren eskuraketa-balioa zero izango da.
- Emitza positiboa bada, esleitutako kredituez, diruaz edo hura ordezkatzeko duen zeinuaz bestelako aktiboko elementuetako gainerako bakoitzaren eskuraketa-balioa ondokoa izango da: emaitza positiboa bazkideen artean iraungitzen den sozietatearen amaierako likidazio-balantzetik ateratzen den merkatuko balioaren arabera banatuz ateratzen den balioa.
4. Bazkideari esleitutako kredituez, diruaz edo hura ordezkatzeko duen zeinuaz bestelako elementuak bazkideak sozietateak erosi zituen egunean eskuratu zituela ulertuko da; edozelan ere, ondareirabaziak kalkulatzeko ez da aplikatuko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 21eko 10/1998 Foru Arauko hamaikagarren xedapen iragankorrean ezartzen dena.

3. Desegite-prozesua likidazioarekin amaitu arte amaitzen diren zergaldietan, betiere erregistroko idazpena xedapen iragankor honetako 1. paragrafoko b) idatz-zatian adierazitako apearen barruan deuseztatzen bada, bada, orduan, ondare sozietateek zein haietako bazkideek 2006ko abenduaren 31n aplikatzekoa zen araudia aplikatzen jarraituko dute. Zergaldiotan ez da aplikatuko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 21eko 10/1998 Foru Arauko hamaikagarren xedapen iragankorrean sozietate horien akzioen edo partaidetzen eskualdaketarako ezartzen dena.

Deuseztatzea epe hori igaro denean eginez gero, araubide orokorra edo ondare sozietateen araubidea izango da aplikatzekoa, kasu bakoitzean dagokiona.

Hogeita hamabigarrena. Enpresako gizarte aurrikuspeneko sistemetara enpresak zergaldian eginiko kontribuzio edo ekarpenen gehikuntzagaratiko kenkaria.

1. 2007ko urtarrilaren 1ean hasi eta 2011ko abenduaren 31ra arteko zergaldietan, Sozietateen Zergaren subjeto pasiboek enpresako gizarte aurrikuspeneko tresnetan zergaldian egindako ekarpenen % 50eko kenkaria egin ahal izango dute kuota likidoan, gehienez ere langile bakoitzeko 200 euroko mugarekin, baldin eta Foru Arau honetan eta horren araudi-garapenean xedatutako baldintzak betetzen badituzte.
2. Hurrengoek osatzen dute kenkariaren oinarria:
 - Hartarako hitzarmen, akordio edo xedapen baliokidearen ondorenez 2007ko urtarrilaren 1az geroztik eratu daitezkeen enpresako gizarte aurrikuspeneko sistemetara enpresek eginiko kontribuzio edo ekarpen berriak.
 - Artean egon dauden gizarte aurrikuspeneko sistemetara enpresek eginiko kontribuzio edo ekarpenen gehikuntzak, betiere hitzarmen, akordio edo xedapen baliokidearen ondorenezko konpromisuetatik etorri eta aurreko urtekitaldiko kontribuzio edo ekarpenarekiko gehikuntza portzentuala badakarte.

Ez dira kenkariaren oinarrian sartuko enpleatzaileak bere borondatez eta hitzarmen, akordio edo xedapen baliokidearen bitartez itundutakoak gaindituz egindako kontribuzio edo ekarpenak.

3. Kenkari hau aplikatzerakoan, kontuan izango da Foru Arau honen 46. artikuluan xedatutakoa. Hortaz, artikulua horretan aurrikusitako kenkariaren eta Xedapen Iragankor honetan arautakoaren arteko batuketak ezin izango du gainditu Zergaren kuota likidoaren % 45a.

Hogeita hamahirugarrena. Aplikatzeko dauden kenkariak

33. artikuluko 6. idatz-zatian, 34 eta 34bis artikuluetako 4. idatzzatietan eta 46. artikuluko 2. idatz-zatian xedatutakoa ondokoei aplikatuko zaie: 2009ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten den lehen zergaldiaren hasieran aplikatzeko dauden foru arau honetako VII. tituluko II, IV, V eta VI. kapituluuetako kenkariak.

Hogeita hamalagarren xedapen iragankorra. Ustezko errenten egozketa.

Foru dekretu honen 127. artikulua 6. zenbakian arautzen den errenta-egozketa arau horretan xedatutakoaren arabera dagokion zergaldiari aplikatuko zaio, salbu eta 2013ko urtarrilaren 1a baino lehen hasitako zergaldiren bati egotzi behar izanez gero; halakoetan, data horren ostean hasten den lehen zergaldiari egotziko zaio.

Hogeita hamabosgarrena. Finantza-errentamenduko zenbait kontraturen zerga araubidea.

Foru arau honetako 116. artikulua 10. zenbakian ezarritakoari jarraituta dagokion administrazio-onarpena 2013ko urtarrilaren 1a baino lehenago hasitako zergaldiren baten izan duten ondare- elementuak 2012ko abenduaren 31n indarrean zegoen araudiaren arabera

arautuko dira aipatutako artikuluen ezarpenari dagokionez eta tonelajearen araberako itsas erakundeen jaurpideari dagonkionez.

XEDAPEN INDARGABETZAILEAK

Bakarra. Indargabetak.

Foru arau hau indarrean sartutakoan, bertan xedatutakoaren kontra joan edo esaten duten lerrun bereko edota beheragoko xedapen guztiak indargabetuta geratuko dira.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa. Gaikuntzak.

1. Bizkaiko Foru Aldundiak eta Ogasun eta Finantzen foru-diputatuak eskuespena dute, foru arau hau garatu eta beharrezkoak diren xedapenak emateko.
2. ...

Bigarrena. Indarrean jartzea.

Foru arau hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean jarriko da indarrean, 1996ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako ekitaldietarako eragina duela..

Edozelan ere, zerga-aldia 1996.eko urtarrilaren bata ostean hasi eta foru arau hau indarrean sartu baino arinago amaitu duten erakundeek aukeran izan dezakete abenduaren 27ko 11/1984 foru araua edo foru arau hau aplikatzea.